

# **Escritos de Don José María Arizmendiarieta**



## **Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak**

**Archivo Don José María Arizmendiarieta  
Edicion digital: 2008**

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

## LIBRO 13°

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

## Hitzaurrea

## Hitzaurrea

Gasteizko Apaiztegia 1933.eko 29.an berpiztu edo sortu zen Kardaberaz Bazkunaren hirugarren saila. Eskuarlean dut Kardaberaz Bazkunaren Arautegia. Bertantxe apaizgai gazte haien asmo on eta helburuak argi eta garbi agertzen dira.

Ez dakit nor idatzi zuen Arautegi hori, baina egileak hauek izan ziren: Anastasio Albizu, Serafín Esnaola, Erramun Narbaiza, Alexander Mendizabal eta José María Arizmendi-Arrieta. Gure Dn. Jose Maria leporaino sartuta ibiliko zela ziur nago.

Ez ote zetorkion denbora haietatik hainbeste "Estatuto" eta "Reglamento de Régimen Interior" egiteko zaletasuna?. Susmo hau sartu zait barrenean beste erregelamendu bat ikusi dudalako Dn. Jose Mariaren paper artean.

Beste elkarte hau erlijioso-kulturala zen eta estatutuak erdaraz eginak daude bai eskuz eta bai makinaz.

Goazen lehenbizi Kardaberaz Arautegia irakurtzera. Oso-osorik emango dizuet, baina, azpimarratu egin nahi nituzke bertan esaten diren gauza batzu:

- Mutil gazte haien zuzendaria Dn. Manuel Lekuona izan zen. Maisu ona denok dakigunez.
- "Apaiz geranian erritarrai gauzak ganoraz azaldu ta erakusteko euzkera ikasi ta al ba'da bestiei erakutsi". Horra hor Kardaberaz Bazkunaren helburu eder eta sakona.
- Bazkideek ez dute politika usainik ere ontzat emango.
- Bazkide izateko, euskara egin, eta ikasi, eta besteei irakasteko gogo bizia izan beharko dute.
- Udaldian, edo oporrak igarotzen, etxean egon arren aintzinako olerki, kondaira edo ipuinak batuko dituzte beren herrietan.

Dn. Jose Maria Kardaberaz Bazkunaren lehendakari ordezkoa izan zen eta baita idazkari ere, akta liburu edo koaderno baten ikusten denez. Lan politikak egin zituzten mutil haiek.

Duela hilabete batzu Agustin Zubikarai jaunarekin egon nintzen. "Eguna" egunkariaren 40. zenbakia eta Dn. Jose Mariaren paperak eraman nizkion, Dn. Jose Mariarenak zeintzu ziren eta zeintzu ez ziren jakin nahi nuen eta.

"Eguna" egunkarian egin zituen lanak ez dizkizuet oraingo hontan emango. Bi lantxo bakarrik aurkitu ditut "Arretxinaga" izenaz sinatuak. Ez dut uste garrantzi handirik horrek edukiko duenik, baina gauza bat aipagarria bilatu nuen Zubikarai jaunarekin eduki nuen elkarizketan. "Eguna" oso-osorik euskaraz argitaratzen zen eta 21 urteko mutil gazte batzuk egiten zuten.

Egun berean jakin nuen Jean Barbieren ipuin sorta bat Dn. Jose Mariak bizkaieraz jarria zuela. Horixe bai, emango dizuet, eta, baita beste olerkari batzuri buruz egin zituen lantxo labur batzu ere: Etchepare, Lizardi, Kirikiño, Loramendi, Dn. Jose Mariaren bihotzekoak ziren.

Dauden bezala argitaratzen ditugu. Dn. Jose Mariak lan guztiak bizkaieraz egiten zituen. Dena dela, 'rr' eta 'll' erabiliko ditugu tildearekin (').dauden hitzetan.

Gorde zituen papertxoetan apaizgai denborako kezka eta asmo on asko nabaritzen dira, bai erdaraz eta bai euskaraz. Interesgarriak direla uste dut eta beraren arima muinean sartzera ausartzen naizelako ez dut uste haserretuko denik. Gazte asmoak direnez batzu beteko zituen Dn. Jose Mariak eta beste batzuri, denori gertatzen zaigun bezala, huts egingo zien.

Espiritualitateari buruz oharrik egitea ez da beharrezkoa. Apunteak garai hartako apaiz izateko gertatzen ari zen gazte normal batenak dira. Esperientzia erlijiosora heldu zela dirudi. Apaiz izateko behar-beharrezkoa da esperientzia hortaraino heltzea, abadetzan iraun nahi duenarentzat behintzat. Horixe izaten da gogo jardunen eta nobiziaduaren helburua. Esperientzia horrekin ere nahiko zaila izaten da Jainkoaren maitasunean irautea eta gizonaren bihotzetan Jainkoaren sua pizteko indarra edukitzea.

Apaiz izateko gogo handirik ez zuela ematen du. Gurutze bati besarkatuta bezala agertzen zaigu apaiz izateko azken urratsak eman behar zituen garaian. Baina aurrera egin zuen eta apaiz jatorra eta ona izan zela esango nuke.

Euskarazko idatzietan osoagoa dela iruditzen zait. Erdarazko idatzietan gogorrago, edo "boluntarismo" hutsez jantzia ikusten dut, mamitsuagoa, leunagoa euskaraz diharduenean.

Guk zahar edo gizon heldu bezala ezagutu dugu Dn. Jose Maria, baina gaztea ere izan zen, eta indarra, sasoia, gazte usaina eta arnasa garbia nabaritzen da bere gazte denborako idazlanetan.

Liburu honen azken atalean Dn. Jose Mariak T.U. Lankiden euskaraz idatzitakoak dakarkizuegu, 1968.ean hasia dugu berriz euskaraz idazten. Nonbait konturatu zen lan horri ekin behar ziola.

Gudariak izan ziren gizonak trauma gogorra jasan izan zutela argi dago. Bilbo erori ondoren, apaiz-gaiak Seminariora itzuli ziren eta dakigunez euskerarako girorik ez zuten bilatu. Ahaztu egin behar zutela esango zieten, noski. Gerrateko lagun batzu Gasteizko kafeteri batean eserita utzi eta hor sartu ziren Seminarioan, gogo jardunak egitera gudariak izandako apaiz-gaiak. Batzuk eskontzeko atera ziren, beste batzuk apaiz izatea erabaki zuten. Baina Seminarioko giroa guztiz alderantzituta aurkitu zuten.

40.ean Arrasatera heldu zen eta bere ardurak heziketa profesionalaren bidetik joan ziren. Arrasatera etorri zenetik, ez zion euskara lanari jarraitu. Euskara ondo baino hobeto zekien. Ez nion euskarazko sermoirik inoiz entzun, eta gehienbat bere lanetan, eginkizunetan, idatzi eta eskutitzetan beti erdaraz, gaztelaniaz, mintzatzen zen. Ez daiteke hain simpleki hori esan, baina hala dirudi. Kulpa guztiak giroari bota beharrean aurkitzen gara. 1960.etik aurrera, hasi zitzaigun berriz ere zertxobait euskaraz idazten. "Lana" Kooperatiba sortu zenetik edo, berriz ere euskaragintzari ekin eta jarraitu zitzaion.

Eta T.U. Aldizkaritxoan berak sartu zituen bi horritxo hileroko euskaraz. T.U. hasierako lanak Dn. Paulo Letonarenak dira, Markinako "Gure Erritik" ere hartzen zituen artikulua batzu, bero Dn. Jose Mariak maizago ekin zion euskaraz idazteari.

Behin nik esan nion, berari kritika edo halako bat eginez, entzun nuela bere lanetan ez zuela euskaldun bezala jokatu. Min eman zion esan nionak, eta erantzun zidan berak egin zituen lanak garrantzi handikoak zirela Euskadiren etorkizunari buruz eta talde batzuk Euskadiko arazoa planteatzen zuten bezala ez zuela irtenbiderik. Arrasatera heldu zenean giro larri eta gogor batean aurkitu zela uste dut eta euskarazko lanari utzi egin zion.

Bizkaieraz egiten zuen, bizkaitarra bait zen. Euskara batuan ez zuen idazten. Berrikeria horiek oraintsu sortutakoak dira, baina ez nuke nik esango analfabetoa zenik. Nik dakidan baino askoz ere gehiago zekien eta.

Adibidez, bi zatitxo eskainiko dizkizuet ikus dezazuen bai nolakoa zen Dn. Jose Mariaren euskara eta bai erabiltzen zituen gaiak.

1973.eko Ekaina: "Lanaren indarrez, langilleen trebetasunez ekonomi maila ongarri ta aurrerapidetsuak lortu doguzanak, ez dagigun aaztu lanaren eta langilleen erakunde ta etorkizuna beste ezer baño obeto zaindu bearrekoak dirala gure artean".

1973.eko Urria: "Euskotarrok burrukalari, bulartsu ta indartsuenak izanda be burrukak irabazi baño galdu seguruago egingo ditugu. Gaurko munduan mobitu izan oi diran talde ta eskuarteak kontuan arturik ezin ukatu genike burruka ta maxinadetan erabilli izan oi diran jokabide ta tresnakin baño geiago al izan genezakena gizatasunari jagokozan indar ta jokabideen bidez: baketan burrukan baño geiago al izan genezake gure erriaren alde ta batez be gure erritarren onerako, aurrerapiderako".

Nire zalantzak izan ditut Dn. Jose Mariaren idatzia zeintzu ziren eta zeintzu ez ziren erabakitzeke. P.Letona, Juan Leibar, eta Dn. Bernardino Barrutiaren laguntzarekin aukeratu ditut.

Dn. Jose Maria garai batetan eta giro batetan bizi izan zen. Berak bere eginkizuna ederki bete zuen. Istilu handirik sortu gabe, eguneroko lanaz eta berak ahal zuena baino gehitxoago eginez, irakatsi zigun non aurki genitzakeen geure herriaren haunditasuna eta askatasuna. Eta Elkar lanean daukagu euskaldunok geure askatasuna lortzeko biderik egokiena. Lankide zeritzon T.U. aldizkariari. Hortik, lanetik eta batasunetik, datorkigu gure indarra.

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

## Euskera lantzen

## Índice

1. Cuaderno 1931 - Composiciones Vascas Euskaldunari Euskeraz
  1. Aita Gurea. Agur María. Gloria
  2. Josu Erregearen eguna
  3. Arizmendiarieta'tar Joseba Jaunari
  4. Markinako Eleiz-nagusia
  5. Josuren lenengo miraria
  6. Ugarixoak Jupiterri erregea eskatuten dotze
  7. Josuren jayotza
  8. Josu Egitora
  9. Sendi deuna Egito'n
  10. Goizeko otoitzak
  11. Solozabaldar Gotzon, nere lagun maitea
  12. Josu Getzamani'n
  13. Gizon lotsatia
  14. Miñagaz azaldu ezin doguna
  15. Munduari ez eskatu zorionik
  16. Abereak Jaungoikua darakuskube
  17. Kokotxo batzuen oturak
  18. Gixona dala ta
  19. Euskotarrok ez al dogu poz biderik?
  20. El sufrimiento y el dolor ...
  21. Esakerak
  22. Biraoak
  23. Gogaketak, zelan bizi ta zer egin
2. Kardaberaz Bazkunaren irugarren malla
3. Zerbait euskaldunatza'z eta eta euskereatzaz 1933
4. Ezin eta jarraitu 1933
5. Lizardi eta Eusko Elerti Edestiya 1933
6. Peru Ankaundi 1933
7. Egunasarra 1934
8. Gabon Eguna 1934
9. Gabon gure etxaldea 1934
10. Loramenditzaz zerbait 1934
11. Sorgiñak 1935
12. Ibil miñez 1935
13. Kirikiño 1935
14. Bernard de Echepare lenengo euskal idazlea 1936



1

## Composiciones vascas

(1)

### Aita Gurea, Agur Maria, Gloria

Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betor-gugana zure erreñua, egin bedi zure borondatea zeruanlez lurrean be. Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia, parkatu eiguzuz geure zorrak, guk geure zordunai parkatzen deutzaguzan lez, eta ez eiguzu tentaziñoan jausten itzi, baña gatzetik jagin gaizuz. Alan izan dedilla.

Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz, onetsia zara su andra guztien artian eta onetsia da zure sabeleko frutua. Santa Maria Jaungoikoaren ama, erregutu egizu gu pekatarioen alde. Amen.

Aintza Aitari eta Semeari ta Espiritu Santuari. Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Alan izan dedilla.

(2)

### Josu Erregearen eguna

Goizean jaiki giñanean kampo guztia uretan eguan. Gau guztian euria ezala geratu esan zeikian. Baña denpora ain beltza egon arren, gure biotza pozan pozes ezin zan egon.

Seita erdietan juan giñan etxe eder onen Eleiz nagusira. An, gogalkunde ostian, euki genduan Meza deuna. Apaiz-gei danok artu genduan Zeruetao Erregea, Eukaristia deritson Ikurtonean edo Sakramentuan.

Gure abeslariak abesti ederrak abestu ebezan Meza bitartean.

Ezkerrak emon ondoren Jaun oni egin euzkuzan mesediakgaitik, armusatsera juan giñen jantokira.

Onen ondoren geure gelaetara oiak egin eta gelak garbitutera. Eta zeregiñ oneik amaitu genduzenean, bederatsi ta erdietan urten genduan Gazteizko eleiz nagusira juateko.

Euria zan parra parra; aterki bakoitzaren azpian bi ta iru joan giñan bata bestiari salaka eta aterkiari tiraka.

Amarretako an giñan. Meza nagusia Pildain jaunak ezan eban, eta gure abeslariak abestu eben meza eder bat.

Mentxaka jaunak egiñ eban itzaldi sutzu eta ederra. Guztiok poz pozik entzun geuntzan.

Amabiak ziran andik urten eta etzerutz asi giñanean. Orduan, eskerrak Jaunari ez zan euririk, baña bai aize otza eta gogorra.

Ordubat laurden gutxiago zan bazkalduten aztean. Mojatxuak bazkari ederra ipiñi euzkuen. (Premiña ere bagenduan); eztarriak sikuak geunkezan eta eurek leuntutzeko eta apur bat berotzeko baltz apur batek ez zuan kalterik egingo.

Eta alan izan zan; bazkal ostian goizian alako otza egin arren ez genduan ainbeste sentituten.

Yru ta erdietan Eleiz nagusian Besperak abestu genduzan.

Eta seiretan ikas-tokira zortzirak arte.

Zortziretan apaldu eta bederatsi ta erdietan ogera, bijaramonian seiretan jaikitoko.

Onela amaitu zan gure Jaun eta Errege Josuren eguna.

(3)

### Arizmendi-arrieta'tar Joseba Jaunari. Markiña'n

Nere guraso eta anai-arreba laztanak:

Azpalditik zueri idatzi gura dotela egon naiz, baña zuek, dakizun lez ikastetxe batera juaan eran lenengo egunetan beste zeregin asko egoten dirala, orregaitik ba estotzuet lenago idatzi.

Uzte dot zuek or ondo ibiliko zariela danok, Jaunari eskerrak; eta jakin guran egongo zariela ni zelan ete nabilen.

Ez egizube ba nere ardurarik euki. Ni osasun onakin oso ondo nabill etxe eder onetan. Eta goizean, goizean Jauna artu ostean zuek gaitik Zeru eta lurren Egilleari erregututen diot Beraren eskerrakaz eta laguntasunakaz lagundu daizuela.

Ederto jaten emoten dauskube. Goizean akeita-esnea opil batekin. Bazkaria ona, basotxo bat ardorekin. Aparia ere ez txarra.

Egunik geyena ikasten igaroten dogu. Jolasteko goizean orduerdi eta arratzaldean ordu ta erdi ditugu. Eta esan leiteke egun guztian zerbait egiten gaudela.

Yrakasleak ain onak ditugu ze ixa geu baño eurak guk ikasten geyago leyatuten dira. Eta uste dot urte onetan asko ikasiko dogula.

Gorantziak Yñakiri eta Kepa'ri eta nire beste ezagunei, eta moxu asko zueri eta nire anai-arrebari.

Agur, ta ba-dakizute biotzez maite zaituela zuen seme Joseba'k

(4)

### Markiña'ko Eleiz-nagusia

Markiña'ren alde batean ikusten da etxe aundi bat. Bere ormak besteen aldian aundiak dira. Torriaren erdian dauka erlojo aundi bat, uri quztitik ikusteko modukua. Bertara juateko bide barri sabal eta ederra dago uritik.

Eta bide orretan gojazela alderdi bietan ikusten ditugu jauregi apaintzuak, baratz ederrak, loraz apainduak dituezela euren albueta.

Gero dator zelai lau ta zabal bat. Zugatz batzuk ere badira zelai orretan. Bere eskuman dago erreka txiki baña garbi bat. Aurrean Artzipreste jaunaren etxea. Atzean Gaitan'en jauregia eta beste aldean, eskerrean Eleiza. Eleizpea zabala da, losa zabal ederreskua bere azpia. Eskumako alderdian dausko ater bat, atzian beste bat.

Eleiz barrua aundia da. Bederatzi altare ditu. Nagusia urre goriz estalduba.

(5)

### Josu'ren lenengo miraria

Aldi aretan Josu bere Ama eta irakasliakin Canaanko bere senideak euren estegurako konbidau ebezan. Juan ziran ba. Baskari erdian egozala ardua amaitu zan. Senar emazte gazteak larritu ziran.

Eta orduan Miren bere Seme maitearengana juaan zan eta esan eutzon:

- Josu, ardoa amaitu da eta ain barik dagoz.

Josuk erantzun eutzon:

- Zuri eta Neri, zer dousku ba?

Baña Miren augaitik juan zan etxe aretako otzeiñengana eta esan eutzen:

- Joan zaite Josu'gana eta egizube Beran esana

Eta Josu errukiturik senar-emazte aren larritasunakaz esan eutzen otzeiñari:

- Urakaz bete egizubez ontzi orrek eta gero ekarri egizuez Neregana

Alan egin eben. Bere aurrean utzi zituenian, onetsi ebazan Josu'k eta urakaz betetako ontzi arek ardo biurtu ziran.

Otzeiñak orduan maiko nagusiari eruan eutzen ardo ura. Eran eban onek apur bat zelakua zegoan ikusteko. Ez zekian Josu'ren miraria; eta esan eutzen nagusi onek senar-emazte gaste areri:

- Zergaitik gorde dozu azkenerako ardo ohea? Ez aldakizute lenengo ohea ekartzen dala eta gero, danak naikoa eranda dagozanean, txarragoa?

Jakin ebenian eztegu aretan ziranak Josu'ren miraria danak Beroni siñestuten eta jarraitzen asi ziran.

(6)

### Ugarazixoak Jupiter'i erregea eskatuten dotze

Ugarazixoak errege barik zegozan, eta Jupiter'i errege bat bialtzeko erregutu eutzen. Baña onek lenengotan ez zotzen jaramonik egin.

Baña alako baten aspertuta aren erreguakin, egur bat erregetzat bota autzen.

Lenengotan bildur aundia izan eutzen, baña apurka apurka galdu eben bildur ori eta asi ziran erregearengana urreratzen eta ikusi ebenian arek ez ebala ezertxo be egiten bere gaiñera igon eben danak eta aintxe egin zituezan euren asmo eta eginbear danak.

Gero barrero asi ziran Jupiter'i erregea eskatuten ura ez zala erregea ta.

Eta orduan Jupiterrek guztiz iraindua eta amorratuta bota eutzen ziraun aundi eta ikaragarri bat. Au asi zan danak iruntziten.

Ugarazixo gaixoak estutuz eta negarrez erregutu eutsen Jupiter'i errege ura kentzeko.

Baña dana alperrik izan zan, onek ez eutzen entzun.

Egun gutxi baño lenago bat ere ez zan agiri. Ziraunak danak iruntzi zituan bat ere utzi barik.

(7)

### Josu'ren jayotza

Belengo uritxoa dana lagunez beteta egoan, eta Joseba eta Miren lenengo euren senideengana juan ziren ostatu eske, baña onek ez eutzen emon. Gero juan ziran beste etxe batzuetara, baña ain txiroak eta landerrak zirala ikusirik ez eutzen onek be emon gura izen. Gaba zan eta jakiñik gau artan jayo biar ebala Jaungoikoaren Seme-Bakarra, estalpe edo txabola zar baten geratu ziran.

Negu gorriaren gau erdian jayo da Josu Jaungoikoaren Semea. Otzak dardart dauko. Bere Amak mantel garbi eta txuri batzuetan batutendau. Eztauka seaskarik eta aska baten ipinten

dau, lasto batzuk bigungarri dituala. Ydi batek eta beste astotxo baten berotuten dabe euren arnaseagaz.

Zeruko aingerutxoak Belen'go artzaiñek aitzen ematen dotze Jaungoikoaren Semea jayo dala eta juateko txabolara eta gurtutzeko.

Eta aldetendabe andik abestuten danak "Gloria in Excelsis Deoetinterra pax hominibus bonae voluntatis". Goyetan Jaungoikoa'ri aintza eta ludian onginaieko gizonei gentza.

(8)

## Josu Egito'ra

Yru errege Maguak Josu gurtu ebanien Herodes'en esanari jaramonik egin barik, aingeruak ezan eutzen lez, beste bide batetik joan ziran euren lurrera.

Herodes zain egon zan noiz etorriko ete ziran, bera juateko eta ilteko Jaungoikoa'ren Semea eta Judea'ren erregea zala ta jayo zan Umetxoa. Bildurra eukan ba, Judearren Bakalduntza onek kenduko ete otzen. Baña Magoak ez zirala agiri ikusi ebanian, bere gudariei agindu eutzen Belen'go uritxuko urte bitik berako ume guztiak ilteko, onela Judearren errege jayo-berria ere ilgo ebelakuan.

Gau erdian Joseba donetsuari agertu jakon aingeru bat eta onek azaldu eutzon Herodes gaistoaren asmo txarra onela:

- Joseba, jaiki zaitez, artu egizu Umetxoa eta bere Ama eta albait ariñen zoaz Egito'ra. Herodes madarikatuak Umea iltea nai du ta

Au entzun ebanian Joseba jaiki zan eta gertatu ebazan bere gausatxoak. Ypiñi eban astotxoa eta onen gaiñian bere emaztea, Miren, Ume Josu altxoan ebala eta irten zuan, gaua otza eta baltza izan arren Goiko Jaunaren naia betetera. Taka-taka, isil xamar duaz. Umetxoa Amakutunaren altzoan erdi lo eta ixil ixilik Josebak laintzin arre diartxo bat egiten dio astoari.

Eguna argitu ta geroago bide-kurutz bat aurkitu eben. Ez zekien nora juan. Baña an alboko solo baten ikusi eben gizon bat garia eraiten. Eta eurenganatz etorri zanian Josebak esan eutzon au:

- Egun on, gizon
- Baita zeuei ere, erantzun eutzon langilleak
- Ezango zeuzkida mesedez zein dan emen Egitorako bidea?
- Orixe, eskumakua.
- Ba laister allegatuko ete gara?
- Ez oraindik bide zatia daukezu
- Eskerrik askorek ez dotzugu ematen, baña zu etorri zaitez biar ona garia ebatera itayagaz.

Agurj.

Au entzun ebanian lugiña oso ikaratuta geratu zan. Sendi deunak aurrera jarraitu eban.

Biaramonian goizean goizago etorri zan lugiña itayagaz eta an gari ederra ikusi ebanian ikaratuta geratu zan nortzuk izan ete ziran arek pentzatzen. Gero ekin eutzon gari ebaten.

Ekiñalki bat egin ostean atzedan egiteko orma ganean jarri zan. Alan eguala zaldiren batzun perra otsa entzun eban. Begiratu eban alde guzietara baña ez eban ezer ikusi geruago eta aundigua zan otsa gerotxuago an ikusi zituan gudari bi zaldi eder biren gaiñean. Eta beran ondora ziranean batera batera geratu ziran.

- Kaixio, gizon-esan eutzan batak

- Kaixio, zuek be emendik?.
- Bai. Ikusi al dezu zuk emen inor pasetan?.
- Emen?. Bai oraintxe dala lentxu, gizon bat umeagaz eta emazteagaz
- Noiz, baña?.
- Ba neu auxe garian ereiten babilleta.

Batak bestiari orduan itz batzuk egin eutzesan eta gizon oni agur egiñ ostean, atzera etorri ziran bidetik juan ziran.

Gizonak garia ebaten jarraitu eutzon.

Gudariak atzera Belen'era juan eta an ere bille ibili ziran baña dana alperrik.

Josu, Miren eta joseba Egiton bakean eta ondo egon ziran Zeruko aingeru batek Herodes gaiztoa il zala eta atzera euren lurrera juan leikela esan arte.

(9)

### Sendi deuna Egito'n

Bide eta giro txar askoren ostean euren astotxakaz, alako baten eldu ziran Egitora. An ere negua zan eta egualdi oso txarrak egiten zituan. Etxerik ez euken.

Beste lurralde aretako sendi onartsu baten etxian gelditu ziran.

An alboratxuago eguan iñor bizi ezan txabola zartxo bat. Eta Miren dontsuari gomutatu jakon etxe zar ura attondutia, Joseba'k arotza zan eta, apurka-apurka ipini eta apaindu zuan apurtxo bat. Aurrean baratz txiki bat ere jarri zuan.

Attondu osten oneratu ziran Miren eta Josu. Umetxoa ere bere aita-ordezkoakin. Etxeari "Jauregitxo" izena ipini eutzen.

Baña egurra amaitu jakuen. Negu beltzaren erdian egoazan. Nora jo?.

Mastiak, garai oretan oidan lez, gorri, oririk gabe ogoazan.

Eguardi oste baten urten eban Joseba'k egur billa. Masti batera eldu zan eta an aurkitu eban mastti jaubea.

- Arratsalde on esan eutzan josebak
- Baita euri ere burutik anketaño begiratuaz erantzun eutzan mastti jaubeak.
- Gizon, mesedetxo bat egingo zeuzkida?.
- Zer dok mesede ori?. esaidak, agudo, itzketarako etxoakat eta.
- Matsadartxo batzuek emango bazeuzkidaz. Ba emastea eta umetxoa otzak ..
- Ze emaste eta umetxo, nik etxokadat ijituentzat egurrik Egin biarra eta alera.
- Baiña, gixona, ez daukagu guk emen lurrik eta ...
- Alde egidak begien aurretik len be esan euat ez daukadala gogorik itzketarako..

Eta au esan ostean begirakune itzal bat egiñakaz beste aldera begira jarri zan.

Joseba'k ixil-ixilik aurrera jarraitu zuan.

Eldu zan beste masti batera eta an aurkitu zituan gizon bat eta beste umetxo bat.

Gizon onek ikusi eban leintxe onela agurtu eban:

- Kaixio gizon. Norako usteagaz urten dozu.

(10)

## Goizeko Otoitzak

Nere Jaun eta Jaungoikua. Egi utseziña, biotzperatasun amaigabea, ontazun utsa eta zariana zarialako, nik sinesten dot, itxadoten dot, gauza guztien gañetik maita zaitut eta damu, dot biotz-biotzez zu iraindua.

Eskerrak, Jauna, irazan, biresosi eta kristau egon nozulako eta orain arte zaindu nozulako. Batez bere eskerrak, Jauna, ain errez, apaizak biardaben deuntasuna, lortu nainken apaiztetxe onetara ekarri nozulako.

Artu egizuz Jauna eta izan beitez zure aintzarako eta onerako nere gaurko oldozkai, itz, egikun eta min guztiak. Onela irabaziaz alditudan nekaska guztiak garbitokiko arima gaitik eta nere eta ludiko obenen ordaintzat; otoi egiñaz Doipuruarren asmoak gaitik.

Ez egizu utzi, aita laztana, nik gaur zu iraindu zaidazala; arerioen lakiotatik azkatu nagizu eta emon egidazu indarra oben bidetik alde egiteko eta nere griña nagusia menperatuteko. Siñesmenak agintzen duan erara gura dot bizi eta il. Onela bizitza onetan zure otzein izan eta gero zuregaz betiko bizitzan aurkitu. Onela izan bedi, nere Josukristo Jaunaren irabaziakgaitik. Beranakin gura dot neuriak batu. Eta miren beti guzkarbiaren, bere senar garbiaren, nere aingeru agolearen, nere izeneko deunaren eta beste guztien bitartez.

(11)

### Solozabal'dar Gotzon, nere lagun maitea

Iraillaren 24'garrena zan. Zerua garbi-garbia eguan eta goiz goizetik, eguzki ederra.

Mertzedeko Ama kitunaren eguna. Eta Markina'n Jaupa Nagusirako batu giñan Markina'ko eta Etxebarriko apaizgayok.

Jaupa ostian aintxe erabagi genduan arratsaldean gure lagun laztan eta amite Gotzon ikertu biar genduala. Baita agurtu be; urrian zan ba Gazteiz'era etorteko eguna Gotzon Gazteiz'tik jua eta zortzi egun barru gexotu zan. Eta uda guzian ogean dago. Ez da izan Saturrararen'en.

Berau Iturreta deritxon Markina'ko mendi baten bizi da, baserrietxe polit baten.

Zortzi egunetik zortzira ikertuten izan dogu.

Osagilla asko izan ditu, baña alperrik.

Arratsaldeko iruretako Barinagan batutari erabagi dogu.

Yrurak eta bost ziran Barinagan urten genduan.

Yiru eta erdietan eldu giñan Gotzon'en baserri etxera.

Bere ama aurkitu genduan etxien (Aita orain bost illabete il jakon G.B.).

Eskaretsian amagaz izketan gengoza eta etori jakun bere arreba eta onek aitzen eman eutzon Gotzon'i gu an gengoza.

Gerotxuago baguaz bere gexo gelara.

- Arratsalde on, Gotzon.

- Baita zuei be. Eskerrik asko etorri zarialako eta nigaz, ainbeste gogoratuten zarialako.

- Zer gure dok ba gutxiago, lagunak lagunakaz maitea maiteagaz, gogoratzia baño?.

- Eta zelan ago ba?.

- Ni len leintxe eto txartuago Jagi eta eskalera orek jaxteko beste banintz?.

- Egingo aiz Jauna'k gura jok oin orixe.

- Bai, egiya. Berak gura jok eta onegaz alaitzen nok.

Ygartzen jako eta ezagun da itzketan nekatuten dana. Arpegia zuri-zuria dauko, begi bata apuribat puztuta. Biotzaren taupadak ganeko izera eta abar goratuten ditue. Albait ariñen agurtu biar dogu. Agurtu ... eta nere biotz belarrietan esan leike, entzuten dotela, agurtu egizu, ez urrengo zatozera'ño ez Gabonek arte, Egun Aundirarte, betiko ludi onetan.

Baña nola nik agurtu betiko Gotzon, gaste-gastetatik ume-umetatik nire laguna izan dan eta Gazteiz'en nigaz ain alai ibilli dan au?. Nola erdibituko dot biotza?.

Alperrik da.

Gotzon'ek diñost. Nere Gazteiz'ko lagunei gorantzian eta ogean egonarren asko gomutaten nazala eurakin eta eurak be otoi egin daixela nigaitik.

- Bai, egingo juagu, ez euki ardurarik. Demborie aurrera juak eta eginkizun batzuk egin bearra jaukau eta juan egin biar juagu. Egongo gintzakezak igaz emen gau eta egun pozik baña ...

- Ez zaitez nigaz astu.

- Ez ta eu be gugaz, Agur Gotzon, agur-diñotzagu begietan negarra dogula.

- Agur diñosku berak, begi biak malkoz beterik dituala.

Gu Gazteiz'era etorri eta biaramonian emon doutzez eleizakoak.

Sukarrak erretzen dauko.

Urrilaren bian bete ditu amazortzi urte.

Egunak baduaz eta ango barriak diñoskue geruago eta txartuago duala.

Yllaren amabian Pilar'eko Ama'ren eguna Jai daukogu.

Eta pelota-tokian gengozala Markelino Jaunak deitu deusku.

Berbertan bururatu jatan zerizango zan.

Gotzon il da.

Pilar'eko Amak eruan eban zerura, illaren amaikako amabietan Pilar'eko Amaren eguna, asten zen bitartian egun ura berekin zeruan igaro egian.

Benetan maite eban Gotzon'ek Zeruko Ama eta beregan eukan bere uste guztia.

(12)

Josu Getxemani'n

- ¡Patxi, Patxi ...!

- Zer?.

- Aittittak beieri azpiak arin egiten badautzaguez, ipuin polit bat edestuko douskula.

- Yk, Gorriari, Apalari eta Txuriri egiten badautzek, nik Txikiri eta txal txikiari egingo jotzet.

- Eta, astuari?. ...

- Astuari ... zotz txikiagua, ateraten dabenak.

- Egik ba, zotza

- Ointxe... Amen; atera egik

- Aundiagua

- Ez, au dok aundiago.

- Baita. Bueno guazen.

- Aittitta, egin ditugu.

- Eta Joxe, nun dok ba?.



- Astuari egiten geratu da; badator.
- Ondo egin dituzu gero?.
- Bai, aittitta.
- Eta orain ...
- Ypuña
- Ez dakit ba ...
- Bai aittitta, luzia eta polita, biar asko egingodogue eta
- Bueno ba. Gura dozue entzun nola Josu Judeoarrak lotu eben Jetsemaniko baratzian?.
- Bai, bai.
- Tira ba. Jarri su arkan, batori basterretik eta bestea ementxe.

Josu bere ikaslekin apaldu ondoan.

- Badakizute zer egiñ eban azkeneko aparian?
- Bere gorputza jateko emon bere ikaslei eta Eukaristia deritxaion ikortun donea egiñ.
- Ondo dago. Gauba igarotera baratz batera joan zan bere ikaslekin.

An otoitz egiñ eban. Ikasleak laister lukartu ziran Josu'k otoitz egiteko esan arren.

Josu'k otoitzean zegola odola izarditu eban. Otoitzean ludiko oben guztiak, egiñak, egiten egoazanak eta egitekoak aurrian jarri jakozan.

Ikusten eban Judas bera saltzen nola ebilen; baita bere nekauste edo pasiño'ko tormentu guztiak ere ¿badakizute zergaitik?

- Jaungoikuak, guztia, dakialako eta dan-dana ikusten dabelako.

- Bakarrik gau-txorien "uju" baltz eta ikaragarria entzuten zan. Lagundun bakartatea otoitza amaitu baño len Judas'ek saldu eban eta betorren bere billa. Ez bakarrik, gudariekin baño. Badezpadan, esagututen eban Judas'ek kepa bulartsua eta.

Otoitz egin ostean badator Josu ikasleak lo egoazan tokiruntz; goitik bera errekonduartz argidunak datoz. Mordua dira; lastamoltzuek dakarrez eskuetan. Ilargia egoan, baño lastamoltzuekin etozan basoa oso zarratua eta illuna zalako.

Josu Apostoluengana eldu orduko, argidunak erreka igaro eta gorutz asi ziran.

Ondo ekian Josu'k nortzuk ziran; ez da ikaratutzen.

- Eta, zergaitik ez eban Josu'k igas egin?
- Itxaron, gero esango dautzuet.

Iskilluen otza eta barbarua entzuten da; urrian dira. Judas'ek bekian nun lo egiten eban Josu'k beste egunetan. Eta gudariei berak mosu egiten eutzona lotuteko esanda, aurreratu zan. Itzartu situan Josu'k Apostoluak eta eurekin izketan egoala eldu zan Judas; eta besarkatuaz batera mosu egiñ eutzon Josu'k, beti lez, arpegi ona eta alaia ipiñi eutzan eta laguna deitu. Urrian ziran judearrak eta ikusi eben zugatz adar bitartetik zein zan Judas'ek mosutu ebana.

Bainta Josu'k ere ikusi ebazan gudariak eta ikaratu gabe eurenganutz juan zan eta ¿noren bila zatoze, nor gura dozube?, itandu eutzen.

- Nazarendar Josu gura dogu -
- Neu naz; amen-

Au entzutian guztiak bat-batera lurrera jausi ziran.

- Ondo, ondo; besterik ez eben merezi ¿ezta aittitta?.
- Baña Josu'k jagiteko agindu eutzen, ala egiñ ere. Berriro Josu'k.
- Noren bila zatoze, nor gura dozue?.
- Nazarendar Josu-

- Neu naz-eta bigarrenez guztiak jausi ziran. Baña Josu'k jagiteko agindu ondoren, jagi ziran.

- Zergaitik jagiteko esan eutzen ba?

- Josu'k guganako maitasuna bere nekauste donearen bitartez erakustia gura ebalako, maiteok-

- Orduan gudarieri Josu'k amen nautzazu -esan eutzen- baña itxi bakean nere ikaslei.

Au esan leintxe, gudariak lotu eutzezan Josu'ri esku biak; baña Josu'ren eskuak lotzen ebiltzan bati kepa'k bere espatitakin belarri bat ebagi eutzon.

- Ondo, ondo; biak ebagi leutzazan obeto-

- Baña Josu'k belarria ikutuaz bakarrrik osatu eutzan. Danen artian, artu eben eta batak tira eta besteak burlaka, batzuk saka eta beste batzuk saka eta beste batzuk ostikoka, Jerusalemara ala eruan eben.

- Josu, gixajoa.

- Baña badakizute zergaitik au danau?. Gure obenak gaitik. Berba zatarrak esate gaitik; amaren eta aitaren esanik ez egite gaitik; gure txarkeri guztiak gaitik. Onak izango zara emendik aurrera?.

- Bai, aitita, bai.

- Joxé, Joxé, etorri ari ona argi egitera.

- Ni ez, ama, Patxik egingo dau.

- Nik ez; euri esan deuk lenengo

- Baña ¿zer da au?. Ez dozue esan emendik aurrera onak izango zariala?

- Bai aitita, astu egin jata eta ... Banoia

(13)

### Gizon lotsatia

Jainkuarena azena esaten eta eure burua jainkoaren moxrroi adierazoten lotsatu egiten az?. Norena az ba?. Tximinuen semea ezerezarena?. Ori esaten eta adierasoten ez az lotsatzen?.

(14)

### Miñagaz azaldu ezin doguna

Negar malkuakaz edo barre aldagaz azaldu daikegu.

(15)

### Munduari ez eskatu zorionik

Edozeri emon ezin daikiguna eskatzen ba dautsogu, beti izango dogu atsekabea, zentxarra. Munduari ez eskatu zorionik, eskatzen ba-doutzozu ta zain ba zagoz zintxarra atsekabea izango dozu.

(16)

[18]

## Abereak Jaingoikua darakuskube

Bai, ez barrerik egin, aberetxuak gure gain norbait ba dala diñuskue.

Alderdi guztietan eta izaki guztiak ari jakuz beti esaten Jaingoikua badala. Geuk geure barrura begiratzen badogu eta geure asmoak aztertzen badakigu ere ikusiko dogu.

Naita naiez gura ditugu gauza batzuek. Gure adimenaren gain beste adimenik ez palitz gure adimena askea izango litzake. Ez luke besarkatuko gura ez luken egirik; gure naimenak traba orretzek ditu. Beti zorionaren eta onaren bila dabil eta gura nai guraez zoriona bilatuko dau. Baña geure barrena astertutea geure geure barruan sartzen zailtxua agiten jaku.

Eta euren barruan sartu gura ez dabe gizonak eurak ez dutela Jaingoikorik ikusten esango dauskube.

Euren bururazko gauzarik ez dabe nai, kampotiko guztia bayetz baña. Eta orregaitik kampotizko eta edozeinek ikusteko gauzak azalduko doguz. "*Nik ikusten ez dotenik ez dot siñestuko*" esaten dabe askok. Eta Jaingoikua ere ikusten ezpadot ez dot sinesten danik. Baña gizon orrek ikusten badabe aritz aundi bat bere adarrak ausita dituala; axe edo iñastarri edo beste onakoren batek egin duela esango dabe. Ikusi aldabe nork egin daben triskantza?. Ez baña berez ez dala ezer egiten ba dakie eta orregaitik zerbait izan dabela aritz arek esaten dabe.

Eta guk ikusten ba-ditugu edo ezagutzen badoguz Jaingoikoak izan ezik bestek egin ezin leitekezan gauzaren batzuk badala esan bearko dogu norbait gure gain.

(17)

## Nokotxo batzuen oiturak

Oitura jakingarri asko ditue abereak eta batez be kokotxoak. Euren geroko bearrak argiro ikasten dituela esan leike. Gizonak emendik urte batera edo bira, edo bere zartzaroan zeren bearrak izango daben ez daki.

Ostera akerraga (erderaz capricornio) diritxaiogun kokotxuak bere etorkizuna, iñor be ezer esan edo erakutsi бага ikusten du.

Aritz-azalpean jartzen dau arrantzatxua. Urte bete barru arrautza aretatik mozorro (lana) txiki eta zuri itxusitxu batek urtengo dau. Ikumena eta gozamina beste almenik ez dauka matelezur aundiak eta gogorrrak daukaz, beste bere soin guztia bigun eta makala izan arren. Eta jaixobarri asten da egur gogorra jaten eta janaz janaz zuloa egiñaz eta aritz barruan sartzen doya, orrretara txorien bildurrik be ez dauka. Lodituaz eta zabalduaz doya eta orrrelantxe berak egiten daben zuloa be geruago eta aundiagoa da. Aritzen bat erditik ebagita edo ikusi badozute, ikusi izango dozuez zulo orrek. Urte bi igaroten ditu egurra jan ta jan. Baina koko biurtzeko ordua elduten jako. Urbe betr igaro biar dau lotan, geldi, ikararik barik. Koko biurtetekuan.

(18)

## Gixona dala ta

Gixona, txikiya bestian aundiya, Jainkua'gandik narraska ibili ezindako zomorro ta ikusten eztoguzan bixidun txatxarrengañariko guztiakin dauka zerikusiren bat.

Bere bizitza laburra dalarik, betikotasunak sarri larritu oi-dau bere barruba. Eta kristau ikasbideak diñonez ludiko izakirik bikañena ta goranguena izan arren, bere ludi onetako egonaldia arantzas josia, arduraz, miñez ta zorigaiztoz betia ta lurrez gañezka dakusgunian, gixona dala ludiko izakerik errukarriena esan daikegu. Ludirako joyata ez ixan mozpait.

Nuntarra eta norakuba-ete?. Luditarra, luditik datorrena eta ludirako datorrena azkok gaur be diñuenez. Jainkotarra, Jainkuagatik, Jainkoarena itzultzekotan etorri dana, beste askoren ustez. Begiak itxi, belarriak zarratu ta eskuak loturik geure barrura itzultzen ba gara, geure barruban geronen gogo-unetan indar bi ezagutuko doguz. Bata edozelan be luditarra, ludian asiera daukana ta ludian amaituko dana; egunen baten lurrutuko dana. Lurrak bakarrik beteko dau, lurretik datorkiyonak ase be. Bestia ostera luditarra ezin ixan daike, lurra baño goragoko mallakuba da-ta. Larrak esnerik edo matsik emon ezin dabenez, lurrak be ez gogorik. Luditarra ez dala esan dogu. Ludian bere azkena ixaterik be eztau nai. Bere zorion-intziriak lurrak ezin ixildu, bere betikotasun nai ta gurari, indartsuba ta sutxuba, lurrak ezin itzali, lurrak, aldikorra ta arantzaz josia ixaki ezin aren betikotasun ta zorion gosia ta egarria bete ta ase. Auxe da gixona bikotxa. Batak berata bestiak gora, asarre ta guda gogorran beti bere egun guztietan bere barruan ondo nabaitzen dau.

Gauda gogorrian beti dirauala esan dogu. Guda orretan guda zuzena zein aldez direna ete da goitarrena ala luditarrrena. Zeinek irabaziko ete?.

Guda zuzena ta egiazkua luditarrak dagitela askok diñue. Eta alderdi luditarrak diñoskubena egia; berari jarraitu biarra dogula. Zergaitik?. Zergaitik?. Luditarra ta luditik datorrena dalako. Eta beste alderdiori nolako edo alako zurundiño bat baño ez ei da.

Eta noz sortu eta zan ba gixona?. Ludiagaz batian?. Ez. Batzuk diñobenez betikua ei-da ludia be bai. Bestien ustez ludian lenengo zugazkiak jayo ei-ziran; gero zugazkiak osotuz eta obeagotuz zugazki autzeko aberetxuak (protozoos deritxonak).

Aberetxuotatik abere osoaguak eta obiagubak sortu ziran osotze eta obakuntza orren azkenengo malla gixona ixan ei da, tximiñua aurreko dabela, ta belauneko ixanik. Beste batzuek larregi dala an ta ixan ezin leikiana diñue. Baña gixona tximiñutik datorrena dala.

Eta guk zer esango dogu?.

Ludia betikua gixona be bayetz diñoskuenei. Philosophi jakintza sakon ilunetan sartzeke laburki erantzungo deutzegu onei.

Aldakorra danik ezin leikiala betikua ixan apur bat ikasi daben guztiak dakiye. Ludiyan aldakorra ba-da ezin ixango da betikorra orrek.

Aldakorra da?. Lutiztiak bayetz diño, lutiztarriak (gaur geyenak).

(19)

## Euskotarrok ez al dogu poz biderik?

Españarrak arroputzez eurok kristartasuna geien zabaldu dabela diñozkue. Ezpatadunak bideak egin eta ondoren mixiolariak Kristo'ren asia eregin izan oi dabe eurok nagusi mundue zear ebiltzanean. Orra orrein aundi-uste kristar-izate oinarria. Euskotarrok ostera beste jokalegebat izan dogu begiko. Paul Deunaren jokageluez -maitasunez, buru-ukapenez, ikaspide onez geideak Kristoganetzea izan da gure jokabidea. Euskotarron abaraz gurutzeak lagun ezpataren orde z maitasuna bura ukapenata ikaspide ona ditu. Orá gure misiolarien elburua, orá gure gogoa.

(20)

## El sufrimiento y el dolor

El sufrimiento y el dolor trae como consecuencia cuando se deja obrar a la mano de la Providencia una renovación.

Toda renovación presupone dolor, sufrimiento. ¿Qué renovación más consoladora que la que presencian nuestros ojos en esta primavera?. Parece que la tierra que ha sufrido el crudo invierno, la tierra que ha aguantado heladas, nieves, lluvias, etc., se sonríe después de una paciente dolencia y se sonríe, ¿qué sonrisa más pura, más alegre, más hermosa? con toda esa variedad de flores, con todo el frondoso follaje de los bosques. Sonrisa fuera de las flores, sonrisa profunda, interior de los bosques ...

Llanto presente, alegría en el porvenir. Una mañana de otoño cuán triste espectáculo he presenciado. El gris del cielo que simboliza la capa que nos oculta el porvenir. El monte que acorta el horizonte que nos habla de nuestra impotencia y la bellota que cae y queda en tierra nos habla de la potencia de nuestra impotencia.

¡Pobre bellota! que besa a la tierra que le ha de corronper. La impiedad de la tierra que la pudre. Y el valor de la desdicha momentánea ... dichosa corrupción que origina aquella hermosa planta.

Y sin llanto no hay alegría. Sin dolor no hay dicha. No hay dicha que por dolor no venga, como no hay flor para que no la produzca la áspera tierra.

(21)

## Esakerak

1. Ezta ibar-bako aldatzik
2. Bat irabazi, bi galdu, au dok bizimodu
3. Gaizto oi danari bilurra jarraiki ta kaltea jaurki
4. Bizar illari lotsa gitxi
5. Auntzak ikusi eban garria baña ez esia
6. Urak dakarrena urak darua
7. Txori dollorak kanta dollorak
8. Juakio auntzari esne-eske (A)
9. Ardia auntzari ule-eske
10. Oilluak abizaia arrautzatzat (A)
11. Atzerrian lurra garratz, ona ipiñi egik maratz
12. Auspean txingarra ta biotzean gorrtoa (A)
13. Iturritik ura ta urritxetik urra (A)
14. Aspertu ba nekio, azpertu lekitek
15. Kalte dagianak bizarra lepuan
16. Adiñona larra baño oba da
17. Surik eztaun lekuan kerik bez
18. Lukikume aseri
19. Otsuak artzari mori leio
20. Edozein oitar bere aldapean
21. Idizarrari arran barri.
22. Igazko lapurrak aurtengo urkatzalleak
23. Lotsagabeak erria bere
24. Neskea, azi dan letz, kirrua erain dan letz
25. Ezegik ezer endoria, entzun artean bestia
26. Ila lurpera, gozea baratzera
27. Txori erreak agora etorriko yazak
28. Gaizkilleari barruko orrak begietara negarrak

29. Zanguruak biñolo artegitik iuti; bizikozalakuan txingorretan jausi
30. Euliak udan, mokuak neguan
31. Goizeko zuagaz aparia ipini
32. Baserri txakurra kalean
33. Etxako burdirik itzuliko mojiari
34. Errementariaren etxean sotzak burduntzi.
35. Auntzak jandako mutegia ta andrea buru den etxea biak bardiñak
36. Ago ixilik silluak txisa egin arte (ume batzuari)
37. Ylaren 27 nolako ilguztia alako (3'gn be bai)
38. Neska txistularia, mando ostikaria
39. Martin oilartxo gorria izan zakidaz balia, edo, Martin oilartxo gorria ointxe nigaz akordatzen ezpazera ba-doa nire bizia.
40. Azurrak be izaten dau koipea baña mamiñak obea
41. Aldatu bako porru-landarea da etxean gurean prakaduna gonadun eta gonaduna prakadun
42. Ardiak orduko intxarriak erosi
43. Zoroak ilten dabenik eruak ez oi dau biztu
44. Goian zerua ta lurr beian
45. Al-ba-da egin eta ezin ba-da alegin
46. Miñik gozuena norberak egiña
47. Ogiz ase naiz artoz ase, asia aze
48. Zugatzik ederrena igaliz betia
49. Biotzik garbiena, neskarik ederrena
50. Nun eguzkia, an argia

(22)

### Biraoak

1. Ylko al au
2. Ytoko al az
3. Erémentau edo etengo al az
4. Tximistek eréko al au
5. Lupuak joko al au
6. Samazurra edo bernazurra ausiko al yak
7. Diabruak eruango al au
8. Tximistek burutik sartu ta orpotik urtengo al dauk
9. Ysotuko al az
10. Guzurra ba-diñok neguan lekutik zirtunik ez al-dot egingo
11. Txarri makara gorriak ezkurra iritzanean jan ba indu.
12. Balbeak joko al au (ojalá mueras)

(23)

### Gogaketak, zelan bizi ta zer egin

Zelan bizi ta zer egin jakin daikegun gure elburua zein dan jakin-bearra dogu. Noruntz zuakezan edo non dan zure etxea jakitea zein bidetatik eta zeñen zenean juan ezin jakin daikezu. Renacimiento ondoren gizoneri bere elburua ostendu ta nai dozuna egikezu esan dautsoe

"humanista"k". Al perder el centro espiritual del ser ha perdido ipso facto su propio centro espiritual. Tal descentración de la esencia humana era la ruina de su constitución orgánica. El hombre ha dejado de ser un organismo espiritual. Y entonces en la periferia misma de la vida surgen centros engañosos. pág. 16 Berdiaeff. Una nueva ...

Putzak be garra txikitu edo itzali egiten dau lenengotan baña txingarra gorritu ta sutu.

Gizon zozoak zozokeri asko asmau ta esan eta zozo ez danak, argiak zozokeri asko asmau baña gitxi esan egiten dau larrak diñuanetz.

Gizonok zer? Erletxu orreik iñork irakasteka egiten dabenoiz ezin asmau izan dogu; gure jakituria ez da ezer erle orreinarene ondoan.

Bestez ezta egiten ikasi izan ba leu gizonak, ludiko lora guztiak galdu izango ebazan eskier. Eta erletzu orreik lorene-eder ta margorik itxusitzeka ezta gozoa egiten dauskue.

Bide onek norantz egiten dabene edo éreka au noruntz duan zelan jakin mendi-tarte onetan?. Bide edo erreka-ondotik aldendu ta arako mendi tontorrera igonda, bestela ez; eta andik begirakada baten asiera ta sorburua dan=dana ikusiko dogu. Jakitunek be orixe egiten dabe. Begirakada bategaz dana ikusi.

Ley metafísica formulada por Hello: opóngase a los desórdenes absolutos una paciencia relativa y a los desórdenes relativos una paciencia absoluta. El hombre. La tierra es la región de lo relativo, el cielo de lo absoluto.

De Hello dice E. Lasserre en su Introducción al "Hombre" "La paciencia de Dios le impaciente"

Gizartea geroago ta biurrago, lizunago, txarrago, alde guztietan loikeria nabarmenkeria besterik ez da agiri. Jainko argirik iñun bez. Nora guaz bide-onetan zear?. Yrakurle, nora guazan?. Ybar-onen inguru guztian mendiak agiri dira; arrizko ormak dirudie; mendi orren ganetik itxasua; eta erreka urok nora jua daikezan edo nundik nora edo mendi orreik igaro daikezan zuk ezin asmau(1). Igoizo mendi tontorrera ta andik ikusi al-izango dozu urok nundik nora duazan. Jainkuak, be, ba-daki ba, gaiztakeri arte onetan zear nundik edo zelan bere Eleiza zuzendu ta gu zeruratu, guri Eleiza zuzentze ta gu zeruratze ori, gitxi ikusten degulako gatxa deritxagunarren.

(1) Ura beti goitik bera juaten da ta itsasoa gu baño berago dago guri gorago dagoala deritxagunaren. Eta lizunkerik eta gaiztakerik oneik bide bere Eleiza ez ete daike goratukuskula.

Ogia alde batera laga ta ardua edan dau ta moskortu egin da. Eta ogirik jan ez dabelako moskortu dala deritxo, ta ez ardua edan dabelako.

"Et audientes mirati sunt et relicto eo abierunt" Mat. 22, 22. Orra orr gizonok Kristo'ri egiten dautsoguna. Egi aundiak, egi biribilak entzun doguz ta alakotzat etsi, be, bai; gura biotz ustel gogorr lizunak adiñari jaramonik egiteka adiña beretu menderatu egiten dau.

Gizon isatea al-da ori?. Gizonari yagokonez jokatzea?. Ez. Zertarako emon duskun Jainkuak adiña?. Zaldiak zalduna ala zaldunak zaldia arek nai daban lekura eruatea da zuzen?.

Adimena ezpaiz inguratuta yabilkunean biotza ezin egon daike bere senean luzaro. Laño baltz astunak lentxuago gerotxuago euria ekarten dabe ta ujelak azi. Gure biotza, be, arin naste da ta nora-nai jote dau.

Bai; Jainkuarena ez dozu ori. Jainkuagandik ba letorkizuz asmo ta gurari orreik, astindu ta eraso orreik orren zakarrak ez litzakizuz izango. Gurari ta asmo orreik erreka arritsu baten duan ura dirudie. Jo arri bat eta jo bastarra, pil-pil, aruntzonuntzaka, zirti-zartaka duan ura. Aruntzonuntz ta gora-berak diabruak eragiten dautzuz.

Las cosas no son como se pintan. Son como se pintan para aquel que las ha pintado de aquella manera pero para nadie más. Cada cosa tiene infinidad de aspectos (como obra de Dios)

y para cada cual son tales, cual sea el aspecto por el que las mire. Lo que para uno es triste, para otro es alegre. A cada individuo le sugiere distinta idea.

Munduari begira?. Edu orretako begirapenez begiratzeko, berak munduak begirapenez begiratzeko al-dauk?. Eriotza-orduan munduaren ardurea?. Zer da la-ta?. Munduak etxaukok, ba, ire ardurarik ...

Au burundada! Gortu ez bakarrik il, be, egingo gaitue. Euzko erlauntza!. Aldi baten buru barik bizi isan giñalako ta atakea nork zaindu izan ez dogulako, apurka-apurka kulumiñuz bete yaku. Gosearen gozez erdi-etik sartu yakuzan eta lenengotan baketsuak geritxon eta urko-maitasunarren, ez daukanari emon bear yakola-ta gura aña ezti emon izan dautsoegu.

Indartu diranean nok ixildu ta baretu!. Eztiak jan eta geu jaurtiko gauez! Aupa, aupa!. Esnatu ta euli epelena egiteka, asi gadizan burrukan ... Urak daruan intxaur-azala!. Urak beti goitik bera erueten dau berekin daruana. Orr gure ...

Jausi! Jausiarren jagiteko edu dana zeozer da. Jausiarren jagiten danak zutunik jausteka, labanik egiteka dabizan, askok edu indar izan daike. Gizonaren bizia jausi ta jagitea da.

Gaurik ilunenean, be zero-zabalean argi izpiren bat beti; edo zero-zabaloideiz ta lañoz josita ba-dago besterik ezean tximista bristadak sarri izan oi-dira. Bidekatutu-bidekatu eginda dabilenak atzera bidera joteko naiko ez baña. Bai orraitino bidekatuta dabilena ezagutzeko edu ta bere barruan bide naia sortuarasoteko aña.

Eskubidea zeuek daukazuela?. Ynork, be, ez dauka bestiak bastartzeko eskubideri. Eta lagun-antzera jokatu nai ba-dozue emon bestioi be eskua.

Jatorriz gaituzu gizonok geure buru-zale. Bare-maite izate ori nai-ta naiezkoa yaku bizidunoi. Baita jatorriz gara aundizale ta aundi-nai. Geure burua larregi maite izatetik sortzen da aundi-naikeri ta aundi-zalekeriori. Eta geure bururik jaso edo ospatu ezin degunean, geure erria artzen dogu gizonak geure burutzat eta axe jasoteko entzutetsu egiteko iñundiko alegiñak egiten doguz. Gure artean osteraz ez dogu onakorik ikusten?. Ynungo erriak jaso ta asi naiean gaituzu guztiok. zelan izan daike au?.

Auxe bai biurrikeria! Jaungoikozko zerbait dabela ta beste barik, gorroto doguz gauza batzuk. Zelan izan leike au?. Ura!. Ura txarresterik egundo be etxako bururatzen gizonari. Ur bedeinkatua, osteraz, asko ta askok txarresten. dabe. Ur utsa ba'litz ez ta onetzia dalako zer dala-ta txarrestsi?.

Batzuetan etsai edo arerai ondoretzeka urriñetik emon-alako arrikadea edo daunbadea emotea ondora juan eta berakin burruka astea baño oba izaten da, menperatuku doguna jakinaren be. Zergaitik?. Ondora ba'guakoz ta zirrika asi naita geuk menderatu berra, be, geuri, be, atxumurkaden batzuk ezarriko dauskuz. Urriñetik emon ezkeroko gure buruari beintzat, ez yatoroko gaitzik.

Zuzen dabillanak, zuzengo dabillanari ondo deritxo; oker dabillanok okerrago dabillanari ez osteraz. Zergaitik?. Bere senetik kanpora dabilleana txarto; este au bekotzak bere okerra okerrege, dabillanak agertuko dabelakuan egiten dau.

Ur-otzak, be, txingarrak amatau egiten dauzanarren karekoskorrek biztu ta garretan ipinten ditu.

Zaurieri zirrik ze egiozu egin, zerekin batu ezpadaukazu. "nadie debe tocar una llaga humana, si nada tiene para venderla".

An zer egin genduan ba-ninoketzu jakin-mina areko neuskizu irakurle, baña upatxuan kilikilia sortuko neuskizu ta nagon ixilik.

Gaztaña-landarea ba-ziña ...!, eskulekua egingo neuskizi; baña biurtu al-izateko zartxua zara ta atan asiko ba'nintz ausi egingo zenikidaz.



"Cuando más oscura es la noche más brilla el rayo que la surca, así la batalla de Beotibar ha condenado la fama y nombre que no podían obtener las atrocidades que la precedieron o siguieron. Pág. 136.

Ura dariuen aitzak, be, azaten dira; baita jatorriz urtsuak izan diran baña orain legorr ta antzu diran iturriak, be.

Biotz gogor ta buru biurr danarren, bere izateak ura, naitea damotson gizon ala jatorriz urtsu izan dan eta orain urik ez daukan iturri? .

Jauren-juaz arria, be, goritu egiten da; otoiaren-otoiz ta ekiñaren-ekiñaz goritu ta galda-galda, egin dagigun guk, be, geure biotzan. Goriaren-goriz gara dariola asi dadin-arte ez gadizan azpeltu. Gure biotz-zotiñak, geidien biotzak, be, zotinka ipiñi dagiezan-arte ez daigun gogaitik egin. Geure biotzak goritza ta gori-irautea ez da naiko. "Eruentes docete" esan euskun kristo'k. Goriaren-goriz gure biotzetan sortzen dan garretan kiskaldu dagiguzan urkoen biotz ezeak, lurrek ludiminak damotzen ezetasunari galdu ta giar biurtu dedizan. "El apostolado es ...".

Gauza onik egin al-egien or emen sakabanatuta ziran iturri urak danak batu, bideratu ta andaparabatera jo-erasotea naita naiezkoa zan. Yturri bakotxak berari deriozan urekin errotarririk ezin axetu eikean, baño ur danok andapara batera ezkeru zer egin eikien, nork asmatu?. Orra orr gaurko gure egingua; bakotxak bere aldetik ba-dirautsogu, ez dogu ezer egingo. Andapera baten batu gadizan, errotarri bat, astintzeko; errotarrioi danon-arte astin du ostean bakotxak berak nai daben bidea artu daike.

Ur-ujolde berberak bide-zabalez ba-dua, ez dauka indar-aundirik; kañu batez ba lillua baña asko, be, indar geiago izango leuke.

Kañuz duan urak, aldazbera jatzi ondoren, beste aldean urten daben pareragiño igoten dau. Zabalik duan ura ostera barreneratutakuan bertan zabaltzen da.

### Euren buruei barrez

Egundo olako gangarrik!. Antzerkitxua ikusten dagozanoi begira naukazu, irakurle, Gizonak zeñen zoro ta buru-ariñak dira ikusten. Arako edo onako antzernotiñak egiten dauzen kirtenkeziei, beste aren zoro-usaiñei, bestearen arrokeri ta nabarmenkeriei barrez. Eta, antzernotiñok bizirik ikusi nai ba-dozuz edozein sasaitan eta edonon dakuskezuz. Ortze begira, dagozan asko ez al dira arrosko, kirten ta txoriburu?.

Ene baña ... zelako adabazaña ipiñi, dautsoe ...?. Olakorik ez eutsoen ezarri bear; orren nabarmen ... Gizon danok izan bear genduken edukoak ba giña, arrosko, txori-buru. Ya nabarmen agertuko litzakez gizartean; baña askok be adabazañak ugariago diralako, jatorrizko euna zein dan ez dakie ta adabazanok ondo esten dabez.

Sagar ketua ...! Zeñen sagar ona! Zeñen goizago ta gaztetan loratsu ta aletsu! Goizegi ...!! Aleak sasoirako lagu ta odaburuak asiko ba leue ... oba.

Izarratu ederra baño zer ikusagarriagorik!. Eguzkia baizen edarra da gau goi-garbia. Gizonaren begiak alaitzeko egiñak dira izer kiñukalariok, Gizonarekin zer ikusi ta artu-emon aundiak daukez izadiko izaki guztiak. Gizonaren begietan argi biurtzen diran eta izarretatik jatorkuzaen zarrastadok begirik, ez daukeen zomorru ta txokuentzat zer ete dira?. Begirik ez ba'litz be, ba'lirauke zarrastadok, baña argia, guk deitzen dautsogunik ez legoke. Argi lurtzen diran zabunokaz gaiñera beste zaban edo zirkin mueta asko izango dabez izarrok, eta zomorruak ez ete dabez somatzen euren erara zirkin orreik?. Negua ta udea zelan ezagutu daike somorroak?. Guk, argiaren eta beroaren bidez ta areik.

Askeari, be, erraz-errazeragiño bete dadiñean, edonondik dario, eta edonondik ez darioken norberak gure dauan aldera erretentxo bat egin bear yako ta len nora-ez-ara edonora erion ura

geuk gura dogun lekura eruan daikegu. Askeari erretentxu ori ez egitearren gañeska egingo dautzu egalak jasoarren, be, eta urak zainduko dozuzala, deritxozunarren, ezingo dozuz ta danak alperrik galduko dozuz.

Larrosa onduari larrosa lorak orduko arantzak urteten dautzoez, ta larrosak galduta gero, be, arantzak ba-diraue. Larrosa-tara billa dabilenak arantzarik berik larrosarik ezin eskuratu daike.

Max-barreneko itsurritxuei uda ta negu eurite ta legorte, beti dariue arra-arra ura; egun be, bai, ba, ta inoz baño ugariago gaiñera "Max-barrenean, be, bestietan letz zugatzuak igaztzeka dagozanarte udaberrian bakarrik loratsu ta udazkenean aletsu; bitartean, be, baño beti areik zornatsu. Ni be, lagun-antzo beti maite jarioka, baño gaur marte orro egina ...

Beste askok ostera eunari yagokon adabasaña barik, adabasañari legokin euna bear litzakela uste dabe.

- Zertarako ezarri dautsozu adabazain barrejarri ori?.

- Adabazaña ona da, andre; zeuk daukozu errua; adabazañari yakogun euna ipiñi baño ez zeunken. Ez al zenkian...

Parra-parra, bare-bare alde bietara jaurten dau ura. Galdeak lur-ekotan zoiak leitxe.

Zer?. Ba-al dazauzuz zure akatsak?. Zail da, ba, akatsak ondo ezagutzea, batez, be, geldigeldi aukerarik ez daukogunean geure buruari begira jarrita. Tramankulu batek zatiren atar eskatuta, etenda zartuta, daukanentz zuzenen eta garbien ibili dabillanean edo ibilli ezin danean igarten yako. Akatsoi zelan atondu edo konpondu ostera, geldi daguala egiten da onduen.

Arto kuku-errea jirudik, mardoa baño artabururik agiri ez. Ergel ketua ...

Zikiñak, ondarrak, biak kanpora edo ganera jaurten dabezan sagardo ondo irakiña bai garbita edangarria?. Bere barruan kanpora jaurtzeka bere jatorrizko ta izatezko gauzak daukazan gizona, be, sergado irraikin -ez dabena jirudik; bere loiak botaten dabezanak ostera sagardo garbia.

Batzar ezur-zulo asko dauz; batetik negarra dario ta bestetik barrea ta poza. Begiak nagarrkarin yaku ta biotza iturri; askotan ibaira orduko soluak berak eraten da.

Danik eta sagarr-alerik ustelenak, be, izan daike on zerbait. Sagar-ustelaren simaur usteletan guri ta garbi jaio ta azi daike sagar txibitxo. Sagarrak ustelenak, be, izan daike azi zintzoa. Asizintzo orretatik zeñen landara garbia sortu daiken gogoratu ba daikegu, sagarri, ustelerik be ez dogu bertanbera lagako.

Besterik-ezean erdibitu ta azitxoak gorde egingo doguz.

Euriz aseta duan lañuari zeñen larri ta bizi begiratuko ete-leukio lurr legor itzebaiz jositakuak begirik ba leuka?. Zeñen diadarr garrasi ta orru zolia egingo ete leukioe itzebai sakonok (ao-zabalak idurri). Lañu edo, odei ori tximista-bidez ausi ta zulatu al-ba-legi ... ez leukio lagako. Gure gogo ta arima egarriak ostera ba dakus ura daruen odu ta lañoak; laño ta odei orrein ura bere gain letorkena be ba-daki, odei-urdunok zulatu ezkerok; odeiok zegaz zulatu ez yako palta; gora begiratu ta aoa zabaltzea naiko dau. Gogoaren-aotik urtetan daben otoia tximistarik indartsuena baño be zorrotzagua da ta bereala nai eña ur izango leuke bere gaiñean. Atan, be ... egarritz ... gagoz ... gora begiratu ta aoa-zabaltzako baño be nagiago ta itxiago ...

Nora nakit txiribi errukarria?. Zer nai dok argi-min az ala bero-billa abilkit. Bero ibila ... bero-mini orixe izango dok ire ondamedia, ez ete yakak erreko egotxo orreik ...?.

## Kardaberaz Bazkunaren irugarren malla

## 1 Atala. Bere elburua

### 1'en atal

Kardaberaz-Bazkunak len zuan irugarren malla berpizten dogu. Eta malla onetako Kardaberaztarrak euron eginbear eta ezkubideak obeto jakin dagijezen eta gero nazpiderik izan eztagigun, idazten dogu arautegi au.

### 2'en atal

Euzkeraz idasten eta itz egiten ondo ikastearren jarri zan malla au. Bere atzalburua len letz orain ere auxe da: "Apaiz geranian erritarrai gauzak ganoraz azaldu ta erakusteko, euzkera ikasi ta al bada bestiei erakutsi". Eta orretarako egin bear doguna auxe da:

1. Euzkal-idastiak erosi bazkidion artean.
2. Idastiak ekarri ta yakintzako ikaslien artean saldu ta sabaldu.
3. Euzkeraz idatsi
4. Olerki zarrak errian batu ta Bazkuna'ren izenian sariketetara bialdu
5. Sarritxo batzuek jarri euzkeraz lanik egokienak egiten dituezenentzat.
6. Al ba'dogu urtean euzkal-jai bat eratu apaiztegian euzkal-elertzale, olerkari edo euzkaldun ospetsu baten omenez.
7. Euskal-usai apur bat emon beste jaiei ere.

### 3'en atal

Yakintzako beste urteetan ere malla au jarriko balitzake asko postuko gintzakez.

## 2 Atala. Bazkideon Zuzendari ta Irakasle

### 4'en atal

Lekuona'tar Imanol Jauna Kardaberaz-Bazkuna'ren malla ontan ere gure zuzendari ta irakasletzat jartzen dogu. Idastiak ekartzeko ta abar, berari eskatuko diogu iritxia. Bere agindu ta asmoak ziara beteko ditugu.

## 3 Atala. Aldizkingia

### 5'en atal

Illebitik baten aldizkingi txikitxu bat aterako dogu.

### 6'en atal

Batzarrian irakurritako lanetatik egokitxuenak argitaratuko dira; edozein gaitzazkoak izan ditezke.

7'en atal

Batzarrian izentatuko da aldizkingiaren zuzendari bat.

8'en atal

Aldizkingi ori yakintzako ikasle guziei salduko jakue.

#### 4 Atala. Bazkideak

9'en atal

Kardaberaz-Bazkuna'ren malla ontan politika usañik eztogu iñolaz, be, ontzat emongo.

10'en atal

Malla onetako bazkide izateko euzkeraz itz egiten jakin bearco dau. Era euzkeraz egiteko, ikasteko ta bestiei erakusteko gogo bizia izan bearco dau bazkide izan gura dabenak.

11'en atal

Beste edozein bazkuneko bazkide izan arren, gurian ere sartu liteke.

12'en atal

Malla onetan ogei baskidetik gora ezingo dira izan.

#### 5 Atala. Bazkidien ezkubide ta eginbearrak

13' en atal

Alkarri lagundutia, euzkera ondo ikastia, euzkera sabaltzeko egoki dan guztia egitea ta arautegi onetan agintzen dan guztia ziara betetzia da gure lenengo eginbearra.

14'en atal

Idastiak eta erosteko urtian sei laurleko ordaindu bearrko dabez baskideak; ordaintza ori iru zatitan egingo da: Aurrenengua Urillian, bigarrena Urtarrillian eta irugarrena Jorraillian.

15'en atal

Illian bein lantxo bat ere, egin bearrko dabe. Idasti ori edozein gaitzaz izan liteke.

16'en atal

Asteroko batzarretara juatera beartuak daude.

17'en atal

Udaldian edo oporrak igaroten etxean egonarren ere, agindu jakuen lana egiñ bearrko dabe. Onez gañera antxinako olerki, edesti edo ipuñak ere batuko ditubez beren errietan.

18'en atal

Bazkideak malla onek dituan oneiki guztietarako dute ezkubidea. Bazkide guztiak irakurriko dituez. Bazkuna'ren idastiak. Eurok erabilteko aginduak Batzarrak jarriko ditu.

19'en atal

Kardaberaz-Bazkun onetako oneikietarako ezkubidea galtzen dabe ... a) Bazkunik kanpora bota diranak ... b) Eurak gura dabelako urteten dabenak, urte aretan ordaindutako txindia jasotzeko bakarrik izango dabe ezkubidea. Berdin apaizgintzari itxi diotenak, Batzarrak beste erabakirik artzen ezpadau beintzat.

## 6 Atala. Malla onetatik bialtzia ta bertan artzia

20'en atal

Euzkeraz egiten, ikasten eta erakusten sayatzen eztiranak, bertatik jaurtiko dira.

21'en atal

Malla onetatik bialtzeko ezkubidea Baskintza-Artezkaritzak eta Lekuona'tar Imanol Jaunak izango dabe.

22'en atal

Baskintza-Artezkaritzar izango dau bialtzeko ezkubidea:

1. Urtea igaro ta txindia ordaindu eztabenek.
2. Politika dala ta euren burua batzarrian agertzen dutenak, Ostingo gauzetan Lekuona'tar Imanol Jaunak dauka ezkubide oso-osea.

23'en atal

Kardaberaz-Bazkuna'ren malla onetan sartzeko ezkakizuna bazkide baten bidez egingo da, ta batzarrak erabakiko dau artu edo artu ez egitea.

#### 24'en atal

Bazkun onetan bazkide izan nai dabenak igasitako ordaintza ere ordaindu bearke dabe.

### 7 Atala. Bazkintza-Artezkaritza

#### 25'en atal

Bazkintza-Artezkaritza onetxek eratuko dabe:

- Zuzendari-Orde
- Aldizkingi-Zuzendari
- Idaskari ta
- Zenbakari-Diruzain batek

#### 26'en atal

Zuzendari Lekuona'tar Imanol Jauna da. Bazkintza-Artezkaritzak gutxienes illian batzar bat egingo dau: Eta onez gañera Zuzendari-Ordea'ri deritzayon guztietan. Gertatu ditezken onezpideak eta bazkideak arautegia nola bete duten ikusiko dute. Jayak eratu ta lantzian bein lanak izentatuko ditue. Ill aretan egin diran idastiak ikusi. Idasti berriak erosi.

#### 27'en atal

Bazkintza-Artezkaritza au urtean bein izentatutko da. Baskuneko artezkariak autarki bidez izentatuko dira. Urtero Azilla'ren 30'an, Andres Deunaren egunean izentatuko da Bazkintza-Artezkaritza barria.

### 8 Atala. Burulakuak. Zuzendari-Ordea

#### 28'en atal

Kardaberaz-Bazkuna'ren malla onetako agintari nausia Lekuona'tar Imanol Jauna izanarren, malla onetan aren ordezeko izango da Zuzendari-Ordea. Onek deituta batuta dira Artezkariak eta Batzar-Nagusiak. Euretan buru berau izango da. Bere autarkiak biren indarra izango du.

#### 29'en atal

Aldizkingiaren-Zuzendaria. Aldizkingia bere sasoya eldutakuan argitaritzia da bere eginbearra. Atera baño len Lekuona'tar Imanol Jaunari erakutsi ta onek zuzenduko ditu idastiak.

Zuzendari-Ordeak ere lagunduko dio. Eta aldizgi lanetarako gura ditueni deituko die. Albait txukun eta polituen aterako du aldizkingia. Aldizkingiko doketa edo kontua eruango du.

### 30'en atal

Idaskaria. Artekari-Batzar ta Batzar Nagusietako agiriak eruango ditu. Bazkidien idastiak beronen ezkuetan izango dira. Euren kontua bere bizkar izango da.

### 31'en atal

Zenbakari-Diruzaña. Bazkunaren diru gora-berak argi ta ziatz eukiko ditu. Artekari-Batzarrean eta Batzar-Nagusietan ill artako zenbakunak eragertuko ditu. Irabasiak eta galduak, idastiak erosten eta idastietan eralgia; saldu ondoren artu dana. Bazkideak berari ordainduko dautze ordaindu bear dabena. Idastiak ekartzia ta ordaintzia Zuzendari-Ordea'k laketuta bere gain dago. Diru-idasti bat izango dau ordañak eta artzekuak jarrai-jarrayan ipintzeko. Zuzendaria'ri erakutsiko deutez emokun-txartelak eta diru agiri guztiak

## 9 Atala. Batzar-Nagusiak

### 32'en atal

Batzar-Nagusiak artuko ditu aurrerantzeko erabakiak.

### 33'en atal

Batzar-Nagusiak egindako itunak auterki geyagoz izango dira ta itun orrek Idaskaria'k bere tokian idatsiko dauz. Lendakaria'k eta Idaskaria'k bere izen-abizenekin berrezarriko due agiri bakotxa. Batzar onek urtero egingo dira. Onez gañera, Zuzendari-Orde edo baskide batzuek eskatzen dabenian, ez oituriko Batzar-Nagusiak ere egin ditezke.

Araudi-asmo onen egilleak:

- Albisu'tar Anastasio
- Esnaola'tar Serafin
- Arizmendi-Arrieta'tar JM
- Narbaiza'tar Erramun
- Mendizabal'tar Alexander

Arautegitzo au, ingurazti onetan agertzen dan letz, ontzat emoten dabe:

- Barandia'tar Mikel
- Berazarte'tar Iñaki
- Etxebarria'tar Pelikano
- Etxebeste'tar Perdiñande
- Gorostiza'tar Kepa
- Erramon'tar Joseba
- Zamora'tar Joseba Mirena
- Zubillaga'tar Jenaro
- Zuluaga'tar Txomin
- Azpitarte'tar Joseba
- Anakabe'tar Kepa



Batzarretako erabakiak:

1. Batzarrak ostegunetan, arratzaldeko 1,20'an izango dira.
2. Arrazoirik gabe batzarretara urtian iru utz egiten dituana, BazkUNETIK kampaRA JAURTIKO DA.
3. Batzarrian irakurtzen diran lanen iritsiak idatsita eman biarko dira, lanak eta iritsiak gordeta batera izan ditezten.

## Zerbait euskalduna'tzas eta euzkerea'tzas

Bai, bakarrik zerbait. Ezagututen dot nere ez jakitea. Eta nik gai sakon eta barrutsu onetzas esan desakedan gustia, ez dala ezertxo bere. Arritzekoa al da?. Ez, jakintsurik ospetsubenak, bururik argienak gure izakera, gure iskuntza eta gure besterikezlagotasuna ikusirik, zer esan ez dakiela geratu badira ... Ain aundiak gara?. Bai. Ainbeste atzerritar gure gauzak andietsiten eta goralduten ez dira aspertuten. Geu, geu euskaldunok bakarrik bizigera geure gauzakin, geure izakera eta beste edertasunakin aistuta. Tamala benetan. Baña, zer diñot?. Bakarrik aistuta bizi bagiña ez litzake ain negargarria izango. Gure gauzak bastertuta eukitia naikuba ez deritxayela asko erre kara botaten sayatuten dira.

Eta oyen orde z atzerritarrak ditubezan zikinkeri, oitura eta izkuntza gura ditubez. Eta onela lotsatu gabe nunnai, diñube gure gauza guztiak basatienak derriala, ez dutela ezer balio eta origaitik berriak bear ditugula. Au siñestuten dubenak bai da gure artian ere. Orrek apurtxo bat itzartuteko, lantxu onetan, idastietan irakurri dodazan gauzatxo batzuek esango ditueadas; ez, da ba nere asmoa ikaste mamintsu sakon eta zeatz bat egitia.

I. Lenbizi galdera au bururatzen jaku. Nuntarrak edo nundik gatoz gu euskalduno?. Erri guziak dute euren sarrera, batzuk zeltaengandik, beste batzuk jermendarretatik, eta onela guztiak. Eta guk?. Galdera gatxa, zaila. Batzuek uste izan eben, iberokandik gentozela. Baiña eritxi onek ez du gaur egunean jarraitzallerik. Iberoen izkuntzak eta gureak ez dute zer ikusirik. "Monumenta Linguae Ibericae" deritxaion idastian. Hiebner jaunak dakartz, iberoen ekurritz batzuek, eta ez dute euzkerearen antzik bere.

Vinson ospetsubak egistatu du España'n aldi aretan iru abenda euren iskuntzakin izan ziriala, Humboldt'ek gu iberokandik gentozela uste eban, España'n uri, mendi, erreka eta ibai askok eurkerasko izanak ditubezelako. Poza'k berriz, euskaldunak, diño izan ziriala España'ko lenengo biztaneak.

Onetara euskaldunak ludi gustian izan diriala esan dezakegu. Euskal-itzak edo antzekoak ditubez Ameriketa'ko, Apirka'ko eta India'ko mendi, ibai eta abarrak.

Batenbatek bere kolkorako esango du: Len bestean geratuten garra, orretarako ainbeste jakitun?. Bai, gauza garbirik ezer bere ez dakigu. Jakitunaren burua ez da gureganaño elduten. Aundiak gara. Entzun zer diñon Vinson jaun jakintsubak bere "Les basques et le pays basque" idastian: "Euskotarrak egigaitzak, ezilkorrak eta ikaragabeak, euren oinpetik igarotzen bai zeltak, bai ibeok, bai erromatarrak, bai moruak, bai goduak, bai pantsesak eta normandoak ikusi izango ditubez". Nun dogun gure sorrera, ez dakigu. Aintxiñatik emen bizi gera.

II. Euskaldunak ez du esagutu iñoren bustarririk bere kokotean. Euskal-erririk inork ez du garaitu, iñork ez du menperatu. Eta euren arrotasuna eta aunditasuna gure aurrean ostikopetuta

autzeginda, geratuten da. Erromatarrak egin zitusten alegiñak gu goituten; baña euren olerkaririk gorenguea, gu aundietsitera beartuten da. Horazio'k au diño:

Cantaber in bello

Terribilis ut leo

Onek ezagututen du erromatar arro onek gure aunditasuna; Alegiñak egin zitusten onek, gu goituteko. Erromatar Erpuru edo Enperadoreak alperrik bidali zitusten euren ordezkariarik onenak. Gustia alperrik. Ezin izan eben onek euskalduni, azpiratu. Eta, azkenez, ludiko Erpuru'ri aundiena, Augusto berbera (abitza dan letz) gu menperatuteko asmos etorri zan ona. Baña gustia alperrik zala ikusirik, atzera biurtu zan Erromara. Eta onela ondo idatsi eban España'ko olerkari, ospetsu batez, Tirso de Molina'k bere "La prudencia en la mujer" deritzaion antzerkian "Cuatro barberos tengo por vasallos". Aquí en es Roma jamás conquistar pudo ...

Euskalduna bere zanetan odol apurrik eukan artean, gerturik egoan, bera izuriteko, baña ez iñoren bustarribean egoteko. Gudan mendua izan baño, gurago eban il, eta onela bere burua eroaten eban, arerioen eskuetan jaustera orduko.

III. Eta zer esan dezakegu gure bardintasun eta erkalmena'tzas?. Euskal-erria'n bestelako bardintasunik ez da ez iñuben, ez inoiz ezagutu ludian.

Atenas, Erroma, ona emen ludiko uririk aundienak aldi aretan. Ludiko jakitun eta jakintza gustia uri onetan egoan. Ludiko aberastasun gustia emen aurkitzen zan.

Eta Atenas eta Erroma, aneika eta aneika morroi gixajogaz josita eguazenean, Euskal-erriak ointxe bezin bardintasun, aundia eukan; ango morroi errukarriak jauntxo batzuben mendean euren buruben jaube ez zirala, abere antzera biarra egiten eben artean, euskotarrak, naiz umea, naiz emakumea, naiz gizonezkua berdin, bere buruaren jaube eta aske bizi zan. Euskotarren bizkarrak ez eban ezagututen jauntxoen buztarririk, ez nausikeriaren zigorrik. Gure erkaementasuna andua izan da beti. Eta onela ondo diño, Mr. Hoover'k, Laterri Batza'ko lendakari eta ludiko gora-berak ondo ezagututen dituban gizon entzutetsuak. "Eusko erkala da, ludiko beste gustien artean askaldarena". Gugaz jakintsu asko aistuta bizi izan dira oraintxearte, basati batsubek geralakuban eta gure artean gauza aundirik egon ezin likelakuban. Askorentzat Ingelaterria izan da askatasunaren eta erkalmenaren seaska. Euren "Carta magna libertatum" deritxaion lege-idastia zeruetano jaso izan da. Baña "Carta magna" au nork egiña da?. Erriak? Ez. Bakaldunaren bidegabekeriakin aispertuta egoazan txau-gizonak eta aundikiak egin eben. Euskal-erriko legiak barriz erriak berberak, eundaka urtiak aurretik "Carta magna" baño asita, oindiño, atzora arte esan geneke; 1939'garren urtera arte. Ondo esagututen eban Arrese olerkariak, olerki au egiteko,

Kerispe zabal artan jarririk

Eginda euren batzarrak

Bustarri baga, nasai eta libre

Bizi ziran bizkaitarrak

Sendiak eukan gure arteko zerikusi gustia. Etxejaunak eukan autarkia, eta gora-bera gustietan erabagia artuteko auteskundeak eukiten zituben. Gipuzkua'ko Fueroak ala dio VII atzalburuan, IV idaspuruan "*Ordenamos y mandamos que los procuradores y junteros de todas las poblaciones, Alcaldías y valles que asistieran en las Juntas Generales y particulares de la provincia en poder de ellas, estén en todos los casos en que se hubiera de votar con el valor del número de fuegos con que acudan los concejos de su representación para los gastos de la Hermandad, según y en la forma que siempre se ha acostumbrado, sin pretender ni intentar puedan ser personales los votos que en todo tiempo han sido foguerales*".

Ingelaterria'n,, lotsagarria benetan, 1539'garren urtean aldunak Bakalduna'ren eskuetan isten daube eurok lege egintzarako eben eskubidea. Eta erri errukaria Bakaldun onen nausikeri

eta gurari anker gustien mendean. Enrique VIIIIn lege txar gustiak jasan bearrean aurkituten dira. Beronek, gura dabelako bere naikeri lizunak asetuteko Urizkurtza itxi eragiten dautse ainbesteri, eta gura ez dabenak, Jaungoikua'ren bildur diranak, illak dira.

Eta ainbeste errugabek euren odola isuri eben, bakarrik bekaldunak bere zalekeriak betetegaitik. Askatasuna da au;

Oindiño geyago. Bere alaba Elisabetek, zertuzk ez zituben egin nork ez daki. Beronen eskuetan il zan bere lengosiña. Gaur altaretan dago. Katolikuak ez eben eskubide bat ere. Apaizak jaispa esatea galerazota euken.

Aurrera, Eduarko VI'k ukar edo limosna eskatutia, galerazo eban. Onetarako agintza ikaragarri bat emon dau: Lege onek ageritzen eban, burdiña goiagaz sorbaldan ikurrastutea eta urte biko morroitzara biertutea ukar edo limosna eskatuten ebana. Ugezabak gura ebana egiteko eskubidea euken urte bi orretan bere morroigaz. Eta etxetik kampa amabost egun egiten bazituben, bekokian S bat egiten eutzen eta betiko morroitzara beartuta egoan. Lander errugabeak;

Eta, bitartean, euskotarrak nola dagoz?. Euskotarrak ez dute iñoiz bere orrelako bakaldunik, orrelako legeri, orrelako ez berdintasunik, orrelako nausikeririk eta joputasunik. Zein ederto adierasoten dausku au, zein polito, Arantzadi idaste entsutetsubak;. Ona emen bere itzak: *"Mejor que en Inglaterra le fuere dado al poeta clamar ante nuestra casa solar, pobre y glorioso montón de piedras, enrojadas por los siglos, en ella puede entrar el aire y el agua, pero no el absolutismo de los reyes"*. Ez dute bear atzalbururik.

Eta ikusi dezagun orain zer aginduten duten gure legeak gai onetzaz. Lenengo, gure Fueroak galerazten dan guzurreko agintza gustia. Eta Bakaldunaren edo besteren gezurreko ordespenskapaz datorrena onela zigortzen du Bizkau'ko Fueroak (besteak ere berdin). CCXIII garren agintzan au diño: ... *que se imponga diez mil maravedís de pena al que se presentase en Bizcaya con cartas del Señor contra fueros y además sea preso; y si el prestamero o alcalde que le prendiera tuviese por esta prisión algún disgusto, pleito o emplazamiento, toda Vizcaya tome a voz el pleito o pague todas las costas e daños e menoscabos que merecieren, así a los dichos jueces e cada uno de ellos, como a la parte a quien atañe, e si sobre ello ora sobrecarta trajieren, que cualquier e cualquier del dicho condado lo pueden matar sin pena, como aquel que desafía la tierra; et toda Bizcaya dé al tal matador dos mil quinientos maravedís e separe para Bizcaya a todo lo que ello recresciere, así en pleito como en penas, como en otra manera, cualquiera que sea ..."* Eta Guipuzkua'ko Fueroek berdin, II agintzan XXIX atzalburuan: *"Ordenamos y mandamos que si algún Señor, o gente extranjera, o algún pariente mayor de esta provincia o de fuera de ella, so color de algunas cartas o provisiones de nuestro Señor que primero en junta no sean vistas o por ella, o su mayor parte mandadas executar, o algún merino o executor cometiere alguna cosa que sea desafuero.e contra los privilegios etc. ... e tentare de facer algo o algún vecino o vecinos de las villas e lugares; que no lo consientan facer ni cumplir semejante execución, antes que le resistan e si buenamente non se quisieren desistir, que lo maten, e a los matadores o feridores que sostengan todas las dichas villas e lugares de la dicha provincia e a su costa se hagan dueños de la tal muerte e feridas ..."*

Ezagutu geinke agintza onek ikusirik nola aurkituten ziran gure asabak nausikeriaren aurrean. Eta beste lau txatal Bizkautarrak Pelipe III'nari egin etusen ikastiarenak. Ludiko Bakaldun aundiren eta indartsuen onek Bizaya'ri zergerak edo tributuak ipiñi, ezarri eutsozan eta orregaitik Bizkautarrak euren batzaizan erabakia artu ondoren idasti bat egiñ eutsen oneri. Ona emen txatal batzuk: *"Señor, visto por nos esta antigua e honrada Señoría de Bizcaya lo mal que V.M. está informado por orden del Consejo de Castilla en querernos agraviar y tratar mal, tan al descubierto, etc., pedimos a V.M. sea servido de mandar, que se borre, teste y atilde de sus pragmáticas reales lo que a nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos y suplicamos"*

*a V.M. no hubiese lugar de hacernos; nosotros quedamos obligados a defender nuestra muy amada y querida patria hasta ver quemada y asolada esta Señoría y nuestras mujeres e hijos y familia e buscar quien nos ampare y trate bien ...*

Nork esango luke onelako idasti bat, ludiko Bakaldunik indartsubenari egin leikioela, bastar ain txiki onetan bisi diran batsubek?. Nun ezagutu da onen besteko kemena?. Numantzia eta Esparta'n be ez aundiagoa. Eta Pelipe III'an asarretu gabe eskatu ebena emon eutsen eta bere errua ezagutu eban. *"Vista por mí la mucha razón que vosotros tenéis en querer gozar de vuestras honradas libertades y habéis sido yo mal informado en querer que me pagaseis los subsidios que los demás, mis vasallos, me pagan ... he mandado que se borre e tilde y teste de mis pragmaticas reales en lo que toca a esa Señoría y que gocéis de las libertades y ...*

Aurrera. Ikusi dezagun orain gure Fueroak nola laguntzen deutzen euskaldunari bere esturaldi eta ordurik txarrenetan. Au irakurten da Bizkaiko Pueruan IIIgarren agintzan XVI idaspuruan. *"Que establecían por Fuero y por ley que por deuda alguna que no descienda de delito o cuasi delito, vizcaíno alguno sea preso, ni tenido en cárcel, ni sea ejecutado la casa de su morada, ni sus armas, ni caballo, aunque en tal obligación o sentencia, contrato o escritura, por virtud de que se pide captura de él y ejecución de su casa, armas y caballo, expresamente haya renunciado su hidalguía; so pena que allende de ser la dicha ejecución ninguna, el juez que diere mandamiento de captura contra vizcaíno su casa y armas y caballo, carga e incurra en la pena de diez mil maravedís por cada vez que mandare lo contrario ..."*

Eta IVgarren agintzan, XVI idaspuruban: *"Que los vizcaínos habían de Fuero y establecían por ley que por cuanto de derecho es, que cada cual su casa de vivir sea tuto refugio y los vizcaínos notoriamente son hijosdalgos, que por deuda alguna que no descienda de delito o cuasi delito, ellos no puedan ser presos etc., en casa de ningún vizcaíno, prestamero ni merino, ni ejecutor sea osado de entrar a hacer ejecución alguna ni acercarse a la tal casa, con cuatro brazos alrededor, contra la voluntad de su dueño; salvo que entre con un escribano, un hombre de tal prestamero, o merino, sin armas, a ver los bienes que hay para ejecutar e inventariar; so pena que si entrare y si más se acercare se le puede resistir, sin pena alguna ..."*

Nungo lasterkeretan, nungo legietan ezagutu da onenbesteko erkalmena?. Nolako jakintza adieresaten dute lege onek? Nun dago, gaur, ainbeste erkalmeneta eta askatasuna jasoten eta agerikago, dabitzanen erkalmena?. Gustiok ezagututen dozube nola zigorkatuak izan diran España'n Dagonillaren 10'an jaiki ziranak. Nik ez diñot ondo egin ebela, baizik txarto daguala bat-gaitik onen zigorra gustiak eramatea. Aita gaitik, beronegaz zer ikusirik ez eben seme eta emasteak zigorra jasaten dute.

Asko esan dezakegu gure erkalmenatzas eta berdintasunatzas, baña naiko dela uste zait lantxo onetarako.

IV. Guazen ba orain zerbait ikustera gure aundizkitasuna. Euzkaldunok garbiak gara. Ez degu iñoren odolik geuretarrena izan ezik. Euskalduna izatea naikuba zan aundikia izateko. Euskaldunak euren bardintasuneen, guztiak ziran aundikiak. Ez zen au jasoten beste errietan aundikien artean, oneik, gura ebena egiten, ezereen jaube ez ziranak plebeyos deritxaienak gaziran, baita beste batzuk bion erkikuak. Gure artean ez zan onako ez bardintasunik ezagutu. Entzun zer diñon gure Fueroak. Auxe irakurten da Bizkaia'ko Fueroan XVI agintzan I idaspuruan: *"Otrosí dijeron: Que todos los naturales, vecinos, moradores de este dicho Señorío de Bizcaya, tierra llana, villas, unidad, Encartaciones y Durangueses eran hijosdalgos y gozaban de todos los privilegios de tales hombres hijos dalgos ..."* Eta au ez Bizkaia'n bakarrik, edozein toki edo laterritan ere bai.

Emen askoren agiri ta ziñaltzak esan geinkez, baña luzegua izango litzake eta lantxu onetako geyegi. Bakarrik Andres Navagiero, Venezia'ko geznarirena esango dot 1528'garren

urtean igaro dituan idastian diño: "*Lur gustia biztanduerazita dago, ez dago ez basorik ez mendirik biztanle barik; erriak eta gañera baserri asko daude; aundikienak euretan bizi dira, onela ziñestuten dabe eurak; Españan ere au duñube eta onela autortzen dabe españarrak, lurralde onetan daguela, aundikitasun gustia. Kaltilla-erriko aundiki baterentzat ez dago gaur atsegin eta pozgarrigorik, lur onetan bere sorrera izan ebela esatea bestelakorik. ¿luxe siñesten dute España'ko aundikiak, eta orrela emen, lur onetan dago España'ko aundiki askoran sorrera". Es astu, au diñuana ez dela euskalduna.*

V. Gure berdintasuna, aundikitasuna, jakintza, legeak eta erkalmena aundiak badira, gure siñesmena, gure uzkur-zaletasuna ez da txikiagoa. Zeiñ zan gure uzkurtze zein Jaungoiko gurtuten eben gure antxiñako asaba zarrak?. Noiz egin ziran euskotarrak krustau?. Erresto biurtu ziran kristoen uzkurtzara?. Galdera oneri oso gatxa, zail-zaila da erantzun on bat ematea. Zein zan gure uzkurtza, zein gure Jaungoikua?. Nork daki. Jaungoiko bat ala geyago zitusten?. Berdin. Izkuntzatik zerbait atera dabe batzuben, baña gauza garbirik ez dakigu. Krustau noiz edo nola egin ziran?. Batzuben ariñ biurtu zirala diñube, beste batzuek nekez. Azkenak kristau egiten izan bagiñan ere, gaur krustaurik, zintzuenak beroenak eta jeraitzalerik onenak gera.

Olerki erriko batek diño:

*Euskaldunok pobre*

*Izan gintezke*

*Ez da euskaldunik*

*Pederik gabe*

Egi sakona. Olerki onek garbi darakusku gure asabazarrak euskaldunatsaz euken iritzia. Ez dago euskaldunai pedea, ziñesmena, kendu leikion landertasunik.

Euskotarrak izan ditubezan gudarik gogorrenak ziñesmenagaitik izan ditubez. Moruen, krustauen areriorik gogorren eta itzalenan aurka izan zitubezan guda batzuben laburki-laburki edestuko dodaz.

Lendabiziko moruak lurralde onetara, Naparrua'ra 718 garren urtean eldu ziran. Eta emen, naikua barrutxora sartu ziran. Euskaldunak ondo ezagutu eben urkustzaren arriskua.

Batu ziran gustiak. Laister Alderaman'en burua, odola zeriola Erronkarrien eskuetan ikusi zan. Bere gudaritaldea erbiak txakurraren aurrean baño bizkorrago, ariñago iges egiñ eban. Au izan zan euskaldunen lenengo garaikundea.

Beste batzuben oneri jarraitu eutzen. Ez dodas aipatuko luzeegi izango litzake eta.

Carlo Magno Pantzia'ko Erpuruak, Iruña inguratu eta euskaldun asko il zituban. Gero, Zaragoza'ko morruen buruari lagundutera jua zan. Euskotarrak saminduta egozan beronen eginkerea gaitik. Zaragoza'tik itzultzean, Ibañeta'ko mendian, batzuben eritxis Luzaide aldean beste batzuben berriz Orreaga'n eskutaturik onen zain egoazan. Bein erdiko arru edo barranku batetik Karlo Magno igarotzean, gureak ekin eutsen arriak eta al eben gustia botaten. Ia gustiak Karlo Magno'ren gudari gustiak an il zitusten. Bera osta-ostan gaizkatu zan. Garaipen au euki eben 778'garren urteko Dagonillaren 15'an. Naparruako Bakaldun Fortuño zan.

Ez ziran euskotarrak aispertu moruen arukako guda deun aretan geruago eta garratzago. Zenbat odol izuri eben uzkurtza gaitik ezin leiteke esan be egiñ. Baña bateonbateg esan leike euskaldunak uzkurtza gaitik barik euren askatasuna gaitik ain zoli gudatu ebela. Ez, ez da au egia. Euskalerritik jaurti ondoren, Españatik beste erri bat izan arren jaurti artean ez ziran geratu.

Eta onela Naparrak euren bakaldun Gartzzi Santxes buru ebela eta eurokin beste euskotar gustiak Ramiro I Bakaldunari lagundu eutzen Simankas'en 935'garren urtean. Baita Kalatañazor'en ere 997 garrenean aurkitzen dira eurok.

Gizaldi bat, geruago, 1118'garrenean, moruen gudari guztiak ondatu zituzten eta Zaragoza krustauen eskuetaratu zuben. 1119 garren urtean Kalatayud eta Daroka euskaldunak irabazi zituzten. Andaluzian moruak alkartu ziran eta beste bizaldi baten zeregiñ asko emon eben. Alponentsa VIII'na Kastillako Erpurua estu egoan. Eta Naparrua eta Leon'go Bakaldunei laguntza eskatu zien. Onek ez ziran eldu arek gure eban ordurako. Eta Alarkon'en garaitua izan zan eta Kalatraba eta Ukles galdu zituan. Santxo el Grande Naparrua'ko Bekalduna, Pedro Aragon'gua eta Lopez de Haro Bizkai'ko jauna batu ziren, eta gustien buru Lopez de Haro zala 1212. garren urtean, Garagarrillaren 16'an, Jaen ondoko zelaian jausi ziren danok moruen aurka eta garaipen ikaragarria euki eben kristauak.

Naikua dira guda onek euskaldunak siñesmen bizia adierasoteko. Bakarrik gauzatxo bat.

Euskaldunak ez du iñoiz be toki obeagorik aurkitu Eleiza baino, bai bere sendiaren arteko zerikusietarako bai beste gauza gustietarako. Eta oneal Fueroak agintzen dau eta gaur egunean erri batzuetan, orain urte asko Fueroak ostu arren, oitura au jarraitzen da. Neuk ezagututen dodaz erri bi. Entzun zer diñoan: *"Que habían de Fuero y establecían por ley, que si alguno quisiera vender los bienes raíces que los venda, llamando primeramente en la Iglesia do es la tal heredad o raíz sita en tres domingos en renque en presencia del escribano público, al tiempo de misa mayor, a la hora de la procesión u ofrenda ..."*

Au gaur jasoten da. Toki batzuetan txanburuak berberak dei au egiten dau. Eta emen esan geinkez beste gauzatxo batzubek gaurko sosolisto eta beste Voltaire eta Rousseau'n jarraitzalieri. Baña lantxu onetarako naikua dela uste dot gai onetas esan duguna.

Bakotxak berak egin bitez atzalburuak.

Lenengo atal, au Arrese entsutetsuaren olerki onegaz amaituten dot

Bakarrik dakusk pozgaritxo bat

Euskaldun amen fedea

Benturaz onek bigundu leike

Jaungoikozko asarrea

## Bigarren atala

### Euzkerea'tzas zer bait

Ezagututen dot nere ez jakitea. Eta nik, gai sakon, barrutsu eta mamintsu onetas esan nezakedan guztia ez dala ezertxo bere. Bakar-bakarrik idastietan irakurri dodazan gauzatxo batzuben, albait onduen, garbien eta erreztuen azalduko dodaz. Eta onela, Europa guztian (elejakitun askoren eritxiz) berdiñik ez dubana, eta gaur egunean iya bestertuta, baserritar batzuben bakarrik egiten duben izkuntza besterikezlako orrenganako maitasun apurtxo bat zuen bistzetan ixiotu gura neuke. Askok badakit nere esanen premiñarik ez dozuela. Baña tira ... epel banaka batzuben, amaren magalean, ume aldi zoragarri aretan, berri ere biurtuko ez tiran egun zorundunetan ikasi eben izkuntza samur, eder eta polit au, euren erruz aistuten itxiten deutzenak, eta itz egiten lotsatuten direnak. Negargarria bakarrik euren amagas gomutatuzegarren eta bere maitasuna gaitik, egunero geyago eta geyago ikasi bearrean ... Geyago, Josu-Kristo gaitik. Laister Euskadiko euzkera besterik egiten ez dan erriren bateko arimak gure eskuetan izango dira. Eta euskera noiz ikastekoan daude?. Teologia'n?. Baña danon biotzetan sutxinpartuen batzuben piztutegarren lantxu au egiteko erabagia artu dot. Eta guztiak obeto aditu dagiden Guipuzkua, Bizkai'era zetara egin dot.

Zergaitik dago euzkera euzkotarren artean bastertuta?. Zergaitik askok ez dabe gura?. Gaztelu-erriko, Madrilgo lagiak gaitik apur bat; edo geitxuago, atzerritar asko ogieske, lan bila datortzelako ere baita. Beste apur bat gure izakereagaz aistuta, egoruntz begira, euskaldun batzuk bizidiralako.

Baña, dana ez da origaitik. Ez Mokoroa-Muxika (Kalasandar seme ospetzubak) dauka errazoa. Eta beragaz batera esango dautzuet; Bakarrik lasaientzat estutxoa, lotsagabeentzat begira geitxoduna eta oraingo barrikeri galgarrien etsairik agiriena dalako. Ona emen itz gutxitan dandana esanda.

Arritzekoa da euskera nola ez dan galduj. Euskaldunen izakera besterik ezlakuba gaitik izan leike au onela.

Ainbat arerio ... eta guztiak goituak; kirtenkeri aundiak esan ditubez, gu gerala eta. Iñogas egiñ diranik gauzarik txarrenak lotsagarrienak egin dira gurekin. Amorru eta iñartzi onek naikuba dira gure aunditasuna azalduteko. Ezer baliyo ez baldin bagendu ez litzakez ainbeste aleginduko gure aurka. Eskekua lapurtzera iñok urten dau?.

Areriorik zitalenak batez ere Españan izan dituguz eta doguz. Amaika txakurkeri esan ditubez ...j. Ona emen zer dion Mariana Josulagunak, esukereatzaz bere Españako Edestian "El bascuence es un lenguaje bárbaro y grosero y que no recibe elegancia". Eritxi au Goteunarengandiko esari bat bezela ziñestu zan. Amazortzigarren gizaldian beste erdeltzaiñ edo akademiko bat, Traggia izena eban bat, aurrerago juan zan; entzun zer diñoan: "El bascuence es un mosaico de lenguas bárbaras, introducido -jarraitzen du- probablemente a mediados del siglo VIII por los bascongados para figurar total independencia del extranjero". Eta lengo gizaldian Dn. Gregorio Mayans y Ciscao, jakituna nozbait gauza batzubetan baña euskerarik pitin bat ere ezakienak: "La mayor parte del vascuence, si se observan bien sus vocablos, tiene su origen del latín y su conocimiento importa muy poco". Norañoako amorrua eta iñartzia darakuskube eritxi lotsagarrionekj. Eta erdeltzainak askenez, euren Yztegian "vascuence" itzaren ikuzpenen artean diñube: "Lo que está tan confuso y oscuro que no se puede entender". Beste onako esakera batzuben ere ekarri geinkez, baña naikuba dirala uste dot orren amorrua erakusteko.



Eta legeak zer agintzen dute?. España'ko jardunaren mendean dagoz ikastola guztiak. Beronek izenpetuten ditu irakastleak 1839'garren urtea eskeru. Onek irakasleak andaluzak ez badira, Leon, Gaztela edo Aragon-guak dira. Ykastoletan erdera egiten ezdaben umeai (euzkera besterik ez dakidalako), zigorra. Guztiok dakizute zer jaso jatzuben askori eta zer jasoten dan gauza onetan.

Ona arte esan dogun guztia arerioena izan da. Batenbatek bere kolkorako esan izango dau, ez al du esan orrek euskeraren edertasunatzaz jardun bear dabela?.

Bai, badator,ez dedila iñor estutu.

Euskeraren zartasuna. Entzun dozute Traggiak zer diñon. Entzun ba orain zer diñoan beste España ele-jakitun entzutetzun batek, Menendez Pidal'ek, bere "Introducción a la lingüística vasca'n": "Tenéis todas las ventajas para emprenderla y llevarla a cabo; una lengua cuya bibliografía puede ser abarcada sin cansancio y muchas de cuyas cuestiones interesantes apenas están desfloradas; un territorio pequeño que comómodamente puede ser recorrido, una variedad interna sumamente ilustradora y, sobre todo, un arcaísmo misterioso, preñado de intereses. No hay documento histórico más venerable que este documento vivo, esta lengua conservada sobre el territorio desde época incalculable, quién sabe si anterior al clima y al período geológico actuales. Ella en sus multiseculares sedimentos nos ofrece restos preciosos para ilustrar los más oscuros problemas de la historia".

Gizonak arriaz euren iskillu eta beste gauzetarako erabilten eben aldian beintzat, bizi zan gaur egiten dogun euskera. Orrela ainbat lanerako eta beste tresnaren izenak aldi aretakubak dira, euren artian atxur, bustarri eta abar.

Euskaldunen izkuntza eusko abendeari darakion bezelakuba da; eta izkuntza da Pluntschlil'ek diñuan letz, erriak dubenik gauzarik onena eta berekoyena, bere izakerearen agerpen garbi eta biziena.

Au ondo dakiala egin zituben Jauregitar Goldobikak, olezkari bikain eta eritarrak,olerki onek:

Euskal-erria Euskerik gabe ...

¡Bai erri gaixoa ...¡

Masti orritsu ederra baña ...

Matsik gabekua,

Loretégian il eta agortu

Dan iturritxua

Eta beste toki baten:

Euskerik gabe nola liteke

noletan Euskal-erria?

Zertako degu gure basoko zugaitz gañean

txoririk ez dun kabia?.

Egi bizi-bizia darakaskube olerki samur eta erretz onek. Ain erri-zaleak gerala eta noletan maitatu ez euskera?.

Jarraitu daigun euskerearen edertasun eta aunditasunatzat zerbait esaten.

Izan dira jakitun batzubek gure izkuntza ondo ikasi eta gai onetzaz idasti ederrak egin ditubenak. Euren artean entzutetsuenak dira Humboldt, Van Eys, Vinson, Bibary, Dodgson, Schuchart, Baeno, Hermann, Meyes, Lübck, Robll eta abar, batez ere aundienetaikua Luis Luciano Bonaparte bakalgaia.

Mr. Ribary, hungaroar ele-jakitunak bere "Essai sur la langue vasque'n" diño: "Ele=jakintzak lengo aldietako ondakin ederrenetarikuen artean jartzen duala euskara, eta

Europa'n ez dala aditz-jokera edo berbo bikain eta ederragua dubanik". Ez aistu, atzerritara danik.

Oindiño geyago. Mr. Vinson ele-jakitun aundia, baña ez ain gure begikoa, "Melanges de linguistique et d'antropologie" idatzian entzun zazute zer esateraño ausartu zañ: "Euzkera nahi lateragaz, nai gerkeragaz, nai pantzeragaz, nai erderagaz, eta beste onen antzeko izkuntzagaz berdindu ezkeru, idaslea, ele-jakituna zorabiatuta geratzen da; eta erraldoi bat epo edo ume zorri batzuben onduan ikusten dubela deritxaio".

Larregiak diriala itz onek begitanduko jakube batzuberi. Baña alantxe dala esan geinke gure izkuntza ikasi daben ainbeste ele-jakitun eritxi onetakuak diriala ikustean.

Ona emen Sealigero idaslearen eritxi bat. "Nihil barbari aut stridonis, aut anhelitus habet, lenissima est et suavissima". Guztiok dakizute lateras eta euzkeraldu bearrik ez du. Au diño gure izkuntza eder eta maitegarriagaz jardutean.

Askok beren ezazoltasuna eta nakikeria euzkera jakintzarako ez dubela balio esanaz, gura dabe estaldu. Baña zegati onek ez dau batere balio. Bonaparte Bakalgaiak euskera ondo ikasi ondoren, eta baita Europa'ko beste izkuntza asko, entzun zazute ser diñoan: "Euskera bakar-bakarrik arrotu leike Europa'ko aditz-joko aberatsena eta logika'ko erarik ederrenak izateagas". Beste jakitun askoren eritxiak ekarriko nituke, baña larregi luzatuko nintzake. Beste batzuk beste aitxaki bat ere sarritan darabille miñaren puntan. Sarritan entzuten da euzkeraz ez dagola idastirik. Ori dala eta ez dute gura euzkerarik. Euskera gixajua. Gure erru guztiak berari jarten deutzaguz. Nola izango dira ba orrela idastiak euzkeraz, euskaldun guztiak ori egiten ba dabe?. Uste dezute erderaz nai pantzesaz izango ziriala ainbeste idasti, erdeldunak eta pantzesak, izkuntza onek sortzen asi ziranian, erderaz eta pantzesaz ez zala idastirik eta lateraz idasten jaraitu baeben?. Axular aundiaren itzak ikasi bear lituzkez onek gustiok: Ara emen; "Orain badirudi euzkerak, ahalke dela, arrotz dela, ez dela jen'artean ausart, erregu, bhitore eta ez trebe, zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuk nola eskiriba eta ez nola irakur. Baldin egin balitz euzkeraz hambat liburu, nola egin baita latinez, pantzeses edo bertze erderaz, eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta complitu izanen zen euzkara ere, eta baldin hala ez bada euzkaldunek berek dute falta, eta ez euzkarak". (Geroko gero).

Euskara maitatu bearrean gaude errietako siñesmenagaitik ere. Garbiro ikusten dogu erderarik sartu ez dan erriak askoz ere oitura obeak dituztela, siñesmen sutzuagoa, eleizkoiagoak. Gure erriak euskera eske dagoz eta euzkera ikasteko agintzen doisku Doipuruak. Gai onetzaz Arruti jaunak kardaberestarren lenengo batzarrean obeto baño obetoago jardun zuban. Orregaitik nik gai onetzaz zer esanik ez dot.

Ez bildurtu, ez ikaratu. Euskera guk gura badogu ez da ilgo, eta beronek gaiskatuko gaitu. Entzun zer diñon Euskadiko erkabak, kampun jaun agurgarriak: *"El vascuence puede salvarse ... y salvarnos. Querer es poder. Su muerte no hay que atribuirla a la invención de una ley fatal, superior a las voluntades de los hombres. La carencia de sentido jurídico de los Estados español y francés, auxiliada por la tibieza de nuestro patriotismo, serán los causantes. Tenemos derecho de reclamar la derogación de unas leyes que nos arrebatan nuestra misma personalidad. Pero conjuntamente estamos obligados, por piedad filial y honor de la raza a restaurar el imperio del euskera dentro del país euskaro. ¿Cómo han de respetar los ajenos aquello que los propios desatienden y abandonan?. El pueblo euskaldun verá, si quiere manchar su honrada y épica historia con una irredimible y degradante abdicación"*.

Esta, beste toki baten:

*"Del conflicto con las lenguas vecinas saldrá alterado pero no muerto y esas alteraciones podrían ser combatidas eficazmente por la literatura indígena. No se atribuya el triunfo a la mayor vitalidad del castellano o francés; si esas lenguas estuvieran sometidas al mismo régimen*

*que el vascuence, sucumbirían también; quien aquí vence es la opresión del mayor número y la violación del derecho natural de todo hombre de hablar en su lengua.*

*Es verdad que podemos consolarnos leyendo en castellano y en francés las declaraciones de derechos individuales que adornan las páginas de nuestras instituciones de papel. ! Venceremos!.*

Epaitu zeuek.

Ez da ilgo, ez. Egia da zauriak ditula. Gizaldietan aurerioak saiatu dira euzkara ilten. Donostia'ren soñien zauriak eta dardak lotsagarri ez baldin badira, ala Euzkera, andere eder eta lirrañaren soñean, arerioak egindako zauriak aintza eta ospea dira. Eta gizon on bat gaiztuen artean, onentzat (gaiztoentzat) beren txarkeri guztiak, gomutatu eragiten deutsezan arantza zorotz bat dan erara, euzkera ere bizi dan, artean beti ari da, arerioen ezerreza, azalduten. Ala diotsa euzkerark onei: Zikiñak zera lizunkeria besterik ez dezute; zuek sortu zinduzan jaun errukitsu eta onarentzat izan leikezenik itz zatar, ikaragarri, zikiñ eta lotsagarrienak, dituzubez. Nere sabeletik ez du orrelako itz batek ere urten. Ni eta zuek sortu ginduzan jaunarentzat nere itz samur, goxo, bikain eta politenak ditut. Berantzat dira nere baratz ikusgarriko lorarik usaintsubenak. Aneika eta aneika urte dira zirikatua, gudatua naizela. Bizi naiz. Zuek ilgo zerate; zuen amen eriotza ikusi neben; zuen arrebenak ikusten ari naiz, eta zuen amak eta arrebak bezelaxe ilgo zerate. Eta ni Jaunak beretzat, beste aldi baten. Nor gorde zuan erara ludia biztandu-erasiteko, ni gura nau betiko bizitzarako.

Euzkara, ialgi adi kampa!

Euzkara, habil mundi guzira!

(Etxepare'k orain laureun urte)1.933

## Apuntes. Cambiar de lengua es cambiar de alma

Bluntshil, "Teorie generale de l'Etat" "El Estado no tiene el derecho de arrancar a un pueblo su idioma, ni de impedir su progreso, ni su literatura ... Proscribir de la Iglesia y de la escuela la lengua de un pueblo civilizado, es una amarga injusticia". Kampion "Las legislaciones que, en más o menos grado, cometen esta injusticia, como la castellana y la francesa, son unas legislaciones bárbaras".

Kampion "Si en nombre del mero derecho natural, base del derecho político, nos asiste razón para perseguir la derogación de esas abominables leyes, todavía estamos mejor fundados para reclamarla en nombre de la cultura moral. Es un hecho que allí donde desaparece la lengua euzkera, por lo general las costumbres se vuelven ásperas, desabridas, violentas; las pasiones se desordenan, los instintos se desatan, los hábitos se pervierten. Donde imperaba un lenguaje morigerado y respetuoso se escuchan expresiones soeces e inmundas blasfemias ... Los gestos, las actitudes, las frases, los chistes, los cuentos, los juegos, los bailes, las canciones, todos los elementos que constituyen el trato ordinario de la vida se embastecen y encanallan".

Edgar Quinet "Les Roumais". "Las reivindicaciones de las nacionalidades son la consecuencia inevitable del desarrollo de la cultura literaria, de la prensa, de la democracia. El ejemplo más curioso de esos renacimientos nacionalistas se encuentra en Finlandia. La civilización era completamente sueca; el finnés, lengua desdeñada, estaba acorralado en el fondo de los campos. Hoy es la segunda lengua oficial. La enseñanza primaria se da en casi todas las partes en este idioma. En Galitzia el polaco ha reemplazado completamente al alemán. En Bohemia el Icheque triunfa definitivamente.

"¿Qué lugar ocupaba en el siglo XVIII la lengua alemana cuando Federico II se jactaba de ignorarla y escribir el francés tan bien como Voltaire?. Era sin duda siempre la lengua de Lutero,

pero no era ni de las clases superiores que preferían el francés, ni de la ciencia que se valía del latín. Hace 90 años el maggar era el idioma despreciado de los pastores de la Puzta. La lengua de la alta sociedad y de la administración era el alemán, la de la Dieta y de las escuelas superiores el latín. Iguales conquistas del dialecto en Croacia, en Bohemia, en Galitzia, en Rumania, en Servia, en Bulgaria. En todas partes el renacimiento literario precede a las reivindicaciones políticas.

El dialecto esloveno, el más puro de los idiomas yugoeslavos, se había convertido en una jerga hablada solamente por los aldeanos. La lengua de la administración, de la literatura, de las clases acomodadas; en una palabra, de la civilización, era el alemán. Todo el país parecía definitivamente germanizado; pero, en 1835, la concesión del derecho electoral produjo la resurrección de la nacionalidad eslovena, gracias a la actividad intelectual de una legión de poetas, de escritores, de periodistas, de maestros y, sobre todo, de sacerdotes, los cuales veían en el idioma nacional una barrera contra las invasiones del libre pensamiento germánico. Saveleye en "La Revista de Ambos Mundos".

Kampión "Las lenguas, como todos los organismos vivientes, perecen por causas naturales, pero son las menos, como son los menos los hombres que mueren de pura vejez; pero este no es el caso de la lengua euzkera. Su fuerza vital no está agotada; no se muere, la matan. Proscrita de la enseñanza, arrojada de la vida oficial, víctima de un tenaz ojeo burocrático, huérfana de la menor protección, acordonada como un foco infeccioso, sufre el mismo destino que el altivo francés y el orgulloso castellano sufrirán el día que sobre ellos caigan garras tan crueles y despiadadas.

Allí donde el griego -que era una lengua de filósofos, de poetas, de artistas, de pensadores incomparables, y el órgano más bello de la elevada, completa y humana cultura de la antigüedad- se ha visto rodeado por el latín, órgano de una civilización de segunda mano y de calidad incuestionablemente inferior, pero rica como pocas en aptitudes e instrumentos de prensión y asimilación, el griego pereció; tal en Sicilia.

(Sigue Kampión) Ahora volved la vista a Oriente y veréis que al alemán no le está sirviendo de nada el ser todo lo que el castellano y el francés son respecto del vascuence y que a pesar de Goethe, de Schiller, de Lessing, de Juan Pablo, de Heine, de Herder, de Grentzer, de Kant, de Hegel, de Schopenhauer, de Ehibaut, de Savigng, de Niebhur, de Hugo, de Sthal, de Schliermacher, de Wete, de Ewald de Strauss, de Scheicher, de Grimm, de Bopp, de Diez, de Pott, de Weber, de Gregoriovus, de Gervinus, de Mommsem, de Humboldt, de Vogt, de Verchow, de Mozart, de Beethoven, de Wagner, de Haulbach, a pesar de esa larga pléyade de filósofos, de poetas, de músicos, de pintores, de sabios que han creado la universal cultura germánica, le aguerda el mismo fin que le tiene pronosticado al humilde idioma de los carboneros de Val de Erro y de los pescadores de Ondárroa ..."

Arrese Beitia

"Bere azpian umildu ziran

Errege gaztelakoak

Eta lekuri ez eben izan

Sekula berriz moroak;

Atzera gura badogu izan

Libre len giñan lakuak,

Itxi daiguzan erdeldunentzat

Erdaldun diran kontuak

Aztu daiguzan geure artean

Izan diran asarreak,

Izan gaitean anaiak eta  
Euzkaldun zintzo garbiak  
Betoz guraso zarren fedea,  
Betoz asaben legeak  
Bere negarrak leortu daizan  
Ni jayo nintzan erriak"

Dn. Manuel de Lekuona "El vascuence actual no es más que una ruina del que fué. Con todo, es la admiración y maravilla de los sabios".

Kampión "Entonces me avergoncé de llevar sangre euzkara en mis venas y de ignorar la lengua nativa de los euzkaros.

Aunque el euzkera fuese un lenguaje desabrido y torpe, le amaría yo como a las niñas de mis ojos".

Kampión "A consecuencia de su posición geográfica, el euzkera se encuentra en contacto, y por lo tanto, en lucha, con dos lenguas literarias oficiales, administrativas y políticas, protegidas por la tiranía unitaria de dos grandes naciones, que siempre tienen la palabra libertad en los labios y la coacción en las leyes".

1884. Según P. Bonaparte, hablan euzkera 800.000; 640.000 en España y 140.000 en Francia.

Humboldt "Una circunstancia notable del vascuence es que esta lengua agota todas las modificaciones de una manera perfecta".

Mr. de Abbadie, añade "Esa lengua se parece a una sabia álgebra; sus elementos son sencillos, sus combinaciones numerosas y sus resultados satisfactorios". "Etudes gramaticales sur la langue euzkarienne".

Kampión "El punto de vista sintético de la flexibilidad maravillosa del euzkera se encierra en el siguiente axioma; toda palabra puede conjugarse y declinarse, es decir, todo verbo puede tratarse cual si fuere nombre y todo nombre cual si fuese verbo. El pensamiento humano domina sin límites; es señor, es rey, es autócrata de las palabras; estas a modo de ductilísima cera, reciben todos los sellos; se asiste al portentoso avatar de los vocablos por la fuerza infinita de la idea. La palabra toma todas las formas de ésta; crece y se dilata, y refleja sus colores y se enciende en sus luces"

Mr. Lecluse "La conjugación bascongada nos ofrece un aparato prodigiosamente vario ... Marca las relaciones directas e indirectas de las diferentes personas entre ellas, con tanta riqueza y regularidad, que puede justamente apreciarse cual obra maestra de filosofía" "Manuel de la langue basque" (sigue) "Terminaré el examen de una conjugación con la que puede ufanarse la lengua bascongada ... conjugación que, llevando el sello del verdadero genio, bastaría sola, en mi opinión, para señalarle un lugar distinguido entre las lenguas más ricas y filosóficas".

Mr. Darrigol (Dissertation sur la langue basque) "Encerrar en sí los pronombres singulares y plurales de las tres personas; agotar con un laconismo perfecto todas las combinaciones matemáticamente posibles entre los seis pronombres personales ... expresar con una facilidad que admira, con una variedad que encanta, con una rapidez de expresión sin igual, todas las actitudes o situaciones respectivas que pueden tomar esos diversos pronombres empleados como sujeto y complemento directo y complemento indirecto, tal es el mecanismo interesante y la riqueza singular de ese verbo incomparable".

Kampión "En efecto, el verbo vascongado además de poseer formas verbales distintas para el tratamiento masculino y femenino familiares, el respetuoso, y, en uno de sus dialectos (el bajo nabarro oriental) el diminutivo, tiene, además, las necesarias para expresar, incorporándolas a

la flexión, las siguientes relaciones: 1º) Relación de sujeto a régimen indirecto: zait - el me es; zaizu - te es; zayo - le es. 2º) Relación de sujeto a régimen directo: nau - el me ha; zaitu, du.

3º) Relación de sujeto a régimen directo y a régimen indirecto, a la vez: dit - el me lo ha; dizkit - el me los ha; dizu - el te lo ha; dizkizu - el te los ha; dio - el se lo ha; dizkio - el se los ha.

Bonaparte (Le berbe basque) "Si a ésto se añade que estas relaciones pueden expresarse en once modos, veinticuatro tiempos simples y noventa y un tiempos compuestos, nadie se extrañará de que califique a la conjugación euzkara de portentosa".

Kampión "De total independencia goza el bascuence en la construcción de las frases, por lo que se puede decir que esta parte importante del arte de hablar correctamente, más es en el bascuence del dominio de la Retórica que del de la Gramática.

Darnigol (Dissertation sur la langue basque) "Deferir la colocación de las palabras a la naturaleza del pensamiento; imitar en su arreglo, la tranquilidad de sus ideas contemplativas, o seguir a nuestros sentimientos en su impetuosidad, en sus variaciones, ese desorden que los hace atravesar, como por medio de un salto, lo que la idea seguiría paso a paso; arreglar los elementos del discurso al orden más propio para instruir o abandonarlos a la influencia de la armonía, al juego de la imaginación, al interés, para conmover y arrastrar, prestarse por lo tanto a todos los géneros y a todas las circunstancias; he aquí los privilegios de nuestra construcción".

Inchauspe (Le berbe basque) "El verbo es la gloria y orgullo de la lengua bascongada".

Kampión (Gramática bascongada. Pag. 308). "A mí se me presenta como un edificio de colosales dimensiones, levantado sobre anchos y resistentes cimientos. Si atendemos a la abundancia y solidez de las materiales, calificámoslo de labor de cíclopes; pero en dirigiendo los ojos a las esbeltas torrecillas y afiligranadas agujas, lo debemos calificar de labor de adas. Regularidad, proporción y armonía en las grandes líneas; minuciosa riqueza en los infinitos detalles. La nave severa es un hormiguero de formas; un bosque dentro de un templo griego. El ánimo empieza en sobrecogido para terminar en fascinado. Las injurias del tiempo se pierden en la hermosura sin igual del conjunto. Se admira ... La oda aletea sobre los fríos análisis de la exposición didáctica".

Kampión, "Tan maravillosa estructura no podía menos de provocar la elaboración de numerosas teorías encaminadas a explicarla.

El Sr. Inchauspe "La lengua bascongada no tiene más que un verbo. Este verbo tiene dos voces; la intransitiva y la transitiva. La voz intransitiva, da, naiz ... sirve para expresar un estado del sujeto, una acción recibida o una acción ejecutada por el sujeto sobre él mismo; la voz transitiva, du, dut ... sirve para expresar una acción ejercida sobre una persona o una cosa distinta del sujeto del verbo. Esas dos voces son complemento la una de la otra y no deben ser consideradas sino como constituyendo un solo verbo. Efectivamente, la misma acción necesita las dos voces, de igualmente que necesita los diversos modos para expresar sus diversas relaciones".

La teoría de Mr. Darnigol en el fondo (según Kampión) se aparta poco de la anterior. Se le puede considerar tanto coma un unicismo mitigado, que como un dualismo categórico (Dissertation sur la langue basque). "No resulta solamente de esas observaciones que las fórmulas naiz, dut, son los dos verbos primitivos de nuestra lengua; se hace preciso reconocer también que la naturaleza del verbo no se encuentra más que allí donde se halla, en cierto modo fundida, alguna de las dichas fórmulas; lo cual nos conduce a esta última consecuencia: la lengua bascongada propiamente hablada, posee únicamente dos verbos. El primero responde ventajosamente al verbo sustantivo "ser" conocido en todos los idiomas; se usa siempre que se trata de afirmar en cierta manera la sustancia del sujeto. El segundo es una especie del verbo "haber", afirmativo de la acción más general posible, de un sujeto sobre otro".

Astarloa en la Apología de la lengua bascongada: "El vascuence en su verbo es un vivo retrato de la naturaleza. Si ésta tiene dos modos distintos de accionar, los analogiza nuestro idioma en la división que hace de su verbo; con el verbo doble da a entender aquellas acciones que los entes obran con el concurso de otro agente; con el sencillo, caracteriza las que activan los mismos entes sin concurso de otro sujeto.

Para analogizar a la naturaleza en estos dos singulares modos de accionar, divide el Bascuence su verbo en doble y sencillo; usa del segundo cuando los entes ejercen sus facultades por sí solos; y del doble cuando con ellos entra otro agente. "Si nuestros verbos no tienen características de doble acción son sencillos, pero si después de la primera letra de estos verbos vemos la sílaba "ra" ya es doble; el verbo ikasi es sencillo, porque no vemos después de su primera "i" la característica "ra", y significa "aprender" por sí mismo; pero si decimos i-ra katz, damos a entender que el ente ha aprendido por ministerio del maestro y con este verbo significamos lo que el castellano con "enseñar".

"Los entes unas veces hacen la acción representada por los verbos, siendo otro ente el que padece; otras veces padecen, y otras hacen y padecen al mismo tiempo. Las lenguas para analogizar estos tres diferentes estados en que pueden comunicarse las acciones han de tener tres diferentes inflexiones o verbos, así en el sencillo como en el doble; por lo mismo el Bascuence ha dividido sus verbos sencillo y doble, en activo, pasivo y mixto ..."

"Una es la conjugación de los verbos bascongados; conjugado el verbo amar está conjugado el leer, escribir, contar". "Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua Astarloa" "Todos los idiomas tienen dos diferentes inflexiones en sus verbos para distinguir la acción y pasión a quienes llaman ordinariamente voz activa y voz pasiva".

Kampión "El sistema verbal de los cuatro dialectos (que para el caso representan a toda la lengua euskara) es uno en su naturaleza y uno en sus procedimientos, aunque vario en su desarrollo. El carácter meramente dialectal que ostentan los diversos representantes de la lengua euzkara hoy conocidos estalla acaso con más viveza en la conjugación. Los puntos de contacto son, empero, muy numerosos y los de diferencia se explican perfectamente por el influjo natural de las fuerzas que nos son muy familiares. En vano diferirán entre sí los dialectos en modos y tiempos; el análisis reducirá a los disidentes a la ley de la unidad y nunca encontraremos otra cosa que nuevas aplicaciones de la misma virtualidad o idea verbal que palpita en todas y cada una de las conjugaciones propias de los dialectos, subdialectos y variedades. Si tratándose de un territorio reducido y de condiciones físicas y morales casi idénticas en suma, la diferenciación dialectal ha alcanzado los grados que actualmente medimos, se impone la consecuencia de que repartida la raza euzkara en un territorio extenso, y sometida a condiciones físicas y morales profundamente diversas, las variaciones en el lenguaje han debido de estar en proporción con aquellas, hasta el punto de que hayan pasado por lenguas tan absolutamente extrañas entre como se reputaron las de la cepa indo-europea antes que la moderna lingüística aprendiese el camino de subir a las primitivas formas y reconstituir las comunas o como en la actualidad lo parecen las de la cepa latina a las personas totalmente desprovistas de cultura lingüística. De todas suertes, y aunque se admita con restricciones, es pié forzado de toda buena exégesis de los textos históricos referentes a las antigüedades ibéricas y aquitánicas, el principio de que la raza euzkara debió de hablar variedades dialectales lo suficientemente desemejantes para ser reputadas idiomas por los extranjeros, si es que realmente no lo fueron, ya que no en la grave proporción de los descendientes del sánscrito, en la más leve de los descendientes del latín.

La conjugación nos revela la existencia de un sistema de pronombres más rico que el actual, con serlo tanto". (Gramática Bascongada Capítulo XXVII. Pág. 786).

## Ekin eta jaraitu

I. Euzkadiko apaizok beste aberri eta tokietakuak baño nagiaguak, alperraguak ...? Gure ondorengiak gu, Euzkadiko apaizak nagitzat botatea, ez dot uste zueri bere atsegin izango jatzuenik. Beste aberrietakuak baño gitxiago gerala entzuterik ere ez dogu gura. Baña gure amak erakutsiriko euzkera izkuntza berezi ahu, berbiztuten, apaintzen eta zabalduten sayatzen ezpagera, beñobein entzungo da, beste errietakoak baño gutxiago eta nagiaguak izan gerala.

Españako elertiaren edestia artu eta adegi daigun. Eredral batez ere bere asikeran, dituanik gizonik naitaleenak, aundienak, idazlarik onenak, apaizak dira. Gonzalo de Berceo, Juan Ruiz (Arcipreste de Hita), Juan de la Encina, Alfonso Martínez de Toledo (Arcipreste de Talavera), Alfonso de Madrigal, Benito Arias Montano, Fray Luis de León, San Juan de la Cruz, Francisco de Rioja, Rodrigo Caro, Bartolomé Leonardo, Fray Diego de Hojeda, Bernardo de Balbuena, Mariana, Lope de Vega, Tirso de Molina, Calderón eta abar,. Oñez gañera beste asko bigarren mallakuak eta oindiño lenengokuak be.

Frantzian ere asko dira, Rebelais, Bossuet, Flechier, Bourdaloue, Marsillon, La Rue, Fenelon, Lacordaire. Ytalian entzutetsuak dira Benedetti, Celano, San Francisco de Asís, Fray Pacífico, Señerri. Ynglatera'n San Beda, Wiseman. Catalonia'n Verdaguer, Costa Llovera.

Euskal elertiaren edestian apaizok ugarien izatea gura dogu?. Ekor lanari asteko dagozanak, asiak ostera jarraitu.

II. Oindiño Euzkara'k ez daukala elertirik, egia da. Baña gaur elertirik ez daukala ta beste barik bastertu biar dogu?. Ori dala ta bastertu daben elertzaleak badira. Orra or bat, Fitzmaurice Kelly. "El vascuence niño mimado de los filólogos no ha acrecentado gran cosa la suma de delicias del mundo". Españako elertiaren edestian diño au. Orain entzun egizuez Atxika-Allende'Jaunaren itzak. Ondarretan Iraillien izan eban itzaldian ziñuan, *"esa lengua humilde que Ud. tan microscópica ve desde su telescopio crítico ... ha hecho el milagro de la perduración de toda una raza a través de los tiempos, de los hombres y de los acontecimientos. No ha necesitado darse en epopeyas, pues que ha cumplido la más grande epopeya que ojos humanos hayan visto y que ojos arcangélicos habrán presenciado pocas veces: la epopeya de la continuidad, de la perdurabilidad vasca, de la indestructibilidad racial euzkadiana, como clave portentosa que se enfrenta con la muerte y le arrebatada su presa con la furia de sus erres, para luego acariciarle en el regazo con la suavidad aterciopelada de su "t" mojada de esa "t" que va en ese "aite", de esa "t" que va en ese "aite", de esa "t" que va en ese "kutuna", palabras todas entrañables que suben de un corazón blando a una boca blanda y que hasta hoy no han sido superadas en sonancia y emoción por ninguna expresión afectuosa de las lenguas redicentes cultas, de los idiomas redicente ilustrados ... (Iraílaren 3'an).*

III. Ez da belu oindiño. Sartzarora gaitik il biar dau iskuntzak beste lurganeko bizitzadun guztien erara. Baña sartasunaren sartasunez il dira iskuntzak gitxi dira. Aguretuta ilten diran



gizonak be gitxi dira ta. Euzkera bere ludipretako eginbearra bete dabelako galtzen ete da?. Ez "*no se mueve, la matan -diño-*" kampion, agurgarriak eta jarraitzen dau. "*Proscripta de la enseñanza, arrojada de la vida oficial, víctima de un tenaz ojeo burocrático, huérfana de la menor protección, acordonada como un foco infeccioso, sufre el mismo destino que el altivo francés y el orgulloso castellano suspiran el día que sobre ellos caigan garras tan crudas y despiadadas*". (Gramática Bascongada).

Alde guztietan itz egiten eta zabalduten alegintzen bagara gaizkatuko dogu. Ez uste izan gauza aleziña dala. Alperrik gerkeria idazle, jakitun eta olerkari aundien izkuntza izana zan, laterak gaitueban. Estae baterako, Sizilian.

XVIII garren gizaldian doitzera (aleman) gaur euzkera aurkitzen dan taixuan egoan. Voltaire'k bestian ondo pantzeraz idazten ebala ta, arro bixi zan, Pedriko Ilgarrena Alemaniako Bakalduna. Lutero'ren jarraitzaileak bakarrik doitzerez idatzi eta mintzatzen ziran. Irakasleak eta ikasleak latera ikaskizunetan eta pantzera ostinguan erabilten eben. Aundikiak Pantzera egindo ebela zeresanik bere ez dago.

Orain gizaldi bi ezta eta larri eguan izkuntza ori, nasai eta zabal bizi da gaur. Berauxe jaso da Kroasia; Bohemia eta Galitzia'ko (dialecto) elkiekin. Rumania, Serbiak, Bulgaria, Finlandiak eta Leturiak gauza ikasgarri asko darakuskubez. Beste egun baterako itxi biarko ditugu.

IV. Orain dala gizaldi ta erdi inguru eslobera baserritar batzuk bakarrik egiten eben. Eta lentxuago oinpetutako izkuntza ori gaur baserritarak leintxe kaletarr eta jakitunak derabile. Eta zergaitik orrenbesteko aurrerakuntza?. Eskerrak izparlari, oleskari eta -idazle mordoska bateri eta batez ere edesakari ospetsu batek diñuan letz apaizeri; doitzearren ottura lixun eta asmo txarrei aurrez egiteko izkillu ezin-obeia zala ikusirik idazten eta izkintzatzen asi zirian apaizeri.

Arrotzen ottura gaiztoen aurrean jartzeko esi berezia dogu euzkera. Uzkurtza zaindu gura ba dogu, gure abesti, jolas eta dantza garbi eta alajok galtzerik gura ezpadogu, zaindu ta zabaldu biar dogu euzkera. Bera sortu daben Jaunarentzat beronek dituan itz samur, goxo, bikain eta politenak, birau bat baga, dituan euzkera begiko au zabaldu kardaberastarrak. Euzkarak irauten daben erriak uzkuartzaleagoak, garbiaguak ez aldira?. Ekandu onak euzkeragaz batera galtzen dojaz. Birauak osteria girtuaz, dantza txarrak indartuaz, abesti zatarrak, ipuin eta jolas loiak umeen artean bere zabalduaz. Egiz euskara lasaiatzat estutuxoa lotsagabeentzat begira-geitxoduna eta oraingo barrikeri galgerrien etsairik agiriena izan bear da. Eta gu, zeren bila gabiltz, txarkeri guztiok bastertuteko izkilua eskuztan izanik?.

V. Eta onez gañera ez al-da gure izkuntza?. Geure gauza bat ondo jakitera bearturik ez gagoz?. Ludiko izkuntzarik errukarri eta itsuziena balitz bere biotz-biotzetik maitatu bear genduke geuria dalako. Ludian danik gauzarik ederrena izkuntza da. Alperrik izango da besteen artian zatarrana. Izkuntzarik itxusiena bere gauza arigarria da.

Eta euskera ...? Mariana, Traggia, Mayans, Kelly'k eta abar, gura dabena esan dagixela. Euskararik jakin ezarren astakeriak esango dittue. Euzkera ikasi dabeneri jaramon eginbear deutsegue.

Lenengo, aurrean daukagun irakasle ospetsuak toki onetan esan euzkuguna igaz, gogoratu biar dautsuet. Gaur darabigun euskera au ez dala lengo euzkeraren ondakin bat baño. Ez ondakin txarran izan bere ...!. Eta alan da guzti ere ele-jakitunentzat dagoan izkuntzarik ikusgarri eta zoragarriena da.

Venson ele-jakitun entzutetsua ez da aspertzen euskera goratzen. Latera, gerkeria, eredera ta abar, euskeraren onduan ume zorri edo epo batzuek erraldai baten albuaren esateraño ausartu zan. Larregi ete da?. Ez dakit; au esaten dabena ... ez da euzkalduna beintzat.

Euzkeraren aditz-jokoa (conjugación) Jaungoikua'gandik datorrela bakarrik, ez dala gizonak asmatuak diños-ku Hugo Schuchardt'ek.

Oldozkun'ak edo gauzak dituan azkenengo apurrak ere ziaz azalduteko indarra izatea dala-diño Humboldt'ek euskeraren gau zarik zoragarriena eta ederrena.

Abbadie Jaunak aindizti edo algebra oso bat dala; bere gaikiak bakunak; bere erabil-erak ugariak eta egokiak izanik.

Euzkarako itz guztiak, aditz edo berbo egin geinkez. Entzun egiozue Kampioni gauza onetzaz. *"El pensamiento humano (en el euskara) domina sin límites, es Señor, es Rey, es autócrata de las palabras: estas a manera de ductilísima cera, reciben todos los sellos ... la palabra toma todas las formas con tanta riqueza y regularidad, que puede justamente apreciarse (la conjugación) cual obra maestra de filosofía ... Si a esto se añade que estas relaciones puedan expresarse en once modos, veinticuatro tiempos simples y noventa y un tiempos compuestos, nadie extrañará que califique la conjugación euzrara de portentosa"*.

Itzak gogogajen menpean eukita oldozkuneen erara batian gogorak eta bestian goxoak, itunak orain, gero alaiak izatea, euzkerarena da. Itz berriak egiteko gerkerak besteko errestasun aundia dauka. Emakumeekin eta gizonezkuakin jarduteko aditzerak bere baditu; oindiño gejago, emakumien eta gizonezkuen artian bere gurasuentzat, lagunentzat eta nagusientzat aditz-era bereziak euzkerak bakarrik ditu.

Apaiz Euzkaldun batek, Astarloa Jaunak diñuan letz, izakiaren irudi bizi bat dirudi euzkerak. Yzakiak besteren laguntasunik бага egiten dabena, aditz-joko bakunean azalduten dausku; beste-bateren laguntasunagaz amaitzen dabena ostera aditz-joko toloztuan. *"Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua"*.

Oñarri zabal eta gogorren gañian jasoriko etxe aundi eta ikusgarri bat dirudiela diño Kampion'ek eta gero jarraitzen dau. *"Si atendemos a la abundancia y solidez de materiales, calificámoslo de labor de cíclopes: pero en dirigir los ojos a las esbeltas torrecillas y afiligranadas agujas, debemos calificar de labor de hadas. Regularidad, proporción y armonía en las grandes líneas; minuciosa riqueza en los infinitos detalles. La nave severa es un hormiguero de formas; un bosque dentro de un templo griego. El ánimo empieza en sobrecogido para terminar en fascinado. Las injurias del tiempo se pierden en la hermosura sin igual del conjunto"*. Gramática Bascongada.

VI. Beste aberrietako apaizak baño alperraguak izate gaitik ardua ezpadeusku besterik-ezlarako izkuntza onen edertasunak ikasra eragiten ezpadeusku, geure amaren eraileak izan gerla gure ondorengiak esateak ikaratzen ezpagaitu bere, naita naiez Eleiza Amal egintzen deuskulako ikasi bearko dogu euskara.

Baten-batek esango deusta Euzkadiko erririk erdietan erdara egiten dala ta... Eta zer?. Belgike deritxogun lurraldean izkuntza bi egiten dira. Plandez izana daraman aldean doitzera, ostinguan Partzera. Mercier Jauna, Belgike'ko lenengo Janzkorduna edo kardenala zanian Benedicto XV garrenak idazti bat egin eutson eta bertan inotsan *"maxime vero linguam proble colleat (sacerdotes), qua varii utuntur hominum ordinez, etc."* Ondo jakin begie apaizak lurralde aretan gizonak egiten daben izkuntza. Eta Mercier Jaun agurgarriak Plandes'tarrai euren izkuntzan (doitzera) itz egiteko, berberak lenengo egin ebana doitzera ikastea izan zan. Eta gero Plandez'ko erri batera apaiz jua biar ebenak doitzera ondo jakin biar ebela, agindu eban.

Baita beste orretxen beste agindu eutson Benedito XV garrenak. Bengin Kanada'ko Janzkordun Jaunari bere. *"Studeant sacerdotes qui sacris ministeriis vacant in utraque lingua peritiam asumque habere, invidiisque omnibus amotis modo una modo alia utantur pro filedilium necessitate"*.

Propaganda Fide'Kak 1920 garrengo Irakuskunde (Epifania) emon eben irakaspenian agintzen dabe eleix-abeitiak autorkuntzak eta aginduta ez dagozan eleiz-otoitzak, eleixatarren izkuntzan egin biar dirala.

Letran eta Trento'ko Batzarretako agintzak ekarri einkez; baña gaurko larregi data beste baterako lagako doguz.

Mixiolariei misuñuak emun biar dittuen lurraldeetako izkuntza ondo ikasteko lenengo, agintzen jaikue. Eta auxe izaten da euren lenengo zeregiña.

Euzkotarrak indiar, txinar edo baltzak beste ez eta dabe merezi?.

Euskerak egunen baten bere jatortasunagaz onbidetasunagaz eta edertasunagaz apurtu eta uxatuko alditu euzkotarraen biotz-begien aurrean dabilzazan odei eta lañuak; elduko al da egunen bat dagokion toki goitiar, jagi ta egokia euzkerari euzko semeok geure biotzetan eta geure errian emango dautseguna.

*"Ai! baña noizpait beren semeak ilko balute*

*"Euzkera beren etxean,*

*"Lotsaren lotsaz sartu, Aizkorri, sartu betiko*

*"Zure burua lurpean ...*

*"Euskal mendiak! Ez, ez egon zutik Ama il duten  
gaiztoen aurrean ..."*

(Biotzakadak Jauregui)

## Lizardi eta Eusko-Elerti Edestiya

Eusko-elerti edestia iru aldi luzetan zattitu leiteke nere eritxis. Lenengo aldiko esi barruan sartu dittekez Bernard Detchepare'ganañoko elertzaleak, au da, amaseigarren gizaldira artekoak. Ez-eben ezer idatzi elertzale onek; ¿idastea bearrekoa al da elertia ixateko?. Edertasunaren agerpen bat da elertia adimenaren emaitz bat. Ez da bearrekoa idastea; edertasun ori idasteka be ixan leiteke. Eta aldi aretako elertia ezagutu gura-ba-dogu goazen baserritarrengana. Ez alperrik idastegirik astinddu. Baserritaren buruetan aurkituko ditugu alde aretako elertzaleen lanak. Gure basarritarak Eguberrietan, Urte-barrietan, Agate Deunaren egunean eta "San Juanetan" abesten dittubezan olerkirik asko aldi-aretakuak dira. Orduko olerkari edi elertzaleen ixenik ez dogu jakingo. Baña, ba-ditugu euren lorrotzak, ezagutzen ditugu euren lanak (zati bat beñepein), eta lan edo lorrotz orrek argi eta garbi adierazoten deuskube nolakuak ziran elertzale eta olerkari arek.

Bigarren aldia amaseigarren gixalditik ogeigarrenerañokua da. Etchepare'gaz asi eta Arana Goiri'tar Sabin'en aldera eltzen da. Ezagunak dira aldi onetako elertzaleak. Sarasket Etchepare'tar seme Bernard'ek aste dau. Eusko-semeak ezkereagaz astu eta pantzeraz eta gazteleraz idasten asita egozan ordurako parra-parra. Euskerazko idasti bat be etzan argitaltzen. Esan eikian euskotarrak eurak eta euren etxean erail biar ebela euskira. Baña, Jaunak ez eban gura-ixan. Bernard, euskera pixtuko dabena, jayo da; kostundu be bai. Gixondu da. Beste ele edo izkuntzak beste badala euskera ulertu dau.

Heuzkara jalgi adi kampa!

Heuzkara habil mundu guzira!.

Lanak ez dau atzeratzen; sasi eta traba asko igaro biarko ditu. Beti aurrera. Edozer egingo dau euskera zabaldu eta indartutearren. Eta bere lana ikusiagaz alaitzen da.

"Orai dute ikasiren nola gauza hona zen"

"Euskaldun den gizon orok altza beza buruia!

Ezi huien lengoaia izanen du Gloria"

Heuskera da kampa eta goazan danzara!

Ixan euzan jarraitzaleak. Etchepare'k ereindako azi dana etzan galdu. Lur mamintsuan be jauzi zan. Orra emen Leizarraga. Materre, Atsularren ikaslea, Goanes Etcheberri, Oihenart, Pouvreau, Gasteluzar, Chourio, Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz, Haraneder, Larreguy, Baratziart, Olaetxea eta abar eusko-elertzale jator-jatorrak. Baña aldi onetako elertzale onena, gorenguea eta jatorrena, Urdazubiko semea Atsular agurgarria da. Gizon jakituna, ikastola

askotan ibilia. Bote jakitun entzutea garbi darakusgu euskotarren artean zabal ebulan ipuiñtxo batek. Txerrenek ei-eban aldi aretan Salamankako leza-zulo baten ikastola entsutetsu bat. Ikasgai gustiak urtebeteren barruan erakusten ei-ebazan. Baña urtea igarotakuan berak eskatzen ebana ordaindu biar zan. Atsular anayak ikastola onetara juatia erabagi eben. Igaro eben urtea eta Txerren'en anai bata ordaintzat eskatu eban. Bietatik bata leza-zuloan Txerren'en morroi geratu biar zan. Gure Kepa bera geratu zan. Uruna eralgitea zan bere egin bearra txeren-degian. Baña, ain jakitun eta azkarra zan gure Kepa! Galbayari elaketan erakutsi eutsan.

Txerrenek ondo ezagutzen eban bere morroya eta bada-ezpadan saritxo dei egiten eutsan.

- "Atsular" -

- "Emen nago, Jauna"-

Goix baten gure Atsularr'ek galbayari agindu eutsan Txerren'en deyari berak erantzuteko. Eguzkiaren argia leza-zuloraño eltzen zan. Ytxi galbaya eta urten zan Atsular.

- "Atsular" -

Eta galbayak "Emen Jauna"

Txerren'ek oinguan susmotxarra artu dau, eta bada-ezpada Atsular agiri ete dan ikustera dator. Atsular leza-zuloko sarreran eguan orduko. Arrapataka or dator Txerren gure Atsular'en billa. Baña, ..., leza-sarreran Atsular artzen ebalakuan bere itzal edo kerixari eldu eutsen ete orra or ... orduetik Atsular guria kerixa barik.

Ydasti eder eta txukun bat egin eban. "Gero" da bere ixena. Edozelako gayetarako eukala euzkerak egokitazuna, ondo ezagutu eban. Ba euskotarren errua be. Ala diño bere idastiko itzaurrean "Baldin egin balitz euskeraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantzezez edo bertze erderaz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta kumplitu izanen zen euzkera ere eta baldinhala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskerak" ¿Zer esango dogu Atsularr'etzas?. Eritxiril egokiena Pierre Lafitte Jaunaren deritxait "Gure gorespen guziek baino hobeki, haren irakurtzeal erakutsiko dautzue nolako mirizaire bizi, samur, nasai, gozo, choragarria zerabilan" (Euskualdunen Loretegia).

Yrugarren aldia Arana Goiri'tar Sabin'ek asten dau. Euskera goraltzeko eta jakitun edo jakintzaleei beste edozein izkuntzak beste balio ebala adierasoteko Etchepare sortu eban Jaungoikua'k eusko elertiaren bigarren aldian.

Yrugarren aldian ostera Arana Goiri'tar Sabin. Eta Arana Goiri'tar Sabin'en jarraitzaleen artean be badogu Atsularr bat. Lizardi da elertzale eta olerkari gorengo au. Sabin'ek erakutsi eutson bere iskuntza.

Berberak diñosku olerki polit baten.

"Yl zargi, bizi dogun gizona!

Egunoro berpiz lurpean doguna!

Bezatz onets aren izena,

Aberriz eta mintzoz gu yantziarena ..."

1896, gko Jorrailaren 18'an jayo zan Zarautz'en Agirre'tar Joseba Mirena. 1906 garrenian Tolosa'ra juan zan bixi ixatera. Eta Lege-gizon ikastaroak 1917, garren urtian amaitu zituan Madrid'go Ikastola Nagusian.

Eta 1923, garrenian Eizagire'tar Pantzeskegaz eskondu zan. Ikasle zintzua. Gixon on eta kistar egizkoa. Ogeitamasei urtedun oindiño Loreilaren 12,an il jakun Lizardi.

"Otoitz egin, zerura nadin" ziñotzen il baño apurbat aurreratxuago, bere oge-aurrian egozan legueneri. "Nik donokira nai det, Jauna erruki zakidaz".

Eta bere kutuntxuak besarkaturik eta euzko-otturaz onetsirik "Ene kutonoik, agur, on-onak izan ...". Eta bere emastea "Zerua arte" esanik agurtu eben. Bere ama matteak lagundu eutsan azkenengo aldian "Seme, esan Jesús ...". eta Joseba Mirenak esaten eban "Josu, Josu, Josu, ...". Ytz au españetan ebala il zan.

## Lizardi'ren lana

Zoritxarrez, beste euskotarrok letz, Lizardi be gazteleraz ikastaroak egin bear ixan zittuen. Euskera oso-osorik iya aistu jakun. Tamala, baña egi garratza. Guri be ori jaso jakon. Eta Lizardi'k letz, ez dogu gura ezagututerik geure errua (erru dana ez da guria). Gogotik eta sutsu asi zan Lizardi euskera ikasten. Bilbaoko'Euzko Gastediak argitaratzen eban "Eusko Deya'rako" ixan ziran bere lenengo apurrak. 1916'garrenian asi zan idasten.

Ydaslea etzan bakarrik, margolaria be bai. 1916, garren urtetik 1917. garrenera egin ebazan idasti, olerki eta margolak "Ropavegero" ixenpurutzat daroian ingurrasti bat beteten daben. Euskeraskoak eta gaztelerazkuak dira ingurrasti orretan aurkitzen diran lanak.

"Naste-Borraste" zeritzaion igurrasti barri bat idasten asi zan 1917. garren Loreillaren 18'an. Euskeraskuak dira ingurrasti onetako lan gustiak. Margolaritzari itxi deutsa. Pittinga-pittinga eta apurka-apurka idasten ikasten dau.

Errekondoko legonsuak atzeraka aundia eragin eutsan eusko-elerti pixkundiari. Baña eskerrak iru edo lau euskeltzale bizi ete zintzaeri, 1926. garren urtean eusko-elerti pixkundia bixitzen asi zan. Eta urte-orretantze Elgoibar'en eratu eben euskal-jai eder bat.

Motriku'n eta Arasate'n egin ziran urrengo urtean beste euskal-jai bi. Arrasaten Bazkun barri bat sortu zan: Euskaltzale Bazkuna.

Ordogu Lizardi be, Larramendi Aitaren omenaldian. Errenteriko, Bergara'ko eta Segurako Eusko-olerki jayetari buru da.

Aldi onetan euskeraz eta erderaz asko idatzi eban. "Kirikiño Saria" berak eratu eban. Lanak ez dau ikaratzen. Aurrera beti Gipuzkoa'ko Eusko Elerti Pizkundeko burua bera da.

## Lizardi Olerkaria

Euskeraz mintzateko errestazun apur bat daben eskero olerkari dogu. Gaste-astetik ixan eban bere barruan abesteko, olerkiak egiteko gogua. Berberak diñosku. Gogua bai, baño nola bere barruko oldozkun eta asmoak azaldu etzekian. Eta lentxuago aipatutako okerkian diñuan letz, gixon goragarri batek, lurpean bixi dan batek, erakutsi eutsan bere oldozkayak abesteko era. Arana Goiri'tar Sabin'ek. Ogei urte dittuala eta "Eusko Deya'n", agertzen da olerkari.

Ez da ixan gure Lizardi olerkari ugaria; gitxi egin ditu baña eurak onak.

Bere olerkiak ondo egiteko ardua aundia ixaten eban beti. Sortun barri eta berekoiak jantsi edo soñeko barrakin billatzen zituan.

Aitzol'ek diñuan letz, olerkari ugaria ixatea baño, olerkari barria, berezia eta autua, akatz-bakua izan gurago eban.

1931'grn. Tolosa'ko Eusko-Olerki sariketan bera ixan zan txapeldun. "Urte giroak ene begian" olerkia autu zan onentzat. Bakarrik olerki auxe gaitik, besterik espaleu be, eusko olerkaririk onena Lizardi dala be esan daben elertzaleak ba-dira. Orduantxe "politika" eta abar alde batera laga zituan, eta olerkigiñan igaro ditu bere bixitzako urte biak. "Biotz-begietan" idastia argitaraldu ondoren "Maite" inotzan olerki bat egiten ari-zan. Ogeia-bat orri eginda il da.

Beste bere asmo edo amets bat be badarakusgube bere olerkiak. Eusko-ixakera eta eusko-goguagaz bere olerkiak bategin.

Euskotarren artean ez da ezagutzen minkunkaririk (sentimentalismo). Ez dogu esan gura euskotarrak es daukela biotzik, ez dabela miñik es mattasunik. Esen gura dogu ez dirala biezperek, biar danian eta biar dan beste negar egiten dabela; negar egiteko oyuka eta intziriz ez dirala asten, Lizardi'ren olerkietan argi agiri da au be.

Ytzak be ondo neurtuak ditu. Beste aberri batzuetako olerkariak lako itz-ugaritasunik ez dogu aurkituko gure olerkari onetan.

Zabitzanak egokiak dira. "Es el poeta del laconismo en la forma y de la densidad en el pensamiento y en la imagen" diñesku elertzale batek. Lizardi ez da ibiltten lañuetatik, izakirik izaki baño. "Con su brevedad persigue la concreción. Es ... el vate de lo definifo".

Ogi bigunari, ogi biguna eta ardo gozuari ardo gozua deitzen deutsa. Berak dabilzan irudiak euskotarrenak dira, bereziak. Batian basoa, itzala; gastetasuna bestian. Yrakurri egizuez bere "Aldakeri" "Neskatxa urdin jantzia" "Zuaitz etzana" "Urte giroak" "Asaba zârren baratza" Yrakurri bere olerki gustiak. An ikusiko dozuez ainbat irudi polit.

Bere olerkietan ez dogu aurkituko ez "zafiros" es "perlas de Ormuz" ez "corales de Capri" ez "rubies". Onentariko gauzarik iñoiz be ikusi ezaren beste elertietako olerkariak, or erabaliko dituztez gora eta bera.

Irudia eta oldozkuna biak alkarrekin darabiltz beti Lizardik.

Olerkari aundia, euzkerak ixan dabenik aundiena noizpait.

"Zarautz eta Tolosa, Euzkadi osoa ...

Goruntz jaso biotzak ta alaitu gogoa:

lagun bat geigo gaur guk Jaunaren aurrean

bultzagai bat Euskadik zorion-bidean (Jtas. Mirenak).



## Peru Ankaundi. 1933

- Kaixo Txanton.
- Ola, Peru, egun on.
- Batta euribe.
- Gaur be menditik?.
- Bai, ikusten dok?.
- ¡Demoniñua!. gaur be erbia?.
- Bai ...
- I lako mutilik ez dok jayo emen inguruan.
- Je, je, je ...
- Ego-axe onegaz ez dok ba erbittarako giro on-ona be, gaur goxean egon izango.
- Ez,baña ...
- Ez kontixu, Joxe Pipar be lentxuago tripa-zorriaaz bakarrik jua dalakuan nayagok.
- Nik il dot ba. Txanton.
- Zer dala ta gaurko egualdi onegaz erbittara urten duan be etxakiat.
- Zer dala ta?. Esan egingo denat ba. Eibartarren txori-txistuetzaz ez dok iñoz ezer entzun?.
- Aaa ... errekalbuek edo ... esaten deutzenak?.
- Bai Txanton, erretabluk.
- Entzungo enajuan ba; bein baño sarriago be bai. Igaz geure keriztian Patxi Piku'k eta Anton Goiko'k goiz baten bakarrik berreunen bat zozo il jittuen. Errekalbue, edo jeuken arek be.
- Niri ba, erretablu edo olako txistu bategaz erbiek be il leikezala gogoratu jatan.
- Txistuagaz il?. Ez, Peru, Eibertarrak zozuak euren ganatzeko joten juen.
- Bai, ba; erbia neure urrera ekarteko, ekarriezkeron ondorantz, tiñu txarra be etxaukiat nik.
- Orrela ba, atzoko arratsalde guztia txistugiñan igaro najuen.
- Demoníñua, iri bai olakua bururatu ...
- Gaur goxian bostetan Arriaga'ko zelaian gora ninddoian.
- Eta erbia nun atara dok ba?.
- Ytxaroik ba, esango deuat eta. Arriaga'ko txabola burura nintzaneko Arantzamendiko lauan jebillazan txakurrak, arutz eta onutz.

- Errestuen?.
- Etxakiat ba; andik Ubegi'ko soluetara jua dituk eta ... solo bazterreko sastrakan edo nun be etxakiat ... alako baten atera juek txakurrok erbia.
- Eta i?.
- Ni urrun. Arriaga'ko txabola onduan. Arantzamendi'n gora erbiori ikusi dotenian, asi nok txistu joten eta ... zapla...jira egin eta ... ez dok ba beruntz, neu nenguan alderutz erbia etorten asi?.
- ¡Ez dok egia izango!
- Bai, arranua. Gertau izkilua ta zain-zain jarri nazeneko an zua erbia neure aurrian.
- Errekunde.
- Pun-pun bi ... baña ... alperrik ... Alboruntz jauzi dok eta berriro jagi ta asi dok goruntz. Arraixua ... amorruan amorrugaz artu nian oindiño ezpanetan neurrian txistua ta jaurti jotzat atzetik eta ...
- Zer.
- Etxotxat .. ba ... je-je-jei ... sartu.
- Nun?.
- Atzeko aguan. Asi zua erbiori txistu joten eta atzeko aldetik txistua entzuten ebalako jira ta bira ta jira ta bira.
- ¡Demoniño, demoniño, demoniñua ...!
- Barre ta barre izkillua eskuan dodala ordu-erdian gitxienez egin nok berari begira ... je-je-jei ... jira ta bira jarraitzen jua eta alako baten jaurti jotzadaz pumbada bi ta olantxe il juat.
- Ja-ja-jai ... Yk egiteko ez dok asko ori. Onetan ez dagok beste ire moduko bat.
- Nik jua eta il gaur be beintzat, Txanton.

## Egunabarra. 1934

Oraintsuarte ludiko buru, bare ta baketsu nekusan gaba. Etzan iñundik-inora argirik, agiri, gaba zan nagusi. Orain urduri dala dirudi.

Geruago ta larriago. Bere zoin lodijak ikaraz darrdarr dagi. Bere tayuba agure-zarr kezkatijarena dala niñoke. Il-sorijan ete?. Ala arerijo bilddurrgarriren bat aurrez?.

Larri, urrduri, darrdarr, ittun ... dagi gaba.

Ba-dau, bai, zerrgattik billurti ta kezcati ixan. An aau, ba, argija, bere etsairik burukatubena. Bijak, gaba ta argija, bata bestiaren buru ixan nai ... Burruka zoli-ixilla bijen artekua. Batz, zintzua, be, mutil koskorr zital amorratubena saparradatsu bagua ixaten da.

Urratu-une aundijak dagerz gabak bere soin-mardulian. Goyetan argija da nagusi. Aldapabera, mendi-zulo zokonduertaruntz doya illuna, gaba.

Pagadi, aristi tta berezijetako orri-ots etengabiak gabaren negarr-ixilla dirudije. Tantai luzen lerdenen zertadak, illunaren zotinak.

Ibarretatik, be, iges doya, illuna mendi zuluetauntz. Bere tayu lotsagarrija eskutatzero doya.

Mendi-ondo eskutu bakertira da. Baña argijak beretzat nai dau mendiondua. Araxe, be, eldu da.

Ilunarenak egin dau. Mendi-ondotik goruntz, narraska erdi tatarrez ta nagi, doyan laño-moltzo, seretxo, erdi-urratu nasayaren bidez, agurr dagijo ludijari.

## Gabon-Eguna

¡Gabon eguna ...! ¡Gabon! Gabon zenbat lo-eginda dan amaika aldiz (amabi, be, bai) galdetu dautso seme txikijak atari. Gabon-eguna ... intxaurr saltzia, lebatza, pastelak, dultzia, ardaotako sagarrak, gauza gozuak jateko eguna.

- Gabon noz da, atta? -

- Laster seme. Maxan-bera dator; Arantzamendi'ra da. Bijar emen ixango dogu. Lo bat egin eta Gabon.

Aspaldijan attatutako Gabon ori eldu da. Zorijoneko Gabon ... Gastetxuak pozik ... nagusijak, be, bai. Egualdija larrija. Eguskija sartu-urtenka; Umiekin kuika-ete?. Etxeburu'ko aldapan ardiak larran; etxaspijan morroya buru-makur nabo-orri-giñan. Soloko pagotxa aldapako bedar-elbitz ze zimeia baño samurr ta gozuagua, ta, ardi lapurraren tun-tun otsa esi-ostian. Etxaurrian auzoko soluan Matxalen otsena pagots-ebaten. Ezin ixilik egin txaliña alakua. Emakumia ixan eta minpekorik ez. Gaur ala be ... Morroya bera, be, moduzkua da. Orañarte andrazkuekin jarduteko miñian ugerrik eztau ixan. Gaurr astirik ez. Beste egunen bat ba'litz ... ordu-lauren baterako jarduna bai. Gero kontuak esango yuaguz-arin diñotso gaur Matxalen'i. Egun bitarako, abere-jatekuak egin biarra dau ... aratsaldian sasoiz etxeruntz urten.

Etxostian txistua jo ta kantari beste bat dogu. Noxipein "atzero Gorri", o "Txiki" diadar batzuk eta abestu. Josutxu dozu mutil koxkoe jatorroi. Bere ustez praka-barrenak lotu, akulua lepuan artu ta attaren zeregiñak berak be, ba legiz. Datorren udaguenian idetarako laguna atak ixango dau. Bata baño bestia erropa edarragodub bost bei aurrian dabit. "Txurik eta Gorrik" bai bei buztarija?. Onetan eztoz uste beste olako buztarririk danik. Buruan dabiliz oneik danok. Lantzian bein gabeko aparija, be, gogoratzen jako.

Larriñian azkora otsak dira. An, be, ba-dogu nor-edo nor. Marí, neska gaste ule-ori, kolore-gorri liraña. Egur-zetzen diardu. Ebagi alan pilo bitara egiten dauz; batera egur lodijak, bestera meiak. Aparija gertetako lodi ta me danak biarko dira.

Amak labako sua egin dau. Gabon-jayetarako ogi zuri biguna. Ule-tximak urunez zurituta, burukua erdi-jausita, ezta kit umorekua dabillan; eztirudi beintzat. Attak esan oi-dabenez labakosua ta lexibia andrazkuentzat zeregin txarrak ixan.

Lepo-bratian ziritik txintxiliska zaria ta bestian igitaya ba-dua nonoruntz Patxi. Berak ete-daki nora?. Beti letz alai; beti olgetako gogua. Bei-zañan daguan anai baketsuari, be, ezin bakian itxi. A, be, apurbat sirikatu nai. Bestia ezta, oster "santu-santua"

"Patxi Pitxi:

Diru gitxi

Batak eutsi

ta bestiak jatsi.

betiko lelua bota dautso

alako baten eta aurrera. Zarian ipurdijagaz ta igitayakin tanbor-ots edarra ataraten dau.

Ata berezijan dabil, sagarak jorratzen. Gora-bera asko dabilta buruan. Baña, gaur axe, be, alai.

## Aratzaldia

Ba-datoz kaletik atsotua; batta neska gaste baneka batzuk, be, Amaika gauza ba-darue euren etxietara.

Beste batsuk, ostera beruntz duaz, morroyak, otsenak euren etxietara Gabon-jayak igaroten. Barre-algaka zoruak ugari... Udabarijen enadak azkarra alai, gaur neska-mutilak ernai. Morroyak batzuk lepuan, makillatik esegitta ta beste batzuk eskuan bakoitxak bere pandeltxua ba-darue. Neskak, be, bai kaltzarpian beste alakoren bat.

Ezkonbarrijak batzuk bera ta bestetzuk gora, lenago sarri ibilitako bidez bakoitxa bere txokorra duaz. Batzun-batzuk andriaren etxera, beste batzuk gixonarenera.

Txantón guria alako batez gertatu yaku. Abarka kaltza zuri edarrak, praka urdin garbijak eta "blus" zurixka barrija, orra or mutil jasekua. Praka-barrenak ez uste ixan edozelan lotu ixan dauzanik.

Gorosti-makillan sartu dau zapi-zurijan batuta etxeko-andriak ekarritako makilau edarra. Txistu zolija Matxalen'i ta tente-tente etxetik atara da.

Bagillian kerixa gorri elduetara goxian-goiz zozo-mirigarruak. Eiztarija goxago, orratiño. Sasoiz Matxalen, be, bere ustez, baña Patxi'k aurria artu.

- ¿Ai Matxalen, oiridiño gona egalak konpondu ezinda?. Aspaldijan emen nayagon ire-zaiñ-

- Aorr, ba, Txanton ¿zer egingo nayuan?. Etxeko-andriak zeregin, asko euki jok eta?.

- Tira, andrazkua az ta parkatu biarke -

Bide-zabalian bera Matxalen'en jaituja ta Txantton'en beso-eragiña bai ikusgarrijak. Aren-arteke ixilimatuak bai entzungarrijak, Noxipein irri-parretxua, ostinguan ixil-txamarrik. Goxian baño kontuak esateko gogo obia dauko Txanton'ek.

Mendi sakon eta bizkarretan agiri diran baserrijei ke lodi darijue. Eguzkiarenak lentxu egin eban. Txarrik eztakusgu. Gaba binguan dogu. Txakurr-zaunka baneka batzuk, ixilik ixadija; kortan ausnar bei ta ardiak. Alai, orratiño, gure sukaldia. Ama ta Mari lanian. Ata, seme bijak albo banetan dauzala ipuiñ kontari. Noxipein bertso batzuk abesten dauz.

Erdiratu dabe maya, ta zamau-zurija zabaldu orduko maipera da katua. Katua ... botila beltz edarra, be, nor-edo-nork mai-albora dau. Zamau-zapi zuri edarraren-gañian ogi surixka gozua. Asiparrija baña, txakur-katuentzat kendu dautse kuskur bat.

Tira! Aparrija prest dago-diño Mari'k berak dana gertatu bai'leu. Maira dira ta oi daben otoya esan, be, bai. Gabon gaba ... danak ... pozik ..

Baña ... amak zeozerrba-dan. Alegiñak egin dauz zabal jarren. Utsunea agiri da mayan, aunditxua gañera. Zer? Eskaratz-basterrian aulki bi. Nortzut palta dira? Morroya bata. Baña ... bestia norena dozu? Ai! Naiko utsunia estaldu nairik ezta ama alperrik ibili. Konturatu dira danak. ¿Andoni nun dogu?. Andonirena zan beste aulkija.

Gabonak doguz ta gure morroya jua da gurasuengana.

- Atta, morroi danak Gabonetan euren etxietara es al-dira joaten? - diño Josu'k begijak lausoz beterik.

- Eztakit-dirautso attak - Euskadi'kuak bai, baña beste tokijetan zer egiten daben...

Andoni soldau da. España'ren morroi. ¿Morroi ete?. Gabonetan gurasuengana etorten, be itxi ez?. España, ugazaba ankerra ixan kontixu. Orixegatik palta da Andoni gurasuen albu. Euskadiko mrrfoyak gurasuekin dakusguz. Gabon-jayetan, España'kuak ez, ostera.

España'ren menpian diraугunarte, beti ixango doguz atsekabiak ugari euskotarrok. Egunik alayenak, be, beti ixango dabe zuentzat arantzaren bat eta zuen begi garbijak malko garratzak.

Jagi euskotarra ta apurtu; zatitu España'rekin lotuta gaukuezan katei madarikatuok. Bakotxari beria emoteko jayo zan Josu ta danok azke egiteko.

¡Entzun, euskotarra, entzun! España'ren menpian bixi zaran artian eztozu Gabon alairik ixango.

## Gabon gure etxaldea. 1934

Gabon!, Gabon!. Eugaldi larria, baiña arpegi alaiak dakusguz. Odei-narrasetan euria baiño gure umeen ezpanetan irriparrea samurrago gaur, ene irakurle.

Goiz-goizetik eten-bako txiliomaka dogu gaur gure auzoan. Edu ori garrasi entzun orduko, egualdi onik etxatorkula iñoz esan izan yauskuk guri aitak.

Yxilik, be, ba-yabiltzuz, orraitino, norbaitzuk begiratu egizu gure etxaspira. Neska muxil txaliña dozu izan Matxalen, Ybarguen'go otseña. Pagots-ebaten zoli diñardu euren soloan. Beste-aldean, gure morroia, be, an dozu arbi-orri-giñan. Kilikiliberea baiña, modu oneko mutilla dozu gure Txanton. Neskaitilen urrean ez dau izan egundo minpekorik. Gaur baiño alkarren urriñago egonarren, jardunaldi edarrik asko egin izan dabe orreik biok iñoz. Egun bitarako abere-jatekuak egin bear dauz gaur baiña Txanton'ek be. Eta arratsaldean sasoiz urten gura izango dau bere gurasuekana. Burua jasoteko asti barik diñardu atzamarka orri-giñan.

¡Gabon!. Egundo onako kontata txistu-soinorik!. Miragarroa aritz-adarrean baiño erro ta kantariago dogu gaur gure "umea", be. Amabi urte biar egiten, dauzanarren, etxeko txikienari "umea" esaten dautsogu. Bei-zain daukogu. "¡O!, diadarr batzuk egiten ditu noizipein. Mutil argi ta bizia dozu; zital-txamarra. Etxako euli asko urreratuko. Bost bei darabiltz aurrean. Gure bei-zaiñoi Josu dogu.

Aizkora-otsak doguz larrinean. Aizkolarioi Mari da. Ule-oriska, mailluki-kolore, neskattilla azkarra. Ardi-janik ez dozu ikusiko orren sama-inguruan. Aixek batera ta bestera darabilen ule-tximarik, be, ez, orren buruan. Ebagi-alan pillo bitera egiten dauz egurrok; alde batera lodiak eta meak bestera.

Larri ta arrapataka dabil orr beste nor-edo-norr, be. Labaagea artuta arin sartu da barrura. ¡Ule-tximak urunez ta burukoa narraz...! aserre-txamar dabil. Labakosua ta lexibea etxeko andrentzat zeregin txarrak dozuz, ene irakurle. Asmuetakoko gogo gitxi eukiten dau gure amak beintzat olako egunetan.

Zarakada bedarragoz etxera yakun beste au alaiago dogu. Larrinean egur-zeetzen ziñarduanari irazean ankeagaz egurr-pilloak nastau ondoren, ba-dua gure Patxi ostera, be, nonoruntz. Berorrek, ete daki nora?. Ygitaiagaz eta zareagaz tanbor-ots edarra ateraten dau. Amazapi urte ba-dauz, sei urteko umeak baiño biurrago dozu baiña.

Etxaldioi ikusi dogu, ene irakurle. Batera ta bestera gabilzala idor, doguzanei egin dautsoegu begiratutxu bat. Aitarik begiz jo dozu zuk, ene lagun?. Ez, ausago. Dabillan lekuan ez da lo egongo. Erezi-aldean izango dogu orain, be. Ez dau eukiko baiña barriketarako gogorik eta astirik eta bakean itxi, dagiogun. Apaldondoan izango dogu nai-aiña asti.



Zatoz, ene irakurle, zatoz beko-ate-ondora. Aulki onetantxe jarri gadizan. "Gabon" ez ba gendu, arratsalde-gorrian emen jarrita egoten lotsatu egin bearr. Atsoak be, gaurko arratsaldean jai esten dabe ... ta guk ez daukagu lotsarik izan-enik. Ypar-aixetan, gaur baiño giro obari, egin izan dau aurtengo uda-buruan.

Lomino-bereda oso-osoa ikusten da emendik. Aurrez-aurre dogu bide-barria. Arizti gordinak eskuman eta sagasti zabalak eskerretik. Negu biotz gogorak billotsik ipiñi dauskuz zugatz oro ta narru-gorri doguz solo sakonak, be.

Negu zakarrak uldu dauz zugatzak, atzerri aixeak ez dauz kildaldu baiña gure ekanduak. Oneitxek pozten nau, ene irakurle.

Begiratu egizu bide-barrira, ene lagun. Gurasuekana duaz Gabon-jaietarako gure neskame ta morroiak, kaltzarpean edo lepuan makilatik esegita pardeltxu batzuk daruez. Pozik duaz.

Beetik-gora datozan atsuok, be, zimerakada galantak dakarrez. Zimerakadok berriketez betetakoak ba lira, etxera orduko atso bakotxak beste bana beteko leukie. ¡Etengakoa, da orraitio orrein jariora!.

Etxezulo gaituzu, orraitio, euskeldunok ezin aztu dogu gure gurasoen etxetxo. Ezkondu ta-edo gurasuekandik-urrun gure bizimodua daukogunaren, urte-buruan iru edo lau osteratxu gure etxera egiteko ezin bizi gara. Bide-barrian gora dakus kuzan bikote orreik Gabon-jaietarako gurasuekana duazanak dozuz. Sendiko danak alkartzen dira Gabon-gabaz.

Ybarguen'go zubiondora den mutil gaztea nor ete dogu?. Txanton. Sasoiz inguratu da. Yxilik jua yaku. Zapi urdin baten batuta darua gure amak ipiñi dautson makillaua. Norbaiten-zain dago. Matxalen'ek ikusi dau onezkero. Goizean alkar aituta izango doguz kontixu.

Bagillean kerixa gorri elduetara goizean goiz zozo-miragarrok. Eiztari goiztarrak aurrea artu baiña. Matxalen, be, sasoiz bere ustez, Txanton'ek aurrea artu, orreitiño.

Parez-pare duaz biak. ¡Maitxalenen jaikia eta Txanton'en beso-eragiña bai ikusgarriak!. Lurrari ikutzeko baiño, arraago dua Matxalen. "Arremaiteketako" ezingo dira etxeratu egin-alak egin da, be, baiña.

Upan baino illuago dago. Etxetik-kanpo txakurr-zaunka baneka batzuk dantsuguz. Etxe-barruan?. Abesti, ipuin ... barre-algada ... danak, alai doguz. Ama alabak sutondoan. Aita seme biren erdian. Apaldu-orduko "errosarioa" erreza bearr dabe. Gaurkoz baiño asti gitxiago izan-arren, egundo ez dabe otoiketa ori egiteka itxi. Kistarr zeritzo dirau gure baserriak. Maitasun-lurruna besterik ez dogu gure eskaratzean. Aldi baten Belengo estalpean artzainak baizen alai doguz gure neba-arrebak.

Gertau dabe maia. Ogi barriari kendu dautsoe kuskurra. Txakurr-katuei datorren Gabon-gabaz emoteko gordeten dabe.

¡Tira! Aparia "prest" dago -diño Mari'k-. Bakotxak bere aulkia artuta danak maira dira. Otoitxoa esan dabe. Nasai jarri diranarren ... mairik ezin ormidu. Eta mai-utsune orrek guztieri gumutapen larriren bat-edo bururatu dautsoe.

- "Joxe Mari" gurea ez al dator aita?. egin dau txikienak. Josu'k- jua da, ba, gure morroia ta Joxe Mari zergaitik ez dator?. Darrai.

- Kisto'ren morroi dok gure Joxe Mari'ta Kisto'ren morroiak etxuek izaten jai ta oporraldirik, seme, dirautso aitak.

Ona emen, ene irakurle, Gabon egunez bururatu yatazan gomutapenak. Etxetik urrun soiñez egonarren, gogoz ene txoko maitean izan nintzan.

Gazteiz 1934gn Gabon-egunez

## Loramendi'taz zerbait. 1934

Ama Euzkera'k, urtetsuba ixanarren, luzaroko bixi-indarra daruba bere barruban. Soñeko zarrak bein-betiko jaurti dauz. Janzki berriagaz apaindu dabe bere semiak. Soña zarra ba-dau be gogo barria ta gaztia daruba soin zarr orren unetan.

Soñeko barriz jantzitako alabatxubari ama batek begiratu oi-dautzen begirunez, begira ari-da Ama Euzkera be, bere elerti-baratzaruntz. Bere semerik kutun eta zaintzubenak ekiñan ekiñez ta jardunan-jardunez, ornitu ta atondo daban elerti baratz ederrari begira. Mueta guztijetako baratzak dakuz; txikijak batzu, andijak eta joritsubak beste-batzuk; zarr-simel igaturik bape ezta agiri. Geyenak lorani bat-edo-beste bere adar orritsuben artian igali eder-gorrijak txistxiliska daukazela. Zorijonian Euzkara Amak bere malkubekaz busti euzan zugatzxu aren sustrai-egarriak udako legorte zatarretan. Atzerritar-eguzki-eriak kiskaldu, erreta galtzeko zorian egubazean. Orain poz-malkubak darioz. ¡Ain guriya ta ikusgarriya egon be dago bere elerti-baratza!

Baña ... gaur negar dagi ... Atsekabez betia datza. Burukuba atzera jausiya, ule-txisma nastubak bekokijan bera, ta begi eder bijak malkoz bustijak. Mendi-aldapako arrlaban ezotuba eguzkiagaz begiz-begiz be ez, aren begijak baño disdiratsubagua. Ezta agiri len añako ornidu te betia bere baratza. Yrudiren bat ez ete?. Ez. Tokija-tokijan mietsunak dakuz; Erdijan tantai aundi biren gisara oraintsu ekuzan zugatz-orritsu-gurijak eta igali gorri-ederrez betiak, eztakuz. Mietsune-zabal-lur-gorrija aren orde. Galtzu ebai-barrija be ez gorrijaguba. Baña... Lurrgorrija dirudi, baño ezta lurgorri utsa. Oraintsu mota-malukijak elbitzartean letz, txistxiliska ekusan igali gorrijak dirra. Ez larritu, Ama; zure malkubak eztira alperrik galdu. Galduko be ez. Jainkuba'k bere donokiko baratzera eruban deutsuan semien antzekubak ixan-gura dogu gu be. Euren lorrotzak jarrattu gura doguz ta.

Errenteri, Zubigar, Elzo ... oraintsu, Lizardi ta Loramendi gaur, guztijok Jaunak eruban dauz.

Juan diranen lorrotzak, oinkadak, jarrattuta Ama Euzkera alattuko dogu; bijotz-bijotzetik mattatuta bere zoriñak baretuko doguz, ta berau gogotik ikasi ta zabaldu ba-dagigu, bere baratzeko mietsunak orniduko doguz.

Arpegijan lotsarik eta zure bijotzian mattasun-txinpartik bai al-dozu?. Bai-ete?. Aurrera orduban.

Lenakuban Lizardi'tzaz zerbait esan geban, gaur Loramendi'tzaz mintzatuko nayatzu.

## Arana'tar Jon

1907'kn Ibeltzaren 27,an Aretxabaleta'ko Bedoña auzunian jayo zan, Lekaidetxian Bedoña'tar Jokin eta euzko-elerti Edestijan Loramendi dettuko jakun, Arana'tar Jon. Lugiñak bere gurasubak. Onen onduban iraun eban artian, beste baserrietako mutiltxuben -antzera bixixan zan. Nozipein Don Permin, auzuneko jaupariaren ikastolara juaten zan. Eguberdi-aurre baten lekaide bixar luze batek atadian eupada. Mutil billa ebillan. Mendibitsu'n be ba-zan mutil koskor bat, arekin juan gura ebana. Jontxu zan aipatu dogunau. Bixar-luzekin juan zan. Agur.

Mutil buru-argikuba ta azkarra zan. Laster ikasi eban erderaz. Erdera ikasi eban eskero jaramon gitxi egin eutsan euzkerari. Urte gitxi baruban euzkera astu egin jakon. Bere utsegitia oartu ebanian oldartsu asi zan euzkera ikasten. Beste euzkotar askok be au egingo ba-lebe ... Ekiñan-ekiñaz ikasi eban barriro be euzkera. 1924'an asi zan olerkigiñan. "Zeruko Argia'ra" bialtzen euzan bere olerkijak. Gero euroetzaz zerbait. Afarte Epallaren 24,an il zan Donostia'n Bedoña'tar Jokin. Jaupari egin biarr eban egunetan il be. "Zerura nijoa. Zerutik lagunduko dizuet zuei, euzkerari, aberriari ... gustioi", iñotzen il agian egubanian oe-albuban ekusanei. Bere attari; besarkatubaz. "Amatxori ez dezala negar egin. Ni zorionsua izango naiz zerura nijoalako" esateko aginddu eta Lekaipuraba'ri "Ama Maria'tzas itz egin nekerik gabe".

Juan jaku au be. Biar beste igali emoteka oindiño "Bizitzaarlua, berak landu ta zaindu-biarreko lore baratza zabaldu ta begiz jota beste barik il da".

## Olerkari

Zeintzuben zerrenduban edo nortzukin jarri daikegu Loramendi?. Orañarteko euzko-olerkari guztijak iru barrutittan sartu leitekezala, diño euzko elertzale batek. Barruti baten euzko olerkari errikoyak eta euron artian txapeldun, oindiño oraintsu Jaupalgaitegi onetan egon dan. Jakakortajarena'tar"Txomin. Bigaren barrutian bat baño eztogu ixango, Lizardi. Mamin, tinkotasun eta laburtzalia. Yrugarren esi barruban irudimen ego-azkardunak zenbatu daikeguz. Euren barruko gogayak itzen ta irudijen erruki barik azaltzen dabezanak. Ybarretatik mendi-galurretarako, mendi-galurretatik ilargita eguzkirañoko jira-birak azkar egin dagijez. Onen irudimenak eztauka lokarrik. Onetarikuben artian daukogu Loramendi be.

1929'kn dagerkigu lenengoz olerkari. Orduban itzuli eban euzkerara "Stabat Mater". Badezpadakubak dira orratiño bere lenengo olerkiok. Olerkari asiparriarenak. Ezta arritzrkuba be. Nork zuzendurik be ez eban eta. Mamingiak ba dira be irudi ta pitxi ugarijekin apainddubak. Gogai-barrutsuz urrijak. Yrudiz ugarijak.

Ona emen aipagarrijen batzu. Zeruko Argia'n argitaldubak (Jokintza aldizkingian be argitaldu dira barriro batzu). "Onatz erelrtxoak" eta "Antzekia". Erretzak dira biok; irudi-ezagunez Jantzijak; esakun polittak. "Ylargitara" Gogayak, iñorenak ba-dira be, edarto azaldubak. "Enada Baltza" mattazun-alegi bijozkorra. "Otoi Adizkide" Samurra ta gogai bijotzen duban jatoz betia. "Usoekin Gora". Usotxubak eleiz-buruban dakuzenien bere bijotzian sartu dan goi-zaletasuna adierasten deusku. Laburra ta biguna. Badauz beste batzu be "Landaratu Ameslaria" "Noletan gero", "Maitasuna ez da maitatu" "Gutziz Ederra", ta abar. Baña Loramendi'ren olermena dakuskubenak "Arrantzalien Arrats-otoitza'ta "Barruntza Leyoan". Lenena Tolosa'ko olerki gudara bialdu ebana. Eta bigarrena 1932'kn Ernani'ko olerki gudan lenengo saria atara ebana. Eurotzaz itz bi.

"Arrantzalien Arrats-otoitza" olerkia da Loramendi'n irudimenari dagokijona. Eman ase zan bere irudimena. Baña bere irudimena ez bakarrik, bere bijotzonduba be emen ustu zan. Ondarribiko baztarren batetik amaika bidear begiratu eban itxasoruntz. Ondo asmatu ta

oldoztuba da bai olerki au. Ondo auznartzuba itz neurtubetan itzuli aurretik. Berez, bare-bare, bata-bestian jarrayan datorkijoz olerkijak.

"Barruntza-leyoan". Bere barruko mattazun-zotiñak, dagariz olerki onetan. Bere bijotz galdeko Jainko mattazunak sortutako abestia da. Bere goguaren intzirijak darakuzguz Aris'tar Deunaren adurra darijola, diño Aitzol Jaunak. Gogayak sakonak, irudi-apañak ederragubak. Yurdimena, bijotza ta gogayak bardintsutxamar darabiltz. Bestietan baño bardintsubago beintzat. Yrudimena ta bijotza gogayak baño nasajago. Ain zalla da ixan be irurok bardintsu erabiltea ...!

Batzubetan beintzat irudi urijol-zalapartsu orrek gogayak itto ezpada be illundu badagixela, deritxot nik.

Lenguban attatu gebanaz zerrikusi gitxi dau onek. Norbattek Jauregi'tar Koldobika'jaz ete daben esan dau. Ezta ixan ezin leikiana. Bijok barruti batekubak dira ta. Baña origattik ezin esan geinke Jauregi ixan dabela Loramendi'k zuzendari ta irakasle. Alperrik nekatuko gara euzko olerkarijen artian onen irakasle edo zuzendaria aurkittu gura ba-dogu. Gabriel y Galan, Salamankar olerkari ospetsuba ez ete da?. Bayetz diño Aitzol Jaunak.

"Miren Ederra, Miren Garbia,  
"Gure izkuntzaren Ama-Eztia;  
"Lausorik gabe  
"Euskera gorde.  
"Ziur zurekin iraun dezake,  
"Eman narotsu, eman bizia".

11

Sorgiñak

## Arta-jorrrak laga ta sorgiñak gogora

"Bat, bi, iru, ...! Iru? Irurak baño ez? Arrano arranua! edarra sartu yaustak gure ...; ez dok lenengoz baño. Irurak aspaldi jo ebela ta saillera urteteko sasoia zala antxiña esan yaustak, ba, atso motxiak" - zelatari-kezka berik diardu mormorr atadian norbaitek. Aterako al-da kanpora ta nagon piska baten. Alperrik baño, eten-bako mormorra. Itxagon eta entzun dagiodan.

- "Eguzki galdetan baño gure intxaurpean giro ohea izango yuagu. Egaztiak eurak, be, ao-zabalka ta ni orain solora?. Eguzki-gorritan arta-jorrran ekin? - geruago ta biziago darrai - Goixian jorrratu dogun sailak etxaukak, ba, itxura aparta. Aurtengo arto ereitietan, be, atso demoniñuon esanak egin izan ba-nayuazan gure etxaurrean ez eban ikusiko orren arto sail gurinik".

"Bere kolkorako ala beste norbaitekin ete-dago baño gure ... Orixe gizonaren zitala; ez dok, ba, olakua gure aitita" - niñuan neure kolkorako. Lo-erriaren kontuak. Irurogetaz urtietako agureak artojorrrarik barik, be, naiko zeregin ta ileta izaten dau baño; eta gure aitita be, eguerdi-osteko laburtxoia egin ostean artajorrrarako gogo barik txuntxun-puntxun ikusleak ez al zauz arrituko, ene irakurle.

Eta ba-dator; artajorrrai ta guzti atadira da. Oindiño, be, ezin agortu yako baño jariua - "Aldatu bako porrulandarea etxean dan lekuan agure buru zuria izanarren, be, bakarrik saillian eta etxean iñoren mendean... Arraio-arraioa! artajorrra ni ...?"

Eta orra, irakurle, artajorraia laga atadian, aren ordeztu artu pipea eskuan eta "danga-danga" neu nagon intxaur peruntz dator. Ez nau ikusi baño. Eta

- "Kaixo aitita? dirautsot intxaurpera orduko- arratsalde on?"
- Demonio, demoniñua, emen az? Aspaldian ez az agertu ta ...
- Artajorrrarako lagunik bear ba zendu edo eman naz ni ...
- Jarri adi emen! i barik, be, egingo yuaguz artajorrrak eta?.

Eta intxaurpean dagozan aulkietan jarri gara. Aititarekin kontu konta ikusi nauanean amuna, be, agertu da. Eta neuk ezer esateka, juan etxera ta mai aundia dakarr intxaurpera. Ni zertara niñuan arin begiz jo eban amunak ausago.

- Berotxua ba' lego edo, itxagon, be, egingo dogu guk gero- dirautxi amunari aititak.
- Zeri itxagon baño?.
- Zeri diñozu? Baskal-ostean kanpokoren bat danean zer oitzen da?.

- Onetxek bai, ba-yakik zelait eskabidea egin, Egundo onako ... " ta ba-dua arin arin eskaratzeruntz. Eta orr dator gerotxuago akeita-ontzi aundia esku batean ta bestean kikara ta bonbil aundia artuta gure amuna. Juan dira eguzki-gorritako arta-jorrrak.

Artietan aixe-kuxumarik, be, ez dogu izan eta orain ona emen iparr-aize leunetan. Aurrez-aurre alkarri begira jarri ta aititak pipea ezpanetan eta nik idazkuntza atzamarretan ekiteko gertau gara. Astegun buru-zuria danik nork esan?. Arta-jorrrak iluntzerako laga ta sorgiñak gogora, atan orretan arira gara.

- "Nai dabena, nai dabena esango yok; dan danak guzurrak diranik inork etxaustak sartuko niri baño. Eta a ikusi eben beste geiagok, be, ikusi-aurretik desteña, barriketea ta panparroikeria ugari yuen, beste, "mutilloi" an ikusi ebenean egundokuetan buruak makurtu ta ixildu zuazan -aititaren jarduna dozu irakurle ta etorria dabente aririk galdu ta bidekatu ez dadin laga dagiogun.

Berrogei urte inguru izango dira- geuk etxe au egiten giñarduanean zan-eta "Laituko" karabian, kare-giñan genbiltzan. Zortzi-amar gizonezko itargi-argitan jarri ta kontu-konta ta

berriketan gengoan karabi-aurrean. Karabi-erretietan ardaorik ez da palta izaten eta an, be, ba-genduan. Zurrut eta zurrut ilunetan ala egun-argitan gengoan, be, ez ekien batzuk kontizu ta seiñek baño zeñek kirtekeri ta pamparr oikeri aundiaguak esan ebilzan. Batak sorgiñik eta lamiñarik egundo ez zala izan, orreik antxiñako zarren amesak zirala ta, egundo alako txilimalarik. "Laitu" zarrak eta nik olakorik esateke ixilik egoteko ginotsoen. Danak gora-goraka asi ziran eta nork baretu areik?. Jauka ta algadaz zirala, Arteaga ostean berebiziko argi bat agertu zan. Argi ari susmo txarra artu neutson nik eta Gairikuarren ixildu edizala esan neutsoen Nire esanei atadiko txakurraren arrausiñei baño jaramon geiago egiteka, esan alakuak esaten eta zana zalako argiari badaoka asi ziren. Beriala geu gengoan tokirantz asi zan argioi ... geroago ta urreago etorkun ... urrera zanean aotik sua-erion txarri bildurgarria irudian ... Txistua irunzteko baño be larriago ta arnasa-artzeko baño, be, estuago egon nintzan ni beintzat. Ez nenkian inguruan iñor nebanik, be; lurrian ala aidean egon nintzanik ez dakit; "aitearen" bat egiterik, ez "Jesús" bat esaterik etxatan gomutaratu. Gure inguruan jira egin eta atzera eskutatu zan Arteaga-ostean "Iruntz-argia" izan zan kontizu argi- txarrioi . Eskutatu ta gero, be, txistik esateko adorerik ez eukan iñorki gure artean. Karabi-atakan, sutonduan katu epelak baizan, makal eta ixilik egon diran gure pamporroioak, be, beste "mutiloi" ikusi eben-ezker. Belaunak, be, indar barik geratu ei yakoezan.

Esandako au neuk, neure begiz ikusia dok eta iñork etxaustak ukatuko ta guzurpetuko.

- "Sorgin, lamiña ta "beste mutilok" "Aitearen" egin, "Jesus" esan edo bere bidez ta zuzen dabilzan gizonei ez ei-yautsoek ezer egiten.

Or, Osolo'ko etxeburuan, be, ba ei-dok leza-zuloren bat Antxiña sorgiñak bizi ei-zuazan eta Osoloko gizonak egunero sorgiñekin bazkaltzen ei-yuan. "Bapo-bapo" bazkaldu ostean "Aitearen egiten ei-yuan eta janordu osteko otoiak esan baña, ta sorgiñak sekula ez ei-yautsoen ezer egin ari.

Aulestia'ko Korta'tar Peli egurr-iñaustera juan ei-zuan Indulgentzi egun batez mezatarako sasoiari. Eta zugatz-gaiñean zanean (txakurr-antzeko), begietatik sua erion pizti zakarr bat aurreratu ei-yakon, eta Eleizakua amaitu-arte aurretik ez ei-eutson alde.

Esanak esan sorginik eta ez danik ezin siñestu lei. Malax-Arteaga'n be, urte beteren buruan mats-adarretik asegitu euki yuen sorgiñen urregorizko antoxiña. Leza-ataka baten umeeke idoro ei-yuen. Eta urte buruan jauberik ez ei-zuan azaldu ta ontzako bategan galdaragin bateri saldu ei iyautsoen.

Zubero'n bertan be, amaikak ikusi yuen sorgiña. Zuberoko alabeak sorgiña egin ei-yuan adizkide ta neskatilleoi sorgiñakin eskontzeko asmuetan ei-zuan. Sorgiñakin euren alabarik eskondu eitenik ez ei-yuen nai baña gurasuak eta olakorik jazo ez eitean, gurasuak eurak neskeari biotza zulotu ta odoluztu egin ei-yuen. Kaxan sartu neskearen gorpua ta auzokuak ganbelea egiten egozala, etorri el-zuan sorgiñoi ta danen aurrean urregorizko oeganekoa edo sobrekamea zabaldu ei-yautsoan neskeari ta alde egin ei-yuan. Gaubelan egozanak sobrekameoi kaxeari untzez josi ei-yautsoen. Egun-sentian baña etorri ei-zuan sorgiñoi ta oegañekuoi untzez josita egonarren, gabaz zabalik baizen errez eskatu ei-yuan eta berakin eruan ...

- "Aznabar'en Beranoko neskatilleari yazo yakona, bein baño geiagotan entzun yuagu. Len esan dodanez, sorgiñak eta beste partetxarreko mutillok uxatzeko "Jesus" bat esatea naiko izaten dok. Bayakian ori Berano'ko neskeak, be; ori alde betera laga ta Maguregi Goitiko mutillarena esango dauat baña orain.

Barinaga'n kanpantorrea egin nai yuen. Antziña baña Erroma'tik baimen edo lizentzik ekarteka ezin egin eikeen kanpantorrarik. Maguregi Goiti'ko mutilla juan zuan Erroma'ra baimen-eske. Erroma'n emon yautsoen baimena; biaramon. goiseko seiretako Markina'ko "Juztiziari" parte emon edo presentetakotan emon yaustsoen baña. Ezezkoa emotea edu zan

baña ori; Eroma'tik Markina'ragiño egun baten zelan eldu?. Goibel zan gure Goiti - "Enpreñuko deabruak, be, es dau sortuko kontizu, biar goizerako Markiña'ra eruan naikenik" esan eban Goitik. Bat-batera akerr bategaz diabrua agertu yakon eta - "jarri adi orren lepuan" esan eutson zer nai eban galdetu ostean - "arre diablo! esan egiok eta akerrari urr onetxek emon egiozak".

Jan zan aker gaiñian gure Goiti ta orr dua itxumustuan" rrikiti-rrikiti" galdu-gordean.

Jemein-buruko otatzara ziran eta bostetako kanpaiak karmen'en.

- "Nunguak dira kanpai orreik" - itandu eutson Goitik akerrari.

- "Markiñakuak- dirautso akerrak

- "Markiña'kuak!! Jesus - diño Goitik

Jesús! diadarra entzun ebanean akerra orrek ankaz-gora jaurti eban gure Goiti ta ijutika iges egin eban.

Eta gure Goiti seirak aurretik Alkatearekin ei-ebilan bateta ta bestera Markiña'ko kontsejupean.

Akerrari eskarrak kanpantorre edarra dogu orain Barinaga'n.

Gaurko naiku kontu ez ete dok?. Ekiñaldi polita egin yuagu. Onezkero ... orduak aurrera yuazak".

Baietz naiko izango dala dirautsot nik be ta ora egin-egiñean "danga-danda" ordua Barinaga'ko dorrean.

Bat, bi, iru, lau, bost ,, Arratsaldeko bostetan intxaurpean baizen giro ona eskaratzean, be, Tximinitik gora urteten daben ketxuak eta sutako "pir-pir" otsak naiko dei dirala-ta ba-guaz barrura.

An zer egin genduan ba-niñoketsu, ene irakurle, jakin-miña aseko neuskizu, baña upatxuak kilikilia sortuko neuskizu ta nagon ixilik.



## Ibil-miñez. 1935

Amaseigarren eunkija-exkero ibil-miñez, nonoruntz egin nata, ixan dogu Euzko-Elertija. Kerixaz inguratuta argi egarri ostera euzko bijotzak. Yllunetan noxian-beingo tximist-bristadak naiko ez ta nora ez-ara egon ezinda genduan Euzko-Ylertijai baña.

Euzko-txinparta erijuen semiak ixan doguz aldiz-aldiz. Bijotzak piztuko euzan argi-iraunkorra biarr genduan baña ta olakorik eztogu ixan.

Etxepare, Atzular ta Oyenarte'k iñundikuak egin ebezen euzkera inddartzeko. Arrezkero, be, euskaldun zintzo baneka batzuk ixan doguz. Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz ta Etxeberri: Orra orr laukote goragarrija. Euzkerari jaramon gitxi egin ixan dautse, baña, beste askok. Untzari-eusteko edo sutarako gai dan gastañondo iger-ori etsi ixan dabe. ¡Erdal-salletan bai egin dabez atxurra ta lan edarrik asko! "Salen de su País -diño Larramendi'k- y hacen estudio de olvidarla; ni escriben, ni siquiera quieren escribir una carta en su lengua (1). "Beste batez" Dentro del País ... nada se lee, ni se escribe, ni se enseña a los niños en bascuence; no hay maestro que quiera ni sepa deletrear en su lengua (2). ¡Alagalako lotsarrija euzko-semiona!. Geure buruaren ardurarik ezaren ondorenak.

Euzkaldun zintzo orrei eskerrak, gaur, be; iraun dirau orratiño, be, euzkerak. "Aquellos euskaltzales contribuyeron en aquel medio ambiente de glacial indiferencia a dar solidez y sostener en las capas populares, la vida del euskera desventurado, combatido por los organismos de la soberanía vasca y por las clases intelectuales del País ... (3)".

Buruko gatxa soin gustira zabaltzen da baña ta apurrka-apurrka gure jakittunen erdal-garrak sutu euzan erritarren bijotzak, be. Atzerri-ego-axe erriak legortu dauz lenezko genkusan baserri-ormak. Eta erre genduzan baserritafen euzko-bijotzak kiskaldu ostera erdel-garrak.

Emeretzigarren eunki-buruban ixan genduan beste argi alditxu bat. 1879'kn sortu zan Nabarra'n "Asociación Euskara de Navarra" bazkuna. "Revista Euskara" bide gartsu asi ziran, luzaro ezeben iraun al-ixan baña Gipuzkoa'n "Consistorio de juegos florales eúskaros" agertu yakun, eutsi egin eutsen asitako lanari oneik. Euron "Euskal Erria" aldiz kingijan didorroguz pizkunde lenen-tximpartak. Arrese eta Beitia, Otaegi, Etxegarai, Baroja, Manterola, Azak, t.a. .... Aldizkingi orretantxe azaldu ebezan euren buruak.

Euzkera-zaletasuna euzkaldunei sartu al-ixateko zirrijak, kilikilijak eztira naiko ixan. Autsak jaurti arasoteko laskitu bixi baten biarrez genduazan euskotarrak. Euzko-ikastolarik etzan iñun agiri, umiei euzkeraz irakurten edo idazten erakusteko idaztitxu bat bez; edesti koskorrik, be, ezkenduan, eleiz arazouetari-erdera... nabarmankeri aundijagorik!. Orra orr orduko barri:

Australiatar edo indiatarrak euzkaldunak baño zori obakuak ixan dira. Kristo'ren ikaskixunak euren izkuntza-bide ikasi ixan dabez arek, beintzat.

Erinotza, be, auldata, bilutsik, orri barik Euzkadi'n. Negu-guenian satsa, lora zuriz apaindduta letz, elerati-lanetan. Elena ikusi ixan dogu beste guztijei aurria artuta Euzkadi'n, be, gero baña.

Tontorrik, tontorr galurrera gara. Argi-egarri, giñan aspaldi ta ona emen argi-iturrija.

Lurr-jotako elerti asko piztu ta askartu dira gizon bat edo bizi eskerrak. Checoslovaquia'n Rieger ta Obradowitx doguz ango pizkunda-itturburu. Serbija'n Wouk giraingarrija. Croatarren artian Wrhovac, Rachi tta Strorsmayer Gotzaña doguz buru. Erin'go Mac Ybak ta Doyle nok eztazauz?. Neke ta lor, be, ondatuta egozala irudijen elertijak jaso egin ebazan orreik.

Emen, be, sortu eban Jainkua'k. Euzko-etxe jantzak baeban olako gixon trebe ta argi baten biarra. Gure jakittunenak gorriñak jota, euzko-elertija estu ta larri genduan aldijan agertu yakun. Ekiñaren-buruz ikasi eban euzkera, iñok baño obeto ikasi, be.

Euri tta aterri; txingorr ta edurr, axe ta bero, uda ta negu eutsi egiten dautsie artiak bere orrijei. Bai Sabine'k, be, bere lanari! Yñoren esamesei ta zirikadei jaramonik egitteka ¡Aurrera beti! Orretzek kendu euzan gure elerti baratza illuntzen eben kerixak. Sabin'eri eskerrak jayo dira ta asi, be, bai, arrezkero ainbat landara edarr baratz orretan. Onen tayuko beste gixonik eztogu ezagutu emen bintzat. "Estamos por registrar aún en la Historia Vasca -diñosku Aitzol Jaunak- un caso parecido al de Sabino Arana Goiri, el de que un vasco, que ignoraba totalmente su lengua nacional, nos legara a los muy pocos años de su breve vida, obras literarias magistrales, magníficas por su inspiración, soberanas por su estilo. El género de poesías que él cultivó era desconocida en la literatura euskaldun. Ninguno posterior a él ha llegado a igualarle en el mismo género literario (6).

## Arana eta Goiri'ren idazlanak

Euzkeraz ezaban asko, be idatzi. Erederaz bai. Erdeldun jayo zan. Berberak daittor; gure elia euzkera dala ixan baña berari ezeutzela erakutsi gurasuak euzkeraz diño; "la lengua de mi raza que para mi gran desgracia no había oído la mia natal (7),"

Euzkeraz gitxi-txamar; Euzkerari buruz edo zenbat idatzi eban baña erderaz. 1896'kn "Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino" eritxon idastija argittaldu eban. 1888'kn "Pliego Euskerafilo I'an" esan ebana irargittekotan egin eban. Aurrez idatzita eukan eliztigaren ataltxua baño etzan idastijoi. "Remitales -berberak diñoku itzaurrian- las seis lecciones de mi Compendio de Gramática, que tratan de los sonidos y los signos de las letras y con ellas unas adiciones que contienen breves nociones de Fonética ... y por último dos apéndices, en uno de los cuales analizo los modernos sistemas gráficos de la revista "Euskal Erria", el P.Arana, Dn. Arturo Campin y Dn. Resurrección María de Azkue ... (8) Orra orr idasti orren mamiña. Yardun eta buruauste askoren seme da idastitxu ori. Yxan dauz amaika zirri ta mirri, be, sortu zan-ezkeru.

Sabin'ek attatzen daben "Compendio de Gramática" edo Elizti Laburra zer dogu?. Bizkaielki Eliztija. 1888'kn Barcelona'ko Mariol'en Yrarkolan irarten asi ta berreungarren erigoskiragiño, erarri, be, egiña. Ezin argittadu al-ixan eban baña, "cuya impresión quedó suspendida en la página 200 por razones que no hay porqué manifestar (9)" diñosku.

1883'kn asi zan Zuzkidazti (Ortografía) lanetan. Ydastitxu orretan Zuzkidazti-arauak eta arau orren jatorrijak, be, ondo ta ziatz azaldu euzan. Orduko sastada ta zirrojak gorabera Sabin azkenez garalle. Zuzkidazti au zijan eztabaidakua ixan da. Sabin'en Zuzkidazti arauak onartu dauz Euskaltzaindia'k. "En los países del renacimiento lingüístico moderno -diño Aitzol'ek- se han librado rudas batallas para llevar a la unificación ortográfica. Tal fué, sin embargo, el valor científico y lingüístico del sistema ideado por Sabino para el euskera que la Academia de la Lengua Vasca, muy posterior a él, la aceptó íntegra (10) "Novador a la moderna" iñotsen orduan eta barri-zale gangar ta lorrin-zale nabarmen etsi eben Arana-Goiri.

Autuak banandu, zatitu ta arakatzen iñor beño obia dogu Sain. Orren ezer irakurri dabenak, nik esateko, be, uartu exango dau, ausago, ori. Adimon-zorrotza eban. Autuak bere buruz erabagitia ta ondo ausnartzia atsegin yakon. "Soy poco aficionado a leer mucho en cambio, a meditar, y más que estudiar las cosas en los autores, me gusta estudiarlas en sí mismas, si las tengo al alcance de mi examen (11)".

Jakintz-arazuetan errezozi edo zijuei bakarrik egikojuan men. Eta errezozi edo zergattijen indarra eban zuzenbide ta argi tta ez au edo ori iñuenen jakittun ospe edo entzutia, "no hay más autoridad que la razón en materia científica (12)" iñuan beste batez.

## Uarrak

- (1). Larramendi Diccionario Trilingüe. Prólogo XIII'gn Jakintza"tiko artua.
- (2). Larramendi. Diccionario Trilingüe. Prólogo XIII'gn "Jakintza"
- (3). "Lucha de idiomas" Aitzol. XIII'gn Jakintza'n 39'gn
- (4). Nación Vasca. E. de Arantzadi. 205'gn ingkia
- (5). Nación Vasca. E. de Arantzadi. 206'gn ingkia
- (6). La Muerte del Euskera. Aitzol. 37'gn ingkia
- (7). Lecciones de Ortografía. S. de Arana Goiri. 270'gn ingkia, 2'gn uarra.
- (8). Lecciones de Ortografía S. de Arana Goiri

- (9). Lecciones de Ortografía.
- (10). La Muerte del Euskera. Aitzol 36'gn ingkia.
- (11). De su alma y de su pluma, 273'gn ingkia.
- (12). Lecciones de Ortografía. 10'gn ingkia.

## Kirikiño. 1935

;;Kirikiño!! Yxena entzun-orduko irr dogu errudimenian gixon baten irudija. Nik neurian dakusana gixon edarr ta zabala da. Yrri-parre samurra ta azeri-antzeko begirune zorrotza. Baña patxadaka ta mattekorra dirudi. Sorbalda-zabal, buru-jasua, soin lodikote zuzena, euzkotarr jatorra. Billur barik urreratu ta ondoratu giñeikijoz. Zirri batzuk eginarren eztirudi asarratuko danik.

Baña ... zelan zirri?. Etzan il?. Egija da; il zan. Aren oroipena bixi da, orratiño. Oroipena ez bakarrik zeozer geyago be, bai. Bere lanak, idastijak, ipoñak. Lan orreik-bide ba-dazakegu kirikiño.

Nik, neuk dazagudanez, darakusketsuet. Uar bat lenengo. "Abarrak idasti bijak ixan dodaz eskuetan. Yzparringi, aldizkingi tta abarretan egin euzan lanen berririk ezin emon neikizue.

Kirikiño elertilari dagerkiketsuet gaur. Beronek euzkera alde egin dabena ta errijak egin dautsen arrera onaren zegatijak beste baten azalduko dautsuedaz. Era guztijetako gixonen lorrotzak didorokezuz Kirikiño Jaunaren ipoñetan. Orr dozuz Euzkadi'n dakuskuzan gixon oroen irudijak. Baserritarrak, kaletarrak, maketuak, txiruak, abertatsak, buru-ariñak, buru-gogarrak, zittalak, baketsuak, azerijak, arruak, apalak; danetarikuak dozuz.

Bere ipoñok dirala-ta, amaika barre egineraso dau kirikiño'k. Barre ... bai. Beste askok, be, iñoren-leñoz barre egineragitten dabe, batezpe gure baserritarrak dirala ta. Ezta, baña, Kirikiño orretarako orrein orrpokua.

Nor dozu, ba?. Ybai-bastarreko orma-gañian zabal zabal jarrita, ujel zikin loyak daruazan erukarrijen kontura barre dagin zistriña?. Zeri oratu ez, ta urak daruaz eta gixajo orrei eskua luzatzeka zirrika ta mirrika diardumen-bat?. Urkuari lenengo adarra jo ta gero ari buruz guraña barre egin?. Ezta bidezkoa ori. Ezta Kirikiño orren tartekua.

Badaki, bai, gixonak zelan bideratzen diran. Ez bakarrik jakintza edo itzaldi bijozkorr, gartsu ta apañen bidez, beste era batez, be, bai.

Umiari, lenago, gura ezaban gauzaren gogua be-dakixue zelan egitten jakon. Gogo ori sortuarasoteko bide asko doguz. Sarri-askotan len eukana ezestia, atxekijetia lakorik eztago. Mutiko baten bere oñetakuak andrazkuenak dirala ba-diñotsazu, beralaxe dakuskezu bere oñetakuak zelan jaurti asmatu ezindda. Beste batzuetan len eukazanak ezestia ezta naikua, barre apurr bat egin eta piska bat zirikatzia natta-naiezkoa da. Orixe da kirikiño'ren burubidia, asmua. Zirikatu bai, baña bide, onera ekartiarren . Bere ipoiñ geyenetan didorogu onako edo alako ikaskixunen bat. Batzuetan argi tta garbi darakusku bere asmuoi, beste batzuetan ziarrka ta erdi-azaldu egitten dau.

Ypoinlarija da kirikiño; edozelakua ez.

Euzkotarr asko euren edarr-egarrija itto-natta atzerri iturrijetara duaz; edarr billa atzerri barrutijetan-ziarr, dabiltz. Gure elestubarrutijetan elbitz igerr ta latza besterik ez?.

Euzkera laga ta erderara; etxeko ezertxu, be, etxaku atsegin eta mattagarri. Eztazagunik zelan matte?. Ezagutza da matte-itturburua. Atzerri-lurrunak lausotu egin dauskuz gure begijak; atzerri axe erriak kiskaldu dauz gure almenak. Auzokotuta bixi gara. Atzerri-neurkiz neurtu gura doguz gure gauzak. Aua gazittuta, mingostuta daukanak zelan txastauteko gauza gozorik?.

Erderazko lanetan dakuskuzan irudi tta apaingarriak eztaukozan elerti-lana bertanbera esten dogu. Zorakeriz ta nabarmenkeriz jositta ezpa-dakusku ... ezer bez.

Guk ba-doguz geure-irudijak. Gure elertilarija, be, ba-dabe irudimena. Kirikiño'k, be, bai, zorrotza ta bixija ala, be, Kirikiño'ren ipoñetan ba-doguz antz-irudi jatorrak. Yrudiujelik eztakuskezu; bai, orratiño noxipein baña banakabanaka.

Kirikiño'ren jardunak, batezpe alkarrizketak bixi-bixijak dira; noxipeingo ta tarteko irudijak txinpartak dirudije.

Gayaren apurrak azaltzen ezta nekatzen. Laburr ta zutzu dagerkiguz bere amesak. Ipoïn banaka batzuetan jozkera ezta orren jatorra; arrapataka egiñek ixan-edo.... Esan-ala berez jatorkola dirudi, baña jatorkonori batzuetan edozelan esaten dau. Zelan esan eztau oldozten.

Esakuntz sakon, mamintsuak ugarri. Badezpadako joskerak aldiz-aldiz esakuntzeri biñittazuna damotzela uste dot.

Errikoya dozu. Bere antz-irudijak euzko-berezijetan iñausijak. Erretza, laua.

Bere ipoñik edarrenak zillei-saletan doguz. Nork uste orren egi latz ta legorrak orren erretz, leun eta argi azaldu leikezana ...

Eskola-maxu jatorra ixango zan kirikiño. Jira ta bira irudi-bidez baño ezpa-da, be, egoki tta erretz azaltzen dauz gauzak. "Peruren negosiu", "Pizikako irakaspen bat".

Barre egin gura ba-dozu irakurri ipoñok. Errijaren euzkera ondo ikasi gure ba-dozu, irakurri tta ez aspertu. Ypoiñ erretz ta samur orretan zerr ikasi asko didorokezu.

Baña "lirika" ames-irudirriek eztaukala-ta, ez ezetsi. Zuk idoroten ezpa-dozu, be, nor-edo-nork idoroko dau ezti gozua.

Euzko-elerti barartzian ba-dozuz, irakurle, tantai luze arruak, zugatz mardul orritsuak. Batta tantaipietan, zugazpian tarteka-tarteka lore apal usaintsuak, be. Tantai gurijak matte dabez txoritsuak; besanga-zabal luziak atsegin miragarruak.

Erletxuak, oster, tantaipietako loretxuak. Eta loretxuotan dabe euren gose-asegarririk onena.

## Bernard de Echepeare. Lenengo euskal-idaslea. 1936

"Esin eskriba zaiteian"  
"Berze jendek uste zuten  
Ezin eskriba zaiteian  
Orain dute porogetu  
Enganatu zirela"  
(Contrapás)

Ona emen gure Etxepare'tar Bernarda azkarra, orra orr bere lana. "Berze jendek uste zuten, ezin eskriba zaiteian ..." Ezetz! esan bere kolkorako ta -lasterr ikusiko dozue euzkeraz idatzi daiken ala ez- dirautsoe euskaldun guztiei.

Ujoldeak aurrean daruana pendizera edo ondamedira duana ezagutu eban gure Etxeparre'k. Ezagutu bakarrik ez, ujoldeari albora alde, be bai. Ujoldeari alde eikionik ez ekien ausagu beste euskaldunak? Iñoiz aldeten asi al ziran baiña?

Ujolderen edo uraren, erara juatea zer zan, Etxepare berberak dirausku bere "Linguae Vasorum Primitiae (1) idastiaren asieran.

"... baskoak baitira abil, animos eta gentil eta hetan izan baita eta baita eziencia guzietan letratu handirik, miraz nago jauna nola bat ere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren favoretan euskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera ceren ladin publika mundu guzietara berze lengoajiak bezda ..." Euskerak entzute gitxi iñork ezer idatzi ez ebalak eukala dirausku ondoren eta orrez gaiñera ... "... berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daitela lengoaje hartan..."

Gaztelarrak eta pantzetarrak eurak, be, gai sakonak lateraz idatzi oi ebezan. Ostingo gaiak orraitino erderaz, be, egiten ebezan.

Euskaldunek, ostera, auturik azal eta lauenak, be, erderaz azaltzen ebezan.

Euskera, be, edozein lanetarako besteak baizen gai zala adierazetea izan zan Etxepare'ren burubide ta egingoa.

Orrentarako euskerazko lenengo bere "Linguae Vasorum Primitiae" idastzi ostean ..."orain dute porogatu enganatu zirela" egiz esan eikean.

Besteen erara jokatzera -mundu onetan egia ezan- urtepiderik lauena da; aintza bidea baiña beste bat yatzu, ene, irakurle-bestien arauz ibilteka guztien- alderaunkora edo kontrara egin eta

gero beste gustiok norbere ondoren ekartea. Bide aldats eta zaila. Ori egiten daberen gizonak bai txalogarri ta goragarriak!

Onein arteko dogu Etxepare Jauna, be. Euskotar'aintzagarria euzkeraz idazten lenen asizan euskalduna. Berorren ezaupide izan dagizuzan izpar batzuk.



## "Garazi'ko natura"

Etxepare'nen jatorria ta abizenorren goibeiak alde batera lagako doguz, gauza garbirik iñork, be, ez daki-ta.

Saraskota Etxepare'ko semea dogu. Donibane Garazi onduan dagon Eihelarre'koa. 1518'ko agiri batek darakuskunez bere jaioterriko. Erretore zan orduan. 1533'hanean bizi zan ausago; urte onelako agiri batzuek "Bertrandus de chaparre (sic) rector saneti Michaelis veteris" ixenez izenpetuta doguz-eta. 1559gn, be, agiri da "maestre bernard de echepare" izenpedun idazti- bat. Gure olerkariori ote zan? Beste agirietan letz bere izenaren ondoren "Rectorem Sancti Michaelis Veteris" ipinten ez dauenarrez berbera izan daikela diño Urkizo Jaunak azterle argiak. Introducción al "Linguae Vasorum Primitiae" idazlanean.

Etxepare berberaren autorrez aldi baten Bearne'n morrollopean edo kirizpean egon zena, be, ba-dakigu orraitíño.

Zergaitik sartu ebenik?

"Heldu behar, duien gauzan ezta eskapazerik

Nik ogenik ez nuiela ongi gitez berzerik

Bide gabek haritu nu bide ez nuien lekutik

Erregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik"

Orixe dirausku Mosen Bernat Echeperere cantuia olerkian: Beratxoago beste zeozertxu be, ba-diño. Guzurrezko zalakuntzaren bat egin ote eutsen?

"Falsu testimoniotik ezin ehor begira

Halaz kondenatu zuten Jainkoa ere hilzera ..."

Beste toki baten, be, "bide gabe handia" egin eutsela diñostu. Zein izan eikean baiña bidegabekeri ori?

Errurik barik gurutzaldu eben Jainko maitigaz burua bat egiten dau bedorrek. Berberoi jari ei-zan gaiñera areriuen mendera.

"Ni gaixoa! etsaiari ni haur giniz eskura

Yre unsa eginak ere orai oro gaiz dira;

Haren menian ezpanengo nik nukeien zuzena.

Mirakulu ba'negi ere orai ene ogena ..."

Vinson Jaunaren ustez olerki lizun eta nabarmenak-gaitik atxillotu eben, edo bere bizimodu biurta loierren.

Uarte'tar Joseba Mnak "Euskalerrriaren-Alde (3) aldizkingian dara-kusgunez ta Aitzol argiak Jakintza'n (4) diñonez politika-auturen bat izan eban. Indarrez Nabarra eskuratu eben España'ko Erregen aldeko genduan Etxepare ta aren alde-edo zerbait egin ebalako kerizperatu ote eben uste dabe orreik.

"Erregeri dakidala nik eztizit faltatu" dirausku gañera berberak lan ertatutako olerkian. "Erregeri faltatu" baiña era betana ulertu daike. Orduko itz-arauz "erregeri faltatu", "faltar al Rey" eta faltar a la Ley (5) izan daikela diñosku Urkixo Jaunak.

Dana dala, gure Etxepare'k naiko eruapen izan eban kerizpe aretan, bere olerkietan darakusgunez.

"Ongi egitez, gaiz sofritez behar dugu salbatu.

Pena ta miseria nik enuien dastatu,

Orai dakit Jaingoikoa'k erru nai damnatu

Heben ene penazera zaidenian orhitu  
Urre hunak behar dizi suian purgatio".

Orra zeñien ikasbide ederrak damoskuzan. Merezi ebalako sartu ba-eben, gaiztekeria alde batera laga ta berak damoskun ikasbidea oneritzi daigun.

## Olerkari

"bascoec ... duten ... bere longogien servituz ... solaz egiteko cantatzeko eta denpora iragaiteko materia ...

1545'gn. argitaldu zan euskeraz lenengo egin zan idaztia. "Lexique Vasorum PRIMITIVE PER Dominun Bernardum Decrepate Rectorem Sancti michaelis veteris" yatzu bere izenpurua. "Erregearen adbokatu bidezko eta nobleari ... bere gauni eta jabe Bernard Lehete'ri bernard echeparekoak ... gogo onez ...". Orra eskintza. Eskintza edo itxaurre ondoren amazortzi olerki dakar. Lenengo.bostak uzkutuz edo erlegiño gaiari buruz eginak; azkenengo biak euzkera gorestako ta gaiñerantzekoak "amorosen" eta "emazteen" autuak-bide.

"Zati ederrak ba-ditu -diñosku Laffite Jaunak- baiña -egia egiari zorr- aphez batek segurki egin bearr ez bezelakohetarik ere parrastada bat" (6). Maite-olerkiei buruz diño au ausago.

"Gai edarrak baiña jantzia ez da gaia baizen edarr ezta goiargia be, gaiari gagokon beste; goi-argiz motel ta jantziz, be ez yaku bear ornidu gure Etxepare. Gogo-maiteminduaren estiñak ostera dar-darr dagie olerki lanotan. Orixegaitik edarr esten doguz Etxepare'ren olerkiak"(7).

Orra Aitzol Jaunaren eritxia.

"Todos convienen en que Dechepare no fué gran poeta, aun cuando no falta belleza en algunos de sus versos. El interés que encierra el primer libro impreso en vascuence -dirauzku Urkino'tar Julen Jaunak- es bore todo lingüístico y bibliográfico".(8).

Eta "amorosen" edo maite olerkiei buruz Urkixo berberak beste toki baten nabarmenegiak, lizunegitxoak dirala ta abade baten izenez olerki areik zelan argitaldu ziran ezin erreto siñestu daikela diño; batez, be, ezin aginpidedun abade baten izenez zelan argitaldu ziran jakitiz zail be zail dala.

Ona emen orain auzi bat. Maite-olerki areik abade baten izenean ezin argitaldu eikezala-ta Francisque Michel Jaunari olerki areik Etxepare beranak izango ete ziranetz ezpaia sortu yakon; Etxepare'k bere olerkiekin batera aldi aretan aotan ebilzan baste olerki batzuk txartatu ez ete euzan.

Orra auzipidea zabalik. Orra beste korapilo bat, eta iñork ez al daike askatu korapillo ori?.

Olerki orreik Etxepare berarenak zen daikezala diño Urkixo Jaunak; Etxepare bera bizi zanean argitaltzeka euki ta bera il-ostean argitaldu eikezala-ta 1518'go Garaziko Erretore zan eta 1545'gn ez ete zan il?.

Ezpai, eztabaida ta auziok laga ta olerkioi eldu dagioguan.

Jantziz ta soiñez, mamiñez ta azalez orniduak doguz olerkiak, be, ta lenen jantziz ta azalez zelakoak diran ikusi dagiguzan.

"Edozeiñek ikusi daikenez erderazko itzak nun-nai doguz. Euskerazko itzaren orde z erderazkoak parra-parra darioz. Euskeraz argi ta garbi esan eikezanak, erderaz diñoz. Ignorancia, obra, "punicione" "landatu" t.a.

Zer dala ta edu orretako erdel-itz-jarioa?. Askotan gaiñera euskerazkoak laga-ta Erdel-itzen billa ibilte ori orduko "moda" edo burukeriren bat izango dogu kontizu, orreitariko erdel-itzak baiño euskerazkoak ulerterrezagoak genduzan-eta. Jakitun-buru egitearren be izan eikean. Joskera ez dauka orren biurra; "ceren" eta olakoxe batzuk kendu eskero naiko jatorra.

Itzez urritxamar gabilku ornidu-ornidua, be, ez da. Lana, argita ta ulerterreza, bai, ulerterrezik ba-da, erderazko itzok kendu-ezkero.

Irudimen motel-txamarra, ene aburuz; noxipeingo irudiak orraitino bizi-bizi ta egokiak yatzuz, ene erakurle

("Amoros secretugui dena"

"Artizarrak berzatarik, abantala darama

Hala be da anderetan ni penazen nuyena,

Iban bat da ederr eta gentil harzaz esponarama

Zori honian sortu date haren besoan dazana"

Tanta-tanta iturriari negarra letz dariozan antirudiak zeinen egokiak diran sapaldi orretan dakuzunez.

Izadi-irudi zale-zaleak izan dira gure bertsolariak. Etxepare osteraz ez yaku izadi irudi-zale. Izadi-irudi billa buru-belarri ibilte ori errukarri etzi ete eban?. Bertzoak azal, gogapena yaku olerti-un. Gogapenoi baiña antzirudiak damotzoe bizia.

Izadi-ereidietan urria ta ostinguetan, be, etz yaku ugari-ugaria.

Uzkuntz-gaietan adimena dogu irudimen eta biotzaren buru Sermolari dakusgu ta onu-emole.

("Doctrina Cristiana")

"Elas! Otoi, orok egin orai penitentzia

Behar orduian eztukegu gero agian aiziña

Anhiz jeside engañatu doa luzamenduiaz

Segureturik ehork eztu egun baten bizia"

Orra esakera laburr, narrugorri ta legorrak alkarren gainean. Olako asko dau lenengo saillean. Diozkada batzuketin beratuko ba'leuz ta irudiz geitxoago jantzi gogapen legorr landuok.

Etengabeko itz-jariorik bein be ez dauko; zeaztopen labur'ta biziak bai, adibidez "Judizio Jeneralean",

Juje Jauna eraturik egonen da gainetik;

Irestera aphaindurik infernuia azpitiki

Etsai gaiza akusatzen eskerreko aldetik;

Bekhatuiak eskuinetik mirizaturen publiko;

Ibire kontra heban gituk ihaurorrek eginik!

Gaizkienik kontra date konzienza barnetik".

Iñuingo luze ta barrizuen "Judizio Jeneralean" deritxaion olerki onetan yaku izan.

Xenpelar'en "Juizio generala" ta Etxepare'rena alkarren ondoan jarri ba-daikezuz, alkarrekin antz aundia daben gauzak dakuzkezuz, batezpe olerki tankera ta egin-eran.

"Doctrina Cristiana" ikasbide ta irakatsi onak damoskuz. "Amar Mandamenduak" amar aginduak zeintuzk diran diño.

"Orazionia" izenpuruz "grazia ororen ama eta iturburuia ... egundano bekatutan makulatu gabia" danari dagitso ta "vertutetan regitzeko egidezu grazia ..." Pekatuiak barkaturik didan parabizua" dirautso.

Eta urkurz-gaiari buruz egindakoen buru "Amorosen gaztiguia" Ama Birgiña'ri egiña, au be. Graspen aundia eutson ausago Miren Garbia'ri.

Ni haurk ere uken dizit -dirausku- zenbait ere amore. Bana handik estut uken probetxurik bat ere. Anhiz pena arima gal hanera eta neuri ere Amoretan plazer baten mila dira dolore.

Ostingo maite guztiak itxita. Miren'en ume gadizala ta

"Andra huna ar dezagun orok ohore,  
Berze oro uzi eta egin heri ohore" diño

"Ala egin ba dezagu ohoratu girate  
Berze gaitik hura gabe oro galdu girade"

Olerki garbi ta samur orreri ondoren "amorosen" kontu ta artuemonekin yatorku. Aldiren baten berberak izan euzan artuemonek gomuteak biotzean sortzen dautsozan zotin eta iritziriak kontizu.

(Amorosen gaztiguya)

"Ni haur ere ebili niz anhezetan erhorik  
gaoz eta egunaz ere hozik eta berorik,  
loa galdu, pena aski baiña ez arimagatik  
orai oro nahi nuke liren Jainkoagatik"  
berberak diñosku. Guztiz biozkoi yaku olerki onetan.

Oindiño be kontizu gaztaroan txinpart-utsa eriu en iritstxingarra bizirik dauka biotz-barrean. Lenagokuen gomuteak jotzen dauenean txingarroi garretan jarten yako ta garroi olerkietan dario.

Garroi itzaldu edo atzeratu eikeen zilegi-esiak alperrikoak dira.

(Amorosen disputa)

"Orano amore gazte gituzu  
Jainkuaz orhizeko leku diguzu"  
dirautso bere barrun be zirikalariari. Irits likitsari ostera:

(Amorosen disputa)

"Joan daraudazu lehen bihotza  
Gero gathibatu neure gorputza"

Lizuneri-lurrunak egiten daukuz iguingarri, bestela jantziz guztiz gatorr diran maite-olerkiak. Biozkoi ta samurrak doguz izan. Iñundik-iñora be, ezin ukatu daike abade bateri ez yagokozunak diranik.

Beste olerkietan aren "sermolari" egoki ta argi dakusazuna, "amorosen" kantuotan argiari igesi dakusgu.

Ba dauz sail onetan be esakera ta ikasbide jarraigarriak. Atsegin arteke arantzatuak nozipein xirri egiten dautsoe larrunbeari.

(Amore gogorraren disputa)

"Jangoikoa mutha ezak othoi ene bihotza  
Amoriaren hark bezela nik ez dudan axola,  
Borchaz ere gaizki baño hongu egitea hobe da

Ni haurrik ere uziren dut hon ezteriztana"- diñotzo maiteari aren "buruya" egiterik nai ez ebanean.

Maite-olerki saillau "Emazten favoretan" olerkiagaz asten dau.

"Andrez gaizki errailen" diñarduen gizonen-aurka ta emakumeak jasotearren egiña dogu.

"Emazterik ezten lefenian eztazukat plazerik

Ez gizona ez etxia behin ere xakerik

Etxian den gauza oso gaizki ereglaturik

Parabizuian nahi enuke emazterik ezpaliz".

Urrengo "Ezkonduien koplak" yatoskuz. Apartekorik ez dauka. "Amoros sekretuki" "Andre eder gentil baten" maitemin dakusgu. Olerki samurra ta lizuna danik, be, ezin esan daike. Gogai edarrak eta bizi biziak

Galinetan nik banero hari neure bihotza

eta gero balin ba lit respuesta bortitza

Dardoak bano lehen liro erdira ene bihotza

Irudiz ondo ornidua dogu; esakera zorrotzez egoki landua. "Amorosen partizia", "Amoros gelosia", "Pozaren galdezia". Alkarrenkideko doguz. Ba doguz orreitan zikin-txipristin batzuk. Bai, oraitiño gogo edo arima astegatuaren solin ixil zorrotzak be.

"Ehon ere eztasuzat ni haur bezain erhorik -dirautso bere buru nastuari-. Nik norgatik pena baitut hark estu axolik.

(Amoros gelosia)

Zuhur ba-ninz ba-ninzande ni ere hura gabesik

Alabana ezin uzi behin ere gogotik

Beti beregandik atera begira bizi zan gizon arola be, ez zan ba gure Etxepare apaldi orreitan, beste bat zuetan letz darakuskunez.

Bere barnean be ezaten euzan bere gogopen asterketak. "Amoros gelosia" orreitan maite-artuemonen batzuk eten eteeuzan esan daike. Maitearen gumutea gogotik kendu dagiola ta aren irudia be bai begietatik dirautso Jainkuari.

(Amoros gelosia)

Ni ere elicaturen niz orai hura gabarik

saroia da lohitu eta ez tut aren bearrik

Nahi ba-dut ukhenen dut orai ere barririk"

"Amoros errekeria'ren" ondoren "Amorosen disputa" alkar-izketaz egindako olerki gordin uringotsa didorogu. Barrun bearen eta irritzen arteko alkarizketa. Batak bestiari diñotsoena bai bizi darakusgu.

"Ordu gaizareki horrat zakizat" aspaldi bateko olerkiaren ostean "Amorosen despita" maite-olerki saileko azkena dezu, irakurle. Alkarizketaz egiña. Liburatutako biotz likitsaren gurari biurrak eta obenaren ondoren negargarri ta saminak darakutsozan maitez aurrez aurre doguz. Sagar ustel artean be zintzoren bat izan daike ta olerki oneitan zikin eta loi artean tanta garbi batzuk ba darioz orraitiño izur-zulo asko dauz dauzan biotzari.

Andreri buruz olerki-buruan,

"Ideki ezin medra naite bai gal neure anima

Bategatik sarri niro diren oroz arnega"

Iraizian baino ezpa da be ikusi dogu gure Etxepare buru-belarri maite estuetan, maite-ames ta egurritz jira-biraka, erdi-zorabioturik. Guztiak bere inguruan yabilkoz, guztiak dakus baiña bere igesi zorabiotuta izan eiki; Eldulekua gura ta eldulekuak eurak be irrirts zekenak ostendu dagioz. Orixegaitik, edo olerki oneitan minbera ta itun-txamarr dakusgu.

Gauzok ziranez ikusi egizan bere burua baretu ta begian aurrean ekusazan kusuak beste alde batetik ikustea egokion. Begien aurrean daukaguzanean baiño euren ondolik alde ta gero obeto ezagutzen doguz gauzak. Orixe jaso jakon Etxepareri be.

Bearnen kerizpean sortu ebenean gauzak ezagutu. Orixe darakuzku beintzat bere espetxeko gogo-era darakuskun "Mosen Bernart Echeperere kantuyak".

Ona zeñen makur ta apal dogun

"Ibiri egin ba-daraie bidegabe handia

Jainkoari gomendazak eure gauza guzia,

Ibask erori emanen dik bere merezituia

Gaizki guztiei pena handi, paziente gloria"

Bere barnean sortu-agiñean dakusazan gorrotoa il egian,

"Eztazala gaizteriztez damina eure buruya

Desiratuz gaiztoari hel dakion gaizkia

Jainkuai egiten duk injuria handia

Ibura bor'ek egiten duk jeige enereburuya

"Heuskara jalgi adi kanpora" ta "Santrela" doguz azkenengo olerkiak. Gero zerbait orrei buruz.

Nire aburuz Loramendi edo Lizardi eredu artuta baiño Xenpelar, Zapirain, Enbeitia edo beste edozein bertsolaren neurritz D'echepare be neurtzea obeto deritxat.

Bertsolari dogu ausagu aspaldiko gure Etxepare. Bertsolari treberik-trebean ta punta-punterengua ez eiki; bertsolari arteza alan be baiña.

Olerki edo bertso-azalari begiratu ezker, ba-dirokezuz bertsolari jatorrei eguingarri yakuezan akastxo batzuk. Aspaldi bakotxean "rima" egitearren bertso-buruan itz berbera jartzea adibidez. Itz-etorririk ez-edo... "Ere" "ére", "gaitik", "Gáitik", ta bata-bestearen ondoren. "Doctrina Christiana"ko bigarren zapaldian adibidez "eduki", "gaberik", "gureki" ta "gaberik" dakusguz lau neurtutzeko aspaldi baten.

Orreitariko azpilduratu batzuk gora-bera, bertsolariaren ezaugarriak euren tenean dakusguz.

Apurrak laga ta edarrenik edarren zirrika-mirrika yabilku. Bide lau ta zuzenenetik yuaku. Gorantz naiz berantz armalak banan banan barik era dabenean era dabenez igaroten dauz. Ari eskutik eldu ta guazeno yauzi orreik latz egiten yakuz, bide lauetan bare-bare ibiltzen oituta gagoz eta.

Beste ezeren bila ibiltzeka aora yatorkona ustu olerkietan eta aurrera juaten da gure Etxepare.

Gure baserrietako atsotxoak be alik onduen irun-arren, beti geratzen yakuez artule moltsotxoak edo trokotxoak irun daben arian. Orixe beroi gertaten yakue bertsolariei. Artule-trokotxoak piri-piri eskuz egindako lanaren ezaugarri jakuz.

Bertsolarien olerkietako goi-beiak ta triki-trakuak be etorri alan izurtako goi-ernesaren ezaugarri doguz.

Irudiz legorr-txamarr yaku Etxepare Gogapenen arteko zerikusia aza-azal adierasoten dausku eta itzak eta esakerak alkarri josi ezik egunko ez yabilku. Batzuetan ika, beste-batzuetan zuka. Adabazainez ta eun-atalez egindako sonetia dirudie lenengo begiratuan bere olerkiak, eta loraz ornidu ta lan osokoak dira.

Aapaldi barrenean, izneurut baten edo bitan izaten dau indarrrik eta bizirik geien daukan gogapena.

(Amore gogorraren despita)

Jauna guerthuz daducat porfidia handia

Ixil endin nahi niguze ala ene fedia

Hiz gutitan adi esac nahi aduc eguia

Hiretako eztiaducat guerthuz neure buruya"

Orra zeñen joskera zatitua ta goi-betsua.

Azkenean barruan eukan guztia parrastada batenusten dau eta beste batzuetan azkenengo neurtitzean ari barria asi ...

Bugaztia baçinere adimendu hori duçu

Nik eugatik dudan pena othoy fendieçaçu

çuretako harnaza çu visi nahi vanuçu

Ni çugatic hil ba nadi cargu handia duqueçu

"Amoros" bertzuetan batez be bertsolari-taju aundia dauka etxeparek. Bere olerkirik jatorrenak be sail orretantxe doguz. Olerki iturririk emoitzuena maitasuna izan yakon Etxepare'ri. Iturrio bere barruan eukan. Beste askok olerki-iturri bila izadira edo jainkuarengana joten dabe; Etxepare'k ostera bere biotzera. Tarnalez bere biotzak emoten autson emoiori bere biotz-barruko irits-artean loitzen zan batzuetan.

Len jarri dogun auria bere olerki guztiak astindu ostean be, ezin erabagi ote-daikegu?. Maite olerkiok Etxepare berberak egiñak ote doguz?. Olerki-tankerari begiratu eskero bereak ez diranik ezin esan daike. Uzkuertz-gaieri buruz egin dakarten dakuzguzan joskera, akats ta ezaugariak dakusguz amorosenetan be.

Amorosen olerki guztiok batenak dira, ta errian aotan ebilzanak diranik uste ezateko oñarririk ez dago.

Sail-onetako olerki orotan somatzen dogu biotz-min eta gogo-larri berbera. Olerki guztiak dauke bata bestiarekin zer-ikusia. "Emazteen favoretan" asten yaku. "Ezkonduen coplac yatorkuz gero. Maiterekin ixil-jardunak ezan ondoren, "amorosen pastizia" ezin partidu da ta maiteak, aren "buruya" egin naiez dabelako negarti dakusgu "Amoros gelosia" olerkian. Ezin etsi baiña ta maiteari darakutsoz olerkariak beronen asmoak "Dotaren galdasia" olerkian. Iñundik andik jo dau maitearengan ta alkarrekin dira ta ora orr "Amorosen disputa" bien arteko barriketaldi lizuna. Azkenez, baiña maiteakin bere egarriz itoteko, beneratu bear, amorosen despita'n darakuzgunez.

Bauteako lorik ezak eta biotzeko guturak (ansia) olerki guztietan darakusguz. Biozkada bardin-txamarrak guztietan.

Bearnen atxilotuta egon zaneke barriak damoskuzan olerkiari "Mossen Bernart Echeperaren cantuya" berak jarri eta eutson ixenpetua. Etxepare il ostean argitalteko olerkiok astu ebazanean ez ote eutsoen ipiñi?.

## Euskaltzale

"Heuscara da campora eta guacen oro dançara

Amaseigarren eunki erdian gozuz irakurle

"Heuskera ialgui adi campora"

Euskera maitea etxezulo oindiño?. Onen ibiltari burrukatuak izan euskotarrak eta ... euskera etxetik urteteko". Euskaldunok "egodun jaioten giñala" esan izan dau idazle artez batek. Egodun eta ibiltari zoro jaio izan diran euskaldun askok beste torrotxio bat ikasi ezan dabe egaztaka jua eta atsedean egin izan daben lurraldietan. Eta atzera etxera diranean emen ego-mots geratu ziranei iñungo txorrotxioa irakatsi ...

Elerti sailetan euskeraz txorotxioka lenen asi zana Etxepare izan uaku. Euskera zeñen eder, egoki ta apain zan adierasi nai izan euskun.

Bere buruari buruz

"Lehen imprimaçalia heuskararen hura da" dirausku. Euskeraren edarrari begira

"Lengoagotan ohi inçan

Estimatze gutitan

Oray aldiz hic behardue

Ohoria orotan"

(contrapas)

Eta beste toki baten

"Lehenago hi baitiçan

lengoagetan azquena

Oray aldiz izaneniz orotaco lehena"

(santrela)

Orra Etxeparreren ames bakarra. Euskera jaso "berçe ororen gaynera".

Emakume lirainak ez eben bakarrik liburatu, euskerak, be, bai. Eta euskera askok uste eben baiño gazteegiño, liraiño, politago ta zaluago zala ta, euskotarren biotzak maitemindu egizan plazara dan

"Ibenfeara

jalgi adi plaçara"

(contrapas)

Etxepare ezkerro izan doguz euskaltzalrak; euskera, euskeraren ederrarren maite ta zabaldu daben asko ez.

Idazle jatorrak Axular, Mendiburu ta Kardaberaz, be, baiña oneik euron idaztietan dakusgunez nekentz zaindu ta sendotzarren, euskaldunei euron gogo-egarria asetearren idatzi eben. Euskera indartzarren eta edertzearen be bai, baiña batezpe nekertzarren.

Larramendik orraitino Mariana, Mayans, t.a. hirtenkeriak deusestu ta euskera goratzearen ekin eutson lanari.

Arrezkerro, be, izan doguz euskaltzaleak; euskaltzaleon bura esten dogu Arana Goiri; onek be baiña euskera aberriaren osagarri zalako maite ta zabaldu eban.

Gitxi be, gitxi izan dira euskera beronen yoritasunarren maite izan dabenak. Bakanetn-artean bakana, dogu Etxepare.

Bere "Linguae Vasorum Primitive" idaztiaren bidez plazara dau euskera. Eta plazan beste edarr-maitagarri guztien artean ikusirik, eta bere biotzaren-zotiñei eutsi eziñik,

"Ybenfeara

Eceyn ere lengoagerie

Ez francesa ez bescerie

Oray ezta erideyten

Ybenfeararen pareri" (contrapas)

Ori pozaren larria! Ori biotzaren arduria! Ori gizonaren eten-bearra!.

Eta euskotar oro, begiak zabalik, aurrera jarizi-enean buruak ari begira, maiteminduta bai lekusan,

"Lengoagetan ohi enean

Estomatze gutitan

Oray aldiz hie behar due

Otzoria erotan" - diño (contrapas)



Euskera edarra erdian egonarren eta euskaldunak arekin liratuta egozala inidienarren, iñork Euskerarekin dantzarik egiterik lotzaz-edo gura ez ba ley edo ... "Sautrela" olerkira ajui dagitzoe,

"Ibenfeara da campora eta guacen dançara"

Dantzara urtengo edo ez urtengo, dagozanak zirikatu naiean dogu. Aspaldian ez zan olako deirik entzun. Ba-zan bearrik.

Zer nai eban Etxeparek?

Euskerari artatzi batzuk eragin?. Euskaldunak ezukerarekin dantzan egin egien berotu?.

Jolas gurea itotearren bakarrik dantzatu edizan ez eban gura; ez da atsegina-billa, ibilterik, be.

Euskera ta euskotarrak bat-egitea zan Etxepare'ren amesa, Euskaldunak euskera emaztetzat artzea aren burubide bakarra.

Euskeraren etorkizuna, euskaldunak euskerarekin sortuko ebezan semeak ebazan buruan Etxepare'k.

"La lengua no debe ser madre, sino esposa, de la que se tienen hijos ..." esan dau iñoz euskerakin artu-emonetan ibili izan danarren, beste ele bat bere andragai artu daben Unamuno eusko-garbatuak.

Etxepare'k andragai artu ta seme edarr bat izan eban. Euskerak leen-semea Etxepare'gandik izan dau; orra "Linguae Vasorum Primitive" izeneko seme nagusioi.

Arreskero aldiz-aldiz edozain bat eme izen dauz; aurrerakoan ugariago izango al-dauz; geure eskuetan dogu semeok ugaritzea.

Ez uste izan euskera atsotu yakunik; iñoz baiño gazte-egiñago dogu-ta.

"Garacico herria

Benedica dadila

Ibenfearari emandio

Beharduyen hornuya" (contrapas)

Gazteiz'en 1936'gn Jorrala'ren 14'an Pasku-irugarrena.

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

# Espiritualidad

## Índice

1. Apuntes espirituales en hojas sueltas
2. Asociación religiosa-cultural "Ad Jesun per Marian"
3. Annotationes et decretos moralia ad usura privatun 1.935'gn Urrilaren 2'an
4. Crogaketak
  1. Negarra
  2. Jo ta ausi ... ;
  3. Iñartzi ziztin miakiña
  4. Saraspeko iturritxo
  5. Maite garretan
  6. Malkoz
  7. Gauaren argia
  8. Negarr; negarr ta barre
  9. Orma aldaker orein
  10. Gizarte autuak
  11. Zugatz ondo
  12. Falso catolicismo
  13. La tesis ...
  14. Iñoren gonabarrenei barrez
  15. Erreka egaleko sostopo
  16. Et nubes suscepit eum
5. Apuntes espirituales (Subdiacono)
6. Apuntes espirituales
7. Ejercicios espirituales 8-12 diciembre 1.939

## Apuntes espirituales en hojas sueltas

No pueden amarse desinteresadamente varios amigos si no les une o les mueve un ideal sobrenatural.

Cuando el demonio se presenta con los halagos del mundo, con la felicidad mundana, es bueno considerar que esos halagos y esa felicidad mentida son momentáneos. También es bueno hacerse cuenta de que los halagos mundanos que nos atren no están al alcance de la inmensa mayoría. Consideremos que son los más los que viven con menos felicidad, aun material, que nosotros.

Fomente en mí la presencia de Dios. Sírvame para ello la consideración de las cosas creadas.

¿Qué pecado hay que haya hecho el hombre y que yo no lo pueda hacer?.

He de fomentar más y más mis aspiraciones espirituales y con ello conseguiré incitar hasta la misma atracción material al sacerdocio.

Enardeceré mi corazón en el amor a la persona de Cristo que a tantos atraía.

Meditaré la generosidad de Pedro al despedirse de todo al oír la voz de Jesús que le llamaba.

Yo no seré feliz más que en aquel estado al que me ha llamado Cristo y al que están vinculadas gracias superabundantes que me harán feliz y haré felices a otros.

¿Cómo me puedo presentar ante el tribunal divino con las manos vacías y con tantas gracias malgastadas?. ¿Qué derecho tengo para exigirle el cielo a Cristo?. ¿Cómo podré escuchar "ven siervo bueno y fiel" ... de Cristo si ni siquiera he sido siervo suyo sino siervo del mundo y del demonio?.

Por la mañana al levantarme haré un pequeño examen de previsión y en ella me propondré lo que tenga que hacer durante el día.

A la noche me examinaré y me fijaré sobre todo en cómo he cumplido lo que me he propuesto a la mañana.

Por muy alto y muy brillante que se le suponga al sol, siempre tendrá alguna pequeña sombra. Así mismo yo por bien que me parezca hacer una cosa, pensaré que tendrá su parte flaca.

Oración, oración, oración. Seré en primer lugar hombre de oración.

Me ejercitaré más que todo en aquellas virtudes propias de mi vocación y entre esas virtudes; en las más universales, en las que a más personas toque "... si sal evamerit, ad quid valet nisi ud mitratur foras ed conculcetis ad hominibus".

Si los sacerdotes o apóstoles de Cristo a quienes Jesús dirige estas palabras no saben cumplir su misión, u olvidan su cometido, ¿para qué sirven?. ¿Qué les espera?.

¿Creemos que Cristo no puede hacer apóstoles suyos en otras partes o entre otras gentes? ¿Acaso su mayor apóstol no se formó en la escuela de un famoso rabino, enemigo de Jesús?.

En esos pecadores degradados, contemplamos hasta dónde puede llegar la miseria humana. Ellos nos pueden servir para considerar qué hubiéramos podido ser nosotros si no es por la gracia divina.

Pobres tullidos, pobres enfermos! ¿Y no me podía contar a mí mismo entre esos?. ¿No podría comparar mi suerte con los mismos en vez de compararla con los dichosos del mundo?. ¿A quién se lo debo lo que tengo?.

Aspiraciones nobles y elevadas. Confianza en Dios. Espíritu providencialista y resignado en las adversidades. Mortificación constante y generosa. Devoto de Jesús Sacramentado y de la Santísima Virgen.

Facultades naturales equilibradas. Afición a estudios filosófico-sociales y lingüístico-literarios. Facilidad para escribir. Decidido, activo. Reflexivo y metódico. Sensible. Perseverante.

Inclinado a la sensualidad. Amor propio bastante arraigado. Propenso a respetos humanos y difícil en las aspiraciones elevadas (fenómeno de ahora). Un poco de tibieza en el amor a la Iglesia y al espíritu sacerdotal. Reflejo de vanidad. Conciencia más laxa que rigurosa. Yo soy de Cristo, de la Iglesia, mis ojos, mis manos, mi corazón son propiedad de la Iglesia.

Temperamento ardiente, impulsivo, inquieto, un poco despótico. Tímido, cohibido y poco expansivo o reservado. Sensible y algo pesimista, impaciente.

Tenemos los hombres derecho a la paternidad. El instinto natural nos mueve a ello. La gracia que no destruye la naturaleza, sino que eleva y dignifica todo lo que es natural, eleva también ese instinto natural y así sin destruirlo nos hace padres de almas, engendrados de almas, la paternidad se vuelve espiritual.

Reflejos de sensualidad. Amor propio. Propenso a los respetos humanos. Espíritu de crítica (aunque no lo exteriorice siempre). Conciencia más laxa que rigurosa. Brotes de vanidad. Temperamento ardiente, impulsivo, inquieto y un poco despótico (intelectualmente). Tímido, cohibido. Poco expansivo o reservado. Impaciente y algo pesimista.

Devoto de la Eucaristía y de la Virgen. Conformidad con la Providencia divina y resignado en la adversidad. El espíritu de caridad muy arraigado y la mortificación predica constante. Aspiraciones nobles y elevadas.

Facultades intelectuales equilibradas. Afición-estudios filosóficos-sociales y conjunto de literatura.

Decidido, reflexivo, perseverante, activo, sensible y espíritu de organización y método-idealista.

Mentalidad laica, naturalista, racionalista. Me muevo en un plano natural: juzgo las cosas desde un punto de vista natural, egoísta, egocentrista.

Dios me hace ver que el plano en el que se debe mover el sacerdote es sobrenatural: la sotana en el plano natural es muy pesada y embarazosa.

Debo subir, ascender.

¿Cómo?.

Espíritu y trato de unión con Dios. Uname a él. Vivir con él. Violentadme, si queréis, Señor y hacedme vuestro.

¿Quién soy yo para ser servido, para constituirme por centro de la gravitación de todas las criaturas, de todas las miradas?.

Nada.

¡Oh falacia del demonio! que me sugiere las ideas de poder gozar, poderme servir de las criaturas de Dios, como si de mí dependiese el curso de las cosas y como si violentar a ellas subordinándolas a mis caprichos no fuera violentarme a mí mismo saliéndome de la órbita de la gracia divina que Dios me la tiene predestinada mientras yo me mueva por los derroteros que me los tiene señalados al llamarme a este estado de sacerdocio.

Qué me podría salvar ... qué podría ser bueno en el mundo ...

¿Es que aquí no puedo ser mejor?.

Trocar aquello por esto sería en mí una cobardía, una deserción de las filas, del que hasta el presente me ha mimado.

¡Dios mío! Moldeadme vos; arrastradme vos, que yo quiero ser vuestro. Y por si mi voluntad algún día pensara desertar de vuestro servicio, no la respetéis, pues hoy para siempre quiero ofrecéroslo de manera que estoy dispuesto a perderla, a privarme voluntaria y libremente de ella, antes que por ella yo me decida a caminar por mi cuenta.

Oid mi ruego.

Muchas veces Dios nos premia en este mundo lo poco que en su servicio hemos hecho y reserva para la otra vida el castigo de lo mucho malo que hemos cometido.

Cuando nos manda adversidades y sufrimientos recibámoslos.

Asociacion religiosa-cultura.  
"Ad Jesum per Mariam"

## Capítulo I. Constitución

### Artículo 1

Se constituye una asociación de carácter religioso-cultural bajo los auspicios del Corazón de Jesús y María Santísima.

### Artículo 2

Esta asociación tendrá un doble fin:

1. fomentar mediante unión estrecha de sus socios los valores humanos, en especial los religiosos y,
2. promover una cruzada de apostolado sencillo y callado bajo la base de una vida interior intensa y con miras a las necesidades de la sociedad moderna en nuestra Diócesis.

## Capítulo II. Funcionamiento

### Artículo 3

Habrà un secretario elegido por los socios. Este único cargo será renovado todos los años el 2 de febrero, N.S. de Lourdes.

### Artículo 4

Se encargará de las reuniones y tomará nota de ellas.

### Artículo 5

Es obligación suya dar cuenta de todo lo que le diga el Director Espiritual.

## Capítulo III. Vida de Relación (En general)

### Artículo 6

1. Los socios se distinguirán por un exacto cumplimiento del reglamento.
2. Por una obediencia absoluta a los superiores.
3. Evitando toda murmuración.
4. Siendo puntuales a todas las distribuciones.

### Artículo 7



El estudio será una de las principales ocupaciones y sacrificios.

#### Artículo 8

Fomentarán la afición al estudio dentro y fuera de los socios.

#### Artículo 9

Favorecerán activamente o haciendo ambiente a toda iniciativa religiosa cultural.

#### Artículo 10

En las conversaciones con los no socios entrarán temas edificantes, v.g., el ideal sacerdotal, estudios, etc., y harán notar las faltas si tienen ascendiente para ello.

#### Artículo 11

Serán afables en el trato y mostrarán cierta indiferencia en tratar con cualquiera.

#### Artículo 12

Todas las contrariedades las recibirán como venidas de la mano de Dios y sus sacrificios los ofrecerán para la salvación de las almas, principalmente de las que han de confiarle en su apostolado.

### Capítulo IV. Vida de relación entre socios

#### Artículo 13

Se reunirán dos veces a la semana previo aviso del secretario.

#### Artículo 14

En estas reuniones tratarán temas espirituales con preferencia o escolares o de iniciativas, etc.

#### Artículo 15

En los estudios se ayudarán mutuamente.

#### Artículo 16

Todos los socios podrán pedir libremente los libros que tuviere su compañero, sean religiosos o culturales, pero una vez en su poder los cuidará como si fueran propios.

#### Artículo 17

Se corregirán mutuamente con toda caridad, bien en las reuniones o fuera de ellas.

#### Artículo 18

Orarán los unos por los otros y se recomendarán principalmente en la Santa Misa.

#### Artículo 19

Se abandonarán completamente y con toda confianza en el Corazón de Jesús.

#### Artículo 20

Su trato será familiar y se tendrán confianza absoluta.

#### Artículo 21

Tendrán una piedad sencilla sin manifestaciones ridículas; no llamarán la atención.

### Capítulo V. Prácticas

#### Artículo 22

Cada semana harán las consagraciones al Corazón de Jesús y María, con preferencia los jueves y los sábados.

#### Artículo 23

El verano se escribirán cartas en las fechas que se les señale de antemano.

#### Artículo 24

Los temas de las cartas serán preferentemente espirituales.

#### Artículo 25

Las devociones principales serán a Jesús Sacramentado, al Corazón de Jesús y a María nuestra Madre.

#### Artículo 26

Se leerá al menos una vez al mes este reglamento.

## Annotationes et decreta moralia ad usum privatum

1935'gn Urrilaren 2'an

Zer dala ta orren gorroto bizi ta iguin aundia abade ta lekaimeteei?. Kristo'ren ordezkari ta oñordeko ez al-dira ba?. Bai, Kristo'ren ordezkari dira, baña ez kristo'ren antzeko. Gauza bat esan eta beste bat egiten dabelako ezin ikusi dabez. Apaldasuna, txiro-izatea, zuzena gora ta gora jaso ta eurak arro, aberatz, diru-zale diralako gorroto dabez.

Ludi-zaleak abadeei irri ta barre egiten dautsoela?. Txarto al deritxozu?. Ludi zaleentzat abadeok argibide gaituzu. Ilunpean ekanduta dagoanari argiak begi-ninietan nun emotea ta argi-izpietatik bere-begiak gorde dagizan, begietan eskuak ipintea, ba-dakizu zer dan.

Abade izateak ez begiz lotsatu. Irri ta barreak ez bekiguz atzerapen eta ostopo izan. Gizon buru-arinak guk egiten daguzane barrea dagitsoela ta ikaratu, lotsatu?

Otoi-zaletu nadin eta Jainko-zaletasuna berez sortuko da ene biotzean.

Ber dan letz otoi egiten ba-daiket, ostingo guztietan zuzen eta ondo jokatuko dot.

Sarri-sarri begiratu dagiodan neure biotzara; barru-zale izan nadin; buru-ukapenez ta ilduraz nire arimatxuan Jainko-maitasun zuten irauneraso dagiodan.

Goizeko gogalkundean egunerako egin-asmo bat artuko dot. Asmo ori berbera izango da ilabete iguruan gaueko.

La moneda tiene dos partes; la cara y la cruz. No se pueden separar esas dos partes; no tiene valor sin la cara. El reino de Cristo se asemeja a una moneda. Pues así como en la moneda, la cara y la cruz son inseparables en el reino de Cristo.

La cruz la constituyen los oprobios, las humillaciones, las luchas internas y externas representadas por la cruz de Cristo. La cara, en cambio, o sea la parte alegre, el mismo Cristo; Cristo o el espíritu de Cristo es el que las eleva y da valor a esas tribulaciones.

He de dar un sentido y una dirección práctica a la meditación y a todos los actos de piedad. La meditación la he de enderezar a un fin práctico e inmediato. Lo mismo el examen de la noche. Nunca me acostaré sin proponerme una cosa para el día siguiente.

Me hace falta más espíritu de sacrificio y abnegación. Fomentará en mí ese espíritu; siendo para ello necesario el espíritu de recogimiento en primer lugar.

1. En el orden social e interindividual dentro del grupo he de fomentar la corrección fraterna de unos y otros. Hemos de indicar uno a otro las enmiendas que conviene que cada uno lleve a cabo en su carácter y temperamento.
2. En cada reunión cada miembro explicará un pasaje del Evangelio o tomado de las oraciones y partes litúrgicas de la semana.

3. Acción común de los miembros sobre un punto de antemano propuesto; acción común de Apostolado.
4. Expondrá cada uno sus inquietudes especiales.
5. En el orden cultural un

Egun gumutagarria niretzat. Egundo neure bizian ez al-gat aztuko<sub>j</sub>. Egundo be, ez al dodaz aztuko egun onetan artutako asmoak<sub>j</sub>. Lagun bekit Jainko maitea<sub>j</sub>. Lagundu begist, ene Ama Maitagarri ta Zoragarriak. Seme zintzo ta esaneko apal, otzan ta garbi izan nagokion, orañarte zabarr izan nagokon au<sub>j</sub>. Gaurko egunez Miren, ene Ama kutun-kutunak egin eustan eskarra irarri be, irarri bedi nire gumutan.

Agur Ama ta autxi ene biotz zimela ... Zeuk joritu ta gorde egidazu.

1936'gn Epalaren 25'an Miren'en Iragakundean

Il edo bizi, beti-beti beteko dot nire egikizuna edo yagokadan zeregiña. Orixe izango da nire ildurarik egokiena ta Jainko ta Amarentzat begikuen.

Jainkuaren eskerrik bage ezin ezer egin daiket. Jatorriz jausi egingo naz ni be Jainkuari eskarrrik eskatzeka, neure buruaren jabe ta bakarrik ibilteko-edu ba nazala ba-deritxat.

Jauna<sub>j</sub>. Besteena baño deunago ta zuzenago ez dagiadala etsi egundo be, nire bururik<sub>j</sub>. Arren, Jauna neure-kariz ziltzaldirik txikiena ta azalena menperatzeko-edu nazanik bein be ez bekit uste izan, orixe izango litzake nire galbidea ta. Entzun, Jauna, nire arrenau.

Neure indarrez ta adorez ezer ezin egin daikedanarren, edozer egin daiket, zure eskara ta laguntasunagaz. Ezin egin daikedala uste izan eta etxita egonarren, be, zuri Jauna, otoi bekizut. Eta gogo larri ta estuaren ototrik bein be ez dozu entzun ezik egiten.

Ama<sub>j</sub> okerreko bidetik asten nazanean onez edo samiñez atseraeragidazu. Neure yagokadan bidez nuanean eta aldaz-gora bizi edo arantza zorrotzez egindako esiren bat idoroten doanean betorkit ene idurimenera zure iduri samurá ta lagun zakidaz.

Jausi<sub>j</sub>. Bai; Josu'rekin duana, be, jausi daike: amari gonatik elduta duan umetxuari, be, ondo yatorko noizik-bein estropezu bat, amari gogorrigo eldu dagioñ aurrerantzean eta bakarrik ibilteko-edu ez oindiño ez dala siñestu dagian. Josu'rekin duana baña jausi-arren, agudo jagiko da ta tontoreragiño eldu be bai. Josu berbera, be, Halbani-aldapan erutan jausi zan, baña eldu bear eban lekuragiño eldu be bai.

1. Por mí nada puedo; para hacer el menor acto de amor me hace falta la gracia de Dios.  
Pediré a Dios todos los días, en la Sagrada Comunión y en las visitas, que aumente e intensifique mi fé.
2. Recogido en las filas; hombre reflexivo; cumplidor del deber; sacrificado y abnegado.
3. Afable y cariñoso, alegre y jovial en el trato con los otros.

La ruina sacerdotal empieza por donde termina la de un seglar, por el sacrilegio que es lo sumo a lo que puede llegar un seglar.

Cuando nacimos todos reían y nosotros llorábamos; cuando muramos que todos lloren y nosotros riamos.

La pelota cuanto con mayor fuerza se lanza y más honda sea o más altura haya al suelo, tanto más rebota; lo mismo ocurre con algunos pecados de hombres, que por la caída reaccionan con todo vigor y la caída es comienzo de salvación.

Itxi atreak eta adi barruari. Kanpokoa bearreko yaku izan; inguruetan iturriak daukazan soloari be, noizipein euria ondo yatorko. Gure barruan be, baña, lantzian bein astindutxua egitea on yaku. Egin daigun ba ekinalditxuori.

Zer egin bearr dogu baña gure barru oretan?

Lenen beintzak gure biotztxua ezagutu, ikusi ta aztertu. Edozelako bedarr, mugita, aski ta larrak sortu ta azten diran gure barruko baratz edo ortutxu orretan izango dogu aste-beterako lanik naiko.

Baratz edo biotz orretan Adan'en obena ezkerro edozolako landarak azten dira. Larr, mugita ta batera. Orain orrek ipurkitik atara ta ari txarrak ondatzeko, gure biotz ori be apurtu egin bearke genduke; asi txarr orreik gure izateari berenez yagokizanak dira-ta.

Beste bide batez galdu daikeguz baña landara txarr orreik. Orretarako lantzian-lantzian jorrrabat egin bearr zoko orretan. Larr-landara ta azkiak jaio edo sortzen diranean ebegi, moztu. Larr orreik ipurdia be zarra ta sakona dariarren, tar kemitxuan jaio edo urten-barritan mozten badoguz berez igertu ta irituko da.

Oára gure lanbidea. Aspaldian jaramon gitxi txamarr egin izan ba-dautxoegu. onezkerro larr-adarrok asi-txamarrak egongo dira ta inoimenak bertan-bera inder-gatu ta ilteko zorian. Larrok kentzea ez da naiko; onoimen-loratuok ondo-ondo jorrratu ta beratzea be bearreko da.

Ona emen guk barru orretan dogun bigaren egikizuna.

Baña, Jauna, larrez ta sasiz josita dakust ene zoko ori. Orañarte zeñen nagi, alper ta ardurarik bagea izan nazan ezagun da.

Zure oñordeko ta "Alter Christus" izateko zelan aukeratu nozu?.

Banan-banan ipurditik ebaten asita, danok ebegi orduko neu galduko naz. Nundik asi be ez dakit. Matasa arte orretan onen aul ta indarge onek zer egin?. Indarge ta aula, baña gizon arola.

Sutan erre al ba negi berezi zakar ori?. Jauna, arren txinpartxu bat igorri egidazu; zure biotz-gori orretatik betorkit txinpartxi bat. Txinpart ori putzaren-putzez su-garretan ipiñiko dot eta olantxe erreko dodaz anabasa danoik.

"Loguere Domine guia audit servas tuus".

Intziritan ta uluka daukat ene animatxoa padar onetan. Jainkuari arimiek dagiozan uluok iñork entzun ez dagizan, nire soin zikin-zale, narraz ta oben-bera au orruaka ta murruzaka.

Zer nai dozu Jauna?. Zer egingo dot?. Zeure-zeure-zeuria izan nai dot. Zuk zeuretu naitezun-ezkerro, arren, Jauna, besterik ezean zeuregandu ta zeu-zale egin nagizu.

Daukadan eta nazan dan-dana iñork emonda daukadan oneik, iñorentzat ez al-dot ezer egingo?.

Ene biotz legorr sasitzuko larrru batzuk ipurdi-ipurditik atarateko diñostazu. Ez al da, ba, naiko dimuak moztea?. Ezeta diraustazu, alako ta onako zepatxua ondotik atarateko. Bai, Jauna, atarako dot al ba dot. Lurr gorri legorrean baña sustarrak ziatz ataratea zaila ta eziña da. Lur legor hedarti ori beratu ta ezkotu daikezu zuk, baña, ene Jaun orrek, zeure eskarr-zaparrada ugari-ugari bategaz. Beratu egizu ba, ta sustarretik be atarako dot nik zuk diñostazun zepioi denporearen buruz baño ezpa-da, ba.

4

1936'gn III, 28a

(4.1)

Negarra

Begietatik tan-tan malakoak dariozanean bakarrik negarr egiten ote dau gizonak?. Ez; negarra biotzean sortzen da; negarr-iturri biotza da ta begiak iturri ado biotz-ujelen ur-erreten dira; askotan baña eul-urak soloak berak eraten dauz, ibaira juateka. Euri bateregia danean eta lurak denak batera edan ezin daikezanean duaz ujelok ibaira. Olantxe malakuak be, gizonaren begietara. Noz-nai ta edozeigaitik malakuak dariozan gizonak barru-ariña darakusgu. Malko batzuk geratzeko-edu mamin ez ...!.

(4.2)

Jo ta ausi ...!

Jo ta ausi, eten edo iñausi ... au al-da arenok, bidekatuak bideratzeko bidea?. Euren ustez ilunpetan barik argiten eta zuzen duaz. Orra egia. Bai; argitan ez duazanik, be, ezin ukatu; ez da nonoruntz duazenik be. Egi-izpiren bat ez daben guzurrik ez da eta okerretik duazanok ego-izpion dakuse. Egi-izpiaren inguruan dabillen guzurrik ez; zer dala-ta ez?. Guzurra utsa da ta utsik ezin ikusi. Egi-izpioi elburu etzi ta egi-izpirako duazan bidea besterik ez da.

Egi-izpioi benetako elburua ez dala erakutsi egiozue ta okerretik dabilzana eurok euron begiz ikusiko dabe. Baña eurok egiten dituen astakeri ta egiñenak txarto dagozanik esatez ez da naiko. Euron elburua lortzeko bide dira ta egokiak. "A fine pendet natura eta a natura repetuntar media". Langileak euren eskubideak euren esku-mende euki gura izatea ondo da. Euroi gagokoezanen jaribe izateko beste biderik ez ba-dakuse ... zer?.

Korapiloa eskatzeko eurok elburutzat dauken argi-izpioi egizko elburu ez dala azaldu egiozue ba.

Eta argi-izpioi egizko argia ez dala zelan adierazo?. Beste argi-biziago baten bidez bakarrik. Argi-biziagoaren dir-dirrak argi-izpitxuoit izali ezarren, ipurtergi biurtuko dabe. Eta gizonak argi bizitan ibili naiago izango dabe.

"Una doctrina no se destruye por la fuerza, sino por otra doctrina".

(4.3)

Yñartzi ziztin mizkiña

Bago-adaburutsua zeñen edarra!. Zenbat eta adaburutsuago ta indar geiago pagoak!. Adaburu guztiak moztu ta bat bakarra baga-ezkero bakarrorrek geiago irabazten dauala ta len adarr-danak artzen ebezan indarrak orain bakarrorrenzat dizango dirala, usteko dozu, lugin-arazuetan atzera txamar zarean orreik?. Besterik uste dabe gure baserritarrak.

Yndarkatu egin daroa pago ondoa adaburuak iñausteak eta adabura darrego iñausteak igartu be, bai.

Bago-adarrak bata bestearen edarrak ezin ikusita baserritarrak adarr batek bare ondokoak iñauzteko ba liruskio zer esango zeunke?. Ai, errukarru!! Bestien edarra ta indarrak bere burua gura edu azaltzen ez dautsola izten uste dau .... bestien edarrak ezin ikusi dan ta bestien indarrak eta edarro beretzat, be, on danik ez daki ...!. Adaburu arro!! Eure buruaren alde abilakukuen, eure ondamentirantz uake baña.

Bakarrik ba intz orain-edu zorna ez euke izango. Bestien edarra ez dok ire galgarri ta ago ixilik, Yxilik ez bakarrik, eure lagunekin adizkide ta eure lagunen edarra gaitik ondoari eskarrak emon eikioz.

Adabururen batek besterik uste izango ba leuke, baña, baserritar jatorrak aren esanei ez leukioe jaramonik egingo-ta iñartziz erreten bizi izan bearko leuke adabura sitalak; bere erruz baña.

Jainkuak, be, ba-daki gure baserritarrak-edu eta guri ondokuen onako edo alako kerizeak onik ez dagizkula deritxogunarren eta a gure ondamendi esteu dogunarren, Jainkuak ez dau iñausten.

#### (4.4)

### Saraspeko iturritxoia ...

Saraspeko iturri jariotsua, Saraspe'ko mama gozua, iragana nayatorik ene egarri bizia ito ta eztarri latza leuntzera.

Yto-bearrak narakarak. Ekatzak ura. Alperrik duan mama-gozo aparbat ekatzak.

Eskerrik asko iturritxu; bein betiko ase nok.

Ytur-itxu: Ur piska bat. Barruko beroak eta kanpotiko sargori kiskalgarrie oneik erre ta iregana nayakark egarri-minak.

Bein betiko ase nindualakotan nintzuan eta lan baño egarriago beriala; len baño motelako ene soinzarra. Y ez ez ustuko ta ekatzak beste apur bat.

Zurku-zurku ur-apur bat edan ostean, jaraspean kerizatan, iturri-ondotxoan jarria nozu.

Aterbak iturriari begira, gogapenetan garragarrika diardut ene barruan.

Barriro; be, egarrituko ete nazan susmoz. Zer dala-ta ez ete gozak bein betiko aseten edan-alak edanerren, be?.

"Omnis qui bibit ex aqua hac sitiet iterusn" .... Lur Amaren biotzetik jatorkun mama oneik egarri beru egiten gozak. Malkoak, be, biotzean sortu ta begietan asten dozak baña.

Guk mama deritxogun au malko ez al-dok izango ...! Ez; malko-uts ez danarren, malko gazi egarberak ba-yozak nastean mama oneik baña. Zelan izan daiken ori?. Negarrez bizi eitean ez yuan Jaunak sortu izango ba Lurr-Ama.

Ez; Jainkuak on sortu yuan, baña Adan'ek sartu yautsoan biotz-biotzean arasitza zorrotza.

Eta arrezkero Lurr Ama'gandik jatorkun mamarik garbi ta gozoenak, be, ezin yaiekek gure egarririk ase, malko gazi egarr-emolez nastuta yagok eta. Gazia berez dok, ba, egarribera.

Yturritxu! Orain ba-yakiak zergaitik ase ezin neikian; edanago ta egarri aundiagoa zergaitik sortzen daustan, ba, bai.

Lurkoi oso gazi; lurkoi orok egarri-bera, lurkoiok zenbat geiago ta txarrago; nuan Jainkuagana onetxeren urak ito daike ene egarri garrtsua ta.

"Qui, autem viverit ex aqua guam egó debo ei, non zitiet in aeternum".

#### (4.5)

### Maite-garretan

Arria arriagaz apurtu daike; ez orraitino leiarr bareikaz arri gogorrik.

Kristo'ren arerioak indarrez azpiratzea gura al-dozu?.

Baietz, deritxazu?. Kristo'k bere iraketzia indararen-buruz barik maitasun ez ez al euzan zabaldu?. Ludo guztia al denik-al den erre eban kristo'ren biotzetik urten eban maitazun garrak.



"Batter, dimitte illiz: Non enim seiunt quid facient". Malluagaz zatitu ta birrindu, daikezu arria, be, baiña mallakada barik birrindu, ta, auts zuri biurtzen dau su-goriak.

Baiña maitasunak ba-dau beste egokitasun bat, be. Bero dagon burdineari berez dario berotasuna ta ikuturik egiteka gelditzen dauz inguruak. Maitasunez beratu-beratuta dagoanari, be, gañezka dario ondokuan beratu daikezan maite-garra; maite-garra orreik berialaxe kiskaltzen dauz guztiak.

(4.6)

**Malkoz ...**

Ytun-bero nozu, lagun jatorriz itunbera. Ene barruko larriak illerira narua. Nire geroko berriak jakin-naiak eta inguruon yabilkadazon aragi-zale zirikalarietara igazi araxe nua.

Yllobiak ... bedarr-zimel artean eitsak jandako zurezko gurutzatxua. Nik baiña ene elobi gañean bedar-guriak eta guratz bizia gura eukez. Ene etobiak, lur-legoretan bedarr ta landara guroak ase dedizan bizi nazan-artean malkoz buzti ta beratu dagidan ilobi lokioz.

Malkoz lurrik beratu ez ba-dagit nire oroigai izango dan zugatzuk ez da aziko. Malkoz beratzaka azi dan oroigai-zugalza laster igertuko da. Ylobian onoigai izan dagulan azi dagoelan landareoi. Gure bizirako ta emen aundi-etsi gadizen izuroten daguzan malkuak alparrekoak dira Ylobieri edo il-otseu gure orogai izan dagozan isuntan diranak yagokuz gero.

(4.7)

**Gauaren argia ...!!**

Gauaren baltza; enegandik-at dakuskan gauaren baltza ... Gauaren argia, ene barrura banna. Upan baiño illunago ta ezin ezerikusai daike kanpuan. Ezin iñora juan zuzen beintzat. Egunez lañoz inguratuta ene barrua, gauez baiña argi-argi. Gauez letz egunean gauzak ba'nekus ...? Egiten dodan-edu ostopozuta labanik ez neuka egingo, zuzenetik nenbilke.

Beti egun argi ba'litz ene soni-begiak begiratzez ez litzakez aspertuko, logurarik ez leuke izango; nire gogo-begiak, ostera, beti egun argi ba'litz laister itsuduko litzakez.

Beti gauaz ba'litz ... ene gogoan ez neuka zauririk osatu bearrik izango; ez da garbaziak egunoro aldatu bearrik be. Beti gau ba'litz nai nire gagoak eta begiak ta loak ostera alkar-artuta nire osaketak gal-eraso nai ...

(4.8)

**Negar; negar ta barre?.**

Orain ogei ta bat urte negar ta negar nengian; negarra besterik ez erion ene biotzari; Obenak, jatorrizko obenak poza ginburuz eban biotza garrastu egin eban eta barrenean izuri zulo bakar bat edegi eutson; izurri-zulo areitatik negarra dario.

Bildotsik, negarrez orain ogei ta bat urte. Arrezkero negarrak tartean barrea, be, ba-dauka. Mingots artean gozoa, azal mingotsa urratu ondoren mamin gizoa. Gizonaren egite guztietan dogu azal edo asiera mingotsa; Jainkuak baiña mingotsaren-mingotzez auldu ta gogaitu ez gindazan aldas-goraren ondoren laua edo aldats-berea ipiñi euskun. Ludi onetan lau utsik ez da ta orain aldats-bera utsez ba genbiltz ... gero, beari-edo bein, ludi mugadun oneta ez ba-da bestean, aldagora utsota latza izango dogu.

Negarr utsa gaziegi, aldapa etengabea latzegi izan ez dakugun, negarr edo malko-artean poz-tanta batzuk damoskuz ta aldapa, garrian atsedeen leku ta bide-laumeak.

Negar ta barre ...

Aldapaz luzeroago gabiltzan, barrea baiño negarra ugariago iurtzi dagigun, onetara malkoak ariñoago ustuko yakuz ta gero poz utsa izango dugu ta. Aldats gorak guendutakoan aldats-bera utsa izango dugu.

¿...?. ...

Gero?. Oraintze kontuak atara. Aldats-bera utzez bazabiltz, aldatza-gora larria izango dozu. Aldats-gora guztiak eta malko guztiak ez dagidazan geroko laga. Yo dagigun gorata. Agortu dagiguzan negarrak.

#### (4.9)

### Orma aldaker orein ...

Bakoizkeriak unetaragiño beratu gauz. Bakozkeri ede liberalkeri oriek zoko-zokorra jaurrito dau Uz Kurtza. Bakoizkeri oriek orain uzkurta ori len bakoizkeri orreik jazo daben etxeari eusteko nau dau. Orainarte euron sakelerako on diranez atondu dabez gauzok eta emetik aurrera, be, gauza ta bizibideak lengo senean iraungo ba leu nai dabe. Lengo senean iraun-eskero ondo bizi daikez eurok eta ...

Aldokerr egin daben orma zarr jausi agiñean dagoanari tinkoi-antzo eutsi dagion ete da Uz Kurtza?. Jausi bedi orma zer aldakerroi. Orainñarteko orma-zar aldakerroi jausi-arren uzkurtzan zer?. Orma zarr okerroi zuzendu al ba ledi ... baiña ezin zuzendu daite.

Uzkurtza ormein-tinkoi ezateko bage, orma oñarri, eustazpi izateko sortua da.

#### (4.10)

### Gizarteko autuak ...

Gizonaren eta gizarztearen artu-emonetan zer ikusirik ba-al dauka?.

Gizonaren eta gizarztearen artu-emon eta goraberok gizonaren eta gizarztearen elburuekin zer-ikusirik ba-al dabe?. Bai?. Olan izatera gizonaren eta gizarztearen artu-emon guztiakin dauka artu-emonak Uz Kurtzak.

Okerrak zuzentzea, gezarteko autuak atontzea Uz Kurtzari dagokio. Gizonaren ibil bidea aundia da-ta gizona erredez bidekatu daike. Bidekatu ez dadin Uz Kurtza argi bekio Yzarte zala partuak batera nai bestere erredez egin daike. Zuzen doalakuan pendizera duala. Argi-unerik argi-une dabillekuan, argi-izpitxoai elburu eritxita galmendira duake.

#### (4.11)

### Zugat ondoa ...

Zugat ipurdi ebago-berriari ura dario. Biotzondoa mindu dautsonari negarra.

Zugatsoi guztiz igartu ez datten eta iñaurte ori daltegarri izan ez dakin zoiagaz zugatz adaroi ede ipurdioi, estaltzoa ona da.

Biotz etze bai negartiok eztaltzea, aztea, beti aren oroo-miñez bizi ez gatezan, aren zeuriak estatzeo on yaku guri, be. Biotz zauriak beti izango doguz, orreik eziñ aldendu daikeguz. Biotz-sastadok on yakuz; zugatza noiz-edo-noiz iñaustea ona da, indarr-barrutu daiten. Biotz sastadok, be, bai.

(4.11)

Falso catolicismo ...

Su norma de acción y su criterio, oposición a priori. Su característica, odio, rencor, espíritu de contradicción, el "anti" mal sonante.

Oposición a priori; criterio para juzgar de una doctrina es la posición que toman los adversarios; sin considerar si esa posición de los adversarios sea buena o mala, conforme o disconforme con la doctrina católica, o lógica consecuencia derivada de un principio cristiano o en teoría admitido por todos, los falsos católicos le lanzan con todo frenesí al polo opuesto. El único motivo de esa posición de los pseudo-católicos ha sido la posición tomada por los contrarios. Como muchas veces los adversarios se colocan en un plano católico, de ahí resulta que muchos católicos ocupan un puesto falso, un puesto que no dice bien con sus principios y esos católicos se contradicen a sí mismos. Podríamos citar muchos ejemplos en confirmación de esta nuestra teoría.

Qué pena da ver muchos católicos guiados en sus opiniones y en sus proceder, no por la luz de su doctrina divina, luz que irradia resplandores divinos, sino por la posición de tales o cuales que en ese punto concreto se han guiado por principios cristianos y los católicos por no convenir con ellos (que para ellos son intocables y como si fueran incapaces de herir las niñas que sus ojos (los resplandores del cristianismo) y esos pobres nunca pudieran acertar en su conducta.

(4.13)

La tesis ...

"Los católicos no hacemos más que proponer las tesis; nos preocupamos de ilustrar las inteligencias, bien esta eso. Pero acaso basta ilustrar las inteligencias?. Aldaparea erresaragiño urez beteta eukitea naiko al-da garia erroteko?. Aldaperako ur orrek goitik bera jausi ta eiotarriaren ardatza astintzan ez ba-dau, alperrik da aldaperaka ura. Alperrik egin doguz urerretenak; egia esan, alperrik oz doguz egin gure areriozi laguntzako baiño. Aldapara orri beste alde batetik zuloa egin eta gure urekin eruen errotak darabilez, arerioak. Krito'k esan ebanez txerrenen semeak argiaren semeak baiño trebegoak doguz.

Katolikoan erretetan urun-eskala ta zorri gitxi, bestienetan goizetik gahera edo-ala urun darue.

Qué hace falta?. Mover los corazones, la verdad no cuesta, las consecuencias que trae en el orden práctico esa verdad, esos sí que cuestan. La inteligencia se alimenta con puro espíritu. El corazón, como material que es, no se mueve con puros razonamientos -requiere un interes, requiere un objeto, un iman que la atraiga.

(4.14)

Yñoren gonabarrenei barrez ...

Guri geuri, be, barregarria jazoten yaku liberalkeria guzurpetu ta txar esten etenak egiten gayabiltzuz ta gu-geu be liberalkeri orren lurrunetan egosiak gaituen. Uzkurtz-autuetan eta deizan gagozanean gagoz bakarrik. Uzkurtzak eleizan lotu gagikez baiña ez andik-at.

Orra zeñen terdiuan sertu yakun liberalkeria. Azpijan bildurgarria dogu liberalkeriak egin dauskuna.

Egun batetik bestera luperi galanta, sakona yatorkegu azpian ori bete ez ba daikegu.

(4.15)

Erreka egaleko sostopo

Sakelibo edego ta ustu nai ez daben liberalkeri-gorriñak gorrindutako aberatzentzat kistartasuna egin baltsakeria, baizen iguingarri ta bildurgarri yatzu.

Orreitarriko aberatz orreik kistartasunaren alde yabilkuzanean, euren sakelak zaintzeko, alabetako bide giñan diñardue. Eleiza orrek euroi iñork ezer lapurtu ez dagioen gizonei Jainkuaren izenez ta ordeiz lapurdea galezotea ondo deritxoe. Jainkoaren izenez ta ordeiz ugakabak langileie ??? yagokoena emotea, langilei euren anai-antzo jaramon egitea, gose danari erruz jaten emotea, iñiro desteñarek ez egitea. t.a. ba-diñoiz Eleizak edo Eleizaren ordezkariak, ai! orduan ... Eleizak bere senetik urteten dabela ta gizarteko artuemonetan zerikusirik ez daukela diñoie garrasika.

(4.16)

Et nubes suscepit eum

Nora daruaskuk. Odei gure begien ikusgarri gure biotzero asegai ta gure arimen atsedean yakun Josu?. Odei! eten, ausi, uratu adi; Odei; lertu ez gadizan emon egiskuk gure Josu ... Josu! Josu!.

Kepa, Ander, Pilipa, Toma, Bartolomé ... ni narru-atsik gurutzean nengoanean, nun ziñan?. Orduan ikusi nengizan eta an ez ziñan agiri. Nire inguruetan ez zan leiñorik ez odeirik, ikusi gura ninduanak, agiriak nisidukan.

Ai! Yosu agiri zanean, gizonak begiak lauso, Josu Juan danean begiak gerunik bage, argi, baiña laiñoiz odeia bitarteko ... Auxe dogu gizonon zoria.

Quid satus aspirantes in calum?

Ezer agin ez dan zeruan. Dein ikusgarri izan daike?. Begientzat beintzat ezein be, ez.

Amaren aurrean begiak gauza berririk ez dabeuzenaran, semearen begiak lukartzeka orduosuetan egon daikez. Begiak ezer ez dakusenaren, biotzakentzat ustu ezindako jarria darion iturria da ameran maitazuna eta seanearen biotza ostera, amaren maitasunez egundo, be, asetzen ez dan sakona.

Kristo, be, amaibako maite-iturri dogu ta Apostoluak, ostera, Kristoren maitazuna egarriz intzinka doguz; Apostoluen biotzak, be, Kristo'ren eskarr-aderraz beratsen doguz Odei-pean zerara-begira.

Rescessit ab ei

Odei zoriontsu!. Nor ezan daiken i baizen aberats! Betirako eruan dauskuk gure Jon maitea?. Ez, betirako ez. Atzera etorriko da edo etorri orduko neu juango naz beregana.

Baiña laiño; ez, az nik uste neban baizen lodia, Josu'rik ez dok guztiz ostenduten. Ene begiegandik osten du duan Josu, ene siñezmen-argiz ba-dakust. Siñezmen-argiak darakusda.

Siñezmen-argi! ez akit ilundu, ez akit moteldu. Erakutsi egidak beti-beti Josu.

- "Ego veni in nomine Patris mei et

"non accipitis me; si ralius venerit in nomine

"suo illum accipietis". J.V.43

Egi garratza, latza, mingotsa. Kristo'k juduei esan eutsoen orixe esan daikegu guk, be, gaur.

Jainkoaren izenez ta ordezt, gizonak Jainkuaganatzeko yatorkuzanei ez-entzun egiten nautsoegu.

Jasi-gaizkatzabe, sasi-osagiliei maltzuzkuriz ta aukeriz yatorkuzanei menta euren esanak egiten doguz. Orren makurrak gaituzu gizonak.

Jainkuak, Kristo'k berberak, bere irakatsiak zabaldu egiezan eta ostinguak gorrindu ez egiezan jarri eban ordezkueran esanei zeñen jaramon ta senek gitxi egiten dautsoegun ...

## Apuntes espirituales (subdiácono)

¿Qué me han dado y qué puedo esperar yo de los cristianos?.

¿A qué preocuparme de ellos?. Los despreciaré con la sonrisa de Cristo en los labios.

## Examen

Tendré muy en cuenta el examinarme cada día hasta qué punto me he preocupado y hasta dónde ha llegado en mi alma la preocupación de los cristianos.

Los cristianos no son Dios, son de Dios, son para que no pueda mediante ellos encaminarme al cielo.

Indiferencia: lo que Dios quiera, quiero yo también de todas las criaturas.

Elijo lo mejor. ¿Qué es lo mejor?.

¡Enseñadme Cristo!

Me aparté de tí y ahora quiero volverme a tí. Quiero redimir el pasado con un presente mejor.

¡Dádme fuerza, dádme tu gracia Señor. Confirmadme en estos deseos. Soy débil, son voluble. Confirmadme.

La omnipotencia y la sabiduría infinita de Dios han creado una criatura, nada más para nuestro castigo.

Por el pecado nos apartamos de Dios y Dios luego nos priva de una vista. Por el pecado nos adherimos a las criaturas y Dios nos castiga con la pena de sentido.

Cristo Rey, majestuoso, juzgaré a todos. El coro de sacerdotes sacrílegos. ¡Qué horrible!.

¡Señor! me ofrezco como víctima para redimir mi pecado con el porvenir.

Me entrego totalmente a vuestra voluntad. No quie venerarme nada.

Y lo que yo os deje de entregar arrancadme vos.

Mi criterio, mi juicio, mis sentimientos, mis deseos, mi corazón, todo lo que soy y poseo quiero sinceramente que lo sea vuestro.

## Examen

Procuraré restituir a su verdadero dueño todo esto que yo creo mi propiedad espiritual.

Revestidme a tu fé, de tu doctrina, de tu gracia.

¡Señor! quiero abrazarme a tí para vivir contigo, para ser uno contigo, para vivir tu vida sin preocuparme de si ha de ser feliz o desdichado, pobre o rico, de honor o deshonra.

¡Señor! que yo no me preocupe de nada más que hacer tu voluntad, de vivir contigo; que yo no me preocupe de lo que el día de mañana será de mí.

Con toda la sinceridad de mi alma te pido que aumentes en mí el espíritu de fé .

Que viva con Cristo ante mis ojos, con Cristo en mis manos, con Cristo en mi corazón.

Tuyo soy y tuyo quiero ser.

¡Señor! renuncio desde este momento por completo al mundo, a los placeres; que yo me haga desde este momento completamente sordo a las sirenas halagadoras del mundo que resuenan en mis oídos.

Esto es lo que mi voluntad, ayudada e inspirada por tu gracia quiere y elige, aunque mi carne "este animalito" se resista y se asuste. ¡Soy tuyo, Cristo!

Por locos nos tiene el mundo y en verdad que es locura a juzgar con los ojos del mundo. Que no nos tengamos nosotros mismos por locos.

Miremos y juzguemos todo a través de Cristo, que venció al mundo que le tuvo por loco. Santo o hipócrita. Santo o nada.

El sacerdote ni se salva solo ni se condena solo.

Todo de Cristo, absolutamente todo. Una vez consagrada a Cristo, no hay derecho a restar nada a Cristo. Todo o nada.

Vivir en Cristo ha de ser mi ideal. Para ello actuar en mi su presencia, fomentar en mí el espíritu de intimidad.

Aunque Cristo no me conteste, yo le seguiré hablando.

Cristo, me volveré loco por tí.

## Delante de Cristo, mi amigo, mi hermano, mi caudillo

Estoy en paz, contento ante mi Dios, ante Cristo a quien le ha desconocido o le ha conocido a medias, de quien he vivido alejado. Alejado porque le suponía feliz en el cielo y no le ha palpado junto a mí, en mis manos, delante de mis ojos, en mi corazón. Con el quiero vivir.

## Pienso en el día de mañana

No encuentro ningún atractivo natural. Tendré que sufrir, porque quien con Cristo quiere vivir, quien quiere ser sacerdote, debe enjuagar las lágrimas ajenas y tragarse las propias que serán muchas. En el mundo gozan los mundanos, pero tienen que sufrir y sufrir mucho los sacerdotes. Cristo fué tenido por loco y los sacerdotes somos tenidos por locos o por hipócritas y falsos. El mundo no comprendió a Cristo y tampoco al sacerdote. No podemos hacer pactos con el mundo. Mi mayor desgracia sería el que pretendiera complacer al mundo sin dejar por completo a Cristo. Pido al Señor que me haga del todo suyo.

## Yo de mi parte ...

Me entrego a la voluntad de Dios, decidido, contento, confiado y sin temor alguno. La fé me lo dice y la experiencia me confirma que Dios es providente. Me entrego en cuerpo y alma en manos de la Providencia de Dios que nunca me ha abandonado. En ella pongo toda mi confianza. Desde hoy, desde el momento que yo doy el paso decisivo, paso a la familia de Dios que será mi padre y mi madre. ¡Señor! recibidme y cuidad de mí, que soy todo vuestro.

## Me entrego en cuerpo y alma

Hasta el presente me he entregado a Dios pero con reservas. Desde hoy quiero ser del todo de Cristo y nada más que de Cristo.

En primer lugar quiero hacer la entrega de esta mi propiedad espiritual que hasta el presente le había reservado. Tomadla, Señor, y si algo quedara en mí sin entregaros, quitádmelo, arancádmelo.

En primer lugar quiero entregaros mi entendimiento que la pongo a vuestro servicio. Quiero tener un criterio del todo sobrenatural y cristiano. Quiero ver y juzgar todo a través de Cristo. Renuncio al que hasta el presente ha tenido, que no ha sido sobrenatural, que ha sido la causa de mi lucha interior, de mis inquietudes, de mis turbaciones. Quiero desposeerme de este espíritu racionalista y excesivamente crítico que poseo. Trocádmelo en verdadero espíritu. Señor, iluminadme con vuestro Espíritu, Señor.

Haced que yo viva de la fé, me alimente de la fé. ¡Señor! dadme fé, dadme fé, mucha fé. Me teneis que darlo.



Quiero mirar de frente a la vida, quiero que mi vida sea santa, toda mi vida santa y no ratos santos. La santidad ha de informar todo mi ser, toda mi actuación. Me compenetraré íntimamente de esta vida.

Pensaré en Cristo y viviré de Cristo.

Soy de Cristo. Sus miembros en adelante ,serán enteramente de Cristo.

¡Señor! cuando yo quiera hacer uno de ellos para lo que no es de tu gloria o en lo que notes tu servicio, arrancádmelos, defended vuestros derechos, que ya son propiedad tuya.

El sacerdote nunca fracasa. Su misión la de Cristo. La de Cristo ... dar gloria a Dios. Y no lo olvidemos que la gloria a Dios se la da muchas veces mejor que con triunfos ruidosos, con actos interiores, actos heroicos del sacerdote, que sólo las conocen él y Cristo.

¿Y quién ha tenido mayor fracaso aparente que Cristo?. Contemplemos a través. del Evangelio. Le desprecian los dirigentes del pueblo, le desprecian los intelectuales, el pueblo tan solo le sigue porque le da de comer, los suyos, los apóstoles le abandonan ...

Optimistas siempre, alegres siempre que quien con Cristo siembra, quien con Cristo tiene parte nunca pierde, gana todo.

Daré decidido el paro definitivo, que es el paso de Getxemaní recordando que después es ya todo obra de Dios y que de Dios que ahora me cargue ese sacrificio, después no me puede denegar lo que yo necesite para proseguir en mi camino.

Tres puntos en los que debe observarme y adelantar:

1. Oración, más oración, oración más cristiana.
2. Vencimiento propio, en cosas menudas y pequeñas para que en las grandes esté más firme. Vencerme y formar un carácter austero, laborioso, decidido.
3. Examen. Por la mañana de previsión y por la noche examen de los actos del día. Para ser en todo sacerdote, para reflejar a Cristo a través de toda mi actividad, todo mi ser hace falta que esté muy sobre mí mismo.

Yo no soy yo desde este momento. Yo no solo me he de conformar con el uniforme de soldado de Cristo que aunque no me sea atractivo lo amaré y con la gracia de Dios lo llevará dignamente, con honor.

Quiere ser perfecto, intachable soldado de Cristo.

¡Ayudadme Señor!

Examen particular sobre la presencia de Dios. He de llegar a intimar con mi Cristo.

## Ejercicios espirituales

El hombre tiene unas relaciones esenciales con Dios. El brazo fuera del cuerpo no tiene sentido. Cada uno de nosotros tampoco fuera del lugar señalado por Dios. ¿Cuál es ese lugar?. Nuestra vocación nos lo dirá. Dios gobierna el mundo por las causas segundas. Cada uno de nosotros está también articulado en ese engranaje general. La mano de la Providencia nos ha señalado claramente el lugar. Ocupémonos con cariño.

¿Qué me queda a mí de esas temporadas de felicidad mundana que he vivido?. ¿Qué pesarán esos años a la hora de la muerte?.

La unión con Dios, la oración es la base de nuestra vida espiritual. Recurrirá a Dios y El me dará las fuerzas necesarias.

Descenso -en la oración- cada día menos. Modestia cada vez menos importancia. Respetos humanos -me han vencido en más de una ocasión.

Poca reflexión. Poco espíritu de fé actuado.

Pondré barreras a mi imaginación y forjaré el carácter dominándome a mí mismo, empezando por la imaginación.

O sano o podrido. Miembro podrido que no puede menos de pudrir al prójimo. Esto es el sacerdote que está en pecado.

¿Qué somos respecto de Dios?. Menos que una hormiga frente al hombre -infinitamente menos-.

¿Cómo pensaré cuando me vea cara a la muerte?. ¿Qué sentiré de mi vida ya pasada?. ¿Con qué me justificaré?.

Sacrificaré mi cuerpo y mi alma, todo mi ser a Dios en holocausto por mis pecados. No seré más que de Dios. El único que tiene derecho en mi cuerpo es Cristo. Haré lo que Cristo quiera. A El me entrego enteramente y no me queda nada para las criaturas que puedan solo citarme.

Es una exigencia de la misma naturaleza él que nos encariñemos de algo concreto. Orientemos, encauzemos nuestros sentimientos y afectos, para que su término sea la persona de Cristo. Encariñémonos de El y no habrá peligro de que se desvíen esos sentimientos y afectos.

Me hace falta más espíritu de fé, vivir la fé. Debo modelar mis sentimientos y afectos por ese espíritu de fé.

Soy frio, racionalista y serio. Nada de sentimentalismo. A penas me dejo conducir por fervores sensibles, sí por las ideas, por el convencimiento. Comprendo que soy demasiado frio.

Mi sostén ha sido la mano de la Providencia, cuya acción en mí la he notado palpablemente en mil ocasiones.

Tenaz y apasionado una vez haya visto la cosa.

¡Qué misión más grande y hermosa la del sacerdote católico, ser otro redentor de la humanidad!

La felicidad del mundano consiste en vivir sin dolores y lágrimas, la felicidad del sacerdote en enjugar las lágrimas ajenas.

Signos de la presencia de Dios en el alma: la caridad, la alegría, la alabanza. Pasaje del Evangelio: "La visita del Angel a María y de ésta a Isabel".

Honor de Dios, sin caridad del prójimo no se comprende.

Los santos son los hombres que en medio de las cruces pasan sonriendo. Son los hombres que dominan todo y nada les domina.

Debemos vivir de nuestro sacerdocio. No vemos que los hombres del mundo, los hombres de negocio, los hombres de ciencia, viven de lo suyo, de su negocio, de sus investigaciones, de ello solo se preocupan, en ello se lo piensan...

En adelante meditaré y pensaré muy a menudo en el sacerdocio, que voy a ejercer.

¿De qué temer, porqué hemos de ser pesimistas?. Dios a nadie le obliga a lo imposible, a nadie le impone una carga insoportable. Cristo que nos exige ser apóstoles, convertir el mundo, sabe que eso no es imposible, ni mucho menos. Y si no lo convertimos únicamente se debe a nuestra falta, no a la de Dios que siempre ayuda.

La familiaridad con Dios, la correspondencia íntima y constante con Dios la ha de conseguir necesariamente si quiero vivir realmente la vida sacerdotal. A cada momento consultaré interiormente con Dios qué he de hacer.

Para conseguirlo me actuaré a mí mismo en actos de presencia de Dios, que cada día procuraré hacerlos más. Llevaré cuanto de ésto en los exámenes de conciencia.

Me fijaré también en cómo vive la vida sacerdotal. He de hacerme con "Retiro Pastoral".

Haré media hora de oración mental por la mañana y un cuarto de hora de lectura espiritual por la tarde.

¿A qué humana inteligencia se le puede ocurrir y con qué finalidad u objetivo humano se puede hablar como hablaba Cristo?. Es que Cristo es Dios y su finalidad de orden sobrenatural.

Dejaré que Cristo me arrastre donde quiera El. Seré si es preciso loco por El. Qué importa que el nunca me tenga por loco, por descabellado, ni loco y descabellado soy de Cristo?. Hacedme lo que queráis, Señor. Tiene en mí la corriente de vuestra gracia que inunda mi alma. Que me arrastre esa corriente.

Cueste lo que cueste he de orar, he de aprender a vivir de mi interior, de esas ideas grandes con las que procuraré familiarizarme.

No miraré más que a mi interior. No me importará el qué dirán los que me rodean, tan solo el qué dirá Cristo en mí. Este es mi gran defecto. Mirar alrededor.

## Ejercicios espirituales. 18-21 diciembre 1939

## Reflejos de mi alma

### Observaciones

Sentimientos altracistas, filantrópicos. El vacío de la vida egocentrista. Tender la mano al prójimo. Veo que he nacido para algo más que para vivir para mí mismo. El dolor, el sufrimiento del prójimo conmueve profundamente. No quiero ser más que lo que es el último hombre. Quisiera llegar a eso. Podía haber sido uno de ellos desde mi nacimiento. ¿Por qué no lo soy?. Porque Dios lo ha querido. Únicamente a Dios debo esto que soy.

### Sacerdocio

Las ideas de la grandeza, dignidad, poderes no me dicen nada, no las siente. Me quedo tan frío como citaba. El sacerdocio en lo que tiene de sobrenatural, grande no me atrae naturalmente. Sí, es lo que tiene de servicio del prójimo, darse y trabajar con el prójimo.

Camino hacia esa meta con la frialdad, sequedad de quien va a cumplir un deber. Así como el deber, el cumplimiento de una obligación en sí muchas veces no tiene ningún atractivo, así tampoco yo veo en ese sacerdocio ningún atractivo natural. Sin embargo estoy decidido a serlo porque ese me parece ser mi camino, porque esa dicen ser mi vocación. Estoy dispuesto a cumplir la voluntad de Dios ante todo y sobre todo y llevo en mi alma la íntima convicción de que siendo esa mi vocación, mi felicidad, tanto humana como la eterna, están vinculadas al cumplimiento de mi parte de esa vocación. Esta es una de las convicciones más arraigadas, una de las ideas madres que me mueven a obrar.

### Resoluciones

1. Dominarme: me dominaré, educaré a mi voluntad vencéndome en las cosas pequeñas, estando a cada momento sobre ella.
2. Trabajaré intensamente. No quiero perder el tiempo. Me doy cuenta de lo que vale un minuto diariamente bien aprovechado.
3. Seré hombre reflexivo, constante, viviré sobre mí mismo. Tengo que llegar a encontrar en mi interior la fuente de la que viva, de la que viva siempre. Fomentaré en mí mismo las ideas grandes. Me ingertaré en Cristo. El sacerdote que no es santo se condenará su vida, la vida del sacerdote que no es santo no tiene sentido en el mundo. Es un bicho raro que está fuera de su centro, de su lugar en la sociedad. Es un engranaje desarticulado, suelto, inútil a lo sumo si no es perjudicial y no se concibe que la sociedad lo tolere.

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

Jean Barbieren ipuinak.  
Laminak (Lenengo zatia)

## Índice

1. Laminak sanperen Utsaleko zubipean
2. Lamiña ta atsoa
3. Doministikum
4. Laustaneko jauregia
5. Lamiña - lapikoa
6. Mundarrain'go lamiñeak
7. Beorlegi mendiko lamiñeak
8. Bastarretxean lamiñeak
9. Lamiñea imilauplean
10. Lamiñea ta arri jotzailea

## Laminak Sanperen. Utsaleko zubipean

Orain berreun eta irureun urte, bai - ei eben lamiñak Sanperen, Utsaleko zubipean bizileku bat.

Begira ta begira egon arren be, baña, zulo aretako ezereen barri iñork bere ezin jakin al ei-eban.

Behin batez, orraitioño be, lamin hareitako bat il-zorian ei-zan. Haren lagunak ba-ekien, zuzen jakin be, arenak egin ebana. Zoritxarrez, baña, ezin il eitekean. Guretariko batek, lamin ez zan batek, a ikusi ta bere aurrean, otoi rik laburrena baño ezpada be, lamiña il eitean, esan egin behar eban.

"Gaazetxean" ezaguna eben eta laminetariko batek "Gaazetxera" jo eban. Arren gure lamiñetariko bat guztiz txarto dago ta gure bizi-lekuraño etorriko ba-zindekez ... Zuk ikusi ta beraren alde otoi labur bat esan arte eztau azken arnasarik emongo. Sari ederra izango dozu: berroge-tamar laurleko ta beste pitxi ederren bat bere bai gañera.

"Gaazetxe'ko" andreak lamiñarekin joatea erabagiten dau. Ezbaitziran berrogetamar laurleko orduan edozelan irabazten zeozer gertatu ebenean bereioño bona.

Utsaleko zubi ondora eldu ziran eta ona lamiñak andreari:

- Gure etxetik urtetekoan zaratarik entzungo ba-zeunke, ez, arren, atzera begiratu. Zoaz beti aurrera zure bidetik, bestela zuk oartu be egiteka galdu egingo dozu saria.

- Ondo da. Ez dot ez atzera begiratuko.

Utsaleko zubira eldu diran ba errekea igaro behar, lamin etxera elduko, ta makil berezi bategaz lamiñak "kask" joten dau hura ta beningoan erdibitu egin zan hura. Biak igaro ostean, laminak "kask" jo egin eban berriro be makilagaz eta berehala lenera zan hura.

Sartu zan etxe barrura gure andrea eta, il-agian egoan lamiñaren aurrean otoia esan eta kanporentz egin eban.

Lamiñak, ostera, ez eben bialdu nahi gure andrea ezen artubarik. Aokada bat beintzat artu egin behar ebala. Jaten ondo damotso. Horrez gañera. berrogetamar laurleko be bai urrezko diru otoi baten.

Poz-pozik zan gure andrea etxerako ustean. Itzetik-ortzera, baña, zarata edo entzun eban. Begira atzera, ta agur!, oartzeke urrezko diru-ontzia galdu egin eban.

Erreka ondora ziranean, lamiñak len lez artu makila ta "kask" ...

Horaigoan, baña, urik ez da erdibi eginda lotu. "Kask" barriro be, eta alperrik. Laister igarri eban lamiñak hura zergatik ez zan erdibitzen. Ez zan baña ausartzen andreari esaten eta joten dau barrien-barriz bere ura makilagaz. Urak, baña, ezta zirkiñik bere.



Orduan lamiñak andreari:

- Gure gauzaren bat oartzeko edo artuta ete-daroazu?. Andreak, baña, gorde guraz, erantzuten dautzo

- Ez dot uste andre Lamin, Orratz bat bere ez dot artu nik! Arakatu sakel guztiak eta bardin dinotso barriz be:

- Ez, ez, ez dot ezer aurkitzen.

- Zer artu dozun ezpadiñostazu, ezin erdibitu izango dot errekarik. Eta hementxe geratuko gara.

Orduan andreak:

- Ogi zatia artu dot, ba, eta zapian batuta daukat. Eztot besterik.

Zueneko ogi zuria etxekoei arakustekota ... (Edurra bere baño be zuriago ei zan).

- Hori edonori jazoten jako. Gure etxetik, baña, ezin ezer eroan zeinkez.

Ekatza, beraz, ogi koskor hori, eztau egundo iñok gure gauzarik ikusi behar-ta.

Emon gure andreak ogia eta makilagaz "kask" jo ordukoxe erdibitu egin zan hura. Lamiña be berbetan eskutatu zan.

"Gaazatxe'ko" atso gaixoak, jo ona ta jo ara, sari ederra irabazi eban.

Etxera joyala, baña, urtu egin ei jakozan sakelean berrogetamar laurlekoak.

Hona zergaitik ez dakigun oraindiño, zuzen-zuzen, laminak zelakoak diran eta zelan eta nun bizi diran.

## Lamiña eta atsoa

Andra-gizon batzuk bizi ei ziran etxe batean; adintsuak eta zar-gazte andi bakoak. Gizona goizago ogeratzen el zan. Andrea barriz "firu" eta "firu" berandurarte iruten egoten zan. Gabero, baña, eta beti sasoi batez, halako andrazko arrotza jausten el jakon kebidetik bera andra gaixoari.

Apari koskorrik emoteke ezelan bere ezin atara eban arrotza. Urdai puska bat erreten asi orduko entzuten ebazan betiko lamin-burrumba ta "Txitxi ta papa, papa bustia? itauna.

Olan igaro ebazan edozenbat aste. Guztiz ikaratuta, gizonari mistik be esaten ez zan ausartzen andra gaixoa. Azkenik be lamiña aspertuko zala uste eban.

Bitartean, gau batez, bere andrea ametsetan lez, nor edo norekin berbetan ziarduala iruditu jakon gizonari. Andra gaixoa oeratu zanean.

- Esan egidazu. itandu eutson gizonak, norbaitekin berbetan egon zarean ala ez.

- Bai.

- Nor zenduan ba or?

- Neuk, be, ez dakit nor zan. Aspaldiko egunotan gabero agertzen yat momorro antzeko hori. Eta apaltzen asi orduko betiko itaun auxe egiten daust: "Txitxi ta papa, papa bustia?".

- Eta emon egiten dautsozu?

- Beharko emon, Zer ba?.

- Ondo da. Biar gabea, neu egongo naz zure orde. Ordu horretan datorrena ezin gauza ona izan. Biar ikusiko dogu sorgin edo lamiñetarikoren bat dan. Alik eta egokien jantziko dodaz zure samako zapia eta burukoa. Beste egunetan lez gaur be zeu zarea uste izango dau.

Biamaronez, esan bezela, andrea ogera joan zan eta gizona sutondoan geratu zan irutan, jo ta ke!

Zaparrada aundi bat entzun eban beingoan gizonak. Kebidean bera jatxi ta ondo-ondoan geratu yakon betiko arrotza. Eta berealaxe izan eban eskabidea be: "Txitxi ta papa, papa bustia?"

Gure gizonak ez entzun egiten dautso ta egundo baño zoliago diardu iruten. Lamiñak barriz honela dirautso:

- Zeñen zoli diñarduzun lanean.

- Bai. Atzo "frin frin", "firun-firun", gaur "fran-fran", "furdulu-furdulu". Eta iruten jarraitu eban guren iruleak arrotzari zearka begiratuaz. Lamiñen bat izango zala iduritu yakon eta, ba iñoan bere kolkorako, len bai len uxatu behar ebala. Lamiñak be zer-edo-zer oartu eban eta itaun onek egiten asi zan:

- Ez zara zu bestetan emen egoten dana. Gogortxoa edo ez ete-zarean nago. Zure izena?.

- "Ni-neu".

- "Ni-neu?. Eta "Txitxi ta papa, papa bustia?.

Gure gizonak sutondoan eukan sartaña koipez gañezka, eta sutan jarri eban noz irakingo.

Lamiñak, pozaren-pozez, esku-igurtzika asi ta onela dinotso: "Txitxi ta papa, papa gustia?".

Alako batez, koipea urtu ta errea zala begitandu yakonean, "pla" jaurti eutson aurpegira lamiñari. Eta honek berealaxe iges egin eban kebidean gora txilioka.

Urten zanean, uluaren-uluz, lamin lagun guztiak bereganatu ebazan.

Eskuak aurpegian ebazala garrasika iñarduan eten barik. Zer esan gura eban be ezin ulertu eutsen lagunak.

- Zer dok ba?. Zer dok? Nok erre hau edu orretan?.

- "Nik-neuk" ... "Nik-neuk"

- Ire burua heuk erre ba dok, nok yaukak errurik? Zertara???

## Doministikun

Beste batez, yayo orduko eskuetan ebazala galtzen ei-yakezan ume guztiak etxe batean. Lau edo bost izan eta lau edo bostak galdu ei-yakoezan. Laster yayoteko zan beste umeari be zer egingo ete eutsen asmau ezinda, estu ta larri ziran. Guztiak kezkatu zirela, aingerua baizen ume polita yayo yakoen. Eta ain ume polita galduko yakoela be bururatzea be ...

Negarrez ziran danak, eta negarrez egozala, auzoko gizon zar-zar bat etxeratu yakoen barriak yakiteko asmoz. Guztiak negarrez ikusita, ezbearren bat edo ete-eben itandu eutsen gizontxoak.

- Ez, ez. Umetxu bat yayo yaku, baña ...

- Zer baña? Zeren bildur zaria, horrelan negarrez urtuteko?

- Oraindiño iñori esan ez dautsaguna zuri esatea be alperrik izango dogula uste dogu. Jakin gura dozun ezker, baña, esan egingo dautsugu jasoten yakuna. Orain arteko umeak oartu be egiteko galdu izan yakuz. Eta orain ... ume honek be beronen aldia noz izango dauan ... larri gaukozuz.

- Hori yasoten yatzue, errukarrioi?. Yakin izan ba neu, yakin! Zuzendu egingo dogu, zuzendu egingo dogu gaitz ori be. Ia nork artzen dauan ume ori besoetan . . olantze! Eta orrelantze euki aingerutxo hori nik esan arte.

Oztu edo egin zan ume altzoan eta usin egin eban. Gizon zarrak, barriz berealaxe: "Doministikun" dirautso aurrari!

Deadar zital bat entzun eben orduan ate ostetik: "Madarikatua hori eginen irakatsi dautsuna!. Madarikatua umea be"!

Eta hori esan ondoren, lamin itsusi haundi bat burrundaka yoan zan kebidetik gora.

Gizon zar hari eskerrak bizi da arrezkero umea. Eta, ez al da arritzeko?. Ordurarteko gaitzez beintzat arrezkero ez da umerik il etxe aretan. Umek usin egiten daben bakoitzean "Doministikun, ume! baitautso amak umeari.

## Lauztaneko jauregia

Aspaldi-aspaldi batean jauregia zartu egin yakola-ta, barri barri bat ete leikioan itandu ei eutsen Laminari Laustaneko etxagunak.

Baietz laminak, eta egin be gogoz egingo ebela. Gaberdi osteko olarraren kukurrukua baño lenago amaituko ebela jauregi oi, etxagunak bere arimea saritzat emoten ba eutsoen, eta, Laustaneko etxagunak baiezkoa emon eustsen.

Gau aretantxe asi ziran Lamiñak lanean. "Arrodoiko" arri gorri ederrak landu eta batak besteari eskutik-eskura emoten asi ziran. "Eutso Gilen!... arturik Gilen! ... Ekak Gilen! iñotsen alkarri. Eta egiñez egiñez ormak gora joiazan. Ollatokiko zubitik Lamiñei begira egoan Laustaneko etxaguna eskuan zeozertxo ebala.

Alako batez, azkeneko arria artu eben lamiñak "Eutso Gilen! ... Artuik Gilen! ... Azkena Gilen!"

Une edo lipar arretan lasto azao bati su emon eta ikaragarrizko argia egin eban olotiki aurrean Laustaneko naguziak.

Ollazko bat eguzkia urten zalakotan, guztiz urdurituta kukurukuka eta ego-oska asi zan.

Azkeneko lamiñak orduantxe eskuetan eukan azken-arria bilin balaunka jaurti eban ur-aundiko oxinera. "Olarr madarikatua!" orru egin eta oxinera uretan sartu ziran danak. Arria ez dau oindiño oxin aretatik iñork be atara al-izan. An dago beti ur-sakonean. Lamiñak atzaparragaz artuta ei-dauke.

Arrezkero arri baten bearrean izan da beti Laustaneko jauregia.

## Lamiña-lapikoa

Bein batez, Lamiña bat umea eukiteko (izateko) egoan. Amagin zan erriko emakume bateri beronengana etorteko esatera lamiña bat bialdu eban.

Bidean, etxera etozan eta Lamiñak auxe ezan eutson emakumeari: "Zure eginkizuna bukatu ondoren, nai dozuna aukeratu dagizun lapiko bi eskeiñiko dautsuez. Urrezko azalduna bata ta autzezkoa bestea. Azala autzez eginda daukana aukeratu egizu, aretxek eukiko dau barruan urrea ta.

Ondo dago.

Agindu eban tez aukeratu eban emakumeak eta egi-egia izan zan Lamiñeak esandakoa.

## Mundarraingo lamiñeak

Aintxiña, Lamiñak bizi ei-ziran Mundarrain mendian. Basa-Andrea mendigalurrera joaten ei-zan egunoro, eguzkia urten orduko, urrezko orraziakin ulea orraztera. Eta ba-ekien ori inguru aretako artzaiñak.

Alako batean baña, artean illun egoala, urrezko orrazi oi artzai batek ostu egin eutson eta gero iges egin eban.

Oartu zon baña Basa Andrea ta artzañaren ondotik asi zan. Eta artzain oi eskuratu ebanean ber-bertan agertu zan eguzkia. Eta Basa-Andreak orduan, nai ta naiez, bere zulora sartu bear izan eban. Eta artzaiña orrazi-jaube geratu zan.

## Beorlegi mendi'ko lamiñeak

Ba-zan len amaika Lamin leza Beorlegi Mendian. Bein-batez orretariko leza baten, urrezko orraziagaz ule-orrazten iarduan Basa-Andrea ikusi eban artzain batek. Ez el zan gutxi be arritu. Basa-Andreak, baña, ez ikaratzeko esan eutson eta leza aretatik, lepoan artuta Apanizera eruaten ba-eban, guraaña diru emango eutsola.

Baietz, pozik eruango ebala, erantzun eutson artzaiñak.

Lepoan artu ebaneko, zulotik urten baño len, egundoko piztiak aurreratu jakozan. Bildurtu egin zan artzaina eta antxe bertan jaurti Basa-Andrea ta ijutika alik-lasterren iges egin eban.

Orduan Basa-Andreak ulu bildurgarria egin eta "Madarikatua ni" esan eban garrazika; "Milla urtetan egon bear izango bai dot zulo onetan".

Eta arrezkero leza-zulo aretantxe dago beti Andrea. Artzainik ez da ausartu be egiten ara urreratzen.



## Bastarretxean lamiñeak

Bastarretxeakoak gauero, ogeratu aurretik, esnez betetako pitxar baten ondoan arto-errea eta urdai-zati batzuk isten ei-ebezen sutondoan sartaineko koipe ondakin gaiñean.

Guztiak loakartzen ebezanean Lamiñeak etortzen ziran kebidean-bera. Eta sutondoko ondakin guztiak iruntzi arte, "kirri-karra" ixiltzeka egoten ziran. Eta gero ixil-ixil joaten ziran kebidean gora.

Eta biaramonean simaurrak zabaldua, ildoak garbituta, lurak goldatuta ta artoak jorratuta aurkitzen ebezen Bastarretxeakoak.

Gau batez, sutondoan ez pitxarkada esne, ez urdai-zati, ez arto-ere, ezer be isteko oeratu ziran Bastarretxetarrak, eta Lamiñeak, asarre, beste baserri batera jo eben, urriñetara jua be. Egundo ez ziran geyago Bastarretxeako eginkizunetara agertu.

## Lamiñea Imilaupean

Etxe baten, edonoz sartzen ei jakoezan lamiñeak. Illuntze batez, oerakoan, auzpez itxi eban imillauna etxeko andreak eta biaramonean Lamiña bat idoro ei-eban imillaupean itota. Ikaratu egin zan; ikaratzekoa zan izan be ta.

Lur-donetsian lamiñik etzala lurperatu bear eta, baratzean zuloa egin eta bertan eortzi eban.

Lamida sartu eben tokia asunez josi ei-zan biaramunerako. Arrezkero ezin garbitu izan dabe tokia.

## Lamiñea eta arri-jotzailea

Antziña-antziña ba-ei-zan alako arri jotzale bat.

Beti arri-joten aspertu egiten zala ta beste zer-edo-zer egitea obako ebala sartu yakon buruan. Aberats izatea nai.

Aldi aretan Lamiñen ei-zan burutariko batek entzun eutzun eutson eta aberats egin eban. Diruaz ase zan. Bera baño nagusiagoak, be, ba-zirala ta "Bekaldun" izan naiago eban. Eta Lamiñak "Bekaldun" egin eban.

Uda-min batez, aserretu egin eban Eguzkiak gure arri-jotzalea eta bere buruagaz iuarduan, eguzki izatea oba ebala ta. Eta eguzki egin eban Lamiñeak.

Eguraldia, baña, illundu egin zan eta odei bat jarri jakon aurrez-aurre. Buxindu egin ei zan gure gizona. "Odei" izatea obago ebala bururatu yakon. Eta odei egin eban Lamiñeak.

Lurrera berealdiko euri erauntsiak botaten ebazanarren, aitz aundi bateri ezelan be zirkiñik ezin eragin eutsona ikusi eban baña, ta odei baño "aitz" izatea obatzat etsi eban. Eta "Aitz" egin eban Lamiñeak.

Gizon batek, baña, burdin malluagaz jo-ta-jo, zati-zati egin eban aitza. Onek barriz, burdin malluagaz jo-ta-jo ebillan gizona lez izan gura ebala iñuan aldarrika. Eta "arri-jotzale egin eban Lamiñeak olan iñotsola irrika. "Bata dauanak bestea nai". "Orra, i be lanera biurtuta". "Jagozan gaurtik aurrera lengoak. Arri-jotza i, eta Lamiña ni".

Eta bein-betirako eskutatu yakon Lamiñea gure "arri-jotzaleari".

Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

Josu Jauna ta Kepa  
Deuna (Bigarren zatia)

## Índice

1. Gari jotea
2. Lexibea
3. Gari-azaoak
4. Ezkontzak
5. Andra narrasa ta andra jaso
6. Andrearen eta etsayaren buruak
7. Kepa Deunaren zaldia
8. Burdi itzulia
9. Zaldi-perra ta gerizak
10. Urre-zidarrak elorri zurian
11. España ta bakea
12. Jaungoikoaren begia
13. Onak eta gaiztoak
14. Iizko-esia
15. Mai zapia, astoa ta makillaa
16. Arria ta ekorotza
17. Beso bi, anka bi ta sabel bakar bat
18. Trentekutsillo
19. Erregiña bat basoan
20. Kuiak edo kalabazak
21. Zaspigarren agindua
22. Bardotze
23. Miarriz'ko aintzira

## Gari-jotea

Ba'ebiltzan beste bein Josu jauna eta Kepa deuna jo batera eta jo bestera ludi onetan. Iluntzi batez ostatu eske joan ziran etxe batera. Gela bat emongo eutsela erantzun eutsien, eta gelan oe bat izango ebela.

Ostatu saria emon nai ta biaramonean zein eginkizunetan jarduteko asmoa eben, itandu eban Jesusek. Garia jo bear izango ebela erantzun eben etxeoak. Garia berak eta bere lagunak joko ebela eta ortarako deituta eukezan beargiñei ez etorteko esan egiela, dirautse orduan Josuk. Olantxe egin eben etxeoak.

Biaramonean, Josu ta Kepa, eguna zabaldu orduko asiko zirala lanean uste eban etxagunak. Areik, baña, eguna zabaldu arren, oean. Asarre ziran baserritarrak.

Etxagunak baña, gelan ausarki sartu eta asarrez. "Ainbeste gari euki joteko ta eguna argitu danik be ez yatzue bururutzen?.", esan eutsoen.

Areik ostera, baietz, jagiko zirala ...

Ez ziran baña jagiten eta etxagunak asarre auxe dirautse: "Jagiteko usterik ete eben, bai ala ez".

Baietz, areik barriro be, jagiko zirela ... Alan da be, ez ziran jagiten.

Orduan, asarre gorritan, makila bat artu ta joan zan gure etxagun ori gelara eta oe-muturrean egoanari, Kepa Deun errukarriari, egundoko astindua emon eta alde egin eban.

Josuk oindiño ezergaitik be, ez eban jagiterik nai eta Kepa Deunaren intziri eta zotiñak entzunik auxe dirautso: "Etxekoak asarre yuaguz; ator oe bastarrera eure mallatuok igurtzitera, bestela barriro be jo egingo ebe mutur orretan".

Kepa Deuna oe bastarrera sartu orduko, orr dator gure nagusia, etsyak artuta, makilla eskuan eroyala: "Zagoze, zagoze -didarka-, laster ikusiko yagu jagiko zarien. Oe muturrekoak lentxoago artu yozak edarrak, bastarrekoen txandea dok orain". Eta oe bastarrean egoan Kepa zigortu eban barriro be, ondo zigortu be, gañera.

Jagi egin ziran. Kepa Deuna negar ta negar besterik ez eban egiten. Gari guztiak metatu ta su emon eutsoen gari metari. Eta su arek lastoa alde batera, lasto txiki ta aotza bestera ta galburua beste batera egin ebazan.

Goizeko asarre guztiak aztu ta poz pozik geratu ziran etxe aretakoak. Josuk garia su emonda garandu ebana ango beste auzokoak jakin ebenean euren gariai be, su emon eutsoen eta ... dana erre eben.

## Lexibea

Beste bein, beartsu batzuen etxean gaua igaro nai ebela-ta areingana jo eben Josuk eta Kepa Deunak, eta antxe lo egin be.

Biaramonean, andik alde egitean zein eginkizunari ekiteko asmoa euken, itandu eutsen Josuk. Lexibea jo bearr ebela erantzun eben.

"Goizean asitako lanak iluntzerarte iraun dagizuela", esan eutsoen orduan Josuk.

Bai, gauzea uste dozue, iluntzerarteko lana lexiba joten, iru edo lau zapi joteko?.

"Bete daitela nik esana", barriro Jesusek.

Ori esan eta alde egin eben. "Jo ta atara", "Jo ta atara", lexiba joten illuntzarteko lana izan eben gaixo areik. Iluntzean mendia baizen izara pilo aundia euken. Ez ekien zapi areik nun esegi be.

Eta auzoko lagun zeken batzuk, beartsu arei zer jazo yaken ikusita, gaua igarotzera euren etxetara, arren, etorteko eskatu eutsien Josu ta Kepa Deunari. Bai jua be, Josu ona!. Eta bigaraonean, be, aurreko egunean beste beartsuei lez, egun aretan zertan jardungo eben, galdetu eutsen Josuk etxe aretakuai be.

Jauna, ba dogu txindi apur bat eta zenbat daukogun jakiteko diruok zenbatu gure geunkez.

Goizean asitako lanak gaberarte iraun bekizue, erantzun eutsoen Josuk.

Oi, Jauna! Gure diru apurak zenbatzen iluntzerarteko lana?. Bai zera!.

"Bete daitela nere itza", Josuk barriro be.

Ori esan eta joan egin ziran.

Poz pozik gelditu ziran zeken areik. Iluntzean izan bear eben areik urre ta zidar pilloa!.

Lana asi aurretik eta gero astirik ez galtzarren komunera joan ziran. Eta andik ezin urten eta illuntzerarte antxe, berton egon bearra izan eben.

## Gari-azaoak

Euzkadi'n zear ebiltzan orduan be Josu Jauna eta Kepa Deuna. Solo lau batean gari jasoten ei iñarduen lugin batzuk,

- Ugari ete daukozue edo? galde egin eutsen Josu'k

- Asko, be, ez Jauna, urri xamar.

Berealaxe mistik esateke alde egin eban Josuk.

Arutzago, beste solo baten be, azaoak lotzen iñarduen beste lugin batzuk.

- Ugari al-dozue?.

- Bai, jauna, bai. Gitxiago be izan giñeikean. Jainkoak emon dausku ta berari zor dautsoguz eskerrak.

Josuk orduan esan eutson Kepa Deunari.

- Azaoak beste gari-imiña izango yoek orieik

Kepak, barrik, atzeratu edo geratu eta aopean itz egin eutsen lugiñei:

- Azao asko eta txikiak egizuez.



## Ezkontzak

Beste bein, aberatsak beartsuekin, osasuntsuak geixoekin eta aundikiak txiroekin eskondu naiean ebulan Kepa Deuna eta Josuk ez-jakiñarena egiten eban.

Alako ezkontza gitxi egingo ebazala esan eutson, alako batez Josuk. Eta, Josuk igarri ebanez, era aretako ezkontzak iñok ontzat artzen ebazalako, alperrik zala ta, aspertu egin zan Kepa Deuna be.

Orraitiño, orduan eta gaurko egunez be, ezkon-gei aundi asko ezkontzen dira txiki koskor batzuekin.

## Andra narrasa eta andra jaso

Beste egun batez, sargori egoan eta bidean egarritu egin ziran Josu eta Kepa Deuna. Iturri baten ondotik igarotekoan Josuk eskatuta ura emon eutsen andra batek edontzi zikiñean.

- "Jainkoak lagun on bat emon dagizula", esan eutson ura edan ebanean eta atzera emon eutson edontzia andreari. Aurrerago Juan eta, ostera, be, egarritu egin ziran eta beste andra batek edontzi garbi-garbi batean emon eutsen ura. Josuk orduan: "Lagun nagi bat emon dagizula Jainkoak", esan eutson.

Urrin samarrean ziranean, Kepa Deunak, asarrez, auxe esan eutson Josuri:

- Jauna, zer dala ta opa izan dautsozu lagun ona lenengo andra narrazari ta bigarren andra garbiari lagun nagia?.

Eta Josuk bereala:

- Lenengo arek lagun onarekin be, naiko zeregin izango dau; bigarrenak ostera, lagun nagiari be, zuzen ibiltzen erakutsiko dautso.

6

## Andrearen eta etsayaren buruak

Egun batez Josu Jauna eta Kepa Deuna alkarrekin yoyazala bidean andra bat eta etsaya burrukan ikusi ebezan. Eureganatu zan Kepa Deun adoretsua ta buruak ebagi eutsezan biai. Josuk agiraka egin eutson, gogor egin be, ta bakotxari bere burua atzera lengo lepotik ipinteko agindu eutson.

Kepa Deun gaixoak, zer egiten eban ez zekiela, andreari etsaiaren burua ta etsayari andrearena ezarri eutson.

Eta ordutikoxea dogu "Andra-buru ... etsai-buru" esaera.

## Kepa Deunaren zaldia

Beste bein, "zaldia emongo daustat", esan eutson Josu Jaunak Kepa Deunari, gure aita, asi ta amaitu, buruz esaten badaustak.

- Bai! Ez daustazu gauza zailik agindu.

Eta zarrapastaka asi zan Kepa Deuna. Aita gurea, zeruetan zagozana, onetsia izan bedi zure izena ... Jarleku ta guzti ala jarleku bako zaldia izango da baña, Jauna?.

- "Ez zaldirik, ez jarlekurik ez daustat emongo orain".

## Burdi itzulia

Beste bein be, Josu Jauna eta Kepa Deuna Euskal Errian ebiltzala, burdia itzuli yakon gizon bat, Jainkoari, arren, burdia jaso egiola otoika, bide erdian belaunbiko idoro eben. Josu, begiratu be, egiteke, aurrera juan zan.

Aurreratxoago juan eta beste gizon bat idoro eben. Oneri be, burdia itzuli egin yakon. Gora batetik eta gora bestetik burdia jaso ezinda, asarre, izerditan egoan. Bastarrak erre bearrean gora-goraka.

- Kepa, gizon oni burdia jasoten lagundu egin bear dautsogu, diñotso Josuk Kepari.
- Zer Jauna, dirautso Kepak, len arrenka ikusi dogunari lagundu ez eta oni lagundu?. Goiak eta beiak erre bearrean dabilan oni lagundu?.
- Onek egin-alak egiten yozak, eta arek ez, yardetsi eutson Josu Jaunak.

## Zaldi-perra ta gerizak

Ba-ebiltzen beste bein be, Euzkadin Josu Jauna ta Kepa Deuna eta Josu jaunak lurrian zerbait erakutsiaz: "Jaso egik lurreko perra ori", esan eutson Kepa Deunari. Kepa Deunak baña, ostikoagaz jo eban zaldi-perra ta: "Zertarako jaso burdin-zar ori?", iñoan bere kolkorako. Ixil-eskutuka Josu Jaunak berak jaso eban perrea ta errira ziranean errementari bateri saldu eutson txakurtxiki bitan. Txakurtxiki areikin geriza batzuk erosi ebazan gero; eta barriro be bideari ekin eutsoen.

Sargori baño sargoriago egiten eban. Kepa Deunari estarria leaortu yakon eta alderdi guztietara begira: "Ez ete yoagu iturri koskor bat idoroko?", iñoan bere kolkorako.

Bitartean geriza bat jausi yakon Josu Jaunari sakeletik. Berialaxe jaso eban Kepa Deunak eta estu ta larri laster aoratu eban, Josu Jaunak ikusiko ete-ebanaren bildur.

Gerotxoago be, bein, birritan, amarretan, ogeitan bardin jaso zan. Gero zugaizpe itzalean taketx egin eben, eta Josu Jaunak Kepa Deunari: "Bein bakarrfik makurtu ba'intza, gerizak jateko ogei aldiz makurtu bearrik ez eban izango".!

## Urre-zidarrak elorri zurian

Josu Jauna eta Kepa Deuna errialde onetan ebiltzala, beartsu guztiak, bat-edo-batek zerbait emoten eutsen bakoitzean, beti erantzun bardiña esaten ebala oartu eban Kepa Deunak: "Eskerrik asko, Jaungoikoak ordainduko al dautzu".

Kepa Deunak orduan: "Ez naz geiago zurekin joango", -iñotson Josu Jaunari-, bastar guztiak zorrez bete dozuz eta". "Eskeko guztiak "Jainkoak ordainduko al dautzu" diñoie beti".

Nirekin gogait egin ba-dok, Kepa, guazen bakoitza norbere bidetik, erantzun eutson Josu Jaunak. Eta orixe egin eben, egin be.

Beriala baña, elorri-zuri baten ondora joan zan Josu Jauna. Astin-astin egin eban Josuk elorri-zuri ori ta egundoko zidar eta urre pilloa jausi zan.

Zidar eta urreak jaustekoan egiten eben tintina Kepak be entzun egin eban. Arin-aringa elorri-pera juan eta diruak batzen asi zan. Josuk baña: "Ez, Kepa ez -esan eutson-, ez jaso diru ori, nik bear yoat zorrak ordaintzeko ta".

Kikil-kikil eginda auxe esan eutson Kepak Josu jaunari: "Jauna, orain eta gero be, zuk urrez ordainduko dozuz zorrak eta zure lagun izan nai neuke beti".

## España ta bakea

Ba-ebiltzan aldi artan Josu Jauna eta Kepa Deuna España-alketik be, erri batetik igarotean, erri aretako agintariak eldu yakezan, ebangeria entzun nai ebela-ta.

Ebangelioa entzun ondoren Kepa Deunarengana jo eben ta: "Jauna, diñotse, zure bear gaukazuz. Gure aberriarentzat lau gauza lortu geunkez zure nagusiarengandik: ogia, ardoa ta aragia ugari, ta gero bakea, bakea beti, orretzek gure geunkez".

Josuk baña, arein eskabidea entzutean, eurekana urreratu ta auxe esan eutson: "Lau gauza orreik ezin alkar-artu daike. Ogi, ardo ta aragitan ugari izango dozue, ez baña bakerik.

Arrezkero, jana ta edaria ugari dabez España'n, urri baña bakea.



## Jaungoikoaren begia

Alkarrekin yoyazan beste bein, be, Josu Jauna ta Kepa Deuna. Kepa Deuna gozearen-gozez aulduta, lurrera jausitako galburuak eskuratu, atzamar artean eio ta ixil-eskutuka jaten asi zan. Eta ona zer diñotson Josuk:

- Kepa, begiratu egiok nire buru atzeari
- Ai ene Jauna, Begi aundi-aundi bat dozu zuk or;
- Bai, ta berorregaz ikusi aut lentxoago galburu-jasoten

## Onak eta gaiztoak

Oñaztarria jausi zan bein erri batera eta Kepa Deun gizagaixoak Josuri:

- "Jauna, esan eutxon, zegaitik jausi da on eta gaiztoen gañera?. Zer dala ta ez da jausi gaiztoen gañara bakarrik?"

Lenengotan Josu'k ez eutson ezer erantzun. Aurreratxuago baña:

- "Kepa, diñotso, jaso egik erlabatz ori"

- "Ez dogu baña, erlauntzik"

- "Eta zer?. Sartu egik kolkoan"

Kolkoan sartu eban Kepa Deunak erla-batz ori. Berialaxe baña garrasika asi zan.

- Ai ene; Guztiak sast ta sast asi yataz; Ai ene;"

Urrintxuago barrero be Josuk: "Emon egidak erlebatz ori, dirautso Kepari, erlauntz oretan sartu dagidan".

- "Jauna, guztiak lertu dodaz"

- "Zer dala ta?"

- "Sast egiten eustelako"

- "Sast egin?. Guztiak?. Xer dala ta onak eta gaiztoak dan danak lertu?"

## lizko esia

Josu Jauna eta Kepa Deuna Euskalerritik ebiltzan.

Noz ilgo ziran be, ba ekien orduko gizonak. Egun batez, landa baster batetik yoyazan eta iizko esiagaz zarratzen inarduan gizon bat ikusi eban Josu Jauna'k. Ain esi kaskapra zegaitik egiten eban itandu eutson Josu'k.

- "Oi Jauna; Iru egunen buruan il egingo naz ta nik aña irango al dau esi onek"

- "Ori be bai?. Emendik aurrera noz ilgo zarienik ez dozue jakingo"

## Mai zapia, astoa ta makilea

(Eskuz aldamenian jarria ikusten da oar hau)

(Euzko Folklor Makilla kixki)

Beste bein, iru sema ziran etxe baten.

- "Egizuz opillak, diru bila jua gura dot eta", esan eutson zarrenak amari egun batez.

Egin ebazan opillok amak eta alde egin eban etxetik seme orrek. Bayoyala erreka baster baten Josu Jauna ta Kepa Deuna Idoro ebazan. Eta Josu'k deadarka:

- "I, mutiko, diñotso, eruango al gaituk beste aldera zeozertxo emongo daustagu ta?"

- "Bai orixe. Bai laster eroan be, beste aldera

Josu Jauna'k orduan mai-zapi bat emon eutson saritzat:

- "Eutso, esan eutson, mai-zapi au ta gose naiz egarri izaten azanean "zabaldur adi maizapi" esan egiok eta beste barik izango dok mai zapi gañean jateko eta edateko bear dokan guztia"

Dirua egin ebala ta etxe aldera bigurtu zan bereala gura mutikoa. Ibilli ta ibilli, ibilliaren buruz, ostatu batera zan gaberako. Oearakoan ostalariari emon eutson gordeteko mai-zapi ori. Eta maizapi ari ez esateko arren, "zabaldur adi maizapi" esan eutson. Ostalariak ostera ez eutsola esango erantzun eban.

Mutil ori oeratu zanean ostalariak "zabaldur adi maizapi" esan eutson mai-zapiari. Eta beingoan, egundo janari ta edariak azaldu ziran mai-zapi gañean.

Ostalaria bai arritu zala. Mai-zapi onen ordeze beste antzeko zapi bat ipiñi eutson. Pozez eta ixil-izilik oeratu ziran ostalaria.

Biamonean ostatutik alde egin eta laster gosetu zan gure mutilla; zugazpe batean itxi eban mai-zapia ta "zabaldur adi maizapi" esan eutson. Esan eta esan arren, mai-zapia utsik lotu zan. Gure mutilla barriz bere biotze miñak aulduta diru barik etxeratu zan.

Andik laster bigarren semeak be, auxe diñotso amari:

- Ama, egidazu arin opillak diru egitera jua nadin

Baita egin be amak opillak. Or doa seme ori, bidez-bide eta Josu Jauna eta Kepa Deuna ikusi ebazen arek be, erreka baster batean.

Josu Jaunak oneri be deadar egin eta: "I, gazte, esan eutson, aldatuko al-gaituk beste aldera? Emongo daustagu eure saria".

Baietz mutillak eta bai eruan be

Orduan Jesusek astoa damotso saritzat, "Eutso, esanez, artu egik asto au. Diru bearrean azenetan "ekin ene asto" esan egiok, eta asto orrek urrea egingo yok purrustaka".

Aberastu egin zala ta etxeruntz jo eban gure mutil onek. Illuntzean anai zarrena sartu zan ostatuan bertan sartu zan. Eta oerakoan ostalariari astoa emonaz, "ez gero asto oni esan "ekin ene asto", oar egin eutson. "Esetz" onek.

Mutilla oeratu zanean baña, ostalariak "ekin ene asto" esan eutson astoari ta purrustadaka urrea eriola asi yako astoa. An zan arritu bearraj. Asto aren orde z antzeko beste bat ipiñi ondoren, danak ixil ixilik oeratu ziran.

Biaramonean ostatutik urten ondoren "ekin ene asto" diñotso gure mutilak. Astoak baña ez eban urrerik egin. Eta gure mutilla, diru barik, erdi zoratuta etxeratu zan.

Andik laster irugarren semeak be. "Ama; egizuz askar opillak diru egiten juan nadin", dirautso amari. Egin ebazan amak opillak eta alde eban semeak.

Lengo erreka bastarrean bertan ikusi ebazan onek be, Josu Jauna eta Kepa Deuna. Josu Jaunak eskatuta onek be, biak eroan ebazan beste aldera. Josu Jaunak makilla bat emon eutson saritzat.

- "Egundo iñun areriorik ateratzen bayak, "jo, Maria, jo" esan egiok makilleari ta ikustekoak ikusiko dozak" esan eutson

- Agur, eta eskerrik asko

Iluntzerako bere anai biak egon ziran ostatu ber-bertara jo eban.

Oerakoan, "Gorde egidazue, arren, makilla au biar goizerarte", diñotse ostalariei. "Zuen onez baña, "Jo, Maria, jo" ez eyozue esan". Esetz, esan eutson ostalariak.

Mutilla oera zanean, ostalariak makilla artuta, "jo, Maria, jo" diñotso. Ai; makillea kiskikaska, zipli-zapla, jo ta jo, inguruko guztiak birriridu-enean asi yakoen eta aienaka ta aienaka azi ziran guztiak. Makillea baña, iñundik-iñora ezin geratu; jo ta jo beti makilleak.

Azkenez, zaparradea entzunik jagi zan gure mutilla, eta ostalariak erdi zoratuta, arren eta arren iñotsan larririk "beratu egizu makillea eta "zabaldur adi maizapi" ta "ekin ene asto" guztiak emongo dautzuguz".

Gure mutillak "geldi, Maria, geldi" esanik beratu eban makillea. Eta "ekin ene asto'ren" gañean, "zabaldur adi mai zapi" besapean eta "jo, Maria, jo" eskuan artuta etxeratu zan.

Eta bere anai biakin eta amarekin aberats bizi izan zan, Jainkoa'k daki noz-arte.

Ondo bizi izan ba-ziran, il be ondo il ziran.

## Arria ta pekorotza

Egun batez alkarrekin yoyazan Josu jauna ta Kepa Deuna. Bastarretara begira yoyan Kepa Deuna ta arri aundi bat jo eban ankeagaz. Min aundia artu eban gaixoak.

Muxinduta besagainka jaurtitzeko ustez artu eban arria, Josu Jaunak baña -"Ez orrela muxindu", esan eutson orduan, "arri gogor orretatik euskelduna egingo yoat nik". Baita egin be.

Bayoyazan aurrera ta Kepa Deuna zabal-zabal pekorotz pillo aundi baten jauzi zan ostera be. Asarratu egin zan barriro be, gaixoa.

Josu Jaunak orduan: "Ez adi asarratu, Kepa, esan eutson, begiratu oña nun jarten dokan. Pekorotz orregaz zer egingo yoagu?".

- "Egizu Gallegoa, Jauna"

- "Gallegoa egingo yoagu orduan, Kepa. Eta egin be, orrelantxe egin eban Josu Jaunak-

## Beso bi, anka bi ta sabel bakar bat

Beste bein, gogoan ondo erabili ondoren, auxe galdetu eutson Kepa Deunak Josu Jaunari:

- Jauna, beso bi, anka bi, begi bi, ta belarriak be, bi doguz eta, zergaitik ez sabel bi?

- Bat bakarra betetea be gizonarentzat naiko zeregin dalako, erantzun eutson Josu Jaunak

## Trentekutxillo

Euskalerrian ebiltzan Josu Jauna ta Kepa Deuna ta egun batez gizon batekin buruz-buru egin eben. Gizon au gudari izan zanean zauritua zan gizaxoa eta eskean ebillan.

Eskupeko txo bat eskatu eutson Josu Jaunari gudari zarrak. Eta Josu Jauna'k "semeikorik be ez yuat" erantzun autson; zer edo zer emongo eutsola baña ta "orain bertan zakua, ala gero zerua, zer nai dozu?", galdetu eutson.

Eta belarrira Kepa Deunak: "zerua eskatu egiok, zerua".

Eskaleak baña auxe esan eutson Kepari: "Azkar esan dozu ...j Zerura juan arte bizi bearrik izango ez balitz bej. Emoidazu, arren, zakua Jauna".

Zakua damotso ba Josu Jaunak eta onela dirautso zakua emotean: "Ezer bear dozunean "Trentekutxillo" esan zaku oni ta gura dozuna lortuko dozu".

Agur eta eskerrik asko, esan eta Kepa Deunaren aolku batzuk entzun ondoren ba-doa gure gizona. Eta andik laster ogi bero beroz betetako burdia eroyan okiña idoro eban. Gudariak esan eutson ikiñari:

- Ogi puska bat emongo al daustazu?

- Ogi oneik iretzat dirala uste dok ala?. Ez daustat emongo ta oya eure bidetik

- A; Ta zer; ... Eskekuak beingoan "Trentekutxillo" esaten dautso zakuari ta zaku guztia ogiz bete yakon. Eta egun batzuetarako ogia ba eukala-ta pozik juan zan andik.

Andik egun gitxieren buruan, gizon bat idoro eban. Astoa diruz beteta ekarran gizon arrek eta zerga batzallea irudian. Gure eskekoak, "arren semeiko bat edo beste emongo al-daustazu"?, esan eutson.

- Semeiko bat edo beste?. Ez ta sotz bat be ... Diru oneik iretzat batu yoadazala uste dok ala?

Esan ba eban, esan eban; ... "Trentekutxillo"ka ekin eutson gura gudari zarrak eta berialaxe bete yakon urrez zaku aundia.

Arrazkero aberats izan zan beti.

Eskondu egin zan andik laster eta zorioneko bizi zan. Egunero egiten eban ibilalditxoa be, patxaraz egin be.

Egun batez baña, emaztea geroago ta illunago jarten yakola oartu eban.

- Zer dozu orren itun egoteko?. Ez ete-dozu ba gura dozun guztia?. Zer gura zeunke?



Lenengotan ez eutson ezer be adierasoten emazteak, gero esan eutson orraitio. Senara etxetik urtetan zan bakoitzean gizon itsusi aundi bat agertzen yakola eta mamorro arek ikaraz beteten ebala. Biaramonean gudari zarrak kanpora joateko alegia egin eban eta ate-ostean gelditu zan.

Eldu zan gizon itsusia, baita gura gudaria "Trentekutxillo"ka asi be, izugarri azkarj. Eta or doa buruz bera zaku barrura gizon itusia. Orduan gure gudariak jo ta jo, zakuan birrinduta, ilda itzi eban.

Ba-doratzoz gero gizonaren azurrak erriko errementariari azur areikaz zeozer egin erazo guraz. Gurutzea egin nai izan eban errementariak. Iñundiño alegiñak egiñarren baña, ezin egin al izan eban. Gizon itsusia etsayen bat izango zalakotan geratu ziran.

Gaisotu ta il egin zan azkenean gudari zarra. Il aurretik baña, bere zakua il kaxan sartu egioela eskatu eutson andreari.

Bere zakuagaz juan zan, ba, zeruko atetara. Kepa Deunak, baña, aterik eregiteke leiatil batetik begiratu eutson. Ezagutu egin eban gure gizona ta bereala deardaka. "Nora eldu az, esaten asi yakon, i zerura?". Zerua edo zakua aukeratzeko Josu Jaunak esan eustanean, zerua laga ta zakua artu eban ik. Oya orain nai dokan tokira eure zaku orrekin". Asarre-aren-asarrez itxi eban leiatilla.

Ba yoyan gure gizonoi. Bidean izugarritzko etsai taldea aurreratu yako eta sarda zorrotzak eskuetan ebezala diadarka auxe iñotsen: "Norako asmoz oya orruntz", Inpernura" I inpernura". Orain urte batzuk euk il egin eban gure aita ludian. Oya emendik bururik ba dok, oya azkarj.

Eldu zan barriro be donokira ... Oraingo onetan Kepa Deunak atea erdi eregita eukan oartzeke ta sartu egin zar barrura gure gudari zarra.

Azkar asko igarri eban Kepa Deunak baña, ta andik urteteko, azkar gañera urten egiala diadarka asi yakon.

Gure gizonak zerbait erantzun gura eutson. Kepa Deunak ez entzun nai. Zer egin be ez ekian eta "Trentekutxillo"ka asi zan gudari biurria. Zakura sartzerik ez nai eta zala- pastaka asi zan Kepa Deuna. Baña -parkatu Jainkoa- nai ta ez zaku madarikatuan sartu bearra izan eban, Josu Jaunak orrelantxe aginduta eukalako.

Miren Ama urreratu zan orduan naste aretara. Gudari biurriaren egiñenak entzun ondoan irripafez onezkoak egin ebazazu. Atera eban Kepa Deuna, ondo esatez baretu ta ... gudaria donokian sartu eban. Geu be bertaraño eltzen ba gara ate ondo-ondoan, eskumako aldean, ikusiko dogu egunen batez gudari zara.

## Erregiña bat ba zan

Ba ziran bein batez andra-gizon aberats batzu.

Miren Balendiñe izeneko neska bat izan eben. Miren Balendiñek amabost urte eukazanean il zan ama ta barriro ezkondu zan aita.

Bigarren ama ordea oso gaiztoa zan neskatilerentzat. Egun batez aita etxetik lande ebillala andra orrek txarri bat il eban eta senarra etorri zanean Miren Balendiñek il ebala esan eutson.

Txarria nok il eban itandu eutson aitak umeari. Eta umeak berak ezetz.

Egun batzuk gerotxoago beor bat il eban andra anker arek eta senarrari barriro be beorra Miren Balendiñek il ebala esan eutson. Aitak umeari galdetu eutson barriro be beorra nok il eban, eta umeak berak ezetz.

Miren Balendiñek ez zan guzurtia ta siñestu egin eutson aitak.

Orduan emazteak auxe esan eutson senarrari gorroto biziz.

- "Oraintxe dakust ikusi Miren Balendiñek egiten daben guztia ontzat daukozula"

Andra biurriak orduan bere semea, bigarren ezkontzako semea il eban. Antxintxiketan juan zan gizonagan eta beti lez, Miren Balendiñeren gain bota eban erru guzti-guztia.

Aitak barriro be galde egin eutson Miren Balendiñeri ia obendun zan eta onek ezetz.

Aitak, baña, asarre bizian, gaiztakerirako baño ez zala izango bere alabea ta, asarrearen- asarrez esku biak mai-gañean ipiñi arazo ta labaña aundi bategaz eskuetako atzamar guztiak ebagi eutsozan. Eta gero jaurti egin eban etxetik, "doyala gura daben tokira". Ostikoka jaurti eban etxetik aitak eta Miren Balendiñek etxetik urtetekoan auxe esan eutson aitari:

- "Elorri bat sartuko al yatzu eskuan eta ez al dozu atarako ni etxera barriro sartu-arte."

Negarrez garrasika iñarduan neska gaixoak, eskuak odoletan, zauri izugarriak lotuteko zapia ezin billaturik. Eta erdi-tatarez, odola eriola, urrindu zan zoritxarreko neskatila.

Ibili ta ibili, begiak negarretan beti, baso baltz batera eldu zan illuntzean eta illunetan zulo aundi batera jausi zan.

Atzamarrak ebakita eukazan eta ezelan be ezin andik urten, ezin eldu eikion ezeri ta. Eskuetako miñez ta basa-piztien bildurrez gau ikaragarria igaro eban zulo aretan.

Biamonean eizerako asmoz toki aretako bakalduna etorri zan txakurragaz baso aretara.

Txakurrak jauzika Miren Balendiñe egoan zulora sartu ziran. Ez eizan gutxi ikaratu neskatillea.

Aita dongea baño obeak izan ziran txakurrak atan be. Neskeari zauriak miazkatu ta alde egin eben.

Egun aretan Bakaldunaren morroiak emon eutsen txakurrei jatekoa ta txakurrak baso zulora, eurak apurtxorik be jateke; Miren Balendiñe'ri eroan eutsen guzti-guztia. Geroztik orixe bera egiten eben txakurrak egunoro.

Laster oartu eban Bakaldunak txakurrak meetu egin yakozana. Eta aurrerantzean iñoiz baño obeto jaten emotan eutsen. Egun batez, txakurrak jatekoa nonora eruaten ebela esan eutson Bakaldunari morroi batek. Asi zan Bakalduna txakurren jarraika ... Gauza arrigarria; Txakurren atzetik leza batean sartu ta leza aretan neska gazte bak idoro eban odoletan.

Guzti-guztia adierazo eutson neskatilleak eta Bakaldunak beraren jauregira eroan eban zori gaiztoko neskea. Begi begiko izan yakon Miren Balendiñe Bakaldunari ta bere semearekin eskondu eban. Amar eguneko eztegu ederrak egin ebazan.

Andik laster, zoritxarrez il egin zan bakaldun aita. Bakaldun gaztea ostera, gudara yonan zan. Onen amak begietan artuta eukan Miren Balendiñe. Orduan asi ziran Erregiña errukariaren zoritxarrak.

Bakaldun gaztea gudara jua eta gerotxoago bikiak izan ebazan Miren Balendiñek. Biak ziran zein baño zein politagoak. Ama dongeak atan be erregiñak ume ordez, txakur-kume bi izan ebazala adierazo eutson bakaldunari. Txantxetan artu eban Bakaldunak amak iñotsona ta txakur-kumak baziran be, bera etxeratu arte ondo zaintzeko erantzun eutson.

Ama maltzur arek baña Bakaldunaren benetako agindua gorde ta Erregiña ta une biak ilteko agindu ebala esan eutsen morroiei.

Morroien atsekabea; Maite, maitea eben, izan be, Erregiña. Juan ziran Miren Balendiñe eta aren umiekin. Erregiña ta ume errukariak ilteko adorerik ez ta Miren Balendiñeri sakel bi egin eutsoezan soñekoan eta umeak sakeletan sartu ta andik urrin urriñetara joateko esan eutsen.

Iru txakur il ebezen bertan ta beronein biotzak eruan eutsoezan Erregiña zarrari. Ziri ederra sartu eutsen.

Biotz oneko mutil areik aldendu ziraneke Miren Balendiñek beronenganantz etozan gizon bi ikusi ebazen. Larritu egin zan lenengotan, baita laster be baretu, orraitio. Gizon areik Josu Jauna ta Kepa Deuna ziran, luditik ba ebiltzan aldi artan.

Ondoratu yakon Josu Jauna ta ez eutson ezer itandu Erregiña ri, ba-ekiazan onen goraberak eta. Amaika gauza ezta ta alai esan eutsozan orraitio. Igurtzi eutsozan esku ikaragarriak eta antxe bertan sortu yakozan Erregiña'ri atzamar barriak.

Jaso eban gero Josu Jaunak eskua ta baso beltzaretan jauregi eder bat urten zan lurpetik baratz ta guzti. Esnetarako be, auntz polit bat emon eutson eta alde egin eben Josu Jauna eta Kepa Deunak. Alde egiten baña, jauregitik egundo ez urteteko, jauregitik urten baizen azkar atzamarrak jausiko yakozala-ta, esan eutson Josuk.

Gañera Josuk berberak ugutzatu ebazan Erregiña'ren ume biak. "Eguzkia" izena ezarri eutson batari ta "Illargia" besteari.

Alako batez etxeratu egin zan Bakalduna. Bereala esan eutsen Erregiña ta une biak illak zirala aspaldi. Naigabez josita, naigabea astu guraz edo, basorik baso asi zan lagun batekin. Gau ta egun eizean iñarduan.

Illuntze batez, baso baltz aundian bidea galdu eben. Argi bat urriñera ikusirik araxe jo eben. Olantxe eldu ziran Miren Balendiñe'ren jauregi aurrearagiño. Gau aretako ostatua eskatu eben eta bai emon be, Erregiña'k.

Andra gazteak beingoan ezagutu eban bere senarra, Bakaldunak, baña, ez eban ezagutu bere emaztea.

Ederto apaldu ondoren lotara joan ziran. Nekatuak egozan gizonok eta laster artu ebazan loak.

Orduan Erregiñak ume biak artu ta Bakaldunaren oe ondora eroan ebazan. Gizona euren aita zala esan eutsen umeai eta ixil-ixilik eta polito-polito, batak lenengo, besteak gero, mosu emon eutsen eta alde egin eben irurak.

Bakaldunak ez eban ezer oartu lo bai egoan. Ez baña, aren lagunak. Orregatik ikusi ta entzun al izan eban dana, baita bakaldunari esan be. Eta urrengo egunean be, zeozeren akikuluz lo egiten araxe juatea bururatu yaken.

Esan eta egin, urrengo gabez lo-alegia egin eben. Erregiña Bakaldunaren oe ondoan, umeai mosu emon erazoten iñarduala, besotik artu eta zertan iñarduan eta olan ibiltzeko nor zan itandu eutson bizi-bizi.

Ikaratu egin zan Erregiña gaixoa; seneratu zanean baña, jazo yakon guzti-guztia esan eutson. Poztu zan Bakaldun jauna ta aspaldi ildakotzat eukazan andra maiteari eta semeai mosu ta mosu ekin eutsen.

Alkarrekin etxera juan bear ebala esan eutson Bakaldiak eta beralaxe juan be; bere ama be, aspaldi ila zala ta lenagoko etsekabe guztiak aztuta atsegiñetan biziko zirela.

Josu Jaunaren esanik ez eban aitatzen Erregiñak baña, baso aretatik ez eban urten nai; jauregitik urten ezkerro atzamarrak jausiko ete jakozan bildur zan. Erregearen esanetara jarri egin zan eta jauregitik urten zanekoxe, odolik barik, jauzi egin yakozan atzamarrak.

Etixerantz ziyoala gizataldea bilduta ikusi eben Miren Balendiñeren yayot-errian. Zer jazoten zan itandu eta gizon batek elorri arantzea sartu ta ezin atara ebala esan eutsoen.

Badoa Miren Balendiñe atzamarrik ez eukala gomutatu be egiteke ta: "Itxi neuri, neuk atarako dautsot eta".

- Ezingo dautsozu atara, iñok be ezin atara dautso ta

- Eta zer ...?

Ondoratu yakon gizonari, luzatu eutson eskua ta egiazko arrigarria; gizona ikutu orduko atzamarrak urten eutsen, betirako urten be. Berbertantxe atara eutson elorri arantzea gizonari eta orduan gogoratu yakon gizona aita zala (ebana).

Parkatu eutson aitari ta aitarekin eta guzti, danak, Bakaldunaren Jauregi'rantz jo eben. Antxe bizi izan ziran, zorion batean bizi be, Jainkoak daki noz arte.

## Kuiak edo kalabazak

Artean, aldi aretan, Euskalerrian ebiltzan Josu Jauna ta Kepa Deuna. Or, Laburdi-aldean-  
edo, buruan kui bat eta eskuan beste bat eroyazan andra bat idoro eben.

- Ostutakoak dira kui orreik; samea jokatuko neuke, esan eutson Kepa Deunak Josuri.

- Ago ixilik, Kepa; ez egik alakorik esan. Ur utsa dok kuia. Ez ekian gaixo orrek?.

Orra zergaitik ez-tan lapurreta arrezkero iñoren soloan kui artzea. Ura besterik ez eida ta.

## Zaspigarren agindua

Euskalerrian aruntz-onuntz ebiltzan beste bein, be, Josu Jauna eta Kepa Deuna. Ugazaba ta morroi, saltzale ta erosle, langile ta alper, dan-danak egiten ebela lapurretan ikusita asarre gorrian zan Kepa.

Lapurtzarr orrei zigor galanta emon bear dautsezu Jauna ...

- Ago ixilik, Kepa, lapurrak al dozak ba danok?

- Lapurrak ez ta zer dira ba?.

- Lapur izateko zaspigarren agindua bear yoek, eta aspaldi kendu yoen gizonak agindu ori. Orixegaitik ez dok izango aurrerantzean ez lapurretarik ez lapurrik.

- Zuk ez dozu baña kendu agindu ori ...

- Ori esan Kepa ...! Gizonak, gura edo ez, beti izango dozak zoritxarrez zigorra merezi izango daben lapurrak.

## Bardotze

Josu Jauna ta Kepa Deuna ludian ebiltzan batean Euskalerriko mugatara eldu ziran egun batez neka-neka eginda ta bide bastarrean jarri ziran biak.

Arnasa artu ebenean, bastarretara begira jarriaz barriketan asi ziran.

- Zer egingo dogu toki onetan, esan eban Kepak.

- Toki au?. Ez Euzkaldun, es Gazkoniatar ... Bardotze egingo yoago.

Eta zutundu eta Bardotze egin eben.

## Miaritz'ko oyiña (aintzira)

Beste bein illunakaranbarrean Josu Jauna ta Kepa Deuna Negrez-aldean, Miarritz'en edo ziran. Etxe txiro bateko atea kask-kask jo eben eta gau artarako aterpea eskatu eutsen etxeokoi.

Baietz ba, ta sartu egin ziran.

Jatekorik ba ete eben, aokadatzu bana ez bazan be, itandu eutsen gero Josu Jaunak.

Eta Gaixo arreik apurtxorik be ez eukela erantzun eutsen.

- Ikusi egin dozue oremaia?.

- Bai Jauna, bai! zoritxarrez baña, badakigu gure oremaiaren barri ... eta. Oremaia gain gañeraño ogiz beteta ikusi ebenean konkortu-ta lotu ziran. Belaunikotu egin ziran Josu Jaunaren aurrean.

Neka neka eginda egozala-ta gau aretan lo egiteko oerik emongo eben, itandu eutsen Josu Jaunak.

- Oea bai pozik be ... ez daukogu baña izararik.

- Ikusi egizue orraitíño daukazuen.

- Badakigu, bai, gure izarrenen barri ...

- Ikusi alan da be ...

Eta uste ez eben tokian egundoko izara illuak idoro eta arrituta egozan.

- Bastar oneitako etxe guztietan eskatu dogu gau onetako estalpeteta eta zeuok bakarrik emon dauskuzue. Gaur-gabeen ikaragarritzko burrundadak entzungo dozuez, ez baña ikaratu. Emen izango gara ta geuk zainduko zauegu.

Eta oeratu egin ziran guztiak

Gau aretan egundoko oñastu, trumoi ta lurrikarak izan ziran. Euria eraunsika, aizea zurrunbiloka. Biaramonean ez zan etxerik agiri inguru aretan. Urak eroan ebazan etze ta etxeok lagunak. Josu Jaunak eta Kepa Deunak artu ebezaneke etxe zartxoak bakarrik agiri zan zutunik.

Iñoiz Negrez-aldera juaten bazara, an ikusiko dozue etxe ori, gau aretako ugoldeak egindako aintziri ondoan dago.



Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

## Ixterio-Mixterio (Irugarren zatia)

## Índice

1. Meza arrigarria
2. Salbatoreko kandelera
3. Xaindia
4. Tartalo
5. Axko ta aren lagun biak
6. Bakalduna, topiña ta txistua
7. Artzaiña Bakaldun
8. Erregiña barrez
9. Azeria ta ontzi burua
10. Zaspi lapurrak

## Meza arrigarria

Gau batez, goizaldera, goratxoagoko baso batetik argi bat ikusi eben Salbadorreko eleizan artzain batzuk.

Urrengo gabea be, aurrekoan lez, argi bardiña ikusi eben... eta baita aste osoan ere.

Ikaratu egin ziran artzaiñak eta beste larretoki batzuetara aldetea erabagi eben.

Larre eder areik isteak be, min emoten eutsen eta argia zer ete zan ikusi bear eukiela esaten asi ziran alkarri.

Txabolan beti izan oi eben ur onetsiagaz "Aitearren"egin, errosario eta makilla sendo bana eskuetan artu eta guztiak batera urten ziran goizalde batez.

Laster ikusi eben argia beti lez; euren arditxakurrak atzera egin eban zaunka ta zaunka. Ez ziran gutxiago bildurto artzaiñak be. Danak batera aurrera egiteko alkarri eskuak emon eta aurreratu egin eben. Ikara ikaraz, bidean iñor eta ezer be ikusteke eldu ziran eleiza-ondora ta beti lez eleizea itxita idoro eben. Politto-politto maratilla zirriztutik begiratzeko adorea izan eban batek ... eta ikararen-ikaraz berbarik barik geratu zan. Lagunak be begiratzera ausartu ziran eta aldarako argiak iziotuta, mezea emoteko jantzita, aldara-ondoan zutunik, abade bat egoan.

Beti lez asi eban bere mezea "introibo ad altare Dei" eta zer iñoanik be, ondo jakiteke artzain batek eratzun eutson atetik. Eta artzanak "et cum spiritu tuo" edo "amen" erantzuten eutsoela, amaitu eban meza abadeak, ez orraitioño artzañak nai baizen azkarr.

Mezea amaitu ebanean ate ondoruntz egin eban abadeak. Poz pozik etorran. "Eskerrik asko gizon on orrei, zarianak, zariela". Ainbeste urtetan meza au noz emango zain nintzan. Auxe esan bear neban zeruetan sartzeko ta. Ez zan emen iñor agiri neri meza erasotzeko. Eskerrik asko barriro be. Ezkarrik asko barriro be. Ez zaituet aztuko donokian". Eta hori esan ondoren alde egin eban abadeak.

Bildots izugarri ederrak jaio ei-yakezan urte aretan gure artzañei. Ez baña, toki aretan bertan. Biaramonean aldatu egin ebazan ba ardi-larrak.

## Salbatoreko kandelera

Aspaldi batez, zortzireun edo bederatzireun urtez aurretik "Loibbarri" ta "Mikelaberro" beste etxerik ez ei-zan Mendiben.

Egun batez Loibbarriko morroia bei batzuen ondoren Galarbe'ko oxiñara jua zan. Aruntz onuntz ebillela, Basa-Andere bat ikusi eban aitz-zulo batean, kandelera eder bat garbitu ondoren, urrezko orraziagaz orrazten.

Eguzkiak lez argi egiten eban kandelara eskatu eutson gure morroiak Basa-Andreari. Ezetz Basa-Andreak. Eskatu ta eskatu, eskuratu egin eban orraitio kandelera ori gure morroiak eta eskuratu ondoren, alde egin eban. Salbatoreko eleizarantz bayoyala, kandelera Salbatoreko eleizarako izango ebala bururatu yakon Basa-Andreari. Diadarka eta zarrasika asi zan mutillaren atzetik. Diadar ta garrasiak entzunda Basa-Jauna agertu zan ta mutillaren atzetik antxintxiketan asi zan bera be.

Mutilak orduan bereak egin ebala uste eban. Alako batez baña, ito agiñean eldu zan Salbatorera. "Salbatore Deuna, zuretzat nakarran, diño diadarka, Jauna erruki zakidaz". Eta beingoan eureyez bakarrik jo ta jo asi ziran torreko eskillak. Basa-jauna ta Basa-andrea bat batera geratu egin ziran eta Basajaunak diadarka: "Eskil zar ori jo ta jo asi dalako ago bizirik, iñotson, urrengo baraurik arrapatuten autenean, baña, egin yok iriak".

Andik egun gitxiren buruan mendira yoyan barriro be gure mutilla. Aurregunez gari joten jarduna zan. Bat batez okerrane batean Basa-jauna agertu yakon. Ikaratu zan gure mutila ta burua azka asi zan bereak egin bala ustetan. Ule artean baña bi edo iru galgarau idoro ebazan eta "krask" aoan gari-aleok sartu ta ausi eban baraua.

Alde egin eban orduan Basa-Jaunak eta ez da arrezkero agertu. Gure mutilla orraitio ez da egundo baraurik jua mendira.

Loibarreko mutillak esandakoa bete eban. Salbatore'ko baseleizara eroan eban kandelera ta an dago oindiño. Ez da baña, len baizen ederra. Españarrak birritan erre eben eleiza ta baltz-baltz eginda dago orain. Mendibetarrak errira ekarte gura izan eben. Aritz-kurutzeta'ko bizkarretik berago ezin ekarri al-izan dabe egundo. Buztarri bi bei lotuta, be, bein baño geiagotan egin izan dabez alegiñak eta alperrik beti.

Salbatore eleizan dago arrezkero ta egon be aurrerantzean bertan egongo da.

## Xaindia

Aintxiña-aintxiña, arto-zuritzen iñarduen iluntze batez Bitiña Iñurria' n.

Bat batean aitzurrotxa soloan astu yakola bururatu yakon mutillari; eta arto malestoa zatitzeko igitaia bear ... eta solotik igitaia ekartearen amar semeiko pozik emongo leukezala, diadar egin eban.

Etxeko umeak, neskatilla gastetxoak, diruarren, berak ekarriko eutsola dirautso ta juan zan billa.

Neskatxoa atera zaneke eskeñitako amar semeikoak damutu egin yakon mutillari eta aokadaka asirik: "etsayak eroango al au", diñotso neskatoari.

Beste barik garrasi bat entzun eben urrinean eta gerotxuago Iñuria'ko tximini ondoan zear, zoritzarreko neskatoa aidean daroa norbaitek. Eta bat batean kebidetik eskatzera igitaia jaurti ta "orra, diño, zuen igitaia. Eta ni, nire diru gosea bide, etsai okerrak artu ta egaz narua".

Iñurri ta auzoko guztiak neska errukarriaren ondoren asi ziran garrasika. Arnas estuka Larzabal'eragiño eldu ta ito agiñean antxe geratu ziran.

Larzabal'en baña, larzabaldarrak ekin eutsen umeari jarraitu naiean.

Aurrera ta aurrera yoyan umea, beti aidean eroyen. Mendibe'tik arantzatxoago Salvatore ondora eldu ziran. Neskatoak-leiza deuna ikusi ebanean "Salvatore Deuna, arren, erruki"j, diadar egin eban.

Eta itz oneik esan ebazanean jarein egin eban etsayak eta apurka-apurka lurreratu zan.

## Tartalo

Iru seme ei-ebazan ama batek. Bein batez seme oneik: "Ama, diñotse, diru billa goyaz ta emon eiguzu ogia". Opillak emon eutsoezan amak eta: "Mutillak, diñotsoe emotean, gizon bizar-gorrien morroi ez zaiteze egundo be egin". Eta badoaz iru semeok.

Ibili ta ibili gizon bizar gorri bat idoro eben bat batera eta bizar gorriak beronen morroi izate nai izango ete eban itandu eutsen lenengo mutillari. Ezetz ba onek. Bigarrenari be itaun bera eta ezezko bardiña entzun eban.

Irugarrenari be, bardin galdetu eutson eta onek: "Ikusi egingo yoat ezer jatordan" bere kolkorako iñoala, baietz erantzun eutson.

Bayoyazan naguzia ta mutilla eta nagusiak auxe esan eutson morroiari:

- "Gure biotakoren batek iñoz zer-esanik izango ba-leu, lepoko narrutik zapata pare bat egiteko aña narru emon bekio besteari".

Berala "Oya mendira, dirautso nagusiak, egurrik zuzenenakaz egindako egur txorta bat ekarri egidak". Ba-doya morroia; sagar mintegi gazte baten sartu ta sagar-ondo zuzenezuzenenakin egin eban txorta ori. Txortea etxera ebanean:

- "Ona emen egur txorta, Jauna. Zer esanik bai-al-dozu?"

- Ez, ez. Ondo baño obeto egin dok

Barriri be basora bialdu eban, egur-okerrretara baña. Okerrenak ekartzeko agindu eutson.

Badoya morroia mastira. Iñausi eban mastioi ta aienik okerrenakaz egin eban bere txortea ta etxera juan zan:

- Emen, Jauna. Zer esanik bai-al-dozu?"

- Ez, ez. ondo yagok.

Oraingoan txarri-zain bialdu eban basora, baso aretako Tartalok mutil ori iruntziko ebalakoan bear bada.

Basorakoan mutillak txori bizi bat, gaztaia ta ari arildua sakelean artuta juan zan.

Tartaloa etorri ta "indarrik edo ba-ete-dok?, esan eutson morroiari.

- Indarra?, dirautso morroiak, bai. Arria nok urriñago jaurti egingo daustak?

Baietz Tartalok eta jaurti egin eban arria, urrin urrin jaurti be.

Morroiak orduan, arria bai txoria bota eban eta arria baño askoz urriñago juan zan. Eta beingoan Tartalori "nai dok orain atzera arria jaurti ta nok zati geiago egin?, esan eutson.

Baietz Tartalok, jaurti ta zati zati egin eban Tartalok arria.

Morroiak baña, arri orde z gaztaia artu ta bota eban. Milla zatitan, apur apur egiña itxi eban. Eta oster be morroiak Tartalori: "Baso onetako zugatzak nok azkarrago ondotik atara egingo daustat", esan eutson. Baietz Tartalok eta banan banan zirti zarta ondotik ataraten asi zan.

Gure morroia, kolkoan ekarran ari-arilduagaz basoko zugatz guztiak lotuten asi zan eta Tartalok: "Zertan diñarduk?", itandu eutson.

- Zer uste dok ba?. Nik be banan-banan atarako yoadazala? Ez, ez, dan-danak batera nik yoadaz, erantzun eutson morroiak.

Tartalo ikaratuta "geiago ez", geiago ezka asi zan orru biziz.

Bitartean bien txarri taldeak alkarregaz nastau egin ziran ta ezin banatuka ebiltzan biak. Bakoitzak berak ezin ezagutu al ebazan eta morroiak. "Tartalo, guzti oneik neuriak dozak, esan eutson, ezagun errezak dozak ba, niriak; belarri biña ta buztan bana yoe nireak eta guzti oneik belarri biña eta buztan bana yaukezek". Eta orduan txarri guztiak artu ebazan beretzat morroiak.

Badoa Tartalo be, txarribilla, baso-sakonetan edo ete-ziran ikustera. Eta Tartalo txarribilla ebillala txarri bai il eban morroiak, txarri esteak kolkoan gorde eta Tartalo'ren bildurrez, arin-aringa iges egin eban. Arnas estuka yoyan eta basotik urteterakoan izara-garbitzale baten ondotik igarotean, txarri esteak orren alboan itxi-ta "azkarrago jua nadin, ona emen nire esteak", esan eutson izara-garbitzalleari.

Ez eban txarri idoro Tartalo'k eta gazte arek ziria sartu eutsola ezaguturik, an zan bereala mutil gaztearen ondoren. Eta txarri-zaiñik oraintsu ikusi ete-eban galdetu eutson zapi-garbitzalleari.

- Bai, bai, oraintxe igaro da emendik; bere esteak ementxe itxi dauz azkarrago juango zala-ta.

Morroi gaztea baizen azkar jua al izan eitean, aizto aundi bat artuta, Tartalo'k be atara egin euzan bere esteak orduan. Eta oinkada bi emoteke bertan jausi eta il egin zan.

Ba-doya morroi gaztea bere txarri guztiak aurean artuta. Iru edo lau ez besteak egun aretantxe saldu ebazan.

Iru edo lau txarri biziak eta saldutako guztian buztanak basea eta zikiña besterik ez egoan oxin aundi baten sartu ebazan eta ba-doya bere nagusi bizar-gorriarengana ta: "Osiñean sartu yataz txarriak, jauna, ta zatoz laguntzera ito-orduko atara dagidazan", diñotso.

Osin-ondora eldu ziran. Saldutako txarrien buztanak nun sartu ebazan ba-ekian mutillak, eta buztan areik egozan lekura eroan eta buztan areiri tiratzeko esan eutson nagusiari. Ekin eutsen biak lanean. Nagusiak buztan utsak ataraten ebazan; morroiak ba-ekian nun egozan txarriak eta txari osoak atera ebazan.

Morroiak orduan: "Onetan atarako dozuz, jauna", iñotsan nagusiari. Baña ugazabak buztan utsak ataraten ebazan.

Azkenerrako asarratu egin zan ugazabea, zital-zital egin zan. "Asarre zara nagusi? ... "Bai, asarre-asarre naz ..."

Eldu eutson orduan morroiak eta oski biko bat egiteko-aña narru kendu eutson lepotik.

Arrezkero, aberats-aberats, esin urraturiko oñetakoak jantzita dabil gure morroia. Joan dan-astean ikusi neban azkenengoz Pinodieta-egian.

## Axko ta aren lagun biak

Or, Nabarra-aldean sendi txiro-txiro bat bizi ei-zan. Egun batez, etxean egurrik ez ta aita ta alabea zama bana egur ekarten jua eiziran mendira. Zamea lenengo agiten ebanak aurretik izentariko toki baten besteari itxaroteko alkarri esan eta nor-bere tokitik jua ziran.

Ikaragarriak ziran orduko basoak;

Neskatilleari, zamea egin ebazaneko, Baso-Jauna etorri jakon basotik; oratu ta lurpean beretzat eginda eukan bizitokira eroan eban neskatillea. Nos esan neskatillearen ikara ta alabea galdu yakoen gurasoen samina;

Egunak jua eta egunak etorri, Basa-Jaunaren leza-zuloan "Axko" jao zan. Ume sendoagorik egundo; Gorpuz guztia ulez estalduta eukan. Soñeko bearrik be ez ei-eban.

Urteetan lurpetik urteteke egon ziran ama-semeak. Ba-ebazan zazpi urte umeak. Egun batez Basa-Jauna nora juaten zan ikusi gura eban Axko'k eta igo eta igo leza-ataragiño eldu zan alako batez.

Atakako arri-zirkilutik argi eder-ederra ikusi eban. Argi ikusgarriak ikaratuta jatxi atzera ta ba-dua amari ikusitakoaren barri emotera. Ama errukarriak bildurrez: "Ez eban arririk aldatuko baña?, dirautso; aita olakorik jakingo baleyok galduak gindukezan;".

Ez eukitzeko ezeren kezkarik erantzun eutson orduan. Gauza orreik esan ordukoxe an zan Basa-Jauna ta asarre samar: "Zuek zirkiñik eragin al ete-dautsozue atakako arriari"?.

Ezetz, eurak ezetz. Beste barik baretu zan Basa-Jauna eta alde egin eban andik.

Ikusi eban argiaren maitez-erreta, iges egin bear ebela inotson semeak amari.

- Atakako arria nok kenduko yok baña?

- Neuk ama

- Ezin dok, ume;

- Bai, ama, bai. Neuk kenduko dot. Ez neutsun esan baña or-or erabili neban lengo egunean be.

Ba doaz zuloan gora. Bere esku uletsuagaz eldu eutson Axko'k arriari ta zutundu egin eban. Gero bili-bolanka jaurti eban mendian bera.

Ikaragarriko oldarrean yoyan arria ta aurrean artzen eban guztia apurtzen eban.

Ainbesteko zaratea entzun ebanean, bere leza-atakako arria jaurti ete eben kezkatan sartu zan Basa-Jauna. Eta gero Axko'ren lana ikusi ebanean ama-semeen ondoren asi zan.



Errira eldu-egiñean Baso-Jauna ondoren etorkiela oartu eban amak eta zer egin eban?. Egiñalako garrasi samiñak egiten asi zan. Garrasi areik entzunik sorginkerien bat aurrean zala-ta erriko atabal ta eskilak jo ta jo azi ziran zalapartaka ta ots orreik Basa-Jaunak entzun ebazanean iges egin eban eta inguru areik bein betiko laga ebazan.

Errira dira beraz, ama-semeak. Ama errukariaren poza; Erriko dan-danak barriz, umeari begira konkortuta egozan. Baebazan orduko zortzi urte. Jantzi eban amak eta ikastolara osteraka asi zan gure Axko. Lenengo egunetan arrituta ebiltzan ume guztiak, mutiko itsusia zer demontre etezan. Jantzi artetik egundoko ule luzeak agiri jakozan. Gero zerbait alkar artu ebenean, batak alde batetik eta besteak bestetik uletatik tiraka asi yakozan. Egun batzuetan jazan al-izan ebazan Axko'k. Gogait egin eban baña gure Axko'k eta egun batez auxe esan eutson amari:

- Ama, umekondo batzuk tira eta tira egiten dauste. Egunen baten il egindo dodaz erdiak baña;

- Ez gero niri alakorik egin

Ba-doa barriri be ikastolara biaramonean. Asi yakozan zirri- mirrika, beste egunetan baño okerrago asi be gañera.

Zitaldu yakon gure Axko'ri, eldu garri-garritik batari ta berakin jo bata ta jo bestea. An ei-ziran ango garasiak; Batzuk il eta beste batzuk zauritu egin ei-ebazan; irakasleak leiotik iges egin eban, al izan eban lasterren. Axko ez zan arrezkero ikstolan sartu.

Etxean unte batzuk egin ondoren, diru-bial jua gura ebala ta makila sendo-sendo bat ekarri egiola esan eutson amari egun batez. Kintal bi inguruko makillea eruan eutsen, ariñegia zan baña. Amabi kintalekoa ekarri eutsen gero. Eskueta artu eban eta axe ei-yakon aukerakoa. Eta or doa makillea astinduaz.

Ba-uan eta bidean aurrez-aurre gizon bat idoro eban: "Agur adizkide"; "Agur zuri be". Gizon indartsua zara ainbesteko makillea orretara erabili al-izateko";

- Bai, ba-dot indar apur bat... Ez da baña orren astuna makilla au. Amabi kintal or nunbait izango dauz.

- Ni be ba sendoa nozu. Gura izango ba-neu zintz eginda lurrera jaurtiko zindukedaz, gurago yot baña beste aritz-ondo ori botatea.

Eta zudur-zulo bata estali, zintz egin, eta "krak" or doya bekoz gora tantaya.

Aren sendo zana ikusita diru bila yoyala-ta, alkarrekin juango ziran galdetu eutson Axko'k.

Besteak baietz, arekin pozik juango sala.

Ba-yoyazan biak, eta alai jua be. Aurreratxoago errota-arri ta abail aundi aundi batzuekin obai jokuan iarduan gizon bat idoro eben.

- "Agur adizkide"

- "Agur zuei be"

Alkarrekin barriketan jardun ostean. "Gurekin etorri bear dozu zuk, bere, diñotso Axko'k, gurekin etorteko gizon egokia deritxazu".

- Nora zuaz ba?

- Diru egitera

- Bai, bai. Pozik yuango naiz

Orra, or, Axko ta bere lagunak dirua egin naiean ...

Ibilalditxo bat egin ebenean gosetu be egin ei-ziran eta, ardi-txabola bat ikusi ta araxe jo eben. Ardietakoa egiten iarduan artzain bat idoro eben.

- "Agur adizkide;"

- "Agur, zuei, be, Jaun orrei;"

Alkar agurtu ebenean, barriketarako gogorik ezpaieben gosearen-gosez txarto egozala-ta, jatekorik ete-eukan galdetu eutsoen artzañari.

- "Gauza aundirik ezarren, errotatik oraintxe ekarrita daukat arto-zorroa ta nai ba-dozue talo batzuk egingo dodaz"

- "Baietz ba, pozik be

Asi zan artzain gaixoa talo-giñan. Onek egin eta besteak jan, amasazpi talo jan ei-eutsezan; arrituta egoan artzañña

Ase ziranean diru egiten urten ebela ta, errezan nun egin ete-eikean itandu eutson Axko'k artzañari.

Aindixeik beratxoago jatsi ta inguru guztia burdin sa'rez inguraturik eukan jauregi ikusgarri atarte aundidun bat ikusiko ebela esan eutsen artzañal. "Ez da egundo iñor an sartu izan; etsaiak ei dagoz. Zuen eduko gizon gitxi dira, nire ustez, ta, jauregi jabe iñor egitekotan zeuek egingo zariela irditzen dot"

Baduaz ba gure iru gizonak.

Artzañak esan eutsoen lez, eldu ziran jauregi zalako aren aurrera. Zerlan sartu asmotan egon ziran. Sur-Aizek ekin eutson lenen, baña alperrik. Astindu ederra emon eutson atadiko ateari, baña zutunik geratu zan atea.

Oba jokalariaren txandea da orain. Artu ta jaurti eban, tsitaka emon alako indarragaz, errota arria. Orma zati bat bota ei eban lurrera, baña ez, sartu al-izateko aña.

Axkoren txanda da. Indar aundiagoa artzeko ogei urratsen bidean atzeratu ta al eban indar guztiagaz jaurti eban agea ta "brau" lurrera jausi ziran atea.

Irurak sartu ziran barrura. Ez zan iñor agiri. Batera begiratu ta bestera ikusi ebiltzen. Urrez betetako zakuak agiri ziran nun-nai. Badoyaz eskaratzera ta an bost-sei lapiko sutan; batean olloa, bestean atea, beste batean oilaskoa, ez dakit nik zer eta zer geyago. Azkenean maia jarri eben. Eta amasazpi talo jan ebezanik igarri be egiteke, asi ziran baskaltzen eta jan eta jan, Jaungoikoak daki zer iruntsi eben areik. Arratsaldea maitik jagiteke jua yako.

Barriketan egonaldi bat egin ondoren, bakoitzak bere logelea aukeratu bear ebala-ta, abiatu ziran. Ederto yatorkean oe zuri ederrean lo egitea alan bazkaldu ondoren. Arein pozaj. Bere biziko gaba igaro eben.

Biaramonean zortzirak inguruan jagi ziran. Jana ipiñi egian Sur-Aize geratu zan etxean eta beste biak eizara jua ziran. Eizetik noz etorri Sur-Aize'k txilinagaz adierazoko eutsen.

Egundoko bazkaririk onena ipinteko asmoz, asi san Sur-Aize bere eginkizunetan.

Amarrak inguruan, nor edo nor, "dan dan dan" ate joka entzun eban. Badua ta eskeko zar bat ikusi eban. "Zarrast" egabi ta o ogi zati bat emon eutson. Eskuetatik iges egin bai leutson, lurrera jausten itxi eutson ogiari eskekoak. Eskekoaren errukiz urreratu eta barrero emoteko makurtu egin zan Sur-Aize. Makurtu zanean, "brau" jauzi egin eutson gañera deabruak. Biak zein-geiagokoka apur batez ibili ondoren Sur-Aize menderatu egin eban deabruak. Sur-Aize eskuetatik aiztoa artu ta txiki-txiki egin eban deabruak gizon gaixoa. Gero zatiak lapikoetan sartu eta alde egin eban. Ordubiak inguri ziran.

Gosetu ziranaren, txiliñik ez eben entzuten gure eiztariak eta zer jazo ete zan jakiteko asmoz etxeratu egin ziran.

Ez zan iñun gizonik agiri. Begiratu eben lapikoetara ta zer dakuse?. Zati-zati eginda euren lagunaj. Almena baeban baña Axko'k ila berbizteko. Zati edo atal guztiak arduraz batu ta

beraldiko eskuketan egin ondoren, orra or bizirik gure Sur-Aize zana. Sur-Aize zutundu zanian, bere lagunei jazo yakon guztia esan eutsen.

Biamamonean "Oba-jokalariari" yagokon sukalkintzan egitea. Eta ori be bardin bardin jazo yakon.

Txilinik ez eben entzuten eta gosez berandu etsita etxera bigurtu ziran. Ordurako topiñean sartuta irakiten egoan gure "Obajokalaria". Au be, berbiztu egin eban Axko'k.

Axko'ri yagokon oraingoan etxean egotea. Lagunak Axko bakarrik isterik ez eben gura izan. Atan be, Axko ilten ba-eben nok berbiztu al izango eban?. Baña, Axko'k ezetariko bildurrik barik eta nasai joateko esan eutsen.

Betiko sasoiari ate-otsa "dan, dan, dan". Badoa Axko. Beste egunetako eskeko zarra zan barriro be. Ogi zati ederra artu eta "Eutsi adizkide", diñotso, eta ez txantxetan esan be. Lurrera jausten itxi eutson eskekoak ogiari ta arren jaso egiola eskatu eutson Axko'ri. Betoskoa illunagaz Axko'k: "Ainbesteko ogi bearra baldin badozu, zeuk be jasoko dozu", erantzun eta or doa asitako lanak amaitutera.

Deabru zarrak atzetik etorrita oratu egin eutson. Baña alperrik. Ezin dau menderatu Axko besteak lez. Burrukaldu gogorra egin ostean, Axko geiago zala etsita, ke-bidean gora igesi asi zan deabrua. Aetu eban orduan Axko'k bere palankega ta sartu eutson atzekaldetik deabruari eta zatituta itzi eban. Gero txistu joka lanari ekin eutson, bazkaria sasoirako ipiñi nairik. Bazkaria ipiñi-agiñean eukala, ordulariari begiratu eutson eta "amabietarako iru larenek". "Lagunak biurtzeko garaia", esan eban bere kolkorako. Eta "Txilin- txalan, txilin-txalan" txiliña joten ekin eutson.

Eiztariak alkarri begira zer asmau be ez zekien. Zer jazoten ete-zan ikusi bear ebela-ta, baduaz len-bai-len. Maia ipiñita, saldea ataraten iñarduan Axko'k.

- "Eskekorik ez dok gaur etorri ala?"

- "Ez dakit, nik zelan menderatu al izan zinduezan gizon koldar txatxar arek. Jarri ta jan egizue patxadaz. Ez dautsue arek geiago miñik egingo. Baratzeruntz jaurti dot eta or da". Eta bazkaritzan jazo yakon danaren barri emon eutsoen.

Batek jatekoa ipiñi eta besteak eizan egin, olantxe bizi izan ziran egun batzuetan. Ikusteko euken baña etxe guzti-guztia oraindiño ta bastarrei begira asi ziran. Ganbarara ziranean lurreragiñoko bizarra eben amabi gizon zar idoro ebezan mai inguruan jarritaj. Danak garbitu bear ebezala ta baduaz Axko ta Oba-jokalari euron tresna billa. Sur-Aize zinka, Obajokalarik errota arriagaz ta Axko palankeagaz asi ziran eta begien itxidigi batean garbitu ebezan amabi deabru zarrak. Eurena zan arrezkero jauregia. Egundo iñor ikusteke, laster gogait egin eben an be, eta errira juan bera ebela bururatu jakoen.

Bina edo iruna urre zaku aundiak atara ebezan eta mendiko artzaiñari be amabireun laurleko emon ondoren, aberats-aberats eginda, diru piluekin euren errietara ba-duaz gure gizonok.

Barri onek zer-esan aundiak atara ebazan euren errietan eta ingurukoetan. Erriko abade ta beste agintarien esanaz edo aolkuz, ezkondu egin ei-ziran irura.

Ondo bizi izan ba-ziran, il-be, ondo il ziran.

## Bakalduna topiña ta txistua

Bein batez etsayak ebazan gizon bat ei-ezan. Bakaldunaren lagun zala ta noz-nai etorten ei-yakon etxera.

Bakalduna etorteko zan egun batez. "Bakalduna datorrene ko gauza aundiren bat egin bear geunke", asan eutson bere andreari. Baietz, andreak, beronek be alantxe gura ebala. Zer egingo asmetan asi ziran andra-gizonok. Orrelako buru austetan zirala, eldu egin yake bakalduna bere andrearekin. Ezer asmatzeke ta ezer egin al-izateko astirik barik, auxe bururatu yakon gure gizon orri: sutan garr, garr, garr, irakiten egoan topiña artu eta eskaratz erdi-erdian ipiñi ta sua amatau. Eta baita egin be.

Sartu ei ziran beraz bakalduna ta erregiña.

"Agur" eta "Bai zuei be" eta, berala ikusi eban erregeak topiña, ta topiña eskaratz erdian irakitan zetarako zan galdetu eutsen. Egunoro eskaratz erdian lapikokoa surik barik agiten eban bere-biziko topiña zala esan eutson gura bakaldun-lagunak. Ez eban siñestu gura bakaldunak: topin ondora eroan eban gure gizonak eta tapea jasota erakutsi eutson benetan pil-pil irakitan topiña.

Orduantxe siñestu eban eta arren saldu egiola eskatu eutson bakaldunak. Topin axe zala ba, eurok euken guzti-gu tia ta topina barik bizi ezingo zirala ta ez saltzea gurago leikiela, erantzun eutson gizonak alik eta egokien. Eta bakaldunak barrero, ezeren-bearrik ez ebela izango, nai-eben aña diru emongo eutsela ta, arren, saltzeko. Eta azkenean gure gizonak, gogoz-bestera lez, baña, saldu egin eutson topiña.

Ba-duaz bakalduna ta erregiña topiña eskuetan artuta etxera. Etxera ziranean morroi edo otseiñengana jo eben eta euroi topiña emon ostean bear ziran janariak sartu ta lapikokoa surik beste barik egingo ebela ta topiñoi eskaratz erdian isteko esan eutsoen morroiai bakaldunak.

Baietz morroiak, pozik egingo ebela.

Biamamonean janariak sartu topiñean ta topiñori itxi eben eskaratz erdian. Morroiak nork bere zeregiñetara alde eben.

Eguerdi aurretik begiratu eutsen topiñari morroiak eta eurok itxi eben lez apurrik be irekitekete egozan lapikokoak. Bakalduna topiñaren barri jakitera noz etorriko ikaratuta egozan morroiok alkarri begira. Bere lagunak ziria sartu etsona ikusi ebanean, egundo iñor asarratu izan bada, bakalduna asarratu zan.

Gure gizona be ez egoan nasai-nasai zer egin eban ba-ekian eta. Euronak egin ebala, iñotsan emazteari, biaramonean bakalduna etorri yakoela eta arek emongo eutsezala emotekoak.

Bat-batera "Ez, entzun egidan, esan eutson senarrak emazteari, bayakianat zer egin. Biar bakaldun etorri orduko ik bularretan zato bat ardo ipiñiko don eta bakalduna agirika asitakoan ziria euk sartu daustanala esango yaunat, ik ezer esan ez ba-eustanan ez nebala olakorik egingo; orduan asarratu egingo non eta iri bularrean sartuko bai'neuskin, zatoan sartuko daustan atztoa ta illa bai intzanan jausiko az. Eta gero txistu onegaz berbiztu egingo aunatala siñestu-arazoko yautsonat bakaldunari; eta lenengo txistua entzundakoan anka bateri zirkiari eragin, bigarrenez jotakoan besteari ta irugarrenez jotakoan jagi egingo az".

- Bai, ori egingo yuat eta agian ez gauzak zigortuko bakaldunak.

Oneik uste ebanez biaramonean zital-zital eginda etorri yakoen erregea. Etxera sartu zanezkoxe asi zan gizon errukarri ari agirika: topin aregaz ziria sartu eutsoela eta bakaldunaren lepotik arela barre egiten zan! Esan eta esan iñarduan bakaldunak.

Orduan Emaztea zalata asarretu egin yakon gizonari be: emaztearen errua zala ta sututa, aiztoa sartu eutson andreari bularrean. Andra errukarria illa bai litzan jausi zan ... Ikaratu egin zan bakalduna - "Ia zer egin eban? alakorik ez zala egin bear, iñotsan guztiz minberatuta bakaldunak.

Gura ba eban emaztea txistu bategaz berbiztuko ebala, esan eutson orduan gure gizonak.

- "Txistuagaz berbiztu zuk? Ez dot siñesten".

- Ez dozu siñesten? Laster ikusiko dozu.

Txistua gure gizonak artuta lenengoz jo eban. Emazteak barriz, zirkin eragin eutson istar bateri; bigarrenez beste istarra, ta irugarren txistua jo ebanean zutundu egin zan.

Konkortuta egoan erregea alako txistua ikusita. Arren, saldu egiola iñotson gizonari. Ezetan, be, ezetz gure gizonak; ordurarte be, ezbearrik asko izan ebala ta ez eutsola salduko. Bakaldunak ez eutson bakerik emoten baña; gura eban-aña diru eskatzeko ta emongo eutsola, arren saltzeko ta saltzeko. Azkenean orraitino, saldu egin eutson txistu ori diru-askotan eta bakalduna etxera jua zan.

Biaramonean kalera ziran bakalduna eta erregeña eta uriaren erdira ziranean, bakaldunak aiztoa sartu eutson bularrean erregeñari ta erregeña errukarria ilda jausi zan.

Dan-danak konkortuta egozan. Ez larritzeko berak berbiztuko ebala-ta, iñotsoen erregeak. Atara ta jo eban txistu ori, baña erregeñak zirkiñik be ez eban egiten; jo barriro be eta ikararik be ez. Jo ta jo asi zanarren alperrik zala etsi ta erregeña bene-benetan ilda egoana ikusi eban. Badakizue zeuek be zelakoa izango zan erregearen samiña.

Barriro be, beste siriren bat sartuko ete eutson kezka bakaldunak ez eban jua gura gizonaren etxera. Eta gizona zaku baten sartuta, uretara jaurti egiela agindu eutsen bere morroiei. Erregeak esan eutsoenez, saku aundian gizona sartu, ta osin beltz bateruntz duaz.

Bidean yoyazala, zakua atadian itxita, ostatu batera sartu ziran morroiak ostatu barruan edaten ziarduenartean, zaku barruan zanak, norbait urreratu zana somatuta.

- "Ez dot nai!, Ez dot nai". - diadarka asi zan. Bidazia ondoratu yakon eta ia, zer nai ez eban ba, itandu eutson eta barrukoak.

- "Ni bakaldunaren alabearekin ezkontzea gura dabe. Nik ez dot nai baña, eta uretara jaurtiko nabe".

- "Gizona, baietz esatea oba dozu", dirautso. Arek ostera ezetz ta ezetz.

- "Nik baietz esango neuke ba. Zure ordezu neu sartzea gura ete dozu?, diñotso orduan bidazia.

- Bai, bai -dirautso gure gizonak-, sartu zadiz bereala.

Esan eta egin.

Zakuan sartu zan gizona artzaiña zan eta aren artaldea artu ta ba doa gure gizona.

Ardiakaz bidean zear yoyala bakalduna bat egin eban eta onek arrituta,

- "Nundik ator?", itandu eutson.

- Nundik natorran?. itsasotik ... ez al ninduzun ba, zeuk ara jaurti?.

- Bai, baña andik ez dok iñor atzera etorten, eta i ez az an izan!.

- Andixeik nator ba, jauna, ta ardi oneik be angoxeak dodaz. Eta siñesten ez badozu, zatoz neurekin ta ikusiko dozu: ni izan eskero besteren batzuk, be, an dira.

Itxas baztarrera zan erregea ta oraintsu botatako artzain errukarria zalapartaka ito aginean ikusi eban uretan.

Eta erregeak gure gizonari,

- "Ori orraitiño ez dok atzera etorri", diñotso.

- Ez, ardirik ederrenak aukeratzen-diyardu ta nire artaldea lakoa nai badozu zabiltz azkar zu be": Eta orduan jauzi egin eban erregeak uretara eta bertan ito zan.

## Artzaiña bakaldun

Aintxiña aintxiña batez, goixorik zan eta oso txarto bakaldunaren alabea. España, England, France ta alde guztietako osagilleak eruan ei eutsozan, baña iñok ezin osatu. Geroago ta txartoago zan bakaldunaren alabea ta itun ziran erriko bastarrak.

Mendi, zelai ta baztar guztietara zabaldu zan bakaldunaren alabea gaixorik zalakoa. Elandi artzaiñak be, mendi bastarrean egonarren jakin egin eban. Eta au be, beste azko lez itun zan. Eta - au txarrago ezer ezin egin ...

Egun batez bakaldunaren alabea gomutan, aruntz-onuntz ebillan eta artaldean ardi baten bearra zala oartu eban. Zer egin?. Ardi guztiak txabolan sartu ta gabaren erdian, bere ardi galduaren bila, urten zan.

Gaberdi ostean, ordu bata inguruan, mendi bizkarrean yoyan eta zaparrada ikaragarria entzun eban. Begiratu ta begiratu illun zan eta ez eban ezer ikusten. Badoa aurrera ta zaparrada aundiagoa. Guztiz ikaratu zan eta ondoan eban zugatz luze batera igon eban.

Elandi gañera orduko or datoz aire zurrumbillo batean sorgiñak sorgiñen gaiñean. Dauen erdian, idaztia galtzapean ekaran sorgin-nagusia. Elandi artzaiña egoan zugatz-pean geratu ziran. Elandiren ikarea! Sorgin guztiak bereala agurtu eben sorgin nagusia. Alki gorri bat ekarri eutsen eta antxe jarri zan nagusia. Danen erdian, galtzazpean ekarran idaztia atara eban sorgin nagusiak.

Danak mun egin eutsen idaztiari ta bereala asi zan akelarre edo sorgiñen batzarra. Asi ei zan ba bere aginduak emoten sorgin nagusia:

- Zuek Katero ta Amala, olako ta olakoari, onako ta alako kaltea! Zuek Niñika ta Katalin, olako ta alako etxean olako ta alakoak galdu!

Eta Katero, Amala, Niñika ta Katalin euren itxuzki-kirtenetan ankertolaka juan ziran beingoan bakotxa bere bidetik.

- Eta zuek bete ete-dozuez nire esanak? - dirautse beste sorgiñei diadarr garratza eginda.

Eta guztiak lurreraño buruak makurtuta,

- "Bai nagusia, egin deitugu", erantzun eutsen.

- Ondo da. Zuaz orain eta atsedan artu egizue egun batzuetan".

Beingo-beingoan sakabanatu zan gau aretako akelarre. Buruak lurreraño makurtuta gurtu eben euren nagusia ta idastiari be, mun egin eutsoen. Eta gero odeietan barrura sartu zan sorgin-nagusia bereala eskutatuaz ...

Artean zugatz gañean alderdi guztietara begira lauorritan egon zan Elandi. Sorgin-nagusia idazti aundiagaz urrintzen ikusi ebanean, apur bat nasaitu zan. Ordurarte sorgiñak ez ebela ikusita, ez ete-zan gero ausartago egin?.

Ba-yoyazan apurka-apurka sorgiñak. Bi bakarrik gelditu ziran zugatz-pean. Eta ara biak barriketan asi:

- I, bai ete-dakin bakaldunaren alabea gaixorik dagonik?

- Jakin ez?. Ez ebenan euk gaixotu?.

- Neuk gaixotu naunan, bai. Ez don baña, beingoan osatuko. Sendagaia etxean bertan yaukonarren!

- Zer egin bear leuken ba?

- Ba-dun bakaldunaren etxe aurrean estalitako osin bat. Osin aretan, zapo bat; eta zapo aregaz egindako saldea artzea naiko litzaken gaixoa osatzeko".

- Ori naiko! Ba-yon orduan ilarteko gaixoa ...!

Laster zan egunsentia. Ollar batek urriñetik kukurruki egin eban. Eta Elandi oartu be egiteke eskutatu ziran azkenengo bi sorgiñak ... Eguna zabaldu zanean, zugatz-gañetik jatsi gure Elandi eta atzera sarri begirutzen ebanarren arin-aringa urrindu zan. Azkar egin eban bakaldunaren jauregiruntz.

Ibili ta ibili eldu zan azkenean. Kalera zanean bakaldunaren alabea azkenetan zala entzuten eban. Iñori begiratzeke, bañan, gure artzaiña jauregira dua.

Gudari asko agiri ziran an eta bateri bakalduna ikusi ete-eikean galdetu eutson Elandi'k.

- Errega ikusi?. Gaur goizean ba-yok beste zeregiñik, alabea il-agiñean yaukok eta.

- Orixe dala-ta ikusi gura yuat ba. Azkenetan dan alaba ori neuk osatuko yuat ...

- Gizona, burutik eginda ago ala?. Inguruetako osagileak ezin osatu izan yoek eta ...

- Eta zer?. Areik egin ezin dabena nik egingo yuat.

- Ago ba. Ba-noyak bakaldun billa.

Juan zan gudarioi arin-aringa ta negarrez eriola berialaxe etorri zan bakalduna.

- Agur, bakaldun fauna: Bizi al da oraindiño zure alabea?

- Bizi da, bai, baña azkenetan dago.

- Ez uste izan, bakalduna jauna. Nik esandakoa egiten badozu ez da ilgo zure alabea.

- Iñundikoak egin dodaz baña danak alperrik izan yataz. Oindiño be edozer egingo neuke. Esan, esan, zer egingo bear neukean.

- Jauregi aurreko osin estalia zabaldu bear dozu beingoan.

- Jauregi aurreko osin estalia?

- Beingo-beingoan, bakaldun jauna, zure alabea galtzerik nai ez ba-dozu. Ba-doaz bakalduna, artzaiña ta gudaria. Osin estalia urratu eben Elandek eta baita idoro be zapo zakarra.

- "Ona emen guk bear gebana ber-bera. Zapo onegaz egindako saldea artu bear dau zure alabeak iru egunen buruan. Eta iru egun orrein buruan etorriko naz zer barrri jakitera ta, egiz, barri onak emongo dautztazuez".

Bada-ezpadan be, egin eben Elandik esandakoa iru egunetan eta irugarren egunerako osatu egin zan, ziatz osatu be, bakaldunaren alabea.

Ondo ekiazan barriak jakitera, eldu zan irugarren egunean Elandi be.

Egundoko begi ergiz artu eban bakaldunak. Gudariak be bide erdira bialdu eutsozan. Amaika burdi eder ba zan an. Errege jauna ta bere alabea jauregiko atean ziran Elandiren zain.



Biok eskuetatik artuta jantoki aundi batera eruan eben, eta biaramonerarte iraun eben egin eben bazkaria.

Eta irabazi be, irabazi ebela ta erregearen alabea Elandi'rekin eskondu zan eta zorionez gañezka bizi izan ziran, Jain- koak daki zenbat urtetan.

## Erregiña barrez

Beste bein, gaixorik zan Bakaldunaren alabea ta ezin osatu eikean iñok. Osagille, azti ta sorgin an ebiltzan urduri osatu nairik, baña alperrik. Neskatilla osatu eikean osakairik ez zan. Eta egunean egunean makalago, egundo barrerik egiteke, beti illun-illun, ililobirako bidean zan.

Zer egin jakiteke irriparre eutsonari emaztegai bere alabea emongo eutsola aitzen emon eban Bakaldunak.

Etxe koskor baten iru anai ei-ziran. Bakaldunaren eskiñia jakiñik, aren alaba gaixoa ikusi egin bear ebela ta nundik edo andik barrerik eragiten eutsoen aztertu egin bear ebela iñuen euren kolkorako.

Sagar gorri gorritz betetako otzara bat artu ta ba-dua zarrena. Sorgin zulo batera jausitako atso zar bat -sorgiña ausago- zulotik urten ezinda ikusi eban bidean. Laguntza-eske garrasika asi zan atsoa. Jaramonik egiteke aurrera jaraitu eban gure mutillak. Bakaldunaren jauregira zanean gaixoarengana eruan eben. Gaixoa sagar politei begira jarri zan, esku biekin bastartu ebazan eta iñoiz baño itunago lotu zan.

Bigarren anaiak lore polit-polit batzuk batu ta Jauregira daruaz. Onek, be, besteak lez sorgin zulo ber-bertan ikusi eban atsoa. Zarrenak baño jaramon geiagorik egiteke aurrera joan zan. Jauregira zanean lore politak eskiñi autsozan gaixoari, eta zer ziranik be ikusteke, bastartu egin ebazan eskuagaz erregiña gazteak.

Ezer be, aldean artzeke doya gero anai gaztiena. Sorgin zulotik laguntza eske egoan atsoa ikusi eta atara egin eban andik. Pozaren pozez asi zan barriketan atsoa orduan:

- Atara nozulako zer sari emon dagikezut orain?. Aberatserik nai dozu?.
- Nai ez ostera?. Orretarakoxe asmoz urten naz etxetik; Bakaldunaren alabeagaz ezkondu al izateko berari irri bate bat eragitekotan nua.
- Eutsi ba bildots baltz au. Eruan egizu zurekin eta izan beti zeurekin, ezeren truke ez emon bein be.

Ba-dua ba mutil gaztea bildotsa besoetan artuta. Gaberako bakaldunaren erriko aroztegi batera eldu zan. Baita ogea eskatu be. Ez ebela tokirik eta Abade Jaunaren etxean izango ete-eban, araxe juateko erantzun eutsen. Eta ba-dua abadearen etxeruntz; aren otseñak ondo artu eban; iñaurkia ta jatekoa ba-ebela ta bildotsa an beian itxiko ebela, eta mutillari gela bat emongo eutsoela. Mutillak ezetz, bildotsa aldamenian euki gura ebala. Ikaratu egin zan abadea, baña gure mutillak bere itzari eutsi. Azkenean zororen bat zala etsita bakoitxa bere gelara jua ziran; mutil gaztea bildotsa besuetan ebala lotaratu zan.

Goiz-aldea zan eta berarizko bildots aren barri jakin guraz urduri zan abade jauna. Giltzarrako-zulotik begiratu eban lenengo, baña ezin ezer ikusi eitean.

Polito-polito zaratarik egiteke sartu zan orduan gelan. Bildotsa besoetan artuta lo egoan ederto mutilla. Belarri batetik eldu eutson bildotsari abadeak eta "beka" asi zan bildotsa; esnatu egin zan ba mutilla ta abadea larri egoan iges egin nairik ... ez alperrik. Ezin ezelan be itxi bildotsaren belarria.

Zatoz, arren! biadarka ta garrasika asi zan orduan.

Diadarraren diadarrez esnatu ta arin-aringa, ule danak arro arro eginda, arrapataka jantzi daberen soñeko zulodun zarragaz dator otseña. Eta bere nagusiari lagundo bearrez, bildotsaren beste belarriari eldu eutson eta ezin laga geiago. Mutilla bildotsari tiraka ta besteak be ari elduta, irurak jira-biraka landara jua ziran. Baratzean, irazean, bere tayua ikusiaz lotsatuta, azaburu zabal-zabal bat artu eban abadearen otseñak eta ... soñeko zulu estaltzeko ipiñi eban. Eta zarrapastaka doaz errian zear Jauregi alderuntz.

Eta orra or, azea ikusirik eta jan nairik bide bastarrena ziran iru auntz yatorkoez. Eta aza trukutari ikutu eutsonean, beroni josita geratu ziran eta otseña, abadea, bildotsa, mutikoa eta auntzok ijutika abiatu ziran gero.

Urrinxoago, orduko jagita, ate ondoan egoan okiña eta "Zatoz, arren, eta askatu gagizuz" diadar egin eutson abadeak.

Ba-dua okiña ta au be eurai lotuta geratu zan.

Sutegian lanean inñarduan errementari bat ikusi eben eta txilioka.

"Gizon sendoa zara ta zatoz gu banantzera" dei egin eutsen. Ba-dua arin-aringa errementaria ta eurai lotuta geratu zan a be.

Urriñago euren itxuskiak eskuetan artuta ate-aurrean txutxu-putxu egozan andrazko bi.

Bata bestian onduan, danak pilluan etozan eta gizataldea ikusi ebenean, barre ta barre asi ziran andrazko biak.

Barrez egoteke gu banantzera ba zentoze obeto egingo zeunkie, esan eutsoen abade otseñak.

"Banantzera?. Ba-gatoz bagatoz", esan eta euron itzuzkiekin abere ta jendezko soka luzea jo ta jo asi ziran ... Ai baña! izuzkiak lenengo zapladan aldrakoei eta andrazkoak itzuzkiei erantsita geratu ziran.

Bide oker une baten eskutik txakurra euken itsu bat egoan. Gure dantza soka bizia ondolik igarotekoan zaunka ta zaunka asi zan txakurra ta andrazkuei aginka. Txakurra euren josita ta itsua txankurrari erantsita geratu ziran.

Eta ba-duaz danok zurrunbiloka eta jira-biraka geroago eta erregearen jauregirago.

Lorik ezin egin eta beti baizen itun lentxoago oetik jagita jauregiko leio aundi baten erdi jaita egoan bakaldunaren alaba errukarria ...

Mutil gaztea, abadea, abade-otseña, bildotsa, aza-trukuta, auntzak, okiña, errementaria, andrazko biak, txakurra ta itsua alkarri josita dantza soka ikusgarria ikusi ebazanean barre ta barre asi zan erregiña gazte gaixoa. Zoro baten antzera ixiltzeke algara ta algara egiten eban.

Arrapaladan etorri zan Bakalduna ta bere alabea barrez lenengoz ikusi ebanean poz-pozik jarri ei-zan. Baita laister bildurtu be, barre ta barre aspertuten ez zala ikusi ebanean. Bere jauregi aurrean ebiltzanak alabea zoratu egingo eutsiela ta, an ebiltzalako asarre-asarre egin zan.

Guztiak ilteko agindu eban eta aiztoakin bayayazan arin aringa gudariak.

Orduan mutil gaztea bat-batera gelditu egin zan eta beronen atzetik arin-aringa etozanak ankaz gora bata bestearna gañera jausi ziran. Ordurako baña, askatuta egozan danak. Eta gero -"Naikoa dozu?" esan eutson Bakaldunaren alabeari, diadar aundia egiñik.

"Beeka" asi zan bildotsa ta beingoan erregiña gazteari baretu egin yakon barre zoroa.

Bein betiko osatu zan eta illabete baño len, Erregeak lenago esan ebanez, mutil gaztearekin ezkondu zan. Erregiña, eta ume askoren guraso izan ziran.

## Azeria ta ontzi burua

Ba-zan bein azeri zar bat. Auzoko ollo guztiak jaten ebazalako, txakurrak begizatuta eieuken.

Beti zuloan sartuta egon ezker, baraurik egon bear izaten eban baña, il edo bizi, gabaz ta tatarrazka urtenaldi batzuk egiten ebazan.

Edu aretara bizi izatea ez zala egokia ta etxe euskaldun askotako semeak juaten ziranez, Ameriketara juatea erabagi eban. Bere buruaru etsita bizi baitzan.

Esan eta egin. Ba-dua azkar-azkar ontzi buruarengana ta onantxe asi yakon:

- Agur ontzi buru jauna. Niretzako lekurik ba-aldozu ontzi orretan?. Ameriketara jua gura neuke nik be ta ...

- Euki ba-daukat lekua azeri jauna. Bildur naz baña karutxu izango ez ete yatzun, ogei ontzako urre bear dodaz ta.

- Ondo da, Ontziburu jauna. Semeiko bakar bat bere ez dot nik neurekin izan. Eruen egin bear nozu baña. Txakur guztiak aurrean erabili nabe egunotan ta ez dago geiago neretzat bizibiderik. Eruan nagizu zeurekin eta ontzian naitenean ludian diranik iru egi aundienak esango dautzudazala itz emoten dautzut.

Iru egi aundienon jakin miñez ontzira sartzen laga eutson azeriari ontziburuak; jauzi batean igo zan azeria ta bereal urten eben. Ba-yoyazan aurrera, ibili ta ibili, urez-ur, itxazoz-itxazo, ta ontziburua egi aundien zain bati!. Azeriak barriz, mistik be ez.

Alako batez orraitino, azeria ta ontziburua leio batetik begira jarri ziran. Axe bai zala gau zoragarria!. Axe bai iretargi-zuri edarra! . Batbatera Ontziburuak: "Au dok izateko gaua, azeri!. Olako iretargi zuri ederrik!.

Bai bai, gauza ederra da, ontziburu Jauna, itargi zuria! Eguzkia ederrago baña (Lenen-egia).

Ba-yoyazan aurrerago. Azeriak bere buruz ezer ez autsola esaten eta asarre zan ontziburua.

- Itxazoz onako gau girotan ibiltea ez al yak atsegin, azeri?.

- Bai Ontziburu jauna, pozgarria da onako gau edarra. Atan be, baña, eguna nagusi! (Gibarren egia)

Juan eta jua, beti jua eta Ontziburuak bere kolkorako auxe iñoan:

- Jakin izan ba-neu jakin, ez nagan nirekin artuko, beti beti ixilik yagok eta!. Ameriketarakoan azeri guzurti biurria uretara botateko asmoa artu eban. Uretara botatea damu be ba-eban eta Ameriketako lurretatik urrean ziranean, auxe esan eutson aseriari!.

- Mistik be ez daustak esaten, aseri. Begiratu egiok, itxazoari. Zeñen edarra, zeñen barea gaur legorretik orren urrean!

- Bai, Ontziburu jauna, gauza edarra da itsasoa, baña lurra legorra nagusi.

Eta irugarren egi ori esan ostean, jauzika yoan zan lurrera.

Orra or Ameriketara Bankoko edo Aldudeko euskeldun azeria zelan juañ zan. Arrezkero Amerikar eginda zar-zar, beti olloz aseta an bizi ei-da. Egunean batez, bere azken aparian Judutar ibiltariak jango dabela esaten ei dabe.

## Zazpi lapurrak

Ba-ei-ziran bein batez anai bi. Ama il-barria yakoen. Eta egun batez dirua egin nai ebela-ta etxetik urten egin zan anai zarrena.

Anai gaztea etxean lagata, ogi aundi bat eta makillea eskuetan arturik aldendu zan erritik.

- Ago i emen -esan eutson gazteari urteterakoan- eta gauza guztiak ondo urtengo ba-leuzkidak ondo izango gintzakezak aurrerantzean.

Ibili ta ibili, beti ibili, lau edo bost egunen buruan baso aundi aundi bat idoro eban. Bere ogi astunetik kuskurra geratzen yakon orain eta artean diru gitxi irabazi al izan eban.

Eta orra basotik arrastaka etorran atso zar-zar, argal, oker errukarri bat ikusi eban.

- Ukarrtxo bat, arren, jaun gaztea, Jaingoikoarren izenez!

- A errukarria!. Zeu baizen beartsuari eskatzen dautsozu. Gure ama zanak -Jaingoikoak Berakin izan dagiala- gure apurretik be eskekoari beti emon bear yakola irakatsi ta esan oi euskun ... Eutsi ba ogi kuskur au! ta, gitxi danarren azketsi. Gogorra izango da, baña ez daukat besterik ene errukarria!.

- Milla eskerr, Jaun Gaztea. Ba-daki Jainkoak zure biotz onaren barri. Nora zuaz baña orrela?.

- Neuk be ez dakit ... Al baneu, dirua irabaztera. Ez ete dakizu niri esateko, dirua-izenako neskatila ori nun danik?. Pozik esango neuzkioz ba gauzatxo bi.

- Eta neskatilla edo andratxo ori neu banintz?. Jaungoikoak on-egite bat be ez dau isten saritzeke. Ona emen zuk egin bear dozuna. Baso sakon onetan ba-da Jauregi edarr bat; egunez pelotan eta gaez lapurretan egiten dabon zazpi anai bizi dira jauregi ederr orretan. Zoaz jauregiruntz. Ara orduko lertxun zuzen zuzen bat idoroko dozu ta, igo zaitez aren gañera. Eta orduan erriko pelotaleku aundia zeure aurrean ikusiko dozu. Ondo begiratu egizu, eta zazpi pelotariak pelotan ba-diardue, nasai-nasai zuaz ta jauregian sartu zaitez. An amaika gauza eder ikusiko dozu, artu egizu nai dozun guztia, bear diran lez erabili baña. Gauza areik dan-danak ostutakoak dira, ta illak dira euren jaubeak. Zazpi anai oneik il ebezan basoan.

Itz oneik esan ezkerro eskutatu egin zan atso zarra eta mutil gazteak agertu ta eskutatu zana, Miren Ama ber-bera izan zala uste izan eban.

Juan zan ba, basoan zear eta ordu erdi baño len Jauregi ikusgarri baten aurrean zan eta aitaturako lertxun-luzea ikusirik, igo egin zan aren gañera.

Atsoak esan eutsonez begiratu eban urriñera ta bat ... bi ... iru ... zazpi lapurrak pelotan iñarduen. Aren poza orduan.

Jatxi zan beingoan eta jauregi ederrera sartu zan. Zaldi toki zabalean zazpi beorr bata bestea baño ederraguak ikusi ebazan etzunda.

Barrurago sartu ta gauza ikusgarriagoak ikusten ebazan aurrean. Urre zidar, ta arri ederrai begira euretatik begiak kendu eziñik egon zan luzaroan.

Azkar ibilli bearr ebala gomutaratuta, urre, zidar ta arri ederrez eskutadak amar zaku edo bete ta, politenatariko beorr bien gaiñean eruan ebazan amar zakuok; iñok ezagutu ez egiazan anka biak zapiz batuta, azkar aldendu zan.

Bai arritu zala anai gaztea bost edo sei egunen buruan zaldi areikin etxeratzean!

Anai zarrak yazotako guztiaren barri emon eutsonean, anai gazteak be diru billa juatea gura izan eban.



Tomo VII. On Jose Mariaren euskal idatziak

LIBRO 13°

T.U. Lankideko euskarazko lanak

## Índice

- Baserriaren iraupena. Abustua 1968
- Barritsuak eta barriketak. Irailia 1968
- Lankiden Auzo-Aurrezki Ontzia. Urria 1968
- Nor gera gu, zer gera gu?. Azaroa 1968
- Egunotako marmarrak. Abendua 1968
- Gizonki ta euskaldunki. Urria 1969
- Azkatasun-izpitan argitu-artean. Otsaila 1969
- Berezeki ta naroki. Martxoa 1969
- Sustartsu ta guri izan dedin gure erria. Apirila 1969
- Askatasun-miñetan. Maiatza 1969
- Gernikako arbola ta piñadiak. Ekaina 1969
- Zarrak eta gasteak leen, orain eta gero. Abustua 1969
- Gabiltzan zur. Iraila 1969
- Eusko-jokabideak. Azaroa 1969
- Astodun eta zaldun. Abendua 1969
- Erri-zale ta askatasun-miñez. Urria 1970
- Senideen deia. Otsaila 1970
- Nekazarien buruaustek. Maiatza 1970
- Nekazarien buruaustek. Ekaina 1970
- Arrasateko giroa. Abustua-iraila 1970
- Aztertu bearreko gauzak. Azaroa 1970
- Etxaldea. Urria 1971
- Burubidek berriak ala burukeri axetsuak. Martxoa 1971
- Danok danon bearrean. Apirila 1971
- Errudun. Maiatza 1971
- Umeak eta zarrak. Uztaila 1971
- Leenago, orain eta gero. Urrilla 1971
- Gizatasun-jokabidea. Azaroa 1971
- Jokabide barri-billa. Abendua 1971
- Gizatasun-jokabidea. Urtarrilla 1972
- Ixil-eskutuka. Martxoa 1972
- Baimeneka. Apirilla 1972
- Erdiz-erdiz. Ekaina 1972
- Penagarri ta igungarria. Irailla 1972
- Aldakor ta zintzo. Urria 1972
- Erria aotan eta bakoizkeria kolkoan. Azaroa 1972
- Izakera zaarrak gaurkotu. Abendua 1972
- Sakonago ta trebeago iñorentzat. Urtarrilla 1973
- Alkartasuna orain eta gero. Martxoa 1973
- Alkartasun-oiua aldaketa-bidea. Apirilla 1973
- Lan-Kide. Maiatza 1973

- Lan-Kide II. Ekaina 1973
- Ogibide ta askatasuna. Uztailla-abustua 1973
- Lan-Kide V. Urrilla 1973
- Urte zarraren agurra. Abendua 1973
- Aundikeri kutsutan. Ekaina 1974
- Beti pentsakizun barrietan. Uztailla-abustua 1974
- Onetan orretan: ekin egiten. Urria 1974
- Ezin dana baten eta batera. Azaroa 1974
- Bizikera barri-billa. Abendua 1974
- Jauntxokeria-kutsuak. Abuztua 1975
- Erri-miñez. Irailla 1975
- Askatasuna ta alkartasuna. Azaroa 1975
- Aurrera tinko eta trebe, alkartasunean. Abendua 1975
- Gazteok beti trebe. Urtarrilla 1976
- Elkar bidean aurrera begira. Otsaila 1976
- Beso eta biotz biak bat. Martxoa 1976

## Baserriaren iraupena. Abustua 1968

Europa're begira baserriaren iraupena onetanxe tinkatzen'da, nere ustez.

Baserriak espezializuak izan bear dute.

Batzuek baratzean, ortuan, izango dute etorkizuna.

Baiña beiak euki nai izan ezkeru gure baserrien lurak txikiegiak dira errentableak izateko. Europa'ko beientzako baserriak amasei hektarea dauzkate, gutxi gora beera. Ontara irixteko baserri ustuen lurak jarraitzen duten baserrientzat izan bear dute. Baserriko lurak orain baiño aundiagoak izan bear dute, baserriak iraun nai baldin badute. Nola?. Bakoitzak pentsa dezala.

## Barritsuak eta barriketak. Iraila 1968

Zenbat eta erreztasun geiagokin bizi garan orduan eta geiago eruan bearco ditugu barritsuak eta barriketak. Onetan gaur aldizkingi ta izparringiei begira asten ba-gara laster arkituko gara eruakizun onekin. Autu korapillotsuenetan eta sokonenetan edoseñek diardu ta besteei erakusbideak emoteko ez dau eragozpenik sentitzen.

Kooperatiba sailietan beste arazoetako antzez auxe jasoten da. Batetik asko pozten gaitu kooperatiba arazoak azaltzaille asko izateak naiz ta beste batzuetan min artu astertzeko edo jakiteko edo ikasteko ardura gitxikin jarduneak.

Geienetan sail onetan mingarri izaten dana auxe da: ezer egiten ez dabenak edo gitxien egiten dabenak zerbait egiten dabenei kontuak artu bearra. Besteai kontuak artzeko orduan zorrotzenak eurak, gitxeien egin izan dabenak, izan oi dira. Besteai eskatzen jakona zenbat bakotxari kostatzen jakon dakienak geienetan begiratsuguak izan oi dira.

Zirrotsa ta ziatsa izan nai dabenak ikasi begi norberanetan eskuzabal ta biotzbera izaten. Besteak zer egiten ete daben arduratsuegi dabillanak izan lezake bakoitzarenetan atzeregi ibiltea, norberanetan nasaiegia izatea. Alkartasunik ez da sakontzen norberekoikerietan indartsu dabillenen artean.

## Euskaldunki

Bai. Euskaldunok euskaldunki jokatu bear dogu geure izatea ukatu gabe. Baña euskaldunki jojatzea zer dan aztertu bear dogu.

Euskaldunok ez gara bizi bakarrik euskalerrian: emen baño kanpuan, beste errialdeetan geiago bizi gara. Orretan ez gogoz bakarrik: Euskalerrian euskaldunetan beste bizi dira beste endakoetan.

Euskaldunontzak ¿eratsu danez jokatzeta zer da?.

¿Euskaldunki jokatzeko zer da egin eta erakutsi bear doguna euskaldunok?.

¿Zer izan da munduan zear euskaldunoi entzutea ta onartzea merezi izan dauskuna?.

Importantzi aundia emon izan dautsagu guk eta gu beste lurraldeetan onartu gaituenai gaur importantzia emoten dautzeguen beregaiei?.

Edonun ekandu izan gara euskaldunok eta edonun onartu izan gaituenean, zergaitik izan da?. Zuria edo baltza, orixka edo gorriska izateari importantzia emon dautsagulako?. Emen gure artean gure izate bereziari begiratzuz gaurkoz pozten gaituana ez al da izan geure arteko bardintasun-zaletasuna, alkarrenganako begirapena, zuzentasuna?.

Euskaldunki jokatzeta zer da edo zertan ipini bear dogu?.

Batzuek morroi, mendeko edo giza-sasdikitat artzea?.

Gure artean beste tokietan guretakoak gobernatzerik onartu ezin genezaken erara kanpotarrak tratatzea?.

Gaur Euskalerritik kanpora emen bai euskaldun geiago ba ditugu, izan lezake emetik urte asko baño len oraindik geiago izan bearra. Euskaldunki jokatzeko aurrera begiratu dagigun eta aurrera be gu eta gure tartekoak ondo izan gaitezen zerk kalterik aundiena egingo dauskun aztertu dagigun.

## Aurrera beti

Ondo da aldan artean zarrari eustea baño iñoz be gero palta egingo daukunei utsi gabe.

Geruago ta geiago, ez bakotxak deritxon modura baizik ingurukua izan daikkeen bizikeraren erara bizi izaten ikasi bearra dau.

Gaurko munduari izakera emoten dautsen aukerak nundik datozen edo zerk sortzen dituan begira dagigun burubide ta jokabideak.

Onetan ez daukagu beste biderik zerbait al izateko alkartasun sailletan aurrera egin baño. Alkartasunik ezin lezake indartu bakoitzerik bastatzen ez danean. Bereizkeri zaletasun aundiena dogula dirudi gaur gure artean. Kutsu kaltegarria dogu guretzat bereiztasun-gogo au.

Atzerritarki era askotara jokatu genezake.

Euskaldunok dogun entzute ona galtzea atzerritarki jokatzeta da.

Aurrean dakusgun munduak eta bizikerak gizonari, bai lan egiteko, bai gizabidez jokatzeko eskatzen dautsana lortu gabe iñor gure artean atzeratzea, atzerritarki jokatzeta da.

Atzerritarki uste baño geiago ibilli genezake euskaldunki gabiltzalakoan.

Penagarria iristen badautzagu orain arte emen bizi izan bear eben askok ogi eta bizibide-billa kanpora urten bearra izatea, aztertu dagigun lenago zergatik beste lurraldeetara juan bear izaten eben eta ez dagigun aztu oraindik orrela jokatu bearren izan lezakezala gure ondorengiak.

Euskaldunki jokatzeta sail eta ongari askori begiratu bearra dakasgu.

Atzerria aldiari daruagu, tartean daukagu Alkartasuna, tenika eta beste aurrerakuntzak lantzen ez baditugo: morroitzari iges egiteko ez danentzat atzeririk iguingarriena etxean bertan izan lezake.

## Lankiden Auzo-Aurrezki Ontzia. Urria 1968



## Alkartasun-bide

Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzia, erderaz Caja Laboral Popular deritxayon bazkunde edo alkargoa besterik ez da. Ez da barrikeriz sortu alkartasun-ariz baño. Alkartasun-egarria izan da kooperatibak sortuarazi dituan espiritua ta alkartasun ariak lotzen eta indartzen ditue kooperatiben gogoak.

Industri ta ekonomi arazoetan aldakuntza aundiak gañean dituguna ez dakianik ez dago eta sail onetan dabizen gizonak lenetan barri-zaletasun eta aldakuntz gogo barik ikusten ditugunok ezin genezake urduritasun eta jokabide barrietan pentsatu gabe nasai egon.

Alkartasun oiua ez da urdurien kezka baizik gizon elduen eta sakonen deia baño. Bakarrik gitxi al genezake: ondo dakigu au. Norberekoi jokatuaz ñorekin ezin eratu gure burubideak. Gaur ezin lezake jokabide egokiagorik eta unuragarriagorik aukeratu Alkartasuna baño.

Alkartasun-bideak giza-bideak ditugu: alkartasunik ezin lezake eldu edo loratu zuzentasun, zintzotasun eta egi-zaletasun gabe: giza-jokabideak dira kooperatibak zalegarri egiten dauzkuezan errazoiak.

Alkartasun jokabidea onartzerakuan gizonak alkartasuna indarririk eta aldaketariz bear dan maillaraño eruatiak onik baño ez dauka. Orixegaitik oraingoz langilleok Lankide izatego erabagiertara jo dogu ta geure Lan-alkargoak edo bazkuneak zortuarazoten asiak gara.

## Lankide

Gure lurraldeak aldatzak, neketzuak eta antzuak izanarren landuaz ernearazi ta onuragarri biurtu ditugu: bardin gure itxasalde ezikaitz eta garratzak menderatu ta edergarritu doguz lanaren bidez. Lanak eta langilleak onuratu ta jantzi daukuez gure bazterrak. Danok ikasi dogun beste ikasbide bat auxe izan da: lana zenbat eta alkarrekin obeto eratu orduan eta erosuago ta unuragarriago egiten dogula: alkartasun-legepean aretu ezkerro ñoren morroitzak erretzago ulper-erazi genezakezala. Orixegaitik oraingoz langilleok Lankide izatego erabagiertara jo dogu ta geure Lan-alkargoak edo bazkuneak zortuarazoten asiak gara.

Ugazbarik gura ez dogunok eta morroi izan ez nai dogunok konpromiso andiak artu bear izan ditugu ta arriskueta sartu. Burubide oneigaz eta onela pentsaten dabenak ugarituak gure errietan lanbideak eta ogibideak beste era batera sortuarazi izan bearko doguz.

Ñoren mende ta ñori begira bizi ez nai dogunok aurrera egin bear dogu gertatuaz bizikera barriak indartzeko ta orretarako alkartasun-oñarriak sakondu ta zabaldu.

## Auzo-Aurrezki

Gaurkoz danok al deikegunik auzo-laguntzarik onenatarikua ta alkartasun-alde onuratsuenetariko bat aurrezki-oidez opa genezakena da. Gitxi edo asko zerbait danok aurreratu geinke: era batera ez bada bestera danok gara aurrezkilariak. Aurrezkilari izatea azi-emoille izatea da. Azia azi danez azitarako gorde ta emoten dabenak gitxirekin asko egiten dau. Aurreratzen dan dirua azi biurtzen da eguneroko ogi edo kastuetatik berezituaz sail edo ekiñaldi barrietarako ontzitzean. Aurrezki orreik geroko ta ingurukuen onari begiratuaz darabilguzanean auzo-laguntzan ari gera.

## Lankideen ontzia

Lan-alkargo edo bazkondeak egin dituen lankideak lan-alkargo edo bazkonde oreen artean alkartasuna sakonago egiteko eta zabaltzeko asmoagaz sortuarazi dabe Ontzi au.

Ez da bakarrik lan-alkargoen artean alkartasun malla barriak ipinteko: bazkunde onen bidez auzoak auzuei, nekazariak itxasgizonei edo industri-sailletakoak batzuei eta besteei, ekonomi sail guztietakoak izan dagien alkarri obeto laguntzeko errestasuna. Ez bakarrik aurrezkiagaz baita gizonen jakite ta zurtasunakin be.

Ba-dira beste Aurrezki Ontzi batzuk be, baña au Lankideak euren erantzunpepean eta burubidez egiñikoa da.

Ez dogu esan nai beste Aurrezki Ontziak baño obea danik, onuragarriagoa izango danik; ori danok ikusi ta aztertu al izango dogu denporaz. Oraingoz gizonok gizonongan eta geure alkartasunarengan uste ta itxaropen onik ba-daukagu besteek egingoari begira ez gadizan egon: bakotxak eta orretan ustea daukagunok jo dagigun aurrera.

Aldakuntzak gaiñean ditugu eta oraindik gaurkoz onartu nai ez ditugunak onartu bearrean izango gara luzaro itxaro bear izan gabe.

Lenagoko arietatik urteten ez badogu edo bide barriak zabaltzen nagi bagabiz zail izango da gogo-miñik gabe bizi al izatea.

Gure biotzetan sustar sakonak dituen asmoai iruzur egiterik nai ez dogunok sail barrietan ekin dagiogun gogotsu.

Gaurkoz gure arrialdean dogun alkartasun saillik onuragarrietarikoa Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzia dogu. Bere besoak eta biotza zabalik dagoz bazter batetik besteraño ta lankideen malla ta sail geyenetan.

Garbi ta zuzen alkartasun-alde, alkartasun-bide.

## Nor gera gu, zer gera gu?. Azaroa 1968

Oraingoz geienok iraulkuntza edo rebozuziño-alde gagozala dirudi gure tarteko marmarrei adi jarri ezkeru. Aldakuntza-min eta zale agertzen ditue euren buruak ikasleak, langilleak, apaizak eta edonork. ¿Egitan ala azalez?.

Auxe ez da errotza ondo jakitea. Iñoren kontura edo norberaren ezertariko aldaketarik barik egin lezaketan gauzetan izan lezake geienok iraulkuntza-alde trebeak izatea. Naiz aldakuntza sakonak nai azalak izan, bakotxak bere oituretan edo zer ikusietan galdu-orde edo aldatu bearrik izaten badau, iraulkuntz alde agertu oi-diran taldeak laster gitxituko dira. Au be egia da, egunoro edonun agiri dan egia.

Ikasleak ikasten dabiltzan arte alkartasun eta rebozuziño-alderdiko gizon-zintzo dirudienarren lanean asterakuan bakotxak here "tituluari" geiago begirutzen dautza ingurukuenakiko alkarteari baño.

Langilleok alkarte barriak sortuarazi izan arren gure alkarte orretan ondo letorkiguzan barrikeri batzuetarako geure eragozpenak izaten ditugu, aldakuntza sakonaguak onartu izanarren aldaketa azalak atzera eragiten dauskue. Geure geureak diran lantokietan geuk jarri ditugun agintariak, zenbat denpora galtzen dabe alkartearen onerako diran auto sakonak erabagiten eta zenbat utsalkeriak atontzen?.

Jaso ezindakoak ez dirudien aldaketa batzuekaz geure aurrezkiak eta geure jardunak onuragarriagoak izango litzakiguz, baña aldaketa orreik asmo betegarri utsetan galditzen dira. Osagilleak lanean jarraitu al izateko urdailla beteegi ez dala egin bear esango dabe ta ondo izango litzakela jatordu ariña egin eguardin denporia obeto baliatzeko. Beste aldetik ekonomistak bardin agertuarazoku dauskue beste era bateko janorduak onartu ezkeru, jantokiak egiten edo jatekoak ipiñi ta emoten dabilguzan ainbat langilleren alegorak ikastoki edo jolastoki edo irakasle edo olako sailletan onuragarriago izango gendukezala, baña guk aldakuntza orrein alde eragozpen geiago daukagu borondatea baño.

Gure lana onuragarriago izan deikegun gure lan-makiña ta tresnak aldika lan eguiñaz beste gabe ordu geiagotan erabili arazoaz unura geiago izango dogu. Aldika lan egiteak izan lezake bere okerrak baña batez be aldaketa bearra dauka geure oitura edo izakeran. Aldaketa-min ez garalako ez dogu orrelako jokabiderik aurrera eruaten. Onetan, be, osagilleak edo dakitenak alperrik agertuaraziko dauskue aldi-aro bakoitza ondo letorkekigun obe dala illean beingoa izatea asteen beingoa edo egun biko baño; iraulkuntza sakonen alde gagozarenarren aldaketa azal onetan eragozpen aundiakin topo egiten dogu.

Egunotan apaizak dabilguz aotan eta esan leza oneik be geionok aldakuntza-alde dirala. Bai, ba-dirudi Konzilua bera be atzera geratu dala batzuei entzun ezkeru. Baña guk geure inguruan ikusten ditugun aldaketak ez dira ezer. Naiz ta batetik dirudian kalendario osoa aldatu min dirala, bestetik gure erri ta auzuetan betiko oiturak, lenagokuak, sustartsu dagoz. Parroko bakotxak aldaerazi lezakezan gauzak edo oiturak eta eliztarren artean unuragarri izango litzatakezanak beti lenetan dagozan artean ezin genezake sail onetan bear gendukezan aldaketak ez dirala egiten gotzai edo nagusiaguen eragozpenez.

Geienok gagoz iraultzakunde-zale baño barriketari trebeago.

Ez dagigun geure bururik iruzurpetu.

## Egunotako marmarrak. Abendua 1968

## Beti gizonki

Gizonki beti jokatzea ez da dirudian baizen samurra.

Orretarako gaurkoz ondo dirudien izakera bati baño geiagori uko egin bear jakue. Burubide barriak onartu bear ditugu.

Gizaki sustarrik sakonenak usteltzen dauskuz ondo-bear zaletasun ariñak. Ondo baño obeto jantzi, jan eta izateko ondasun-miñak aritik aterata gabiltzala dirudi. Obeto iza-gurea txarra danik ezin esan genezake; orretan alegindu bearrean gara danok; baño ondasun-miñ eta egarri asekaizak zenetik atera ta gabiltzaz geienok. Bat naiko dogunean bi nai ditugu; bat baño besterik bear ez danerako bi edu iru geureganatu nai ditugu, naiz ta alperrikako gauzak izan edo euren bearrizanik izan ez.

Onsasun-miñez asekaiz eta eten ezin leikegean sailletan nastuta garabillazan bizikeraren-alde jarririk gagoz geienok. Zorakeri ariña besterik izango ez litzaken kutsua bidegabekeri iguingarri ta bizikera gorrotagarri biurtu da. Onela burrukazale dirudien ikasle ta gazteak aserre-bizi izateko ta gure giza-izakera itzultzeko burubide onetan ez dabiltzanik ezin esan genezake.

Gizon elduen erara gabiltzanok gizaki jokatu al-izateko jokabide barriak sintzat artu bear ditugu.

## Zeintzuk jokabide

Umeak aotan arturik eta umeen amesei erantzun guraz ¿zenbat gauza egiten ditugu jai onetan?. Umeen amesak baño aurretikorik ez al daukagu umeai eurai on egitea nai ba-dogu?. Ondo al deritzaiguke batzuek ameserik alperrekoenak betearazi al izatea ta bestetzuk eurei jagokuen erako ikastolak izan al izateko eskean ibilli bear izateari?.

Umeen eskubide sakonai erantzuteko eskean egin bearrean dagon gizartea giza-bide zuzenean al dabil?. Jokabide orreik onartu al genezakez?. Ez al dausku orrek miñik emon bear eta orretan jokutzen dogunok itzarrerazi?.

Egunotan jostailluetan emoten dogun diruakin bakarrik era guztietako ikastolak eratu al izango gendukez. Orretan alperrik asko ertzen dogunik ez oi da entzun naiz ta palta egiten daben ikastola ta beste sail batzuek aurrera eruateko geiagorik bear izan ez.

Gizonki jokatzea umeak gizon izateko sailletan aurrera juateko egokitasunak ugaritzea da. Saldu ezin beste jostaillu egiten umeentzat darabilgun artean umeak gizon egiteko ta gizon izateko dituen eskubideak ornitzeko eskuarterik ez. ¿Onelakoa izan aldaike giz-izakera bidezkoa ta onuragarria?.

## Zuzen-bide gabe ezin al daike giza-biderik

Giza-eskubideak onarazteko ez daukagu eskuarterik eta burukeririk alperrikoenak beterazteko bai. Izakera au aldatzea baño egin-bear aurrenengorik izan al daike?. Iraultze min biziagoa bagendu obe genduke danok. Gure gaztediak gizarte-aldaketa-alde izateko ez dau palta oñarririk. Ez begi orretan aspertu.

Ba-dakigu batzuek zer esango daben ezer apurto edo ausi baño len zer egin bear dan ondo aztertu ta eratu bear dala. Zer eratu legike traban dagona bota barik?. Ezin onartu al deike ezelan be jokabide au traban dagona kendu-arteaz ezer palta danik be iñork edo gitxik onartu daikenean?.

Alan ez dirudiarren burukeriz diarduela dirudienak gizonki ta gizonki jokatzeko dabelakotan dagozanak umeki, ez al gabiltz?.

Zuzentasuna, egia, askatasuna ta alkartasuna bearrekoak ditugu ere ondo dagikegun. Nortzuek dabilk orretan zintzoago?.

## Gizonki ta euskaldunki. Urria 1969



## Giza min

Giza-min eta euskal-arnas zaleei ekonomi-arazoen aipatzea dabilten burubidei aurrerapidea emoteko baño uxatzeko ohea dala dirudi, batzuen eritxiz. Ekonomi-autuak diru-zitzak eta aundikeriak jota dabilzanentzat egokiagoak dirudie. "Materialismo" zikiñean murgilduta ez al dabiltz geienok?.

Ekonomi sailletan arduratsu diarduen kooperatiba-zaleak, ez al dakusguz giza-min eta euskal-arnas zaletasun edo ardura gabe?.

Egia al da?.

Giza-minberatuok eta gizatasunek geure jokabideak eratu nai ditugunok, gizonki jokatzeko oiuka edo beran-bararizko kutsu billa ibilli bear al dogu?.

Gizonei alkartzeko bideak zabaldu eta alkartasuneko jokabidetan-zear euren arazoak eragabiteko bultz egiñarazotea, ez al da gizonki jokatzeko?.

Iñor aintzat artzeke ta bakarti baño gizarte-arazoak eratu ezindako bizikeari eustea, ez al da gizatasun-egarriak izan daiken gizarte eragozpenik kaltegarrietarikua?.

Azkatasun-oiak gizatasun agerpidetzat artu daikeguzan alkartasun-miñetan eldutakoak izan bear dabe.

Kooperatibak alkartasun bidez lanbideak onuragarritzen eta ogibideak sortuarazoten diarduen ezin ukatu genezake gizatasun-alde dabilzanik eta gaur dagokigegun askatasun-miñari erantzueten ez dautsenik.

## Ekonomi-saillak gizatasunez kutsupetseko

Ekonomi-arloetan gizonok askotan edozetariko izaki uts edo abere bagiña bezela oinpetuak izan gara. Batzuen irabazi-egarri asekaitza, beste batzuen aundikeria edo zikizkeria ta ekonomiarazo edo lansailletako jokabide biurren ondorenen barri danok dakigu. Gizatasun gabe eratutako saillak izan dira.

Kooperatiben burubidez ekonomi-sail orreik arazo orreitan zer ikusi daben danen gogoz ta begirapenez eratu bear dira. Ona emen kooperatibak dakarguen onura bat. Kooperatibak giza taldeak diranez ta taldeko guztiak erabagikide diranez gizatasun-bidean gagoz danak edo geienak gizakaitz izan ezin daikenez.

Alkartasunetan sortuarazi daikezan burubide edo jakabideak berez izan daikez gizarok edo giza bera. Alkartasunak garuaz gaizatasun-jokerara bakartasunak bakoizkerira bezela.

Kooperatiba-arauak gizarozteko onuratsuak ditugu. Gizatasun-oiuka baño gizatasun-alde geiago egingo dugu alkarrenganako begiratutusuguak izaten ikasten badogu.

## Morroitza latsa

Azkatasun gabe gizonak ezkin jokatu daike.

Azkatasun-gogoia beste edozein gogo baño sustatsua ta sakonua da. Azkatasun-gabe bizi baño il naiago izan daben asko dira gizaratean.

Baña bakarti azke izateak ezin ase daike gizon danaren gogoia. Bakarti azke izatea basati izatea baño asko geiago ez litzake ta gizonki jokatu nai dabenak norbere azkatasunakin ezin ase daike. Tartekoan edo ingurukuen azkatasun-miñez jardutarra izan oi dau. Azkatasun-zaletasunak alkartasunera garoaz.

Alkartasuna ta azkatasuna gizatasunaren agerpen ito ezindakoa dira. Kooperatibak alkartasun-bidez azkatasun-alde diardue morroitza geienori iguingarri ta astun egin lezakegun sailletan. Lanbide ta ogibide sailletatik morroitza uxatzen.

Badakigu gizonok azkatasuna sail guztietan bear dogula. Baita era askotara eratu dezakena be. Gura erria indartzeko gure gizonak indartu dagiguzan. Gizonaren eskuartetik onenatarikoa lana danez lanbideak eratu ta lanbidetatik otseintza edo morroitzak uxatzea egingo onuratsua da danontzat.

Euskalerrian baño euskalerritik kanpora asko be euskaldun geiago bizi garena gogoratzekoan ezin aztu generazake lenago, orain eta geruago be gure tartetik iges egin bearrean asko izango dirala ekonomi sailletan gure erriari indar aundiagoa emoten ez ba-dautsagu.

Euskaldunki jokatzea ez da soño erretza. Soño gozoz bizikera garratza ixan genezakez. Oiu egiten baño zintzotasunez jokatzen geiago alegindu gadizan.

"Suzentasun-miñez eta zintzotasunez alkartasun-bidez azkatasun alde" dirauskugu" kooperatiba-turutak.

Ez al da geienok onartu genezaken gogoat?.

## Kooperatiba autuak

## Jardun eta egin

Kooperatiba autuetan egunean baño egunan jakin min eta zaletasun aundiagoaz gabiltza itxura danez. Gizarte ta ekonomi sailletan zerikusi aundiak ditugunez onuragarri deritxogu danok adi jokatzeta ta orretarako ondo dago autu onetan danok interesatzea.

Kooperatibak oraintsuko asmaketak ez dira (baizik) antxiñakoak baño. Ondo dago lenagotik ditugun ikaspideak kooperatiba arazoetan ingurukuei jakinerazotea. Baña batez be gaur zer egin genezaken oraingo gizarte ta ekonomi saillei begiratzuz obeto izango da.

Aztertu dagigun zertarikua dan gure alkartasun miña ta alkartasun jokabideak zelakuak izan leikezan. Aldakuntza sakonen bearrean gara gizarte auzietan eta ikusi dagigun kooperatibak zenbateraño unuragarri izan daikezan gogoan ditugun aldakuntz-burubideak egiñarotzeko.

Ez al dogu askotan geure bururik edar egiten aldakuntz sakonen autuak astindurik naiz ta bakotxak geuretik ezer egin ez?. Bakoitzak iñoren alde egiteko daukagun borondatea ez dagigun neurtu zenbat barriketa ta asmo barri erabiltzen ditugun ikusirik baizik bakoizkeria zapalduarik eta norberanetik iñoren alde zenbateraño eltzen garan asterturik.

## Alkartasunkeria

Bakoizkeria ez da ona baño alkartasun-miña alkartasunkeri biurtzen danean aurrera baño atzera geiago egin dogula dirudi. Auzo-gizon izateko bakoizkeri geiegi daukanak be zozialista zintzotzak euren buruak.

Zozialista izatea erretza dala dirudi edosein agertzen jaku zozialista burubideakin eta. Askok uste dau lankideen arteko diperentziak edo gizarte-sailletakoak ez dabela importantzirik eta batek bere burua zozialista egertu-arazi eskero batak besteakiko arazuetan norberari deritxanez jokatu al lezakela.

Geure buruak edartzeko ta besteen aurrean lotsarik gabe agertu al izateko naikua dirudi zozialista dala edar egin ezkeru. Benetako zozialistak oneitariko asko makillakin gogoz astintudio leukez zozialismoa kakaztu besterik egiten ez dabelako. Alkartasun izpirik gabe ta norbereikokeriz beste gabe bizi ta jardute dabenaz beste iñor baño zozialista zintzoagotzat agertu naiean dakusgu.

Jokatu dagigunrintzo ta garbi. Giza-maillara eltzen ez garenok ez dagigun pentsatu egizko alkartasun-min gabe gizonki jokatu genezakenik. Bakarti dabillena ez dabil gizonki. Bakartia da besteen arietan ta besteak onartzen dituen mailletan ibiltzeko gogorik ez daukana.

## Murmur eta asarre

Entzunda daukogunez oso asarre ei dira gure patrono batzuek eta Kooperatibak itoten ez badira gure erriak ondamentira ei duaz. Gure erriak ez al dabe euren etorkizina galbidean jarri erri onetariko patronuak euren irabaziak lantokiak obeto jantzen eta ornitzen baño euren aundikeri, maña ta burualdukeriak betetzen bein baño geiagotan?.

Dana dala lanbideak aurrera eruateko, gure langilleak ogibide onak izan dagiezan eta gure erriak euren buruak jaso al izan daikezan bearrekoa da danok, langille ta ugazaba edo ugazaba gabe izan nai dogunok alegin guztia egin dagigun lantokiak obeto eratzeko eta geruago ta produkto obeak eta mekeagoak sortuarazi dagiguzan aurrerapiderik beste eratan ezin izan genezake-ta.

## Azkatasun-izpitan argitu-artean. Otsaila 1969

## Beti gizonki

Gizontsuago izan al-gagizen sail sakori begiratu ta arlo bat baño geiago erosutu izan bearko ditugu. Lenengoz kuskur edo mamin erabatekoagaz asekorrak izan giñeikez egizko gizatasunak eskabide asko ditukenez. Jan eta jantzi, lan eta jolas, egon eta ibilli, erti ta pilosopi, erlejiño ta sabel-min, danen egarri ta gose izatea da gizon dan gizonari dagokiona. Orretan gizonki jokatzeko buru ta sabel, anka ta beso, danei adi-bearren izango gara.

Arazo bakarrakin asekaitez geranez ta bakarti dagigunez tinkotu eziñak izanez ikusi dagigun zeintzuk burubide ta egingo dakarkiguen jokabiderik egokiena edo geienok onartu gegikeena, ta unuragarrien izan daikeguna.

Onetan, ez al da lana bakotzak bere gose ta egarririk sakonenari erantzuteko izan deikegun egingoa, nai norbere burua landu ta ornitzeko nai ingurukoei eskua emoteko ta laguntzeko biderik zuzen eta onurakorrena?.

Lan-arazoetan buruauste ta burubiderik geienak oñarriturik gabiltzanok, gaurko, biarko ta betiko giza-sail ta gizabide zuzen eta garbietan gabiltz nai ta batzuek giza-sail ta gizabidetzat onartu ez jokabide oneik.

Lanean eta lanarekin bakarrik iñor itoterik ez genduke nai baña amesetan edo bakoitzari norberetzat ondo deritsoen jokabide bakarretan biotzaren onduan sabela daukaguna edo urdaillaren gaiñetik burua dogunik aztuta bizi-arasotzerik be ez.

Kooperatibatarak ames-izpitan dakuskugun gizonari barik danon antzekoari dagokionaren eske taburubideai erantzuten ari gara. "Materialismo" gabeko "espirituei" barik soiñez ornidu edo jantzitako "espirituei" begira; gizontasun-billa giza-arloetan: gizonekin gizaki.

## Nora guakezen

Kooperatibatarrok teknika ta ekonomiz buruztuta ikusten gaituen batek baño geiago ezin dabe ontzat-artu burubide au eta giza-sailletik bidekaturik ete gabiltzan bildur dabe.

Mundo zabalera begiraturik eta ainbeste lurraldetan gizonak alkarrekin burrukan ikusirik, geienetan edozekin sakabanatuta baña beste aldetik danak ekonomi ta teknika bidez geureganatu gengikezan eskuarte ta gauzen-billa ta egarriz, ezin esan genezake ekonomi ta teknika arloei inportantzi emotea burubide ariña danik.

Gizonok gose, egarri, gaixo ta alperrikako morroitzarik asko uxatu al izateko eskuarterik ez daukagunik ezin onartu gengike. Egingo ta jokabide orretan bat egiten ez badogu, teknika ta ekonomi arlo ta arazoei baño soilago unurakaitzago diran ardurei geiegi adi dagiogulako dirudi.

Teknika ta ekonomi arazoak aurrean arturik gabiltzanok gira-sailletatik urteteka ta gizabide-billa gabiltz nai ta beste arazo ta arlo batzuek be landu bearra izan; beste arlo batzuek landu, ainpatu edo onartu bear ez diranik ezin esan genezake baizik malla ta sail orretara egoki ta unuratsu eltzeko dabillagun jokabidea be bearrekoa dala.

Lanari-buruz gizona gizatsuago ta lanaren-etorritz gizarte eskuartetsuago egiteko asmoz diardue kooperatibatarak. Orretan azkatasun-izpirik alperrik itxi gabe orain dabillezan arazoekin aseteke, azkatasun zabalagoaren jaube egin naiz, gizonoi ta gizarteari jagokuezan beste gogo ta burubide batzuek betearazoteko ustetan. Jokabide au agorra izan daikenik iñork ontzat emon al daike?. Azkatasun egarridunek ta argizale danek izpiak ezin daikez alperrik galduarazo.

## Begirapentsu izateko

Bakoitzari berea emon al-izateko ta alkarrentzat begirapentsu era edo taju bateko gizarte-eralkuntza ezin onartu gengike. Kooperatibatarrak besteriko burubideak onartu dagikeez nai ta burubide orreik ez izan euron argibide edo jokabide; iñor zapaldu bearrik gabe euren asmoen alde dagie. Orixegaitik zurrago jokatu oi dabe kooperatiba-eralkuntzearen unurak aipatuz ta agerraraziz beste burubidedunen edo eritxidunen akatzak astindu ta aizatuaz baño.

Azkatasun-izpitan dabiltzalarik azkatasun-argi zale ez diranik ez bedi iñork uste izan edo azkatasun-alde egiteko edo gorako mallara eltzeko eragozpenik jeturkugenik eskuarten darabilguzan arazoekaz.

Gizatasun osoa azkatasunean bakarrik ezin irauli leike; gizatasunak azkatasunaz-gain beste adar ta emaitz batzuek be bear ditu: Zuzentasuna, egia, zintzotasuna, maitasuna ta edozeiñerantzako begirapena.

Kooperatibetan edozeiñek ikasi ta erakutsi dagikeguna auxe da: norbere buruari bestekin batera on egiten eta buztarriak onerako eruatea da. Buztarririk jasoten ez dakiana gizakide baño gizakaitz dalarik obeto esan eta eritxiko gendukekio. Giza-arazoetan edozeitariko egingoetan baizen ezi bear aundia izan oi dogu; jayotzaz gizon izan arren bizimudian gizatsu jokatu daikegun. Giza bera ta gizon-gizon izateko.

Kooperatiba egingoetan eta erantzupenetan izan gengiken giza-aro onenetarikoan jabilkuz gure gizonak nai ta orretan bakarrik gizonak eta gizarteak ezin ase al izan euren elburu guztia.

Kooperatiben onurarik egargarriena eurak emon dagikekuen eskuarte balitsua ez dira diruzko-irabaziak, egindako tresnak edo sortuarazotako ongarriak: Kooperatiben azirik ugaldekorrena lanaren eta alkartasunaren bidez dakarkiguen giza-eziketa ta gizonak dira.

Diru-otsak ez bekikegue aztuarazi egi au: Gizatsuago izatea ez da berez ikasi oi dogun egitaraua. Egitaro auxe izan bear dau kooperatibak erakutsi bear dauskuen jokabidea.

## Berezeki ta naroki. Martxo 1969

Naroki bizi al izateko berezeki jokatu bear dogu: berezeki izaterik ez jagoko iñori obeto bizi ezin al izatekotan.

Egia da oraingoz sail askotan bereziki jokatzera jo bear dogu obeto izan al gadizan. Teknika ta ekonomi arloak orixe eginbearrori dakarskue: lege zarrak berritu egin bear dira ta ez lenago ona zalako edo orain lengoa ta zarra dalako eutsi. Berezeki izatea bizibideak berenez dakargun egingoa da bakoitzak eta aldi bakoitzean egoki eratu dagikugezan geure arazoak.

Auxe da euskaldunok geure zanetan daruagun gogo bizia eta urteen buruetan ezerk zapaldu ta ito al izateke gaurdaño tinko ta indartsu baztar guztietan gurebe enda zaindu daben jokabidea.

Eutsi edo irauarazo bearreko gauzatan baño geiago daukaguz aldatu ta egokirazotekotan; arlo ta arazo askotan: ekonomi, gizarte, politika ta erlejio sailetan.

Orretan dakuskugun zelako bizikera-zale geran, zertan ta noraño ekonomi arloen eta jokabideen bidez eratu ta ornitu bear ditugun gogakizun batzuek: zeintuzk diran eta zelan ase bear ditugun beste egarri batzuek edo arlo arein bidez ase ezin leikezan zeintzuk gauzeren gogo garan aztertu ta erabaki dagigun.

Ideologi lañoak alde batera itxi ta bakoitzak bere gogo ta asmoak, bere egarri ta zaletasunak obeto astertu bagekiguz burruka bero ta bizi gitxiago ta auxi erabakitze erosogoak izango ditugu geure artean.

Gure lurralde ta inguruei begiratuaz, gure gaurko egitaroak biar eta geruago izango ditugun eragozpen edo eskuarteak kontuan arturik eratuaz ekin dagigun alkartasun bizitan; auxe bedi euskaldunok garukoz izan dagikegun berezeki izateko gogo bizia: au oraingoz bagikegu naroki izatea, berez-berez jatorkikegu.

Gabiltzan adi ingurura begiraturik aurreruntz urrun ikusirik eta egunik alperrik galdetzeke; geuk geuretik eta geurenez jaso bear izango dogu gure Euskalerra maitea; ez dagigun aztu euskaldunok edo emen bizi geranok geure buruak ondo lantzen ez ba-ditugu ta alkartasun-bidez indar beratzen ez bagara berezeki bizi izatea egarrigarri barik iguingarri izan dagikegula.

Berezeki ta naroki izateko zarrik azteke barri-zale gadizan; gure ibai ta mendien edergarrien gure gizonak dagizen.



## Sustartsu ta guri izan dedin gure erria. Apirila 1969

Lan-min eta lanbiderik ez jako palta izan euskaldunari ta lanak ongarritu dau gure Euskalerrria emen jayoten diranei ogibiderik ez paltateraño.

Berez emankorra ez dan baster oneitan ainbat bizi garan eskuarteagaz bizi al gendizen, zerk lagundo dauskun ba al-dakigu?.

Gora duaz gure uriak; geituaz goiaz eurotan bizi izateko asmoa daukagun giza-semeok. Ez al dau merezi naroki bizi al izateko zerk paltarik aundiena egingo dauskuan astertzerik?.

Industri ta salerosketa sail eta jardunen etorri ta ogibideei zor dautsagu gure gaurko bizibide-malla soila; arrantza ta nekazaritzatik ezin bizi gendizan ainbat bizi garan erara. Onekin ez dogu ezereztat jotarik arrantza ta nekazaritza, bizik gure industri iturburuetara itzuli jakin-miña.

Asterketan geiegi sokontzeke esan genezakena auxe da: gure erritik kanpora irabazitako diruak eta Ameriketan edo Pilipinasen egindako aurrezkiak onera ekarri eskeguezan guretar errizaleak aintzat artu bear ditugu gure industri-sail eta saioak astertzerakoan; gizon orrein eta euron aurrezki-aritik jatorkuz gure erriari ogibideak sortuarazi dautsen enpresa edo olarik asko. Olako orreik diruak egin zituen lurraldeai orrela onik ez eutsen egin baña bai gure Euskalerrriari.

Kanpora juanaren emen sustraiak eukezan gure "ameriketarrak" andik ona ango onurak ekarri al-zituenik guri ez euskuan gaitzik egin, on baño.

Geroztik emen "amerikano" egin al izan diranak baña, emengo aurrezkiak edo onurak euren gogoz erabili al dagikeen gizonak, jaso egingo ete dauskue erria ala eurekoi-uts izanik edo euren egokitasunari begiraturik ez al gaitue aurrerapide-gabe utziko?.

Industri-sailetan alkartasun jokabidez ibilteak baditu erriaren onari begiratuta askotan ikusten ez ditugun onurarik ugari.

Lengo urteetan industri askok emontakoa industri orreik jaso dituen errietan edo fabriketan itzuli balitz oraingoz erri orreik euren semeai ogibidea opa izateko iñoren bearrik ez eben izango.

Kooperatibak ez dira "amerikanuak" egiteko baizik erriak alkartasun-bidez jasoteko bañol Gizonak eta erriak sustartzeko ta guritzeko. Jauntxukeriak ito ta gizatasuna mardotzeko. Ba al-dau gure erriak jokabide egokiagorik mardul eta tiko azi dedin?.

## Azkatasun-miñetan. Maiatza 1969

Azkatasun-miñetan bururik galdu gabe ibilli gaitezen eta azkatasuna gizakioi jagokunezkua izan dagian, obigide-arazuetan ez gaitezen atzera geratu.

Kooperatiba-ardurak ezin itzi genezakez alde batera gure gizon eta erriak ogibide onak izan dagikeezan. Ogibideriz ez daukanak ez al-daroa beregan morroitzarik garratzena?.

Iñoren mende era askotara izan genezake, gizonok eta erriok.

Azkatasunak bere oñarriak bear ditu, ikurriñak baño lenago.

Gure gazteen barnetan azkatasun-miñakin jakin-miña ta alkartasun-zaletasuna sustartu bear ditugu.

Orrela jokatu ez badikegu egun larriak ezin uxatu al izango doguz gure tartetik.

Baditugu gure inguruan lenago gora egiñaren oraintsuago bera duazen giza-talde ta erriak. Orain urte gitxiren buruan egiten da naiz gora ta bera. Ez dagigun alperrik egunik galdu egizko azkatasun miñetan bagagoz edo oñarritsu gure Euskalerraren alde jokatu nai badogu.

Bakoizkeri ta norberekoikeriari uka dagoigun; alkartasun burubideetan ezi ta ekandu gagizan. Barriztu ta gaurkotu dagiguzan gure bazkunde ta elkarteak; danetarikuak. Kooperatibak be bai. Batez be gure errialdeetan lenik sorturik erri bakotxak bere biztanleentzat sorturikoak; sakabanaturik eta indarge dagikuzenak. Alkarturik edo baturik indartsu izan legikezanak. Erri-mailatan giza-mailatan baizen egoki eratu genezake gaurkoz bear genduken alkartasuna.

Azkatasun-miñetan garanok alkartasun-mailetan jo dagigun.

## Gernikako arbola ta piñadiak. Ekaina 1969

Ekonomi-arazoak beste sail latzetatik edo ardura korapillotsuetatik iges egin al izateko egokiak dirudie.

Ezin aztu genezake ekonomi-sailtan atzeraka gabilkezanez Euskalerririk aurrera ez dogula eruango.

Ekonomi-sailtan onenak eta errezenak egiñak ditugu.

Gure nekazaritzak edo arrantza edo industriak izango dau naiko zeregin aurreruntz atzeratu gabe beste lurralde batzuetako nekazaritza, arrantza edo industri-saillekin atzerakadarik gabe eusteko geure eginkaroei.

Orain arte, batez be industri sailletan beste batzuek baño aurretik ibiltuari aurretik indartsu sail orretan ekin gendutsegulako, bai nekazaritza ta arrantza-sailleri eusteko ondo jua jaku. Orrez gañera aurrezki ta diru eraikintzetan ez giñan lo geratu baizik orreitan be sasoiz ekin geuntzan eta gure erriak urteak-buru gora ta gora, aurrera ta aurrera egin dau. Gurezak pake aldiak eta gerrateak eurak be ongari izan jakuz ekonomi sailletan, niaz ta beste sail tzauetan kaltegarri izan jagukezanik ezin ikatu dagikunarren.

Oraingoz izadiaran eta berezko errestasunen aldetik guk baño beste lurralde batzuek edo beste arri batzuek bai-ditue aurrerapide egokiaguak. Baña beste aldetik "Organizaziñoa" edo arailkintza izadia baño geiago da gizonoi ogibidea edo aurrerakizua sorarazoteko.

Onetan barri-zale eta erailkintza-alde jokatu bearrean gagoz atzean gelditzerik nai ez badogu. Gure nekazari, arrantzale ta lagille danak barrizale egin gadizan, erailkintza barrienez indartu gadizan.

Barri-min piska bat danok bear dogu. Ingurura geiago begiratu bear dogu. Ondo da lege-zarrei eutsi gura izatea baña lege-barriakin aztu gabe, lege barriak geure artean obeto gauzak eraltzeko soraraziaz.

Lege-zarraren eta Gernikako Arbolaren alde oika giñan artean iñork miñik sentitzeke galdu genduzan gure ariztiak, pagadiak edo gaztiñadiak. Ekonomi-miñez gure basuak piñadi arrotzen ornidu euskuenak izan dira geroztik gure nekazari ta basarrieri eutsi edo aurrerakizuna emon dautsenak. Piñadiak ez dira gure basoetako apaingarrik egokiena, ezta ekonomi neurritz onuratsuenak be.

Baña arbola bateri begira egotea onena danik ezin esan genezake, zugazti mardulak galbildean diranean eta zugazti orrei jaramonik egin gabe oiuka atxurrari edo beste lan-tresna batzuei edu gabe egotea erriaren alde jokatzerik danik.

## Zarrak eta gasteak leen, orain eta gero. Abustua 1969

Ari baten doyazanak doguz leen, orain eta gero. Zarrak gazteei eskua emonik eta gazteak aurrekoen aririk eten gabe joakiguz trebeago ta indartsuago, baña orretarako areik onei aurrerapidea emon bearra onartu bear leukee ta oneik arein eskubideak oinperatu eda trarretsi ez.

Batzuek gerokoari jaramon gitxi egitea ta beste batzuek lengoa ezertarako aintzat ez arte ditugu oraingo arazorik garratzenak geure erria jasoteko, bake onuratsua eratzeko ta alkartasun guritan bizi al-izateko.

Oraingoz danok dakusgunez gure baserriak utzitirik doaz; gure nekazaritza lur joaz sail barriai ekiteko oraingoz bear leuken erara gasterik gertatuta ez daukagulako nekazaritza seiletarako; zarrak bakardadean eta pozik gabe toki marduletan be. Leenagoko erara landurik bazterrak edo leenagoko ekonomi-oñariagaz oraingo gogoak eta asmoak ornidu gurarik ezin legike bizimodurik aurrera atera. Besoak ba-ditue oñordekoak; makiñan, baña ez buruak; buruak aldatzen ez ditugun artean soñu pozgarri gitxi entzun al izango ditugu gure baserri inguruetan.

Naiz ta belu sail barriai eta era barriz ekiteko gasteak gertatzen asiak badira; oso gitxi dira oraindik eta orrez gain ez dakuskugu noiz eta zelan nabarmenari azin al izango dautsen orretarako bear leukean eskuartearegaz.

Nork jaso al izango dau gure nekazaritza guztiz lur jo baño len?.

Euzkotarrok zor aundiak ditugu gure nekazariekin. Gure baserriak ekonomi iturburu ta euskel-kutsuaren gordeleku izanak ditugu ta danok, edozein ekonomi-sailetan gagozanok arduratu bear genduke aruratzen baño geiago gure nekazari ta baserrien etorkizunakin.

## Laster

Izan lezake laster nekazari sailetan dakuskugun galbideak industri sailetan be sortuarazotea; ez danetan baña bai askotan leenagok erailtze ta jokabideai begira bagenkikez. Leenago ondo juandako sailak gero ondo juan dagikezanik ez da pentsatu bear. Leenago orrela aurrera egin dogula ta beste gabe gero be ondo juan gengikenetan bagendokez orain nekazaritzari buruz dakuskeguna dakuskikegu; etorkizun larria ta etengabe beeraka.

Ugazabok eta langileok danok batera edo beintzat danok bakoitzak bere aldetik aztertu dagikegun zeintzuk oñarri ta eskuarte bear ditugun atzera barik aurrera egin dagigun. Oraingoz iñor baño senuago ta azkarrago aurrera egitea komeni jaku gure gizonak eta umeak ogibidea izan dagien eta beste lurralde batzuetan ogibide billa ibili bearrik izan ez dagikegun.

Geuk, danok alkarturik oñarte ta jaso bear dogu gure erria.

Orretarako burubide barriak, lan arau barriak, beste jokabide batzuen bear izan genezake. Iñondi jatorkegizan ekonomi-eskuarte ta erabagiekin baño geiago jokatu bearko dogu geurez ta geuretik eratu genezakezan eskuarte ta erabakiekin.

Gero orain baizan ondo ta leen baño obeto izan gura badogu ari berrietan ardaztu bearrean gagoz lanbide sailak aurrera erueteko.

Aztunak dira ingurura begiratu dagikegunon erantzupenak.

Euskalerrriak oraingoz ta gerora begira baditu buruatuste korapillotsuak. Bakoitzak bere aldetik gabe danok alkartutik, eskuz-esku zar ta barrizaletasunik gaitzeke baña zarrakin be aazteke goakezan batera.

## Gabiltzan zur. Iraila 1969

Gaurkoz zur ibiltzeko ingurura zeatz begiratu bear da ta batez be aurrera urrun eta zoli. Lasterka juakigu aldlea, egunean baño egunean aguruago ta oraindiño urrun dagola uste doguna beingoan gañian dogu. Etorkizunari adi jokatu bearra dago.

Naiz ta gure arrialdetan lanbideak ugari ta ogibideak edonun dakuskugarren ez dagigun aztu ekonomi-giroak aldakoperrak dirala ta aro txarrak jo ezkerro bertanbera juaten dirala bai lanbideak nai ogibideak. Gizarteak orain baño eralkuntze gizatiagoak ez ditun artean ugaritasuna ta larritasuna gizonontzak alkarren urrean izango ditugu.

Lan-Araldkuntze Nagusiko Batzorde-Buru dan Dabid Morse egun asko ez dirala atzera dagozan errialdeai begira ta euren buruak josoteko alegiñak aztertirik auxe esan dausku; egia da, errialdeak euren buruak gizon bakoitzak bezela lanaren-bidez jaso daikeez eta jasoten ditue, baño penagarria da lan egin gura, lana aibat ondasunen iturburu izanarren lan egiteko egokitasun edo erarik gabe ainbat gizon daukezana ikustea; Gaurko teknologiak bear daben eran lan egiteko gertatuta ez dagozalako errialde orreitan berreundik irureun milloi gizon dagoz lan gabe; lan-gabe dagozanik ogibide larritan, errialdeak jasoteko eskuarte gabe.

Es da ona lanerako gogo bizirik ez izatea baño gogo ona ez da naiko gaurkoz lanbideak sortuarazoteko. Orretarako lan-eralkuntzearazoetan ondo jakotzen jakin bear da. Atzera dagozan errialdeetan ori badakusgu begiratu dagigun orain zeintzuk ardura dituen aurrean dabilzan errialdeak, esate baterako Ipar- Amerikan. Egunotan ikusitako kontuak ditugu orain emen gogoratuko dautzoguzan oneik.

U.S.A.'k 57 milloi ikasle ditu. Gitxi gora bera amabost urte beteta gero ta lenengo ikasketak ondo egin ondoren euneko berrogei neska ta mutil ikasten jarraitzen dabe Kolegio ta Unibertsidedetan. Datorren amar urteen bururan beste amar milloi ikasle geituko ei-dira.

Nork lan egin bear daben?. Ango jakitunak diñoenez ta agintariak uste dabenez ta espero dabenez 1975, gandik aurrera euneko irurogeita amar lanbide edo lan egiteko eratan goiko mailako ikasketak egindakoak bearke ei-dira. Amalau edo amabost urtearte naiz ta eskoletan ondo aprobetxau ori ez da naiko lanerako trebetasuna izateko; trebetasun aundiagoa bearke ei-da 1975'dik aurrera barrena 70%'ek goiko maillako ikasketak bear izango ei-ditu.

Errialdeak lanaren-bidez jaso ber ba-dira ta lanerako aurrerago olako trebetasunak palta egiten ba-dabe, ikusi dagigun aurrera begiraturik zelan jaso al-izan geinkean gure Erria.

Batzuek barriketan dirala esango dabe.

Barriketalariak orretarako gaia beti izango dabe.

Baña erri-miñez eta erriaren-alde zintzo egin nai debenak barriketan baño gauza oberik egiteko badauke.

## Eusko-jokabideak. Azaroa 1969

Euzko-gogoa itoko ete-dauskuen bildurretan ta samintasunean bizi izan gara bain baño geiagotan eta ez gitxi be.

Iñork beti jo genikegunean edo gure bazter, uri ta inguruak edergarriagotu genikezanean, zenbat ardura ta alegin egin izan oi-ditugu orretarako?.

Aundikeriz kutsututa euzko-jokabide bakarrak beste gizon-talde edo errialdeak egin izan dituen antzera ikurriñetan, oi-alaritzeetan edo aizeak eta denporak berez daroakigezan jokabideetan jarri izan oi-ditugu.

Gure artean alkartasun-min sakonagua sortuarazoten, gure etxe ta kaleak edo uriak edergarriagotzen ardura gitxi ixan dogu.

Guk maite dogula diñoguen Euskalerria edertogutzen aterik-ate, baserrik-baerri, ikastolarik-ikastola, leirik-leio, saillik-sail edozeiñek egin genezakeguzan edergarriak edo apaingarriz jantziten gitxi egin oi-dogu.

Ba-daukagu naiko zeregin gure inguru guztiari jagokon eder garriak erazoten. Danok edo geienok orretara jo ba-daikego zerbait egin al-izango dogu urteotan egin diran itxurabakokeriak leuntzen edo edergarritzen.

Euzko-jokabideetariko bat auxe da: Lañoetara baño bera geiago begiratu: Lañoetan gitxi aldatu genezakegunok lurraldean zerbait obeto eratu dagikegun.

Iñoren baimenik gabe egin genezakeguzan eginkoak ez dira gitxi.

Bakoitzak beretik zintzo jokaturik jaso lezakezan saillak zabalak dira.

Euzko-espíritu ta arnasa barriz bizi arazo dagigun inguruan daukagun guztia. Alkartasuna, zuzentasuna, azkatasuna ta aurrerapidea bekiguz gure gogomin. Oñarritu dagiguzan bakoitzak dagikegunez.

## Astodun eta zaldun. Abendua 1969

Astoak eta astodunak gitxituaz doaz. Santo Tomas'etako eta bestelako perixetan geruago ta baserritar barregarri gitxiago dakusgu. Onetan ba-ditugu gure artan gordegarri edo unuragarri gengikegun zerbait galtzen ete-dogun penatan edo ez baitan ditugunak.

Pozkarri egiten jaku astoen lekuan gure baserritarrak tratore edo motokultoreak erabiltzea, baita perixa-egunetan astotxoan ordez automobiletan perixa-inguruetara agertzea be. Asto-indarrez ebiltzan-artean zaarkeriai iges egitea ez zan erretza ta oitura zar askori uko egiteari ondo eristen dautzagu. Astodunak zaldun egin jakuz ez bakarrik perixetara juateko baita lanerako be; astoa baño indartsuagoa da tratorea eta egokiagoa motokultorea be. Orretan ondo doaz gure baserritarrak eta obeto juango litzakez euren artean alkartasunari aurrerapide geiago emoten balekiteke. Ikasigo dabela uste dogu eta orixe opa dautzegue.



## Asto-tokiak

Gure errialdetan oraindiño baititugu bear baño asto toki geiegi. Gure tarteko ta gaurko ast-tokirik barregarrienak eta kaltegarrienak gure etorkizunari eusteko ta aurrerapideari indarra emoteko perixa-toki ingurietan ez dagos. Astuen lekuan kilobatioak ugari bear gendukezan tokiak ba-ditugu oraindiño.

Gure lantoki batzuek asto-indarreraño eldu gabe darabillez langilleak eta orrela gure langilleak irabazpide aundirik ezin izan daizke ta ez da onelako lan-etxeen bidez gure arriak aurrerapide aundirik be.

Asto toki orreik aldatu gure bear ba ditugu danok arduratu bear ko dogu gaurdaño baño geiago gure ekonomi arazoekaz.

Ugazabak aurrerapide egarririk ez dabela ta beste gabe lanbidea orain eta geroago be izan bear ko dogunok, ondo al da sail onei ardura geiagoaz begiratuteke jokatzeta?.

Ba ditugu gure artean lan arazoetan beste burubide batzuetan diarduenak, beste jokabide batzuek artu dituenak. Baña, ba al dakie edo beintzat kontuan artzen ete dabe lanerako astoak eta jolaserako edo ibiltzeko zaldiak ez dala jokabide egokia?.

Gure baserritarrak ibiltzeko astoak itxi ta lanerako zaldiak artu ez bazituen barregarria izango zen eta orrez gañera oso kaltegarria eurentzat.

Ibiltzeko zaldidun egin garan guztiok pentsatu al dogu lanean astuak ala zaldiak dabilguzan?.

Ugazabak astoekin gabiltzan artean gure lanetan ibiltzeko zaldiak artu ditugunok ezin genezake etorkizunari nasai begiratu.

Gure lantokien eta enpresen barri ondo dakianak iñuskuan oraintsi "Gipuzkoan irudian bezelako oñarririk ez genduala ekonomialdeetan, batez be lanari buruz lanerako orren esku-utzik gengoan artean". Iberduero ariei loturik kilovatio-ordez astotxurik asko genduala. Egia ete da?.

## Erri-zale ta askatasun-miñez. Urria 1970

Erria ta Askatasuna notan, barriketan, erretzago erabilten dira biotzez eta egitez indartu oi-diran baño. Gure Erria makurturik edo oinperaturik dakusgunean odol-bizitan edozer egingo geunke askatzeko. Olaxe dirudi baño ez da olan, kultura ta ekonomi sailletan zer egiten dogu?.

Erria egitez jaso nai dogunok iñoren menpeko izan ez dadin lanaren buruz ornitu bear dogu kultura ta ekonomi-sailletan. Baña benetako askatasun-zaleak ba-gara geuretzako nai ez dogun otsentzarik iñori ezin opa izan dagiguke. Naiz gure alde naiz geure buruen morroitzak ezin onartu dagikeguz. Erria lurak edo lurraldeak utsik ez dira, bertan bizi garan gizonok baño; erriaren askatasuna gizonon askatasuna da.

Uxatu edo eten geinkezan morroitzak apurtzen alegintzan al gara?.

Askatasun-miña gizatasun agerpenik sakonenetarikoa da. Baña askatasunmin sakonaren uka ezindako ezaugarria norberetzat gura doguna iñori opa izatea ta bakoitzari ondo ez dirudin morroitzarik iñori ez ezartea da.

Ba ete daukugu adorerik danontzako onuragarri izan dagikezan morroiutak alde batera utzi ta beste era batera gure gizartea eratzeko?.

## Burubide barriak

Gure lurraldea bizi-bide unuratsu dagiguna lana izan da ta izango be bai. Lanaren buruz edergarritzen diardugu gure erria. Beste lurralde batzuetakoak be ogibide-billa gurera jotorkuguz eta izan dira aldi batzuek guretariko askok itsaoak edo beste baster batzuek-zar ogibide-billa estu ta larri ibilli bearra izan dabenak.

Gure industri-saillak dirala ta oraingoz gure nekazariak eurak, be, euren sailletako lan neketsu edo egoki ez deritxoeenatarako kanpotik jatorkuzan morroiak darabillez, ikusi baño ez dago nortzuk dabilizan gure basoetan, piñadietan edo bidegintzeetan, etxegintzeetan, ta abar.

Industri-sailletan lanik neketsuenetan, nortzuk darabillaguz?.

Askatasun-zale izan geranik asko ez al gara bizi geuri egokitasunari begira iñoren morroitzak mintzeke?. Benetako askatasun-zaletasuna agertzeko ta oñarritzeko, zenbat aldaketa egin bear izango gendukez gizarte-eralkuntzeetan?.

Oparo bizi garan asko edo ondo gabilizan geienok kanpotiko ainbat gizasemereren begira egon bearrik izan ez gengikean, batez be, ainbat lan neketsu ta gogor pitxitu al izateko geiago aurreratu ta inbertidu beariko genduke. Danok ondo dakigu gure ola-etxeetan langile gitxiagokin eta batez be lan astun ta neketsu gitxiagokin eta batez be lan astun ta neketsu gitxiagokin jokatu al izateko bear genduken lenengo gauza auxe da: Kapital geiago ta tapital geiago izan al izateko aundikeri gitxiagokin bizi, lanbideak sortura oten kapital geiago erabili ta orretan kapital geiago erabiltzen ba-dogu bera ordaintzeko geiago beariko dogu; iñork emona edo geure buruz ta lanez sortua.

Gure kultura ta izakerari eutsi al izateko ekonomi-sailletan lenengoz beste era batera jokutzen ikasi bear dogu ta mundo guztiari gu askatasun-zaleak benetan gerala adierazitzeko ekonomi-sailletako morroitzak eten.

Iñoren menpeko ta morroi izan gura ez dogunok iñor geure morroi izatek be iguingarri eritxi ta jokabide barriai eltzen alegindu gadizan.

Gure Erria askatzeko katei asko apurtu bear dira. Erria askatseko gure artetik morroitzak asko uxatu edo eten bear ditugu.

## Senideen deia. Otsaila 1970

Urtarrileko T.U.'n "Burubide Barriak" artikuluan irakurten genuenez: "Gure lurraldea bizi-bide onuratsu dagiguna lana izan da ta izango be bai. Lanaren buruz edergarrizen diardugu gure erria. Beste lurralde batzuetakoak be obigide-billa gurera jatorkuz eta izan dira aldi batzuek guretariko askok itsasoak edo beste bazter batzuek zear ogibide-billa estu ta larri ibilli bearra izan dabenak".

Ederto dagozan itz oiei eranski batzu itsaste badizkiegu, gure erriaz dugun burubidea osatuko da noski. Datozen itzak Jakin'ek atera berri duen liburu batean, R. Camblong eta J.L. Davant jaunek egin dituzten saioen zatiak dira. Liburuaren izena "Ipar Euskal Herria".

R. Camblong-ek dinoskunez: "Urtero Baionako 1.200 ikasle dituen Eskola Teknikatik ateratzen diren gazteetatik 70% joaten dira Euskal Herritik kanpo. 1954-etik 1962-rat Doniabne Lohitzuneko eskualdea 600 arimaz emendatu da urtero. Ber denboran, urtero Donibaneko eskualde hortan berean 100 gaztek ihes egiten zuten beren sor-herritik, lan eskasez".

"Ba dakigu, barnean, emigrazioa, gazteen emigrazioa, ikaragarria dela eta aise ikusten da, xifre absolutuetan ere. Kosta aldean ixilago baldin bada emigrazio hori, ni beldur iguala dela. Jende adineko hainitz etorten da erretreta (retiroa) hartzerat gure eskualderat. Bestalde, hirugarren sektorea izigarri handia da Baiona inguruan, bereziki komertzio ta administrazioa. Horiek gordetzen dute bai gazteen emigrazioa, bai gure ekonomiaren ahulezia".

"Erran dezagun lehen lehenik, behar beharrezkoa dela guretzat Industria baten sortzea gure aldean. Traba eta neke handiak ditugula, segur. Bainan ez da ezin eginik. Lantegi berrien jartzeko, gogo berri bat, izpiritu berri bat gure herriaren alde sortu behar dugu?".

Eta Iruñetik Baionarako auto-bidearen garrantziaz eta Baionako portuaren inportantziaz (ez ahaztu Lacp-eko energia ta asufrea) itzeginez gero onela bukatzen du R.Camblong-ek; "Bilduma ttipi hau ez ginuke bururatu nahi okasioneaz balia, gure Hego aldeko anaieri dei bat egin gabe. Hoinbertze industria eta industriako buruzagiak dituen Herriak indar bat ez lukea egiten ahal Ipar alderat?. Hemen gazte asko dago lanaren goait, lan-toki baten ondotik. Herri askok laguntza handiak egiten dituzte lantegi berrieri ... eta, gero, Ipar aldea ez dea Europari buruz ... lehen pausoa?".

"Zuen goait gira"

J.L. Davant-ek laborantzaz edo nekazaritzaz egoki itzeginda gero deika ari jaku. "Hala ere, laborantzaz besterik behar dugu; turismoa laguntza bezala, bainan oroz gainetik industria. Apailatu behar dugu. Bereziki gazteek ikasi behar dituzte ofizio berriak".

"Momentoan ez dugu mentura handirik. Parisek turismarentzat dauka gure eskualdea. Bainan gazteek ez dituzte goiko erabakiak hola onartzen. Egiatzko planifikatze bat eta zinezko eskualdekatze bat beharko da. Etorriko da eguna. Zeren Euskal Herriak baditu lantegi azkarrak ausarki ... Bidasoaren ezker aldean!"

Emen, aldamenean bizi diran gure familia berberaren senideek euren kezka azaltzen digute. Euren kezka, gure kezka.

## Jokabide barri billa

Gizasemeoak arduratsuaguak gauza askotan izan bearra daukagu geruago te geiago munduan obeto izatekotan. Gure buruen ardurea iñoren begirapenagaz agertu bearra daukagu. Alkartasuna era askotan azaldu bearra. Life aldizkarian oraintsu irakurri dogunez Ipar-Amerikan. Rachellarson egin daben idatzi baten etorkizun latsa izango dogula agertuarazoten dau. Aurrerapenik askok ondoren latzat dakarzkuela. Urte gitxieren buruan ondoren garratz ta astunok ikusiarazoko ditugula.

Uri aundietan bizi diranak amar urteren buruan arpegi-estalkiak erabili bear izango ei ditue zetakatu ta kutsutatuko eguratsetan izango diralako uriok. Ez ei da giro onik izango egurats orbandutan dagokezan uriotan. Amabost urte-buruan, 1965'gnean uri aundi orreitan eguzkiaren argia bera be erdiratu egingo ei da egurats likitsetan edo orbanduz, Iturriak, urak, ibaiak eta lur-azala zikinduta, kutsututa dagokikeguz ordurako. Eguardia epelduagotuko ei da ujolde edo euriteak naiko zeregin emoten asiko ei-jakuz toki-alde batzuetan eta bestetzuetan edo geroruntz izozteen arriskuan izango ei-gara. Egazkiñen burrundada eta beste era batzuetako tresna edo makiñen zotiñez gaixi barririk asko ezagutuko ei-dira ta gizasemerik asko jaio-orduko gaixopean izango ei-dira. Badaukagu zeri ardurarik artu arrisku edo galpide orrei iges egin al izateko edo gitxiarazoteko. Orain kokuak ilteko darabilguzan D.D.T. orreik eurok be geu ondatzeko, ez ete dira izango?.

## Goiztar

Badirudi Europako nazio-tartean sartuko ete garan.

Ondo letorkikegu europeatarrak daukezan izakera batzuek oindixerik onartzea, esate baterako, gabean goiz edo beintzat sasoiz etxalderatu goizean sasoiz eguna asi al izateko bear beste atsedendurik.

Onetan europear errialde orreitan erreparua artzen atsen ba-gera ikusiko dogu batenaz beste iru ordu atzerago etxalderatu ta goizean ordu bi beranduago geure saillei ekin oi dautzaguela. Ordu bi beranduago zabaltzen dira salerosketa etxeak, umiak gure eskola batzuetan ikastolara juan oi-dira anguak "errekreura" ateratzen diran ordurako.

Arein erara bizi al izateko aren erako oitura barri asko bearko ditugu.

## Azkar

Aldakuntzariak-aldakuntza lege zarretan irau al-izateak zeregiñak emongo ditu. Lengoetan izakerari eutsi al-izateko barrikeriari adi ibilli bearra izango dogu. Lege-zarrik barririk gabe ezin izan dagike.

Japon'en geien saltzen dan izparringiak, amar milloe egunean, asmakizun barri bat atera ei dau. Zer asmakizun barri?.

Izparringi ori egiten dabenak izparringiori oindiok geaigo saldu al izateko asmakizuna. Amar milloe lendik saltzen dituanak geiigo saldu al-izaten badau, besteak nori ezer saldu al izango dautsee?.

Diñoenez urte onetan edo beranduenik datorruan salduko ei dira tresna barri batzuek eta ez ain garestiak izparringi-orrialdeak beste paper zuri ta garbietan berrizteko. Tresna onein bidez orretan be aundiak eta indartsuak aundiago ta indartsuago egingo al-dira. Txikiak aundien mendean edo aundien erara izanarazoteko beste bide bat. Atzera begira ta zarretan loturik dagozenak giro txarra izango dabe aurreruntz.

## Nekazarien buruaustekak. Maiatza 1970

Kooperatibak ez dira gauzak merkeago erosteko edo garestiago saltzeko.

Kooperatibak izan bear dabe bakoitzak berekidekoakin norbere arazoetan arduratzeko. Esate baterako nekazariak eurak euren gauzetan zuzentzalle ta arduradun izanerazteko. Bakoitzak bakarti gitxi al dagike baña alkartasun-bidez asko. Alkartasun bide onetara jo bear dabe nekazariak.

Nekazariak euren arazoak ondo aztertzen baditue ikusiko dabe areriorik aundienak euren tartean dituela. nekazari bakartiak alkartasun-arira jotzen ez dakienak, Auzoetan biziarren auzotasun gabe jokatu oi dabenak.

## Nekazarien buruaustek. Ekaina 1970

Oraingoz nekazarien arazoak korapillotsuak dira. Zer egin legike, noruntz jo dagike?.

Iparraldean, Europa'n, M.C.eko errietan ez dabiltz umekerietan, 80 etarez azpitiko saillak ez duaz aitzat artzera aurrerako. Amarretik iru dira orain; 55 urtetik gora dituen nekazariak zarsaritu ta oporretan jarri bear ditue. Umuraz zokoratu. Errialde orreitan landu oi dituen saillak euneko bostean gitxitu, intzeke itxi. Eta aldakuntza oneitan bost urteren buruan 437.052 miloe peseta kastauko dabez.

Españan bi milloe nekazaritza-enpresario dira eta azi dira esaten datorren ogeitamar urteren buruan millo ta erdi gitxitu bear ko dabela. Baña ez dakigu zer egin bear dan edo zein sari emon bear jakuen euren ogibidea itxi bear daben orrei. Nork jaso bear ko dituan; bakoitzak al daben eran erabagi izan bear ko dituan bere arazoak. Norbaitzuek onuratuko dira jokabide barri oneikein. Betikoak izango ete dira. Aberatsak aberatsago egiñaz egingo ote ditugu aldakuntza oneik?.

Burruka gogorrean ari gara orain be saldu ta erosi, kanpora eoran eta kanportik ekarri jateko bear doguna. Nekazaritza-sailletako jenerotan 1969 urtean 67.341 milloi pesetan jeneroa kanpoan erosi ta ekarri zan eta emendik emengo jenerotan kanpora 47.196 milloina saldu; salersketa onetan 20.000 milloi pesetan aldea izan genduan etxe-kalte.

Dirutza au geiena ganadu salerosketak sortuarazo eban. Ganau jenero salketak ganau ta nekazaritza erosketan salketak ganau ta nekazaritza erosketan euneko 0,30 bakarrik izan ziran. Arto-eleetan ta koike-azietan, zuretan, aragitan, narrutan, algodoitan, azukarretan eta tabakotan, esne ta artilletan 50.000 milloi bear izan genduzan.



## Arrasateko giroa. Abusuta-Iraila 1970

Gipuzkoa eta Bizkaiko bazter askotan Arrasate'n nekazari ta industri arazoetan zeintzuk burubide izan oi dituen ondo jakiña da. Arraste'ko Politeknika'n aspalditik dabiltz Bizkai ta Gipuzkoako erri askotako mutil gazterik asko ta euren laguntzarako aspaldi egin eban Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzia'k beran-berarizko ikasle-etxea Politeknika'ra egikitasun aundiagoaz joan egikezan gazte orreik eta erri orreitako gizonak Lan kideen Auzo-Aurrezki Ontzia ondo ezagutzen dabe ta bertako zozio egiñak edo egiteko asmoz izan oi dira. Arazo ta sail onetan alkarren barri erririk askoko gizon edo gazteak. Orretan Araban eta Naparrua an bardin jasoten da ta Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzia erri erreitan agertzeari iñork edo askok ez leukio mirarik egin.

## Beyena'koak ez jakiñean?

Urteak dira Beyena'ko ta geroztik Caja Rural orreitan zerikusia daben buruzagi edo zuzendariren batzuek Arrasate'n arazo ta sail oneitaz jardunaldiak eta alkarrizketak izan zituela LANA'ko zozio ta zuzendariak tarteko izanik. Ez bekigun aztu Lana, "Leniz, Aloña, Aramayona'ko Nekazarien Alkartasuna dala.

Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzian zozio dirala ta Auzo-Aurrezki Ontzi onek nekazarien alde zer egin daben eta zer egiten daben ondo dakiela, Arrasate'n asi ta Gatzaga, Eskoriatza, Oñati, Bergara, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Aramayona ta Elorrio nekazariak alhartu ede batu ditua koperatiba.

Miba ta Cava, Markina ta inguruko ta Arratiako Nekazariak izan leikez arazo ta sail oneitan Beyenaren Zuzendariari beste gauzarik asko Lankideen Auzo-Aurrezki Ontzia'taz esango legioenak. Ez dogu uste Beyena'ko Zuzendariaren eritxiai ondo derizkionik.

## Aztertu bearreko gauzak. Azaroa 1970

Errialde bakoitzak bere giza ta izadi-giro berezia izan oi dau. Orretan nortasun edo bakoitzaren izate berezi zelakoa dan ikusi bearra dago giza-arazoak ondo zuzenarazi gura ba-ditugu. Ao batez edo danok burubide bardiñez kapitalismoa ezespetsa edo zozialismoa onartuarazotea oi u edo saurka egitea dirudi giza burubidez gizarte arazoak astertzea baño geiago.

Askatasuna ta alkartasuna buztartzea ez da erretza baño batez be oso zailla da arratoia ta katua askatasun gisan alkarri aginkarik edo miñik emon gabe zuzenarazotea. Orresbesteko diperetzi gabekoak be alkarrengana borondate onean bata besteakin konpontzeak zeregiñak emoten ditu. Askatasun-arazoetan al lezaken lokarri gitxienekin bizi-arazoteko gizon edo gizarte bakoitzari bere nortasuna ta bere izaera ez itotekotan giza-giro bakoitzari jagokonezko legeak bear dira.

Toki batzuetan kapitalistarren lokarriak beste batzuetan zozialistenak eurenak baizen eruankorak izan daikez edo lurralde batzuetako zozialismoa beste batzuetakoa baño askoz latzagoa izan dagike. Orretan ondo letorkigu danoi zozialismoa edo kapitalismoa zer dan, zer daramoskegun aztertzea. Gizonki jokatzeko itzak baño egiteak geiago aintzat artu bear ditugu. Orretan toki o edo lurralde bakoitzeko izadi ta gizagi-roak kontuan euki bearrekoak dira. Giro orreitan edozein edo geienak jauntxokerira edo agindukerira jokatu izan oi dabelako edo juntxokeriak aundikeriak edo agindukeriak baster batzuetan geienetan indartzeko edo sendotzeko giro ona izan oi dabelako.

Naiz burrukan naiz baketan bereziak izan oi gara erri edo lurralde batzuek. Ez diñogu au batzuetan onak baño sortzen ez diralako edo beste batzuetan eguzkiak ez diralako edo beste batzuetan eguzkiak edo txingorak asko garrazten ditualako. Gizonok eta erriok sustrai sakonak ditugulako ta izakera berezia.

Egunotan irakurri dogunez Madrilen auteskuneak diralarik jozejal-auteskundeetan gitxi auteskundeetan parte artu dabenarik 1.518.000 ordu lanean galtu el dabez ta Bizkaian 1.412.000 ta Gipuzkoan 1.518.000 1969'gn urte betean uelgetan. Gure burrukalarriak gerala dirudi urte orretan uelgetan España guztian ordurik geien galdu ebezan probintziak izan el gara ta. Ez ei da ona orretan orrenbeste ordu galtzea baño auteskunde edo edozein atxekia bide dalarik edozenbat ordu galduarazotea ona danik, be, ezin esango dau inork edozenbat ordu galduarazotea ona danik, be, ezin esango dau iñork.

Askatasuna ta alkartasuna biak bear-ditugu danok baño ez dagigun aztu biaak ondo jasotzeak badituala bere korapilloak danok edo geienok orren diperenteak izanik.

Orretan ez dogu esan nai danok bakoitza bere sail eta giroan obeak egiteko ondo ez zagunik etorriko ta orretarako danok eskakizun ori aurrera atara al izateko jokatu bear ez dogunik. Baña berbak aizaek eruatzen ditu ta egiñak bear ditugu alkartasunean ondo jokatu al izateko. Arekin eta emenguekin. An eta emen iparrean eta egoaldean toki danetan gizonki jokatzeko saillak aztertu ondo ta.

Zertara goazen eta zelan gauzak eratu bear ditugun edonok erabagiteko laga barik eta jokabide eta burubideak ondo eratuta. Bestela oraingoz alkarturik gagozala dirudianarren burrukak ez dira urrun izango.

## Etxaldea. Urria 1971

Gure etxaldea askotan dirudigun baño zabalagoa da. Sendi bakoitzaren etxaldea ta baita elkarte edo erri bakoitxarena be.

Aurrerapidearen buruz saillak estutu ta aldia laburtu egiten dala dirudi. Lenago etzan olan baña orain danok daukagu alkarrekin zer ikusi geiago nai ta bai ez. Danok daukagu geruago ta beste geiagoren bearrizan aundiagoa.

Etorkizun ohea izateko geruago ta geiago berezitu izan bearko ditugu geure lanbideak ta orretan nekazariak nekazaritzan eta industri langilleak industri langintzetan geiago sakondu ta berezitu bearra izango dabe.

Nekazaritza arloetan obeto berezitu bearko ditugu jokabide-arloak; lenagoko antzera esne, ortugri, aragi ta barazki daneitatik apurbat egin oi ebana gaurkoz ezin bizi al legike jokabide orrekin. Gure nekazariak ezin bizi dagikez beste langileen erara ta antzera aldanik lasterren ondoen jagokoen jokabidea ta lanburubide bat artzen ez badabe. Abereginkizunetan edo ganaderi saillean esnera edo aragira jo bearko dabe ta olaxe geruago ta gauza geiago bearko dabez beste batzuek egindakoak edo saldutakoak. Orixe berori gertatuko jaki gizaki guztioi. Euskaldun edo euskotarrok geruago ta geiago egin izan bearko dugu saltzeko ta geruago ta geiago erosi izan bearko dugu. Auxe da geruago ta etxaldea zabalagoa izan bearra. Auru-emon eta salerosketa aundiagoren bearra izatea. Gauza oneaik ezin aldatuarazi izango ditugu obeto bizi nai badugu. Noek bezela kutxa edo etxebarru baten bear genduken guztia izateko aldia joanik jua da ta ez ta barriz etorriko.

## Inguruko-barriak

Lenago bagenkigun gure auzoa nun asten zan eta nun bukatzen zan bakoitzak bear gendukezan laguntzak nundik norakoak naiko ziran bagengigulako. Auzoa ez da orixe besterik, bakoitzak bear ditugun gauzarik beartsuenak eta laguntzarik larrienak idoro al izateko bear gendukezanak bizi ziran ingurua. Baña orain inguru ori zabalduaz doa bakoitzaren gogoak beteraraziteko inguruak ta taldeak aundiagotzen doazen-ezkeru. Edozeñek dakiguzan gauzak dira oneik baña edonoz gogoan edo aintzat artzen ez ditugunak.

Urrun dirudie dagozala aldi oneitan okerrak eta oker aundiak izan dituen lurraldeak. Udagueneko legorteak eta neguko izozte baltzak eiskalduta lenengo ta gero erreta itxi ditue sail eta baster zabalak. Udazkenean ganaduan oker aundiak izan dabez eta negu asibarrian baratz eta igali arboletan kalte edo oker guzti oneik ogei milla milloitik gora jo dabez orretan dabilztan perituak.

Legortearen okerreuz ganaduari eusteko erosi izan near dituen pentsuetan bear izan dabez lurralde orreitako nekazariak sei milla milloitik gora. Beste milloi talde batzuen gutxiago egin izan dira. Orretan zear nekazari arloetan ondo dabilztanean ezagun izango dabe. Onerako ta okerrerako geruago ta inguru zabaleagoetan ikusi bear dogu gure auzoa, geruago ta geiagoren artean daukagu zerikusia ekonomi artueemonen ariz.

## Egi mardula

Gorabera oneik aztertzarekoan eta nekazaritzaren problemei buruz soik eta sakonki auxe esan dau orretan jakintsu dan batek. Nekazarien eta nekazaritzaren problemarik larriena ta korapillotsuena ez dala ez legortea, ez izozteak edo deporalde biurrak, lurraren mamintasuna edo ugaritasuna, ez, aspaldik bear bezela iñork aztertu ta neurtu ez oi daben okerra ta gaitza nekazarien artean eta nekazaritzan geratzen diran gazteak edo gizonak ei dira. Ikasketa edo teknika gabe edo gitxirekin. Jain-min eta garrizaletasun gabe, lengo erara baño nekazaritza eroeteko gauza ez diralarik.

Zenbat baserritar gazte ditugu gure artean edozein fabriketan edozein langillek baño jakite gitxiago dabenak?. Zenbat tekniko gertatzen sayatu gara euskotan iturri ta gordeleku izan ditugun bazter eta toki orreitan bizibide edo ogibide guria izan dagikeen gure ondorengoak?.

Kaletarron auzoa ez da bakarrik kalean. Baserritarren auzoa ez da izan bear bakarrik inguruko baserri taldea. Auzoa zer dan eta auzotasunak zer eskatzen daukagun aztertu dagigun eta orreri jagokonez jokatzen sayatu gagizan. Baserritar eta kaletar danok ikasi bear dogu beste era batera jokatzen gure Erria jaso nai badogu.

## Katalunia auzoan

Oraintsu Seat fabrian edo lankizundian erabagi dabe egunean 1.250 berebil edo automobil egiten ebazen lekuan 850 egitea, saldu eziñik berrogei milla inguru daukez-ta.

Lakinzundi orrentzat Gipuzku ta Bizkaian egunean irurogetik irurogetamar milloi pesetan piezak egiten ditugu. Erabagi orrei buruz edo produziño ori gutxitu dalako ogeitamar milloira bajatu da gure ogibidea edo salkizuna.

Bear besteraño aztertu edo oldoztu al dogu gure lanbide eta ogibideen iturriak edo aurerirapideen ariak nundik nora dagozan?.

Azkatasuna gura dogula oiugitea ez da naiko azke izan gadizan.

Benetako azkatasuna izan dagikegun gauza askori begiratu ta ardura artu bearra daukagu.

## Burubidek berriak ala burukeri axetsuak. Marxoa 1971

Gaztetasuna eta gaztekeria ez dira bat.

Gazteiazen jokabide ta burubide barriak eta gazte-talde batzuen arteko burubakokeri ta ardurabakokeria gauza bi dira. Onartu ezindako burubide ta jokabideak zarren eta gazteen artean danetan izan dagikez.

Gaurko gazteak gauza edarrrik asko ditue. Jokabide ta buru bide batzuetan danon gidari izan dagikez eta euren gandik jator kugazan eginbide ta asmorik asko danok onartu bear ditugu.

Bai. Elduok edo zarrok izan diñeikez geure akatsak eta eragozpenak gazteen burubide ta jokabide batzuek ontzat artze eragozten dauskuenak. Baña baita gazteak be edozeñek eta edonun edo edonoz ontzat emon ezin dagikezan izakerak be.

Giza-arazo batzuek korapillotsuak dira, ekonomi-sailletan ikusten edo neurtzen ikasita ez gagozan gora-bera asko dira. Gauza orreik ez dakiguzalako inork ezin ezer esan dagikegu ikasteko edo jakiteko minetan gabilkentzen-artean.

Baño zer esango genduke ikasteko edo jakiteko gogorik gabe ezar sekonago aztertzeke barriketatsu ta buru-arin ibilli ba-genkilkegez?.

Kooperatiba sailletan eta euretako giza-arazoetan baditugu oraingoz aizetsu ta ardurabakokeriz arazo astunak eta korapillotsuak erabagi nai ditunenak eta onein artean zapi ta gonon arduraz ta jokabidez trebeagoak dirudiarrenak batez be. Kooperatibetako neskatxa batzuek edo geintsuek.

## Zeri begira

Emakumeentzako ta batez be neskatiilentzako lanbide egokiak eratutzeko asmoz ontzat artu ta sortuarazotako lanbideak ugaritu dira kooperatiba-sail ta toki batzuetan. Orretarako beran-berariz alegiñak egin dira. Ta naiz ta emakumeak eurak eurenez teknika-aroetan oraindik axal izan ba-ditue ogibide edo irabaazpide gogogarriak kooperatibak indartu sortu diran errialde batzuetan.

Ori ondo dago. Ori orrela egiterik ezin esan legike onuratsu ez danik baña emakumeak eurak edo emezalerik askok oraindik orrela jokatu al legikean eta jokabide orreik danon onerako oñarritu al izateko zer inporta litzakean bear beste ez dogu sakondu edo aztertu ta ikasi.

Akats orren errua nor izan dagiken ez genike azalduarazo arazo oneik obeto aztertzeo, baña esan ganike kooperatibetako neskatax edo emakume askok arazo ta ardura sakon onetarako baño zapi ta gizarte arazorik txepelenerarikoetarako begirapen geiago dabela. Aizatsuegi ta ajolagabe dakusguz egitarau garrantsitsuetan. Atzapar edo esku puntetan daruen diruz ta eskuartez aseturik edo arroturik ikasteko edo gertatzeko baño larriago dira kaliak-gora ta kaliak-bera barrikeritan irakiteko ikas-miñez denpora obeto aprobetxatzeko baño.

Giza-barritze ta aurrerakizun sustraitzuak indartzeko ta euren bidez gure erriak burua jaso al digiken tinkotasun geiago bear dogu ta danok ingurura, urriñago ta aurrerago begiratu bear dogu trebetsu jokatu al izan dagigun.

Kooperatibetako emakume talde batzuek beste gizonezko edo emezale batzuek badaukagu zeregiñik asko ogibide ta lanbide egokiak sustraitu edo ugaritutzerik gura badogu. Orretarako lenengoz buruak eta atzaparrak obeto ornitu ta edar-eigten eta gero eguneroko irabaziak obeto nuratzen. Azaletiko ta egunian eguneko onuragarritz aurrerapide gitxi izango dogu. Ikasi ta aurreratu. Etersanuez gañera beste trebetasun batzuen jabe egin. Aizetsu baño trebetsuago izan.

## Zorotsu

Garratza dirudi diñogun itz onek.

Sarri izan oi da egi biribilla gordiña, mingotsa.

Penagarria dalako diñogu emakume edo neskatax askoren jokabidea etorkizunari eta kooperatibei begira.

Lanik egiten ez dabenik edo lanean, eskuartean daben lanetan ondo jokatzen ez dabenik ez dogu esan ai. Baña ezin ukatu genike etorkizunari buruz eta kooperatiben onerako onuratsuak diranik burubide ta jokabide batzuek. Eguneko goraberak eguneko ikusmira baño geiago gabe neurtzea ta bakoitzaren eskuartea ta eginbearra egunekoan itoten dirala ustea.

Kooperatiba-sailletan neskatsentzako ogibideak ugaritu al izateko ta emakumentzako lanbide egokiak sortuarazoteko aurrerago begiratzen eta aurreratzen ikasi bearrik badogu danok. Giro barri au sortuarazoteko gizonezko ta emakume danok daukagu oraingo izakera batzuek aldatu bearra.

## Iñoren mende

Iñoren mende izateke iñor be ezin bizi izan legike gizatsu.



Alkartasuna ez da iñren mende izatea, bakoitza bakoitzari jagokonez izatea baño. Iñor be ez gara, ez emakume ez gizon bakarti izateko egiñak eta orixegaitik alkartasunak elduarazo egiten gain, osotu, indartu, gozatu.

Emakumeetaz diñoguna gizonontzat be bardin da kooperatiba sailletan alkartasuna onuratsu egin al izateko. Alkartasuna ongarrizko batzuek bestetzuen akatsak agertuarazoten baño alkarri erakusten eta urrunago, aurrerago begiratu el izaten geiago alegindu gadizan.

## Nekazari-barriak

Egunotan M.C.'ko Estaduak, orretan alkarturik diarduen Errialdeak Bruselassen euren Ministroak egin daben batzarrean, 1971'ko 3'ren 25'garrenean, erabagi garrantzituak artu ditue. Datozen lau urteren buruan 34.000 milloi laurleko ordaindu bear ditue nekaarritza-lanbideak eta tankera aldatzeko.

Adi: 55'tik 65'rañoko nekazariak nekazaritza itxi ta bizi nai badabe egin lezake euren lurraldeei jagokoen errentak jasorik lurralde orreik beste batzuen eskuetan ta ardurapean itxirik beste orreik euren "explotaziñoak" egokiago egin al dagikeezan. Beste aldetik "explotaziñoak" barrizatu ta aberaskoitu gura dabenak orretarako eskuarte izan dagien oparo lagunduko jakue. Oneratarako sei urteren buruko jokabide edo Planak eratu bear ditue ta onartuarazo agintariei.

Erabagitsu ekin dautse "nekazaritza sailletan eta eginkizunetan bestelako industri edo ekonomi-sailletan beste irabazi al dagikeen orreyan ogibidea izan nai dabenak eta konpetentziari eutsi al izan dagioen. Il edo bizi, iñoren erruki ta gobernuen laguntza gabe nekazaritza arloetan jokatu al dagikeen egiten da ori. Orretarako burdingintzako edo automobilgintzako edo beste edozetariko eginkizunetako antzera "enpresa" barriak sortuarazoko ditue. Gaurkoz landu al dagikezan saillak landuaz, gaurkoz izan dakikezan saillak landuaz, gaurkoz izan dakikezan tresnarik eta makiñarik onenak erabilliaz eta bazterrak ugaldekor egiteko bear diran "onuragarriak" eta aziak edo landarak eta abereak izanaz.

Orain aru dituen erabagi onein indarrez urte gitxieren buruan Europarako nekazaritza guztiz aldatuko da ta nekazaritza orren ongarrriak mundu zabaleko beste toki batzuetako ongarriegaz konpetidu al izango dabe.

Esan lezake 25.3.1971 eguna gomutagarria izan dagikela nekazaritzatik bibi zear daben guztientzat. Angoentzat eta baita emetikoentzat be. Tartean dagozanentzat eta tarteko izan izarren nekazaritzatik bizi gura daben danentzat.

Gabiltzan adi ta argi.

Zirt edo zart egin dagigun eta aurrerapide-zaleegi izan ezarren lotsagarri ta beti atzerapentsu izan ez gadizan batu, alkartu ta ikasteari gogotsuago ekin dagiogun danok.

## Batzarrak

Lenkiden Auzo-Aurrezki Ontzia'k Lankiden Batzar Nagusia egin onkoren Auzo-Batzarrak egin izan oi ditu urteoro ta aurten be eratu ditu.

Auzo-Batzar orreitara juan bear dogu Auzo orreitan edo inguruetan bizi garanok eta batzar orreitan aitzen emango dauskue urteko goraberan kontua.

Izan dagikez bere akatsak eta obearazi bearreko gauzarik asko. Auzo-Aurrezki izan al digiken batzar orreik aintzat artu ta joan gadizan eta esan bear dana esan dagigun, argitu bearra daukana argituarazoteko eskatu dagigun. Olaxe danon artean eta danon miñez ta gogoz indartu ta aurreratuko dogu Elkarte au, gure kooperatibak indartuarazo ta zabaltzeko egindako elkarte au.

Jorraillaren buruan eta Lorillaren 8'an egingo dira AuzoBatzar orreik.

Aurtengoz Batzar orreik oneitxek izango dira:

- Sestao'n Aprillaren 3'n
- Legazpia'n " 17'n
- Zarauz'en " 24'n

Lizarra-Estella'n Mayatzaren 8'n

Udabarri-girotan eta aurrera geruago ta tinkoago egiteko asmotan ospatu dagiguzan batzarrok.

Gure gaztediak eta atzera geratu nai ez daben gure erriak eskuarte ta jokabide barriak bear ditue. Lana ta Alkartasuna dira gure jokabideak. Orreitxek dira gure erriaren eskuarteak eta askatasun-ariak. Arnas-barri girotan jokatu dagigun danok.

## Danok danon bearrean. Apirila 1971

Gizartea aurrera ta aurrera duanarik gizonok geruago ta alkarren bearrago izango gara: aurrerago ta geiago jo bearko dogu alkartasunera. Auxe da egi biribil bat onartzea zail egiten jakuna, batez be alkartasuna-ingurua zabaltzea norbera baño gitxiago diranei laguntzea danean edo alkartasun-aritan artu baño emon geiago egin bear danean.

Guri ta ingurukoei danoi kostatzen jaku alkartasuna indartzea ta biribiltzea. Esan lezake gizonok eta gizarteok borondatez alkartasun-sailletan aurrera ez guakezenetan aurrera egitera izateak, bizitzak berak biurtzen gaituala.

Euskotarrok ba-ditugu gure miñak eta asarreak gure jakintza eta izatea beste batzuek biurritu ta legortzen dauskuelako. Aldi onetan edozenbat batzar eta azterketa egin ditugu gure problemak eta auzien sustraiak zelan dagozan jakiteko ta komeni diran aldakuntzak sortuarazoteko.

Batzar eta billera oneitan danetan entzun dogun kezka ta larria auxe izan da: zapalduta gagozala, eusko-kultura ito-agian dagola; askatasun geiago bear dogula; orretarako iñork ezin ukatu dagikula eskubiderik; beste batzuek guk eurak errespetatzea nai badabe eurak be gure eskubideak aintzat artu bear dituela.

Emen danok jakin dakigunez kultura-arloetan erdel-kulturapean gagoz eta orixegatik erdeldunak erdeldun diranez ta jokutzen dabenez ez dauskue onik egiten.

Erdeldun edo erbestekoak eurak be baditue beste sail edo arlo batzuetan euskotarrontzako gozatzu ez diran zerikusiak eta kezkak.

Ez dogu pentsatu bear areik dana tzarto ta danean gure aurka diarduela gure aldetik eta guretarrak ezetariko gogorketa ta zuzenbiderik baño egiteke.

Euskotarrok ezin aaztu dagikegu emen gure tartean iñoren mende gagozanarren erbesteetab gure mende be badagozela ekonomi-arloetan eta egintzetan.

Emen eusko-kultura erbeste-kulturapean eta an, erbestean, ekonomi-eginkizunik esko ta ekonomi zerikusi andiak gure ekonomi ta ekonomi sailletan dabilzan gizonen mende edo arietan jokatu bearrean.

¿Nork ez daki Euskotarren asmoz ta burubidez zuzenduriko egintzak sustrai zabalak dituela ta sustrai orren bidez edo emen eginda ortik zear saltzen ditugun tresnen bitartez geuk be beste batzuek eta beste batzuen ekonomi-eskuarteak aprobetxatzen ditugula?.

Onetan naiz ta zabalgarri edo esangarri izan ezarren badira ukatu ezin genikezan eta guretzak onak eta beste batzuentat arrein ongarri ez diran zerikusiak.

Norbaitek esan eban ez alde batetik ikusi genezakez bi milloi euskotar edo geitxuago erbeste-kulturapean euren jakintza edo kukturari jagokonez jokatu eziñik eta bestetik egoi-aldean ogeitamar milloe edo geitxuago ipar-aldeko talde txikiareen ekonomi-zuzendaritza edo ekonomi-arietan keskatsu edo miñez; batzuek askatasun miñez eta bestetzuek zuzentasun egarriz; kultura zapaltzaleen mende eta gizarte-zuzentasun eskale.

## Errudun. Maiatza 1971

Gure erria maite izateko errugea danik ez dogu oldoztu bear. Gure izate ta izanbide iturri ta ustar dalako maite dogu. Maite dogulako aintzat artu bear ditugu ta ondo aztertu bere akatsak ta onberatzen alegindu.

Norbaitzuk azkenengoan giñuzan jardunen batzuekin mindu egin zirala diñoskue. Geuk be ba-genduzala beste errialde batzuek txarresteriko zerikusiak geure artu-emonetan giñuan eta esan egikela ba-genkiala iñoren bearrianak geure alde onuratzen. Guk orren errurik ez genduala artu-emon orreik eruateko kapitalismoak jarritako maillak baño ta mailla orreik ezin genduzala eten?. Orreik eten al izan ba-gengikez ez ete genduke iñoren, besteen bearrik izango?.

Danok daukagu geienetan uste dogun baño beste geiagoren bearra.

Elkarte-erakunde barriak sortuarazoarren ezingo gara iñoren laguntzarik gabe biziko. Iñoren bearren izango geranez iñorekin zelan eratu geure zerikusiak aztertu ta egokitu bear dogu.

Iñoren jantxokeriagaz erretz iguindu izan oi gara.

Arrokeri ta jauntxokerigabeak al gara gure ingurutakoen edozein zinurkerik iguindu ta gogaikatzen gaituanok?.

Españiarren jauntxokeriaren atsa edonun aipatu oi da. Jauntxokeri orren sustarrak sakonak dirala esan oi da. Luzaro lurralde zabaletan jaun eta jabe ibilli ta bizi izan oi dira Europa'ko basterretatik Ameriketa'ra arte. Euskotarrok be tarteko izan giñan eta kutsuren batzuek ezarriko ez jakunik ezin izan legike.

Euskotarrok batzuen eritxiz jauntxokeriari baño arrokerirako berezko jokera aundiagua izan dogu. Orretan Ortega'k esango dau gure arrokeri ori sailla izan dala, arrokeri-putza, sakongea, ez gizakaitza giza-min azalkoia baño.

Dana dala gure lurraldeak mamintsuak, guriak eta emankorrek izan ezarren gure erriak beti aurrera egin izan dau ta beste lurralde onuragarrietan bizi diranen maillatorena eldu-garia.

Lana izan da gure erriaren indarra ta onurea.

Bakarti-berak izanarren auzo-miñik gabeak ez gara izan, edo auzoerakunde bidez jokatu izan oi dogu.

Iñoren onurarik geuregandu ez daogunik ez diñogu. Iñoz iñor atzipetu ez dogunik eta otseindutzeke ibilli garanik be ez.

## Jokabide barrietan

Iñoren bearrean geranez eta bakarti ezer egin ezin dagikegunez jokabide barriak onartu bearren gara.

Gure tartean ekintzagille asko izan ditugu.

Ekintzagille edo enpresario oneik bata-besteakin jokatu-bearrean jarri izan gaitue ta orain arte aberrastu izan diran ugazabak eta alogera irabazteko egokitasunak izan dituen morroiak edo langilleak, danon artean, naiz ta bakoitza zor jakonik gabe edo zor jakon baño geiagogaz geratu, Erria jaso egin dogu. Erri orretan izan dakikez komeni ez diran ezbardintasunak eta zuzengetasunak baño gorabera orrein gure Erriak egunetik egunera eskuarte aundiagoa ta ogibide ugariagoak izan ditu.

Onetan iñork ez dagigula erantzun zuzen eta garbi, gizatasunez eta morroitzza-bidez ibiltea bardin dala diñogunik. Ez diñogu besterik giza-mallan edo bakoitzaren eta elkartearen arian gogogarria izan ezarren danon gañetik edo bakoitzaren eta talde batzuen neurrian onuragarri izan ezin legikezan jokabideak, Erri osoaren gisan ongarri izan dirala. Etxetik jaurti izan oi doguzan anabasak onuratsu biurtu izan oi diran antzera gure bidebakokeriak be Erriaren azpigarri ta lurraldearen ongarri biurtu dirala. Gure gurasoen obenak ondorengoan ogibide ta eskuarte.

Gau bidebakokeri batzuek gaitik asarre geran batzuek eta daukaguzan gizarte-erakundeak ausita deusestu gurarik gabiltzan asko lotsatu bear aundian izango ginake geure belaunikoen edo guraso ta aurretikoen kontuak gogoratuko bagenduz.

## Alkartasuna-giro billa

Askatasun-alde jokatu gura dogunok eta bakarti indarge geranik ukatu ezin gengikenok alkartasun-alde egin bear dogu.

Askatasuna ta alkartasuna baterazoten edo buztartzen ikasten ez badogu askatasunak iges egingo dausku eta bakoitzaren askatasun miñetan ornitzen ez dan alkartasuna, ez da batasun-lokarri astuna ta antzua baño.

Kooperatiba-erakundea orixe da. Askatasun eta alkartasun buztarria. Iñor otseindutzeke ta bakartadean itoteke aurrera egiteko izan dagikegun elkarre-erakunde egokia. Orretxen bidez giza-gozatuko doguz ekintzagilleta ta lanbidea. Danok anaitasunean alkarturik jasoarazoko dogu gure erria. Berari, bere izakerari jagokon erakundez moldatuko doguz gure jardunketak. Jauntxokeriak eta morroitzak uxatuko ditugu gure tartean, geure arteko kateiak etengo ditugu ta danontzak onuragarri izan dagiken ekiteari bultz egingo dautzagu.

Morroi izatea mingotsa da ta oraingo ugazaba izatea gozoa danik gitxik uste al izan dagike. Danok Jaun eta Jabe izan gengikezan lagunki Lankide izatera jo dagigun. Auxe da Kooperatiba.

## Umeak eta zarrak. Uztaila 1971

Gure gizartean ixilik ditugun taldeak oneitxek dira. Umeak eta zarrak, batez be zarrak. Umeen ixenean nork euren alde egin ez oi da palta ta.

Gazteak dirudianez gizarte-ardatza dira, baña burpil gabeko ardatza lirakez ume ta zarren eskubide ta arduren jaube iñor egingo ez balitzake.

Gizartea gozatzeko ta ondo eratu al izateko geruago ta ardura aundiagoa artu bearra daukagu umeak ume-umetatikan alik onduen ezten, gertatzen eta ume ikastola ta edukazio sailletan umeei eurari ta gizarte guztiari, gazte ta elduai, ondo letorkekioezen erakusbideai aurrerapidea emon bear zaioe.

Zarrak alde batera bear baño geiago bastartzeko arriskuan dañok gagoz eta auxe izango litzake giza-bidegabekeri tamalgarria batez be neke edo lanpean bizi egin daben gizonak oparo bizi diranak txarrerizirik.

Umeenganako ardurea goraka doa. Bejondagigula danoi, baña gure tarteko atso ta agureenganako begirapena be indartu dagingun. Gure ondoren datozenak eratu ta ezi dagiguzan geure ereduagaz jardunakin baño sakonago.

Oparoen ta gozatsuen bizi bear leukienak orretarako eskubiderik aundiebak dituenen eta gozotasun orren bearrik aundiena be bai atso ta agure orreik dira lana ta zintzotasuna bizi-ardatz dituelarik bizi diran ezkerro.

Bakoitza bere seme-alaben errukipean ondo legokenarren bakoitzak orrez gañera gizarte-babesa be izan oi daben baño geiago bear luke.

Onetan danok daukagi erakunde egokiak orretarako asma bearra.

Europa'n badira Estadu batzuek onetan jokabide barriak aintzat artu ta "probatzen diarduenak".

Giza kutzu sakonagua bagendu onetan sayatzeke ainbat aundikeri ez gendukez onartuko. Aundiki izan bearra daukenak erdi bastartuta daukaguzanal dira geienok geure arten oparo artu izan oi ditugunal baño geiago.

## Kooperatiba gora-bera batzuek

Igaro diran azkenengo ille biren buruan alkaturik dagozan kooperatiba geienak egin dabe gorakada aurrerapidetsua.

Lankide Auzo-Aurrezki Ontzin eun milla libretatik pasatu dira, mobitu oi diran libretak.

Industri-Kooperatibak be produziñoa goraka daroe ta naiz ta oporraldietan izan aurrez eratu ta erabakita eukezan malletara eldu dira gañezka.

Berreun inguru lankide barri geitu dira kooperatiba orreitan, naiz ta banekaren batzuetan problemaren batzuek izan.

## Egunean baño egunean argiago

Jokabide barriei eldu bearra izango dogu gure erriak eta gizonak lanbide ugariak izan al dagiezan eta atzerakadarik gabe iraun dagigun jatorkeguzan urteetan.

Oraingoz gure aberatsak ikusten dabenez dirua onuragarriago enpleatu lezake jolastokietan lanki barriak egiten baño. Onetan aberatsok ala erritarrok ¿zeiñek daukagu erantzupen aundiagoa?.

Batzuk jolasteko gogoia bezain alkartzeko miña sendoagoa bagendu besterik izango genduke danok.

¿Inguruko jolas-tokitik onenak dituela ta arroska ala inguruan baño ogibide ta lanbide egokiagoak, gaurdakoiagoak ditugulako arrotu bear izango giñake?.

¿Zer pentsatu edo zer egiten dau gure gaztediak erri-alde ta erriak bear leuken eralkunde alde?.

Sasoiz sail barriel eldu bearra daukagu ta eginkizun oneitan denporaik ez zaigu sobratzen.

Egia da ikasbiedeetan egundoko talderik aundienak dituguna baño ikastetxeetatik ateratzekoan danak egokitasuna dabenik ezin esan lezake ta ikasle oneik burubide barriak onatzen ez baldin daditue laister lanbide paltaz izango dira. ¿Patrono zarrei ala gazte barriei nori orretan kontuak artu?. ¿Bata lako beste ...? Danok aundiki ta gizakaitz?.

## Pentsakera ta bizikera

Pentsakera barritu bearra daukagula entzun oi da alde askotan. Ikastoletan ta baita elizetan be.

Pentsakera bizikerak berak aldatzen dabela ikasi dogu edozeiñek oporraldi edo jaie egunetan. Nork ez daogu geuregan somatu aldakuntza au udaldi onetan ¿paro, aundiki ta bomboka bizi izan al izan dogun egunetan?.

Bizikera aldaketak uka eziñak ditugu oraingo aldietan.

Zelako eta zenbaterañoako bizikera aldaketak diran jaso edo eruan izanekoak, orixe da oso zailla jakitea aurrez.

Urtearen buruan eta batez be lanpean izan garan artean ontzat artu, ezin ditugun bizikerak probatu ditugu ta onertsi orretarako aulerea izan dogunean.

¿Ez al da au egia?. ¿Guretatiko nork pentsatu al izan dau berak zoratsu ta norberekoi egin dituan gastuen diruakin beste batzuen bearrizan askorik be aski betearaso lagikezanik?.

Pentsalera ta izakera ondo buztarturik edo bateratsu daroakezanak eta norberai opadautsana urkoei be opa izanik bizi izaten dakienak dira giza-gidaritzat onartu dagikeguzanak.

### Gerratea ta pentsakera

Gerratean ibilli giñañol eta guda-kuntuak aoz-ao entzutean izan dabena ezin bardintsu pentsatu giñeike. Au be egia da ta oraingoz zer ikusi aundia gure goraberetan izan dagikena.

Ez da bardin gerrate konteuen entzutea izatea ta kontu arein barri iñoren esanen bidez izatea ta norberak orduko larritasun, gizakaitzkerita gorroto ta azpikerien eden kaltegarrien jakitea edo esperientzia aukitzea.

Egunotan irakurri dogunez gerrateanen entzutea baño besterik es dabena orduan umeak zirakarik euneko irurogeitamar dira. Oneik gerratea irabazi zala ta beste gabe gauzak euri deitzen moduan euti guradutzenei ¿zer eritxi dagikoe? Orduan edo aurretik izan genduzen gorabera indarrez edo erakusbidez oraingoz onartuarazo gura gengikezan erakundeak ¿sustraitu al lezakez orrela?.

Gerraten bederatzi urte egitekoak edo geienez be bederatzi baño ez ebena ia ogeita lau milloi ei dira ogeita amalau milloiren artean.

### Lana ta pentsakera

Oraingoz danok edo lan egin nai dogun geinok daukagu nun lan egin. Lanbide paltarik ez dago ta lan gabe dagozak amairu milloi langilleren artean eun milla baño ez ei dira. Kanpora lanera joan diranak kanpuan lanerako eskabiderik izan ez balitzan lan gabe oriangoz orrein artan milloi bat gutxienez izango ei ziran.

Lanbide gitxitze izparrak edo zurrumuruak asi dira. European urte askoren buruan lanbide aukeretan atzerarik egin ez dabena errialdeetan atzeraka asi ei dira naiz ta oraingoz urduritasun gabe.

Euskalerrian ezin esan genezake lanbideril palta danik itxura baten baña ez da egi osoa. Gauzak ondo astertu gabe egokitsu dakusguzen auzo ta erri bat baño geiagotan lanbide geiago belituzke obe izango lauke.

Sail ta giza-arazo oneitan arduratsu jartzen begara utsunerik eta egin bearrik asko somatuko ditugu.

Eskasidade gitxi bear litzake gure artean urduritasun eta larritasun garratza sentitzeko ta jaso bear izateko.

Aundiki bizi izatea baño obe genduke sakonki jokatzea gure etorkizuna sustraitzeko. Gure gaztedia obeto gertatu al izan dedin lanbide barriak sortuarazoteko.



## Leenago, orain eta gero. Urrilla 1971

Gaurkoz leenago, orain eta gero, alkarren ondoruago ta urrerago dagoz dirudien baño: deponra bizkor igarotzen dala oi da beti baño orain sekula baño bizkorrago.

Batek zelako aro ta girotan gagozan orain kontuan jausten danean ez daki zer egin irriparra ala ezetarako be aintzat artu ez batzuek edo askok inguruan izakera gaurkotzen diarduela diñoenean. Orreik diñoen gaurkotzeak ba-al-dau sakontasunik, sustarrik edo tinkotasunik irau al-izateko?. Iraupenik izan baligekee izaketa ta jokabide orreik zertarako ta zelako iraupenean usteak jarri genezakez orain?.

Leenagoko izakera ta jakintzak alperrikoak diranik ez dogu esan nai: leengoa gurea danean ondo dago aintzat eukitzea gure gogo ta izakeraren min edo mami-indarren batzuek an izan dagikezalako, baño sekula be aaztu gabe gerokoa kontuan ez badarogu giro barritan edo egunik egunera iñoiz baño guritsuago aldatzen dan girotan ito edo beintzat indargetu dagikelako.

Ondo dago ta alegiñak egin dagiguzan al doguna "gaurkotzen" baño gerokoa ta izakerak daruan "arrapataka" biziagoa ta larriagoa izango dana goguan izanik. "Espiritua" edo gogoa betikotarra dala esan oi da ta ala dirudi baño gizonoi gogaingarri izan dagikeguzan gauzak izan dagiken gogoa gitzi edo asko geruago ta "pasagarriagoa" izan bearke dau danok sakon ta guztie gauzak aldatzen ekitenez dautsagun artean eta egun ori urrun dagola dirudi ta batez be orretarañoko aldaketak onartzeko "aingeru" biurtu bearra izango dogula.

## Pentsagarriak

Aldakor izan bearra berez-berez jatorgu naiz da bearrekoak litzaken aldaketak aintzat artzeari jaramon asko egin ez.

Egunotan aldizkarietan irakurri ditugun eta oñarrizko esakizun eta azalpenak dirudienez, "industri-arloetan" oñarrituta dagozan errialdeetan batenaz-beste 15 urteren buruan bikoiztu egiten dira gogogarri edo eskuartu gengikezan "tresna" ta "otseinpegarriak". Eta irurigei ta amar urteren buruan bazkiztu gutxienez. Onetan gaur jaioten dan umeak amabost urtebarru edo amabost urte dituanen pentsa dagigun orain dituan baño bi aldiz gauza geiago izan dagikezala beretzeko edo bereizteko; aguretu dagikenego bost aldiz geiago.

Geroruntz leenago eta orain-arte gogogarri izan jagukuzak gauzendako egarri ta lortumin gitxiago izango dogu gauza geiegoren artean jokatu ta bizi bearra izango digulako.

Gaurkoz aurreratuen dagozan errialdeetan guk oraindik izan oi ditugun eskuratu-min edo bildur-bear oso ezbaridiñak sentitzen dabez. Berez-berez aldakorrakoak izanik diperente ikusi ta baliatu oi ditue euren inguruko gauza guztiak ugariak eta erretz eskuratugarriak diranez.

Onetan aritan ditugun aldakuntzar gure izakera ta etorkizunari geienetan uste dagikegun baño muñago ta azkarrago ikara eragingo dautsoe. Orixegaitik leenakorik guztiz bastertu gabe gaurkoan be ez gadizan geieago oñarritu gerokoa kontuan eukitzeke: oñarruu ta indartu gaitezen gizona len, orain eta beti gizatasunena, zuzentasunean ta askatasunean guritu ta jaso dagikeen arlo ta barritzeketan.

Soiñak baño geiago gogoak indartu ta argitu dagiguzan; buruak eta giza-almenak ugariago jorratu ta gizatu dagiguzan.

## Gizatasun-jokabidea. Azaroa 1971

Gizatasun-gabeko zuzentasuna ez da zuzentasuna ala dirudianarren. Gizatasun-girotan aztertu ta neurtu bear ditugu beti gizonen arteko gora-berak. Onetan ez dogu esan nai bidebakokeriak bidebakokeritzat ez ditugula artu bear baizik bidebakokeriak txarreretsitekoan gizonari gizatasunean opa izan legikeozan eskubide batzuek oneratsi baño. Akatz batzuek zigortu bearra izango da baño zigorra gizatasun gabe ezin aplikatu bear ko da. Iñor zigortzea baño oker dabilkena zuzenbideratzea garrantzitsuagoa da. Zigorra orretarako izan bear ko dau gizatasunez zuzentasuna eraterik nai dutenentzat.

Gizatasun-girotan argitarazo dagiguzan argitu bearreko azpikeriak eta batez be danok bakoitzak bere arietan edo sailletan zintzo ta zuzen jokatu dagigun. Danok edo geienok gara jauskorrak eta iñori ez dagiogun opa geure buruari opa ez dagiokegunik.

Gure arteko alkartasunak gizatasun-girotan indarbarritu bearra dauka ta "inkisidore" baño laguntzalle ta zuzentasun-zaleak palta aundiagoa egiten dabe sail eta mailla danetan.

Danok argizaleago izan gadizan.

Zuzentasun-alde asmo onez jokatzeko lotsarik edo ixilperik ez dogu bear. Ondo ez darizkiogun arazoetan jardun dagigun eta ez gaitez an ixildu. Argi-zaletasuna ta gizatasun-giroa biak bear ditugu ta berez-berez ez dira indartuko danok edo geienok bakoitzak bere aldetik, alegiñak egiten ez baditugu ixil-eskutuka gabe sentitzen doguna eta esan nai gendukeguna itzari izateak eta asmo garbiak emon dagikekion indarrakin esaten ez ditugun arte. Nor nor geran eta nork zer gura dogun adierazoteko ez bekigu atzerapenik izan.

Kooperatibetan eta kooperatiberako arazo ta eginkizunetan ixil-eskutuka ibiltzea batzuen diñoenez umekeria da, bestebatzuen eritxiz maltzurkeria edo azpikeririk kaltegarriena.

## Jokabide barri-billa. Abendua 1971

Zarrak aztertu ta eurai eustea baño latzagoa ta baita bearrezkoa be bada gaurtik gerogoakoari antz-emon eta gertatzeko burubide egoki ta barriak girotzea ta oñarritzea.

Batzuetan dirudianez gure erri-min eta zaletasunak aurreruntz lenagoko erara moldadu al dagikezala giza-arazo ta egingoak pentsatu oi dogu.

Pentsakera orretan oker gagoz, Krisaillu argiagaz gure uri ta bide-zabalak orain ibilli oigaran baizen azkar ta ondo ibili al izateko argitu al balirake bezela.

Gaurkotu gadizan etzi iñoren lotsari izateke izan al gadizan.

Lenagoko espiritu zaarra ondo letorkekigu baño oraingo molde ta erraminta barriagaz.

Euskalerrriak aurrera egin al izan dau gure aurretikoak beste lurralde batzuetara joanarren eta batez be indarbarritze sakona egin al izan dau gure aurretikoak munduan-zabal irabaziak ondorengoak emen erabilitan aprobetxau izan dabeknarrez.

Orain ezin jaso legikena al da emen berton egindako ta sortuarozatako irabaziak beste lurralde batzuetan ta beste giza-talde batzuen onerako erabili al izatea?.

Olako arriskurik gabe beste jokabide batzuek oneratsi al izateko danok danon artean trebeago ta gaurdakoago jokatzen ikasi bear dogu naiz ta jokabide orreik batzuek edo askok oneratsi ezarren.

Giza-arazo ta ekonomi-arloetan saio barriak egin bearrean gara egoi ta ipar aizeak guk gura gendukenez nekez jo oi dabela dagikunok. Aize orreik onak izan dagikez baño aize orreik guk gure gustora ezin moldatu al izango ditugu sekula be.

## Giro onik ez?

Oraintsu arte Euskalerrian emen jaiotzen ziranak bear zituan baño lanbide geiago sortuarazoten ziran, batez be Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n. Esate baterako, zer egin da 1971'gn Gipuzkoan?. Kontuan jausten al gara?.

Laster gure ekonomi ta batez be industri-arloak Ipar-aldera Egoi-aldera baño zerikusi aundiagoaz izango ditugu. Zer jasotzen ari da gure arteko antzeko industri-egingo ta moldeak dituen Errialdeentan?. Prantzia'n, Belgika'n, Italia'n eta Ingalaterra'n bertan urte onetan lanik gabe dagozanak geituaz duaz. Orain arte ogibide onak izan diran eginkizunak utzi bearrean eta eginkizun barriai eldu al izateko opzio barriak ikasi bearren edo toki batzuetatik bezte batzuetara joan bearrean diranak millaka dira. Indartsu ta onuratsu zioten enpresak baimenka edo atzeraka doaz eta ez gutxik ateak itxi bear izan ditue.

Iñork pentsa al lezake ona etorriko jakunik iñor gure artean enpresak sortuarazotera gu iñoren otsein edo morroi izateke?.

## Zaarrok ala gazteok. Nork izan daikegu errezoia?

Zaarok eta gazteok danok batera alkarri lagundu dagiogun batzuek atzo egindagoa ta beste batzuek etzi egin al dagikeena zerikusik gabeko ariak ez dirata. Danok alkarri lagundu al genezakigu uste oi dogun baño geiago ta baita danon kaltegarri izan be. Gizarte ta erri zintzo ta soillen ezaugarririk onena batasuna ta alkartasun dira, azkatasun eta zuzentasunpean girotzen diranean. Ingartsuak eurenez makalak alde batera utzirik jokatzen dabenean zuzentasuna ta ondoren azkatasuna be laster oinperatu edo zapaldu izan oi dira.

## Aurrera beti

Iñork ez bedi uste izan zalapartadaka ta tipeka edonun eta edonoiz ez diardukegunok baimenka ta zalantzaka gagokezanik. Artu dogun saillean aurrera egingo dogu ta sail onein arduratsu gogoz edo bearrizanez egunean baño egunean geiago izango diralatan diarduagu.

Ekonomi-oñarriak eta sustarrak gizatasun-girotan gozagarritzea nai dugunoi gure Erria palta aundiagua egiten dausku ipareko eta egoi-aldeko aldizko aizeak baño. Ez batetiko ez besteko aize epel edo purrustadak bildurtzeke eutsiko duatsagu gure errikoi gogo bizi ta bereziari zuzentasun eta askatasun billa.

Gure alkartasun-arotan askatasuna gizatasun biurtzen da ta gure gizatasunak ezin lagike sekula be ezergatik eta iñorgatik eskasunik saldu edo galduarazi. Gizatasun gabeko jokabideak ezin onartu dagikeguz gure askatasunik iñoren mende utzi ezin dagikegunez.

Gure kooperatiba ta elkarteak dirudianarren baño maiteago dabe askatasuna, guda-matasak zer diranak dakiguzanok gizatasuna ta bakea bezela. Tinko ta emakor izango dan askatasuna.

## Aurrerapide bearra

Gora-bera aundiak izan ditu gure Erriak gizaldiak-buru.

Aizeak eta lurraldeak berenez baño lanaren-bidez geiago indarturik dagoz gure erriak.

Beigira zer deritxoen naparrak lurralde guriai buruz.

Adi naiz ipar naiz egoi-aldeetara ta arduratu zeren miñez diran euretan bizi diran gure anaiak.

Iñork ezin esango dau zeregin latz eta sakonen bearrik ez dogunik ditugun ogibideak tinkotzeko ta batez be gure gaztedi trebeak ta mardulak lan-eske ortik zear ibilli bearrik izan ez dagikean sortuarazo bear diran ogibide barriak eratzeko.

### Jarraipide egokiak

Egunotan aipatutako saio batzuek badaramoskue zertan ekin edo gotsu jarrai.

Gure itsaaldeko erriak ikusi dagikee Ondarru inguruan gazte talde trebe ta aldakuntz-zaleak eratu ta biziarazo daben Lanbide-Elkarte barria. Lizarra beti zar ta barri dan magalpean beste batzuek bardin ekin diote beste sail bateri iñoren otsein izateke euren gogoz ta buruz. Bitartean Markiña inguruan be badakuskugu beste lan-saio bat ogibide egokia dirudikeana inguruko gazteentzat iñoren otsein izateke.

Askatasun eta gizatasun bide barriak, alkartasun-girotan edergarritu ta zabaldu dagikezank; bear bearreko jokabideak.

## Gizatasun-jokabidea. Urtarrilla 1972

Gizatasun-gabeko zuzentasuna ez da zuzentasuna ala dirudianarren. Gizatasun-girotan aztertu ta neurtu bear ditugu beti gizonen areko gora-berak. Onetan ez dogu esan nai bidebakokeriak bidebakokeritzat ez ditugula artu bear baizik bidebakokeriak txarreretsitekoan gizonari gizatasunean opa izan legikeozan eskubide batzuek oneratsi baño. Akatz batzuek zigortu bearra izango da baño zigorra gizatasun gabe ezin aplikatu bearke da. Iñor zigortzea baño oker dabilkena zuzenbideratzea garrantzitsuagoa da. Zigorra orretarako izan bearke dau gizatasunez zuzentasuna eraterik nai dutenentzat.

Gizatasun-girotan argitarazo, dagiguzan argitu bearreko azpikeriak eta batez be danok bakoitzat bere arietan edo sailletan zintzo ta zuzen jokatu dagingun. Danok edo geienok gara jauskorak era iñori ez dagiogin opa geure buruari opa ez dagiogegunik.

Gure arteko alkartasunak gizatasun-girotan indarbarritu bearra dauka ta "inkisidore" baño laguntzalle ta zuzentzuzaleak palta aundiagoa egiten dabe sail eta mailla danetan.

Danok argizaleago izan gadizan.

Zuzentasun-alde asmo onez jokatzeko lotsarik edo ixilperik ez dogu bear. Ondo ez darizkiogun arazoetan jardun dagigun eta ez gaitez an ixildu. Argi-zaletasuna ta gizatasun giroa biak bear ditugu ta berez-berez ez dira indartuko danok edo geienok bakoitzak bere aldetik, alegiñak egiten es baditugu ixil-eskutuka gabe sentitzen doguna eta esan nai gendukeguna itzari izateak eta asmo garbiak emon dagikekion indarrakin esaten ez ditugun arte. Nor nor geran eta nork zer gura dogun adierazoteko ez bekigu atzerapenik izan.

Kooperatibetan eta kooperatiberako arazo ta eginkizunetan ixil-eskutuka ibiktza batzuen diñoenez umekeria da, bestebatzuen eritxiz maltzurkeria edo azpikeririk kaltegarriena.

## Ixil-eskutuka. Martxo 1972

Euskotarrok ixil-eskutuka jardun-zaleak ez gara izan. Ixil eskutuka-zaleak umeak izan oi dira ta onen antzera norbere jokabideetaz seguridade aundirik ez dabenak. Ixil-eskutuka azpikeri ta koldarkeri giroa sortuarazoteko gizontasun eta zuzentasuna askatazunetan girotzeko baño ohea izan oi da.

Ixil-eskututako giroan gure erriari jagokozan eta gizatasuna elduarazo daikeen gogo bizi ta indargarriak baño emetu ta indargetuko gaituen eden-min geiago idoroko dogu.

Erriaren ongarrri ta onbideak aotan arturik erriaren nortasun eta aurrerapideak ito-arazo dituen giza-talde politikakerien jokabideei barriro be laguntzeko bideetara goaz arpegiz-arpegi, argiz-argi tinko ta trebeago jokatzen ez dogunarte.

Erri-muñetaraño sartu ta erri-gogo bizia galerazi dagikegun jokabide oneik uxatu dagiguzan gure artean. Egia ta zuzena egi ta zuzen dira ezkeri iñork ixil-eskutuka ibiltearekin edergarritu ta aurrerapidetu baño indargetu ta galduarazo geiago egingo ditugu.

Saiatu gaitean ez bakarrik onari ta zuzenari ta askatasunari indar emoten baizik argi ta garbi, zuzenki ta gizonki indar emoten be. Orretarako nor nor dan jakiteak onik besterik ez dauka nor nor dan ez dagikun ezkeri nor zertara joakekigun be ezin jakin genezake ta.

Matxiñada arriskutsuagorik eta jokabide galgarriagorik izan al genkike zeintzuk eta zer gure dogun jakiteke ta batez be geure tartean azpikeri ta maltzurkeriak galeratzeke bizi bearra baño.

Leunkeriak ez gaitue indartuko. Umekeritan ez dogu oñarrituko askatasun sustarrrik gizatasun jokabideetan baño. Esan bear dana esan naiz ta garratz ta zorrotz izan esan bear dabenerantzat edo entzun bearra daukanarentzat. Egin bear danari ekin eta egin orrek ongarririk izan ezarren egin orrek ongarririk izan ezarren egin bearren dagonarentzat Aldatu bearrekoa aldatu ta eutsi bearrekoa tinko zaindu.

Umekeri ta emekeri gabe oiu, oiu bearrekoetan.

Ixil-eskutuka azpikeri ta maltzurkeri gabe gizonki ekin ta saio gizabidez, zuzentasun ta askatasun aro jokatu bearrekoetan.



## Baimeneka. Apirilla 1972

Bakoitza ixil-eskutuka ta gizartea baimeneka; gizabide oberik idoroten ez badugu gure erriaren erruki gagikez.

Ixil-eskutuka giza ta erri-zaintzalle biurrei iges egin al izango dautzague erriaren alde edo gizarte ongarrirako eginkizunen batzuetan, baña ez geure gizatasun eta izakeran ezer galtzeke.

Iñor baño geure buruak geiago atzipetzen ditugu jokabide orreikin. Eusko-kutsu la jokabide jatorrik ezin indartu ta sustraitu gengike egia, zuzentasuna ta askatasuna alde batera itxi ta jokatu bearren gabiltzanetan.

Arpegiz-arpegi, eskuz-esku ta endonun eta edonoiz lotsaetzeke egin al legikeguzan saillak aundiak eta zabalak dira erriaren alde ta etorkizun-billa. Orreitan be eztabaidaka ibilli bear al dugu?. Gure artean sortuarazo oi diran auzi ta alkartasun eragozpenei kasu egin ezkerorain arte gitxi giñalako edo euren mende ginduezanak geiago ziralako izan bagara zelan pentsatu genezake aurrera sail zabalagoekin zer ikusi izanez eta urrerapideen eskabide ta eskuarteak sakonagoak dirakenez obeto izaterik?.

Alkartzen geiago sayatu bear dan aldietan banaketzea galbidea da. Banaketzeko jokabidea ez al da lenago izan ditugun geurekoitasun guztiak biziarezotea aurreuntz zer paltarik aundiena egiten dauskun aintzat artzeke joka-miletan jardutea?.

Oitura zaarrak ondo dagoz baña etorkizun gabe beste gauza batzuen paltaz dagozanentzat edo auldurik gelditu legikezenentzat pozgarri ezin izan dagikez. Zaarrak eta barriak, leenagokoak eta geroagokuak danak aintzat artu ta batererazi dagiguzan eusko-izatearen alde.

Opizio bizileku ta lagun sailletan geruago ta lasterrago ta geiagok izango dogu aldatu bearra. Aldakuntz-miñez ta aldatu bearrez geruago ta geiago izango gara naiz ta orain olakorik pentsa ez edo iguingarri sentitu. Leenagokuetan gaurko gizasemeak ezin nasai edo tinko izan.

## Erdiz-erdiz. Ekaina 1972

Erdiz-erdizko gizasemea ez da gizona ta ez emakumea. Bere buruari begiratu ta lotsatu bearreko norbait. Erdiz-erdizko kristaua be zerura begira munduak iges ta mundu-billa zerurik irabazten ez dakian ta zalapartaka biziak ongarrri gitxigaz iges egiten dautson izakia gizakia baño geiago dirudi.

Erdiz-erdizko kooperatibatarrok, ez al daukagu erdiz-erdizko gizaseme ta erdiz-erdizko kristauari pasatzen jakona pasatu dagikegun arriskurik gizartean giza-bide barri billa dabiltzanentzako?.

Erdiz-erdi baño ornitu gabeko kooperatiba "enpresa klaserik txarrena" izan dagike lanaren bidez ogibidea izan nai dabenentzat ta ongarritzeko "erremedio" onik ezin izan dagike. Enpresa ori barrukoak sustartzen ta ongarritzen ez dakienean edo jardun ez oi dabenean kanpotik eta kanpotarrak ezin bizi-barritu al izango dabe. Geienetan berazka-berazka burukomin ugari ta aurrerapide gitxi sortuarazoko dabe euretan aginpiderik eta erantzupenik dabenentzat.

Pentsaten al dogu bear beste gure kooperatibak sendorik eta indartzu dagozan ala ez aundikeri-kutsuak zirri agiten dauskunean eta aberats barri jakobide ta izakera zaletasuna sentitzekoan?.

Erdiz-erdi baño geiago gure "enpresak sendotu orduko lenagoko "aberats barrien" antzera aundikeri ta arrotasun edo bakoizkerizko bizikerari ez al dautsagu eldu?.

## Danon artean eta ez banaka batzuen trebetasunez

Erdiz-erdizko egia, zer da egia ala guzurra?.

Guzurra dala egia dala diñoanaren oñarriz esan genezake.

Obeto esan genikena auxe da. Guzur utsa baño kaltegarriaga izan oi dala ta egia danez onerako baño galbide izateko geiago balio dabela.

Bein baño geiagotan irakurri edo entzuen izan oi dogu onako edo alako kooperatiba aurrera ta ondo doiala esaten danetan zuzendari trebeak dituala zuzendarien trebetasuna tarteko guztien edo geienen jokabide ta espiritua baño garrantzitsuago balitzake bezela.

Geienak gogo onez diarduenean eta alkartasun espiritua indartsua danean zuzendaritzarako giroak berez-berez elduarazo izan oi ditu asmo onak. Agintariak obeto agindu izan oi dabe ta lankide edo elkartekoak zeatzago ta obeto bete euren egin-bearrak.

Egia da giro oi sortuarazoteko zer ikusi aundia dabena agintariak eta euron izakera ta jokabideak baña baita mendekoen laguntasun ta erantzupenak kooperatiba sailletan beste ezerk baño geiago al dabena be.

Udabarrian edo udan giro onak lorak eta igaliak edonun sortuarazo oi dituztenez orreelaxe elkarte ta kooperatibetan be alkartasun-miñak ernearazo ta indartutzen ditu asmo ta jokabide onak edo onuragarriak.

## Tarteko Epelkeriak

Kooperatibak dituen areriorik indartzuenak edo kalterik aundiena egin legiskioenak ez dira inguruan edo kanpuan izan dagiezan "kontrarioak" etxeko ta barruko epelkeri ta bakoizkeriak baño.

Aundikeri ta arrokeriz edozein izan genike elkarte onein galpide, batzu be elkarateok sendotzeko baño bakoitzak bere burua eder-arazotzeko geiago dagikenez erdiz-erdi baño geiago "enpresak" sakontzeke.

Gure erri askotan orain ogei edo ogeitabost urte jaso zana jaso dazike kooperatiba ta erri batzuetan orain be; Aurrera egin eta indartzeko sasoirik onenean eta erabagitsu aurrera egin bear zanean enpresa barri askok tope egin eben eta okasio onik asko galdurik enpresa ta erri asko erdiz-erditan gelditu ziran.

Gure erriak koperatibetan eta kooperatibatan askotan ustea ipiñi dabe ta launtzeko gertu dagoz.

Kooperatibatarrok erantzupen au onartu al dogu?.

Pentsatzen al dogu bear beste utsalckeriei begira egin denporarik pasa gengikena?.

Oporraldi oneitan atsedean dagigun baña batez be aztertu ta oldoztu dagigun gure erriak jasotzeko ta aurrerapide arloetan eta arietan jartzeko zer egin gengiken, erdiz-erdizko euskotar eta errizale izan ez gadizan. Erdiz-erdizko era askotara izan gengike etxe-kalte.

## Penagarri ta iguingarria. Iraila 1972

Izan izatez danok gara dirudigunarren baño epelagoak, ardurabakoagoak. Inork ez bedi uste izan itxuraz ta aldizka emon izan oi dautzoguen importantzirik egiz eta barru-barruz emoten dautzaguenik ezeri.

Denpora asko ez da Muniken izan genduzan jasokizunei ta batez be Muniken bizia galdu eben deportista taldeari ta arei jasotakoari importantzi aundia emoten geuntsola. Penagarri zirudian geienontzat eta skorentzat iguingarri ta ezetsikoa gudalari batzuek erri batzuen arteko eztabaideetan zerikusirik ez eukenei bizia kentzea.

Egun gitxi idoro diranejo jasokizunok aaztu ta bakoitza bere kolkoko arazo ta ardura arietan bildurik ez al gara?. Auxe bai tamalgarria gizakumeok geure-geure tarteko sailletatik urten ezkerio izan oi dogun ardurabakotasuna.

Banaka batzuen edo talde txikien goraberal erne ta bizimiñetan jartzen gaitue ta orduan dirudianeaz gizatasunal bariduri daukana bizitasin ta kontzientzia. ¿Ala ote da?.

Egunik asko ta urteetan millaka emakume, gizon eta ume etxen, pameli ta gizatasun gabe edozelan bizi izateak eureen lurraldeetatik kanpora zeresan ta burukomin gitxi emon oi dausku. Plestinarrak zeñan larri ta laguntasun gabe basterrik askotan bizi dirannik nork ez al daki. Arabetar naziñoak eurak be palestinar orrein ogibidea ta bizi tokia erabagi al izateko egiten deban baño geiago ezin al dagikee?. ¿Ez al dabe pentsatzen palastinar orrein gorrotoak ta indarrak israel darrei beste ezerk baño kalte geiago egin legikoela ta israel darrei euren asmakizun eta burubideak itoarazotearen ardura geiago dabenik palestinarrei lagun egitea baño?. ¿Batzuen kalte egitea ala beste batzuei laguntzea zer izan legike onetan orretan arabetarren euren jokabiderik sakonagoa?.

Gorrotoa edonun eta beti izan bear dau iguingarria gizatasunmiñak ernearazi ta sustartzeko munduan.

## Askatu ala lotu

Gorrotoak gizon ta errialdeak askatu baño lotu geiago egiten ditu berez. Askatasuna gizatasun gabe abereak eurak be badabela ditudi. Egi da izan be gizatasunik ezin legikena askatasun gabe baño ez dogu pentsatu bear edozein mudutako ta edoselan sortuarazoteko askatasunak sustarrrik izan legikenik gizonon artean abereen arteko izakera ta jokabideak onarturik.

Eztabaidarik asko izan ditugu zeñek lenengo tiroka ekin ete eutson Egazkin-kanpoan israekdarrak eta palestinarrak egazkinbilla ta askatasun-billa eroan zituenean.

¿Emondako berbea, itza, zeñek jan edo ezetsi ete eban jakiteak ez al dauka garrantzi aundiagoa auzi-ori jakiñarazi ta arebagiteko?. ¿Emondako berbea jan ebenak ala tiroka ekin eutsenak zeintzuak eta zergaitik ete dira errudunago? Gizartean gizarteak eta gizatasunak etorpiderik izan al dagiken egiak eta guzurak eta gizonen artean gizatasun-bidez artu ta emondako itzak emon oi dautzaguen baño garrantzi geiago izan bear dabe.

Baditugu bai esan eta irakatsi oi dabenak importe dautzana irabaztea edo ekindako saillari eustea dala, zelan irabazten dan edo eutsi legikean ajolik izateke. Egiz ala guzurrez, zintzotasunez edo maltzurkeriz, zuzen ala oker. ¿Onartu al gengike olako burubiderik?.

Bai. Badira zelan edo zeren-bidez irabazi garrantzi aundiagoa dabela irabazteak berak baño diñoenak be. Auxe izan bedi gure jokabidea gizatasunez jokatu al izateko.

Indarkeri ta maltzurkerizko askatasun arabazketak gizadiari onagarririk gitxi emongo dautsoe. Orrelako indarkeriak onartu dagikeezanak giza-askatasun zale diranik nekez agertu-arazo al izango dabe. Indarkeriz sortuarazo izan gengikenak gizatasun saillik ez dausku sortuarazo ta indarbarrituko giza-bidez ta gizatasun-miñez ta neurriz eraturako indarkeria izan ezik. Badakigu gizatasun ta giza-miñezko indarketa izan lezakena, baño indarketa ori edozelan edonun eta edonork bere gisa erabilkorra ezin izan legike orretarako ta orretan gorroto ta bakoizkeriak galbiderik sortzeko izateko moduan.

## Eldukaitz eta bildurgarri

Gure giza muñetaraño ta askoren artean buruak nasteraño ta biotzak biazturnetan itoteraño elburu ta jokabide edo erakunde matasatan ta lañotan giroturik dakusguz askorik asko.

Zar eta gasterik asko geianok dirudigu onetan eldukaitz gagozala, baño ez da ori gertatzen jakunik penagarriena edo galbideentsuena. Galpiderik aundiena iñork erririk geiena onerazi baño kaltegarritu dagikeenetan ezer esateke ta jaramonik egiteke izatea da.

Iñork ez bedi uste dena edo gauzarik asko ondo dagozala esan nai dogunik, esta txarto gagozanak onez-onez edo berez-berez oneraturiko diranik be. Badakigu oneratu al izateko geuk ekin eta eutsi bearco dautsaguela geure gauzai. Bakarrik aztertu egin bear dogula beti zelan edo zeren bidez egokien, sendoen eta baita lasterren be oneratu gengikezan. Dirudik eta indarrik geien dabenak ezer egiteko edo edozer egiteko gizatasun-buruz eragozpen gabe jokatu al dagikeenez indarkeriz irabazi baño sarriagotan galdu egingo dogu.

Askatasuna gizon izateko ta gizatasuna askatasu egizko indarrez bizi gadizan.

## Aldakor ta zintzo. Urria 1972

Egia da gauzak aldakorrak dirana. Aldakorrak diralako onberatu gengikez gauzarik asko gizonok. Geuk geure izateagaz aldaketa-miñez ta jokabidez zer egin gengike?. Onberatu ta txarreratu bata nai beste. Auxe da gure askatasunaren almena ta danok dakigunez aske izan eta aske jokatzeak dakarkegun gizatasun-kutsua.

Aldaketa-miñez ta bidez bakoitzak bere burua ta danon artean gizatasun-saillak oneratsi al dagikugezan inguruko aldatu bearreko gauzak ta gertuagoak lenengo sustraiz ta ondo ezagutu bearra daukagu. Zer diran, zetarako ta zenbateraño aldatu al legikezan jakitetik asi bear dogu.

Gizarte-arazo ta giza-gertagiei buruz alperrikako eraso ta indarketarik egin bearrik gabe egiten ditugun alegiñak ongarrri izan dagikeguzan lenen ekin dagiogun sakonkiago saillok astertzen ta ezagutzen. Ez al dakus edozeñek askok eta askok, batez be itz garbi ta gogo zuzendun gasterik askok ezer edo gitxi ongarrituz euren buruak eta biotzak matasatzen dituenan?.

Gure gaztedia iruzurtu ta ezerezteko biderik kaltegarriagorik ezin artu lezake eziñiko aldaketetan arriskarazitzea baño. Ez diñogu aldaketa orreik onerazten ez ditugulako aldaketa guztiak egingarriak ez diralako baño.

Zintzotasuna bear-bearrekoa da. Zintzotasuna gizatasun lorerik edarrenarikoa da. Baña zertan eta zeri buruz zintzo izan bearra daukagun ikusi bear dogu lenengo. Eziñeko gauzetarako zintzotasunik iñori ezin eskatu legikeo.

## Eginkor

Ekiten dautsoguen aldaketetan naiz ta aldaketa oneik egin lezakezan aundiagonetarikoak izan ez eginkor izan bagenike geienetan mallaka-mallaka ta ariz-ariz gizarte-arazo ta ekonomi arloetan noraño eldu lezakenik ezin esan lezake.

Eginkor jokatzen dakienak arazo ta arlo batzuetan ikasbide orren bidez eginkizun korapillotsu ta garrantzitsuei ekin ta zuzenarazi gerturik izango dira.

Burrukalari ta guda-buruak baño palta aundiagoa ez al dabe egiten baster eta errialde guztietan erakunde-arazoetan eta ogibide ta lanbide jokabideetan trebetasuna ta alkartasun eta aurrerapide miñez jokatu al dagikeenak?. Errialde geienetan arretariko arloetan eta eginkizunetan buru diranak gizon eldu ta aseak edo zarrak dira. Asekaitz diran eta gogo barriz edo gizatasun bero-beroz jokatu al dagikeen gasterik ezin izan al izango dogu?.

Eskuartean ditugun jardunetan eta geienok edo danok eta esate baterako egunoro bear ditugun lanbide ta ogibideetarako buru zagiak nola ta noiz izango ditugu?.

## Urduri ta ameslari antzuak

Bai, urduri ziarduen eta ameslari ziralako aldaketa sakonen gogo ta miñik ebalako baño geiago dirudianez. Ainbat eta ainbat ingiñeru ta tekniko lanik gabe ta ogibiderik gabe ei dagoz. Ala diñoie izparringiak egunotan.

Gazte orreik zer ikasi dabe, zer dakie edo zer nai dabe?.

Gazte orreik urteetan ez al dira bizi izan iñoren kontura ta iñoren lepotik ez al dabeikase al izan?.

Beste gazterik geianak baño obeto gertatuta dagoz edozeri ekin al izateko. Euren buruz ta gogoz ezereri ekiten ez dakienak ba-dira ainbat garraxi gabe ekin dagioela ekin egin al dakikeen lanbide edo egitekoei.

Eurok izan bear legikee alkartasun-zaleenak eta geien dakienak edo egin dagikeenak alkartasun-arietan aurrera egiteko gertu dagozanean, errialde orreitan ekiebidet ta taju barrizko elkarteak ikusi bearko gendukez.

Jokabide barri orreik ikusten ez ditugun artean urduri ta ameslari izatea alperrik dala aldaketak gizarte-arloetan eginarazoteko esan bearko dogu.

Ez dogu uste urduri ta ameslaririk asko ikasle orrein antzekoak eta antzuak dirala jakiteko iñora joan berrai danik.

## Barriketa gitxiago

Barritsuegi izateko arriskua danok daukagu berbak ekinkeraz ornitu ta jasoten ikasi artean. Ikaskizun zailla da ori. Onik asko opa dautsagu geure buruari ta baita gure ingurukoei be. Asmo orrei erantzun al izateko danok zerbait beti uko egin bear izango dautsagu geure buruari. Ingurukoai zer palta jakoen jakin-miñez bizi gadizan orretarako bakoitzari zerk palta egiten dautson baño geiago. Olaxe sortu ta indarrerazi bear dogu alkartasuna ta alkartasun bidez aurrerapidea. Jakintsuak eta indartsuak, iñork egiñaritzeko aurrerapide zain ez gagizan egun aldaketa ongarrien eta sakonen miñetan gagozanok.

## Erria aotan eta bakoizkeria kolkoan. Azaroa 1972

Onezkero erri atzeraturik eta zapaldurik ez egoan munduan Erria aotan erabilli izan oi daben geienak kolkoan norberekoikeria baño auzo-miña sendoago izan baeben.

Jauntxokeriaz iguindu ta jauntxokeriak gañezkatu genduzala dirudiarren ez da egia. Atzoko jauntxokeria ta oraingo taldekeria bikiak dirudie ta jauntxoekin ta taldekerimiñez deabiltzanekin gure Erria umezurtz edo beste batzuen jokabide ta asmoen serbitzurako izan bearko dau.

Bai. Badirudi entzute batekoz dana dala erriarena ta danak dabilzala arriaren alde. Edozein erri ta auzo dituan ogibideak iñork eratu ta gidaritzeko edo zuzenbidetzeko bere gizasemeak gertatuta ez daukazanean jauntxokeri ta taldekerien aro ta arian izango da.

Lan-arazo ta sailletan trebetasunez jokatu al izateko azpidea lan egiteko ta lan arazoak eratu al izateko lortu bearra dago. Orretariko ikasketa edo eziketarik gabe noren menden ta n ren buruz jokatu al dagikee gure erriak eta auzoak?.

Orreitariko eziketa ta ikasketetan orain baño lenagotik jokatzen ekin eta jokatzen dakiena ondo erakutsi izan daben erri ta auzoak baditugu artean.

Barriketa ugari ta asmo-barriak zirin-zirin darioela diarduenei kasu egin bear ete dautsague?.



## Eskuarte gabeko eskubideak

Eskubideak gora ta eskubideak bera jardun izan, oi dabe beste batzuek. Gizamiñez ta askatasun zaletasunez izan oi dira askotan olako jardunak?.

Nor zer dan jakin al izateko nork zer esaten daben baño nork zer egiten daben adiago artu bear da. Gizonak eta erriak eskuarte gabeko eskubidez ezin ase genezakez kultura ta ogibidezko eskuartez euren buruen jabe izaten laguntzeke. Eskuarte orreik erriei ta auzoei eskuratzen jakonean "iraultza-albizteri" gitxi bear izango ditue.

Zapaldurik eta zapaldurik gagozala oiuka zerbait egitekotan diardugunean lenagoko sorgin-kontuetez eibartarrak esan oi ebana gogoratu dagigun.

Eibartarrak pistolak egiten ekin eutsonean eta pistolak saltzar asi ziranean iges egin ei-eben sorgiñak Euskalerritik. Uste dogunez lenagoko sorgiñen antzera zapalketak uxatuko ditugula eskubideak eskuartekin alkartzen eta orretaroko ezjakintasunak urrundurik bakoitza bere buruaren jaube lanaren eta lanerako alkartasunaren bidez elduarazo daikenean.

## Urduri ta ameslari

Ondo dago ta danok izan bear genduke urduriago ta ameslariago, baño danok egitekori biziago erantzunez.

Txorakeri ta amesak bikiak izan dagikez ta bein baño geiagotan biki-biki izan be bai. Urduri ta trebe, asueslari ta zentzundun.

## Marmarretan

Iñori be ez jako naiko izaten irabazi oi dabena bakoitzak.

Edozeñek pentsatsen dau geiago irabazi bear leukela. Geienok aintzat artu izan oi ditugu beti bakoitzak baño geiago irabazten dabenak. Gitxiagokin bizi diranak ez ditugu onetan kontuan eukiten. Nork ez daki auxe dala jasoten jakuna?.

Gure inguruan bakoitzak baño geiago irabazten dabenekin, batez be asko be geiago irabazten dabenekin konporme ezin izan oi gara.

Sail onetako buruausteetan diardugunean danok ixil-pentsa izan oi duguna izaten da "ondasunak gizartean obeto bananduko balitzakez, giza-zuzentasun giro ta ekikera geiago bagendu" dan-danok obeto izateko eskuartea ta bidea izango gendukezala.

Baña orretaroko aintzat artu oi ditugun baño geiago aintzat ez ete bear gendukez artuko bakoitza baño txarrago edo gitxiagokin bizi diranak?.

Eta urriñagokoak aintzat artu ezkeru, zenbatek konpormatu bear genduke gitxiagokin?.

## Ikasle ta ikasketak

Baziarduen alkarrizketan guraso bik.

- Zer ikasten dau zure semeak?. dirautsu batak besteari.

- Ba, nere semea DN. Fulano'k daukan ikasketak egiten diardu.

Zer edo zein da Dn. Fulano ori?. Dirauskidazu irakurle orrek orain niri, kontuan jausi al zaitezen guraso batak besteari ao betez ta pozik emon eutson erantzun ori zer ete zan neurtu al dagizun. Bai.

Dn. Fulano ori ez da bakarrik asko dakian gizon bat asko be asko al daben eta askok be askok modelutzat artu dagikeen gizon jakitun ta aginpidetsua da.

Orretan, adi zaitez, guraso areik beste gurasoari ez autson aitzen emon nai izan zelako ikasketa "importantia" egiten ari zan bere semea, zein en etorkizun aundiko ta deseogarrikoa zan baño bere umea.

Bai.

Ikastetaz-gain beste izaketa ta izakera onuragarriak be jakin egin bear da norberatzen ta eziketa-bidez giza-gozatzen.

### Asekorra ta asperkorra

Batzuetan badirudi gozonok edozerk aseten gaituala ta baita edozerk asperu be. Aldakorrek gara.

Aldakuntza aundiak dakusguz inguruan eta baita gizonon oitura ta jokaeretan be. Zer ona dan ezin jakin genezake zer geien edo geienetan onartzen dogun asterrutik bakarrik, edo geieneok zer egin oi dogun aintzakotzat arturik. Aizetsuak gitxi edo asko danok gara errezoitsuak baño sarriagotan.

Arazo sakon ta problema zailletan erabagi garrantzitsuak lasterregi ta azalegi artu oi ditugu. Erlegio ta izakera jokabidetaz edozeñek izaten ditu eritxi ta burubide sendo ta sakoneratikuenak nahiz ta sail eta arazo orreitzaz azterketa edo ikasketarik egin ezarren.

Erligio kontuekin asperurik gagozala dirudianik ezin ukatu genike baño ezta arlo ta arazo orreik bear baizen zeatz eta sakon aztertu ditugunik be. Eleizara juaten gogaitu gara ta elizkizunak gizagintzarako alperrikoak dirala be askok uste dogu.

Eleizkizun orde ta betegarri onartu ditugun jolastoki edo gozategiak edo batzokiak onuragarriak ete dira edo aintzagarriak Jaungoiko bakarraren ordegarri oneratsi ditugun aibat Jaungoikotxo?.

Aibat domiña ta kurutza kolko-gañean edo sametan agirian eruatea alperrikako erlegiotasuna zirudian eta ezin esan genezake orrenbesteraño erakusketak erlegio zaletasun eta giroaren baño gizaerakuspide aize larrien agerpen ez ziranik. Domina ta gurutza arein lekuan oraingoz ainbat tresna ta irudi ikusterakoan iñork ezin ukatu al izango dau aldakor, asekor ta barreagarriak gerala gizonok izaki errazoitsu ta sakon baño geiago.

### Iraultzalle trebak

Iraultza gora ta iraultza bera dabiltz gazterik asko.

Iñork ezin uka dagike iraultza ta aldaketa sakon eta zabalik bear ez dogunik giza-arazo ta sailletan azkatasun, zuzentasun ta aurrerapide geiago izan dagigun danon onerako.

Baña danon onerako zer bear genduken edozeinek al daki edo erabaki al dagike?.

Erriaren zerbitzurik onena izan al izateko edo aotan erreteaz erabili izan oi dogun Erriaren alde ta ongarri jardun al izateko erritar askoren eritxiak eta gogoak aintzat artu ta onartu bearko gendukez. Gazteenak eta zarrenak, gizaelduenak, menpekoenak eta edozetariko aginpidedunenak.

## Izakerazarrak gaurkotu. Abendua 1972

## Aurrerapidea

Norberantzat batzen baño iñorentzako emoten geiago alegintzen dakienak ugaritzen diranean aurrera egin oi dabe erriak eta gizarteak. Alkartasuna mamintzen debena ez da bata besteari begitze utsa baizik geien al-dabenak gitxiago al dabenekin buruak eta alegiñak baturik jokatzea. Izena es da izana. Alkartasuna mamindu egin bear da aotan erabili baño trebeago.

Alkartasunerako ez gaitue ezi ta azi bakoitzak bere burua edartzeko baño. Edozein gizasemeren antzera erriak erri diranez be eziketa bear dabe. Alkartasun-izakera mamintzeko eziketa soilla ta sustargea da geienon artean. Erria egiz maite al-izateko jokabide ta zuzenbidetze barrien barri izan bearra daukagu.

Erriak edo gizarteak erri ta gizarte bezela eskuarte ta jokabide bereziak bear ditue alkartasun-kutsutan erritarrak bakoitzaren eta geienen eskubide ta aurrerapide-miñari erantzun al izatekoak.

## Bear-bearrenetariko

Erri-arazo ta zuzendaritzan gogotsu ta trebe jo al dakien gizonal autestu ta eurai laguntzea da bear-bearrenetariko egin bearretariko bat.

Erri zibilizatu ta askeak orretarako legeak izan oi ditue ta orretan alegiña egiteko gogodunak be bai. Erri elduak iñork esateke ori jakin oi dabe eta eskubie edo eskuarte orren alde tinko jokatu be bai. Agintaritzarako agindukerindukak baño iñoren alde jokatzen jakin oi dabenak eta zuzendaritzarako trebetasuna dabenak autestu izan oi ditue erritar zintzoak.

Orretarako iñork egitekoari begira baño danen artean egin al dagikenaren ardura aundiagoa izan oi dabe gizakume ta erri elduak. Danen artean geien eragin eta trebetsuen jokatzen jakin oi dakienak geienetan iñorenganako norbere buruarentzako baizen ardura sakona artzen sakinenak izan oi dira. Orretarako alkartasun girotan ta jokabideetan zintzo ta emonkor ekin edo jardun izan dabenen artean gertatu ta onerazi bear dabe erri gizonik asko.

## Erri zuzendaritza gaurkotzekoan

Giro barritan eta batez be gizarte arazoetan ditugun giro barrietan aintzat artu bearreko erri-arazo barri bat lanbideak sortuarazo ta zuzenbidetzea izan bearra dau.

Lenagoko gizatasun girotan eta gizarte-arazo erakundeetan lanbideak nork sortuarazo ta zuzenaritzeko norbait edo norbaitzuk ezin palta izan oi ziran. Orain eta geroruntz izan liteke orrelako gizonak eta ekintzak geruago ta urriago izatea. Ikus dagigun lanbide barriak sortuarazotzeko eskuarte aundiak bear ditue orretan lenago bezela euren buruz ta eskuartez jarrai nai dabenak edo ekin nai dabenak. Beste aldetik langilleak edo laguntzaleak geruago ta eskakizun eta jokabide garratzagoak izango ditue.

Orain arte diru-egarriz edo agindukeriz ta aundi-miñez egin izan oi dabe dagikeen gizonak nekezago ta urriago agertuko dira. Eta diru-egarri edo aundi-miña dabenentzat mundu zabalean dei egingo dautzen eta nun jardun izateko errestasunak izango dabezan basterrik asko agertuko da.

Gaurkotu gaitezen eta orretarako arduratu gadizan geruago ta geiago danok ikusiaz eta ikasiaz eta irakasiaz danei alkartasun giro barritan jokabide barriak zelan sustatu ta indartu dagikezan.

## Eziketa barria

Eziketa barriaren bearra danok daukagu. Alkartasun eziketa, lan eziketa, gizatasun eta aurrerapidezko eziketa.

Jauntxokeria iguin eta alkartasuna maite daben erriak eta gizonak eziketa-bidez eratu bear ditue askatasunean eta zuzentasunean euren buruak eta erri osoak zuzenarazitzen ekin eta jarrai bear dautsen gizonak.

Indarkeriz guk baño gure inguruko erriak geiago al dabe. Beste aldetik izan lezake errialde orreitan aundikeri ta jauntxokeriak dituen sustar ta girotan guk baño gitxiago al dagikeela jokabide barrietan, askatasun-kutsutan eta alkartasun-miñez sorarazi eta jaso al ditekezan ari edo arloeten.

Askatasun eta alkartasun bidez jokatu dagigun al dagikegun sail guztietan. Egia da sail guzti-guztietan ezin al izango doguna gura genduken guztia baño ba-dira arlo ta saillak ueste dagikegun baño geiago egin al izatekoak.

Mundu guztian atea zabalik izan ditugunok iñor menderatzera baño iñori laguntzerako asmotan agertu izan oi geranok ikasi ta egin dagigun alegiña al dogun arlo ta sailletan geuri gogo bizi ta izateari dagiokenez jokatzen. Auxe izan bedi urte berrirako gure asmoa.

## Aurrera beti

### Marmarka ta azpikeria

Ez ditugu bardin marmarka egitea ta azpikeria. Marmarka eginbearra izaten da batzuetan edo askotan be giza-arazoak zuzenbideratzeko edo obetoarazoteko. Marmarka ixil-eskutuka ibilli bearrik ez da izan bear eta ez da pentsatu be izan bear marmarka egiten dakian edo dagikean edornork arazoak zuzenarazoteko edo obetuarazoteko dakianik be.

Batzorde ta zuzendaritzetako gizonak batzar eta zuzendaritzetan arazoak aztertu, ondo ez dagokezan sailar edo erabagiak sakondu ta aritu egin bear ditue oneritxi, baño geiagotan. Orreitariko eginbearretarako autesten ditugun gizonak orretan dakienak eta orretan beste batzuen oneritxiz edo txarreritxiz jokatu oi dabenak izan bear dabe.

Gure elkarte ta erakunde egingoetan zeatzago ta zintzoago egin oi ditugun azterketa ta eritxi-batze ta halbaiketak orduan eta mardulagoa ta ongariagoa izango da zuzendaritza.

Onetariko eginberrak agirian eta eginbearrekogotzat egiten diranez azpikeri ta sasi-zuzendaritza aulago izango da.

Azpikeria ta sasi-zuzendaritza gizatasun eta zuzendaritza zurrare utsunearen azalpenak izan dagikez bein baño geiagotan.

### Sasi-Zuzendaritza

Sasi-zuzendariak edozerk sortuarazo oi ditu.

Askatasun-ezak eta jauntzokeriak berak berez be bai.

Ez da beti erretza izaten ixil-eskutuka jardun oi danetan eta ixil-eskutukariak berez indarra artu dabenean batez be, sasi-zuzendaritza gabeko zuzendaritza-miñez nor dabilkean antz emotea.

Berez arrokoiak geran gizonok eta zuzendaritza egarria onbidez eta baita bakoizkeriz onartu gengikenok noiz onbidez eta noiz bakoizkeriz edo arrokeri utsez diardigekunen antz emotea.

### Azpikeria ta sasi-ordezkaritza

Uxatu ta txarrerazi dagiguzan gure elkarte ta jokabideetatik azpikeria ta sasi-ordezritza jauntxokeririk gabe giza-giro ta askatasun kutsutan gure ekonomi-arazo ta giza-elkarte barriok danon edo erri osoaren onerako tinko ta ausartsu aurrera egin al dagien.

Bada-ezpadako gizon eta erdiz-erdizko zuzendaripean sail onetan ondo jarraitu al izateko aldian joan ziran eta beste aldetik gizatasunean eta zuzentasun eta askatasunean siñestu dogunok esta siñestu dogulako erakunde barriak onartu ditugunok erantzun egin bear dautsague onetan aldaketa-miñez ta aurrerapide-egarriz inguruan ditugunei.

### Kooperatibok gitxi ta txikiak

Egia da bai: txiki eta gitxi garana kooperatibetan bildu ta alkartasunean lanean diardugunok baño geure erantzupenez eta konpromisoz jokatu bearra izango dogunok geruago ta geiago izan bearko dogula eristen dogu.

Oraintsu taldetxu bat giñan. Laster millaka bat eta orain amar millatik pasatzen gara gure euskalerrian kooperatiba legepean lanean diardugunok. ¿Zer palta laku beste bost edo amar urteren buruan ogei edo berrogei milla orrela jokatu al dagikegun?.

Iñork emon bearrekoren bat ala geurez sortuarazo gengiken zarbaitek palta egiten dausku?. Aurrera beti, zintzo ta tinko beti aske ta obeto izan gura dogunok 1973 gn.

## Sakonago ta trebeago iñorentzat. Urtarrilla 1973

Danon edo geienon arazo ta jokabideak ongarritu al izateko iñorentzako geiago egin eta iñoren edo besteen ardura geiago izaten ikasi bearra daukagu.

Gizabarritze urriak eta aldaketa ta iraultza indargeak izango ditugu gure erri ta auzoen onerako bakoitzat bere buruagan ta bere utsalkeri ta "kapritxoetan" lotuegi egiñik gabiltzen arte.

Zaparrada geiegi ta aldaketa gitxiegi egingo dogun geroko ta inguruko zaletasun ta ardura geiago artzen ez dogun arte. Badirudi gure gaztediak arnaz ta espiritu barri baten miñez diarduala, baña ez da askotan egia. Itxuraz bai baña egitez barrikeri ta bakoizkeri-min geiegi daukagu itzak, esanak ta jardunak baño egiñak ta jokabideak azterten baditugu. Onetan ez dogu esan nai nagusituok eta zarrok zuzen eta ondo gabiltzanik edo aldaketa bearrik ez daukogunik gure pentsakera ta izakereetan. Danok daukagu uste oi dogun baño aldaketa sakonagoak eta azkarrakoen alde egin bearra aurrerapide-sailletan tinko jokatu al dagigun.

Lenen ekin dagiogun sakonago ta trebeago iñorentzat egin bearrekoetan bakoitzari jakoguna ondo egiñez beste bidez ezin indargarritu gengikez danontzako eginbearrak eta.

## Ekonomi-arloetan

Naiz gora ta naiz bera laster egin oi da ekonomi arloetan. Gaur aberatsak dirudineak biar errukarriak laster izan dagikez. Eta batez be kontuan artu bear doguna auxe da bekartziz gozatu al dagikezan eskuarteak erriak eta lurraldeak ongarriz ta gizarte=ekonomi saillak bizi berrituz sustartutzen ez diranean lurralde ta erri orreitako biztanleen etorkizun ta pozvide ta eskuarteak danak jausi ta auldu oi dira.

Danok entzun izan oi dogunez Suezia da Europako Estaduetan gizagarrienaritzakoena. Naiz lanerako naiz ikasteko naiz atsedentseko eskuarte egokien ta gogaingarrienak dituen biztanleen lurralde ta ergia.

Baña, ba al dakigu Estaduan eskuarteetarako doanik ango irabazpide ta ondasun ugariketaetako euneko berroieitik berrogetamarrerañokoa?.

Zenbateraño izan oi da guk geure kooperatibetan lortu oi ditugun eskuarte ta irabazietatik bakoitzak eruteke dagontzako ta gizarte-arloetarako itxi oi doguna?. Zenbaterakoña da gure "zozialismo" edo kooperatiba-zaletasuna?. Ikastola onak, bidebarri egokiak, osategi atsegingarri ta jolasleku gizaberatsuak izan dagiguzan edo baita ogibide ta lanbide neke-aringarriagokoak iñorentzat, besteentzak eta danontzako geiago egiten eta erabilten ikasi bear dogu.

## Gora ta bera lasterka

Ez bakarrik gizonok, langilleok baizik eta erri osoak danok egin gengike lasterka bera ta bera. Izan oi dira baita gora ta gora be lasterka oi daroenak aldi batzuetan eta batez be edozein modutan eginda ba ardura ez dautzeank goraka egin ezkerok. Bide zuzenez ta jokabide garbiz gorakada aundiak lasterka egitea ezin izan oi da erretza.

Gu bizi gara beste alde batzuetan baño naroago bizi gengiken lurraldean. Bai egia da gure tartean lana gogotsu ta geientsuoak egin izan oi doguna be ta lanaren bidez izadiaren errestasunez baño geiago lortu dogula gagozan maillan bizi al izatea.

Oraindiño amaboste urte Sevilla zan Españiako probintzietan aurrengo malletan egoana. Probintzi ortako osasunak neurturik eta aintzat arturik irugarren zuan probintzi guztien artean, desbardintasun aundiak zituan bertako langillen artean baño alaz ta guzti be alorger-arloan ango langilleal jagokoen mailla laugarrena zan.

Azkenengo amar urteren buruan berakaberaka 33 mallan dago probintzien artean ta alorger-arloetan langillei buruz 38, garrenean. Esaten dabenez azkenengo urteotan gubernuak asi ta angoak be bai egin dabez alegiñak ogibide ta lanbide geiago sortuarazoteko ta bertako semeak iñora ogibide-billa ta lanbide-egarriz joan bearrik gitxiagok izan dagien.

Baña sortuarazo dituen amar lanbideetatik bost bostgarren urterako desegin dira. Nekazaritza-arloetan Españiko bigarren probintzia zanez industri-bideak indargarritu iai izan ditue ta orretan ekiñandiak egin be bai. Alaz ta guzti be ezin indargarritu dabe diñoenez.

Guk industri arloak beste ogibiderik ez dogunok industri-arlo ta saillak bizibarritu ta eratzeko zenbat alegin oi dogu industri ori auzokoi ta errikoia izanik gura artean kapitalismoaren-miñez ta aizez ogibideak ta lanbideak indargetu bearren edo bere bidez indartu bearrean erri-ta auzo miñez eratu algekuguzan?. Auxe da kooperatibak darabilten arazoetatiko bat.



## Alkartasuna orain eta gero. Martxoa 1973

Bakoitzak geiago edo gitxiago irabazteak baño palta aundiagoa egiten dausku beti gure elkarteetan danen arteko alkartasuna bizi ta guri gordetzea.

Iñork iñoiz ezon dagike alkartasunik marduldu bakoitzak beretik iñorentzako zerbait emoteko borondaterik ez daukanean.

Kooperatibak indartzeko bakoizkerizko bardintansun edo zuzentasuna ez da naiko: kooperatibei jagokoen zuzentasuna ta bardintasuna bakoitzak beretik zerbait besteentzako emoten dakianean eta danenez eratu bearrekoa da.

Alkartasun-ariz ta alkartasun-emonez indartu bear ditugu gure gizartean ditugun gizon eta arlo soillenak. Danok dakigunez gure nekazari ta baserritarrak ezin esan genezake beste langille ta industri arloetakoak baño obeto dabilzanik. ¿Baña beste aldetik ez al da egia gura nekazari ta baserritaren artean alkartasuna baño bakoizkeria indartsuago danik?.

Adibidez oraintsu Lana'ko batzar nagusian pentsakizunik asko izan genduan. Danok dakigunez Lana'an alkarturik daukaguz "ganadudunak eta piñudunak". Geinetan gure arteko nekazari ta baserritarral dituen eskuerterik onena mendietako piñadietan eta etxeetako esnebeietan dago. Geintsuak egunerolo gastuei erantzuteko daben eskuarte ganadua esnea ta txalak dira ortuariagaz eta piñadiak eskuarte ori obeto moldatzeko ta aldizka-aldizka gorakada bat eginaai izateko edo aparteko asmo barriei erantzuteko.

Lana'ren jaiokunde ta ondorengo urteetan esnedunak alkartasunaroiz irabaziak banantzelo eragozpenik ez ei eben izan eta Lana'ko bananketak esnetegiaren bidez izan ei dira. Geruago serrategiaren bidez ta piñudiz irabazi aundiagoak izan ei ditue. Ona emen Testamentu Zarra ta Barria, lenago aurrerapidea. Lana'ri emon eutsenak eta oraingoz Lana'ri onura geiago daramotsenak. ¿Zer egin, Lana'ko zozioak sail bitan jarri ta esnearen onurak esneduneri bakarrik emon eta piñuarenak piñudunei bakarrik? Orra or istillua, kooperatiba barrenean erabagi bearrekoa.

## Ondo dago

Bidezko eztabaida da piñudidun eta esneduen artean sortu dan auzi au. Ondo dago aintzat artzea ta alkartasunik iñoiz eragosteke erabagitzea komeni da.

Orain arteko jokabide ta arabagiak barristu bearrekoak izan dagikez ta gaurkotzea ona izango da, baña jokabide ta arauok gaurkotzerakoan egin ezin dagikena auxe da. Egun batetik bestera iñork zelan jokatu dagiken pentsatu ta eratzeko astirik gabe batzuen alde egitea beste batzuek, orain arte alkartasunean jokatu dabenentzako kalagarrien dan moduan jokaturik.

Alkartasunik egun baterako ezi izan oi da eratu ta egun batetik bestera be ez dira aldatu bear alkartasun-aroak alkartasun-pean dabiltzanei danei laguntzeke.

## Eziketa korapillotsua

Alkartasun-eziketa edo gizaberatsea berez egiten dana ez da. Nekez ta larri lortu al dagiken aurrerapidea baño. Geienok ezi izan gaitue bai gure gurasoak bai ikastolak bakoiskeritan alkartasun-kutsutan baño geiago. Kapitalismoaren sustarrik sakonena giza-bakozkeria da. Kooperati-aroarena ostera alkartasuna. Berez ta erretz sortu ta indartu ez oi dan jokera.

Oraingo ta aurrerako jokabide aurrerakoi ta indartsuenak alkartasun ariz ta bidez eratu bear ditugu.

## Auzo-Lan Aurreztegia

Lan arazo ta arloetan jokabide gizagarriagoei aurrerapidea emon al izateko ta alkartasunpean lanaren nekeak eta eragozpenak aritu al izateko aintzat artu izan oi dogun eragozpenik aundiena orretarako bear diran diru-eskuarte zelan lortu izan da. ¿Egia al da eragozpen ori dala orretarako izan dagikegun "eziña"?

Auzo-lan aurrestegia'ren urteroko batzar nagusia'n entzun eta jakinarazo euskuenez diru ta ekonomi eskuarte z baño eragozpen aundiagoak ditugu gure erritar ta gizasemeen partez. Gure artean agiri dan Kooperatiba-Saioak agereraizten dabenez alkartasun-zaleak dirudien beste ez dira ta alkartasun-aroak nekezen onartzen dituenak ez dira besterik geienez gure artean gizarteran laguntasunez ta gizarteak eratu dituan ikastegi ta ikasbideen bitartez ondoen gertatu al-izan diran gizasemeak baño.

Dirudiane z errikoi ta erri-alde jokatu al izateko gizarte barreneko maillatakuak izan bear dabe. Goragoko maillatakoak laister aaztu oi dabe goi-mailla orretara gizartearen laguntasunez igo dabena. Gorago igon dabenek beerago dagozanteko begirapenik giza-eziketa bidez onartu ez dabenean erritar geientsuenak buruak jaso al izateko ta giza-erakunde barriak sortuarazoteko indarkeria besterik ezin izan dagikee. Auxe da egi garrantza penagarria. Auxe bai dala iñuñ eta iñoiz onartu ezindako egoera. Alkartasun aurrerapide gabeko askatasunagaz bakarrik leenetan iraungo dogu naiz ta iraultza gora ta bera diadarka ibilli.

Alkartasunean indartu al gendizan azkatasuna bear dogu aurrerapidean tinko jarrai dagikegun bestela edonos eta edonoren otsein izateko arriskueta izango gara ta.

## Zuzentasun barria

Geure buruak eta geure ingurua be landu bearrean gara. Lana da gizakumeok izan gengiken biderik egokiena geure buruak lantzeko, ikastez nai esku lanez. Baita biotzak

gizabertzeko be lana dogu daukagun erarik egokiena urkoai laguntzeko ta erriak jasotzeko, edargarritzeko.

Ekin-larri ta eginkoiak izan gara euskotarrok eta orixegaitik lortu dogu gure artean ogibide bizagarriak izatea. Ogibide orreik gozagarritu ta gizaberatu al dagiguzan lanbide-estruturak barriak sortu ta zaarrak gaurkotu egin bear ditugu. ¿Zer izan dagike lanbideak pozgarrituen eginarazo dagikeguzan aldaketarik gizaberatsuen alkartasuna baño?. Lenen lanaren nekeak arindu ta geroztik lanaren onurak bardintsuako bananduten lagundo dagikegun erakundeak bear ditugu gure Erriak aurrera jokatu al dagien iñoren atzean gelditzeke iñonguen miñez ta mendez izan ez gaitean.

Alkartasunean buztartuko gaituan zuzentasuna bakoitzari besteentzako zerbait emon eta eginarazo bearrean jarriko gaituana da. Iñorentzako ezer nai ez dabenen arteko zuzentasuna ezin izan daike alkartasun eta aurrerapiderako bear dogun bidea.

Kooperatibartarrok egitez erakutsi dagoguzan alkartasunak daukazan ongarriak.

## Alkartasun-oiua aldaketa-bidea. Apirilla 1973

## Erririk-erri

Edozenbat erri ta errialde ditugu lana sobra ta langileak palta ditugula dirudigun Euskalerrian lanbide ta ogibide geiagoren bearrean diranak, Beste batzuek ostera lenagoko lanbide ta ogibideak gaurkotu ta barriztu bearrean diranak be bai.

Dirudian baizen sendo ta aurrerapidetsua ez da gure erriaren egoera ta ekonomi ta industri arloetan trebe ta argi jokatzan ez badogu larria izan legike gure egoera.

Beste iñork baño adiago ta menago begiratu bear legioke arazo onei gazteak amar edo ogei urteren buruan juan-etorri aundiak eta gora-bera penagarriak izan gengikez ta.

Orain arte ogibide ta lanbide paltarik ez dogu oitu gure artean batez be oraintsuko urteotan. Industri-arloetan esateko geu giñan aurreragokoenak baño industri-sail barrietan beste errialde batzuek gu baño gaurkoz aurrerago doaz ta gañera guk agintarien artean areik beste laguntzale ez ditugu. Gu "desarrollatuak ei gara ta beste batzuek bear ei dabe agintarien lagutza guk baño aurretik.

Iñoren laguntza gitxi ta geu beste arazo ta sail batzueri begira begabikez, gure errien etorkizunaren jabe nor izango da?.

Auzo-Lan Aurrezkitegia'ren Errialde batzarretan entzuten dan soñua urtean baño urtean biziago auxe da. Erriak jokabide ta aurrerapide barriak bear dituela ta orretarako eskean dagozala.

## Eta zer egin?

Auzo-Lan Aurrezkitegia ez da kapitalismo jokabide ta buru bideen laguntzaleena gizarte-zaleena ta alkartasuna-miña dabenena baño.

Zozialismo-jokabide zaleak diran tokietan ta alkartasun girotan ekin nai dabenei laguntzeko beti dago gertu. Orretarako ditu bere eskuarteak, baño orretarako bear ditu orrela jokatu nai daben gazte ta gizonak, Gazte ta gizon taldeak, tekniko-taldeak. Orixe da ikusten ez dana lanbide barrien zale diran errietan. Orixe da palta jakuena ta ori gabe erriak ezon legikez jaso giza-girotan ta gizajokabidez kapitalismo-jokeraz ta giroz baño.

Dirurik ez da palta gizonak bai. Kapitalik ez baño alkartasuna bai. Gogorik be ez baño teknika bai. Alkartasuna ta teknika elduarazoteko denpora bear da, apegiñak aurrez egin bear dira. Gazteak gertu ta konprometidu egin bear dira. Nun dira olako gaztediak?.

Benetako Erri-Gaztediak, erria aotan baño buru ta biotzetan darabilenak eta erriaren onerako norbere egokitasunak gizaberatzen dakienak ta diarduenak palta ditugu. Auxe da Auzo-Lan Aurrezkitegiak bear dapena errialde guztietara zabaltzeko bere babes. Oiukarik gabe laguntza orri daben errietan ez yakoe paltako laguntzarik. Gizonen-bidez gizatsu jokatu al izateko bearrekoena orixe da. Oraingo euskokutsu ta eratan ezer egineñarazotekotan ez dago beste jokabiderik zuzentasuna ta gizatasuna zapaltzeke.

Diruak erretzago zozialistotu al ditugula dirudi gizonak baño. Diru ta aurrezki arloetan obeto goaz aldaketa gizaberatsen gizonok geure biotz eta buruak gizagarritzen baño.

## Pentsakera ta izakera

Ez dira izan bear batera eziñekoak pentsakera ta izakera. Bata besta indargaritzekoak baño. Biak bateraziz jokatu bear dogu indartsu izan eta indarrak onbiederatu gadizan. Auxe izan bear

dau gure eusko-indarra ta kutsua. Onetxen bidez sorturazo bear dogu zuzendaritza ta agintaritza barria, gure erriari jagokona ta jasoko dabe erri au. Gure demokrasi barriak olaxe izango dau aurrerapidea, bear ditugun aldaketak egiñarazoterañokoa. Indarkeri gabeko gizaindarra.

Barriketa ta amesketetan itoten ditugu trebeago erabilli gengikezan almenak gazterik askok eta ez da ori penagarriena kutsu orreak danok edo geienok endekatzea baño.

Geuk geurez ta zaparradarik gixienez aldatu ta erabari al gengikezanak garkotu ta gizaberatu dagiguzan erretzago orain aldakaitz diranak georago erabarritu dagiguzan. Erri ta izakera barriak berez, derrepente ez dira sortuarazoten ta ornitzen.

Idealismoak ondo dagoz baño idealismo geienak beterazoteko erdiz-erdizko gauza asko egin bear izaten dira batez be politika erakunde guztietarako bearreko diran ekonomi-arlo ta gizatasunezko oñarriizeetan.

Danok batera egin eta jota be gitxi gara euskotarrok inguruan izan genikezan indar ta eragozpenak menderatzeko. Alkartu gadizan alkartzeko izan genikezan arazo guztietan, batez be gure errialdeak ederaraziteko bearreko ditugun lanbide ta saioak garkoratzeko, edozein beste sail batzuetarako ongari izan dagikuzan sustar ta oñarriak izateko.

## Lan-Kide. Maiatza 1973

Bizi-miñak eta bizi-bearrak erabili izan gaitu gizakiok aruntz eta onuntz ludia-zeur gizaldietan. Jatorrizko sustarrak sakonenak ditugula uste dogun euskotarrok be Euskadin gagoz batez be gure bizi-min eta bizibearraren erantzuna ementxe izan dogulako ta daukaulako. Orixegaitik ditugu gure artean beste lurraldeetan jatorri sustarrak dituenak be ta ez gitxi gure artean, asko geurekotuta ta beste asko geurekatzea gura leukienak beste aldi batzuetan emengoak beste toki batzuetan bertakotzea gura izan ebenen antzera.

Onetan orretan, zer da lurralde batzuetaruntz gizakiok zuzendu izan gaituana?. Geienetan ogibidea. Eta zer da ogibideak sortuarazo izan dituana?. Izadia, bizi-giroa, gizakion trebetasuna, lana?. Izadiak berez emon izan didauskuzan egokitasun ta ogibideak lurralde bakoitzean bizi izan oi diranen beartasunak aseteko urriak izan oi dauskuzan egokitasun ta ogibideak lurralde bakoitzean bizi izan oi diranen beartasunak aseteko urriak izan oi dira. Izadia bera baño askoz be garrantzitsuaga da Lana. Lana ta lanbideak dira errialdeak aurrera eroan oi dituan burbil ta ardatza. Aurrerapide geienen oñarria ta sustarra lana izan oi da ta Euskadi bera be bizigarritu dabena berton bizi izan geranon ta geranon lana da. Lanaren bidez bertokatu ta baita bertokoa geuretu be izan oi dogu gizakiok munduan gizaldien buruan. Guretarrak kanpora juan izan diranean, Iparamerikan ta baita Andaluzian be ta Kanpotarrak gure artera datozanean. Lanaren inguruan ta lanaren bidez alkarganatzen ta bizimodua gozagarritzen ikasi bear dogu ta orixegaitik guk ezer baño estimagarriago daukagu lana.

## Gizaberatu

Gaurko munduan eta gure artean be bai, bizi izateko gendukezan bizigarrien urritasunez baño bizi al izateko ta batez be gozatsuago bizi al izateko bear gendukezan lan-giro ta lan-erakundeen gizakaiztasunez geiago supritzen dogu ta orixegaitik lanaren omenez ta lanaren aurrerapidez lanerako bear ditugun erakundeak gaurkoratu ta gizaberatzea bearrekoagoa dogu beste ezer baño.

Lana ta lanbideak gizaberatzeko gizakiok geure askatasun ta zuzentasun miña lanerakundeetan be oñarritu egin bear ditugu ta gañera alkartasun-bidez lanaren garrastasun ta nekeak alkarri arindu lana onurakarriago ta aurrerapidetsuago egiñaz. Euskadin ditugun jokabide ta gozotasunok batez be lanaren bidez sortuak dirala dagigunok beste ezer baño lana gozagarriago ta emukoiago egiten ekitea onartu bear dogu jokabide orregaz gure eskubieen alde indar barria ta ito ezindakoa sortuarazoz. Indarkeri gabe iñork uka ezindako indarrari aurrerapidea emonaz danon artean eta olaxe agindukeri ta jauntxokeriak be gure artetik uxatuaz.

Lan-Kide'ren asmo ta burubideak orreitek izan dira ta dira T.U. izenpean agerarazi izan dituanak irakurri dituanak jakin daikenez.

## Ekandu

Giza-eziketa ta ekantze barriaren bearrean gagoz jokabide barriak indarbarritu al izateko. Gizakioi jagokuzan jokabideak eratu al izateko bear dogun indarra ez da indarkeriak ekarri ta sorarazi dagikena. Indarkeriz jatorkeguna naiz ta jokabiderik egokiena izan gizakion artean sustartu al izateko indarkerian baño askatasun, zuzentasun ta gizatasunak giza geienon biotz-barrenetan ta gogoetan izan oi daben indarbarritzean uste geiago daukagu giza-arazoak gizakioi jagokunez eratu al izateko.

Danon edo geienon artean demokrazi bidez egin oi daroana aurrera juan oi da iñork itotzeke naiz ta itxuraz nekez eta banaka batzuen eta agirdukeriz egin izan oi danak ez dau balio izaten geienak onartzen ez duten artean. Geienak onartu al izateko banaka batzuen bakoizkeriak ez izan oi dira uxakorrak ustelkorrak baño.

Euskadin zuzentasun, aurrerapide billa Alkartasun indarrez ta Lanaren eskuz ta erakundez gabiltzanon deia izan nai dau Lan-Kideak.

## Gogo-Ausnarkizun barriak

Gizakiok beti izan gara ibiltari.

Gizaldi batzuetan ibilibearra izan oi dogu bizi-bearrez, ogibide billa ta gosez. Beste batzuetan askatasun miñez ta giza giro egarritz.

Euskotarrok geu be ibiltariak izan ez geranik ezin esan daike. Nork daki nundik nora etorri ziran gure asaba zarrak ona?. Nork ez daki gure aurretiko asko ta asko munduan zear ibilli bearra izan dabenik?. Uka eziña ibiltari danok izan gerala batzuetan ibilli bearra, iges ein bearra izan dogu gosez ogibide billa beste batzuetan askatasun miñez eta aurrerapide aundiagoaren gogoz.

Uste al izan ete legike orain gizakiok, alde guztietakoak edo geienetakoak bakoitza bere lurraldeetan bertakoago egiten oi diranik?. Euskotarrok geu bertakoagotuta al gagoz ala ibil min andiogoaz eta gara?.

Lenago ibiltari izateak aldaketa aundiak sortu izan ditu gizonen aldetik errialde guztietan. Baña lenago ta orain gizonok ibiltari bardiñak ez gara, lenago ibiltarienak be ibilteko izan



oi zituen aukerak eta orain ditugunak oso desbardiñak dira ta au da gauza bat zerikusi andia daukana gizonon artuemonetan eta errialdeen arteko zerikusi guztietan.

Egunotan jakin dogunez 1974'genean orduko 2.500 kilometro egin al izateko egazkiñak izan gengikez. Iru orduan Paris'tik Nueva York'eraraño. Toneladakada aundiagaz edo giza-talde aundiakin. Baña naiz ta orrenbesterañoko tresna gabe be orduan eundekaz kilometroak egin al gengikezanok geienok geranez aintzat artu ta jakin bear doguna auxe da. Gizonok egunetik egunera giza talde aundiagoen ta lurralde zabalagoen jaun ta jabe izan bearra daukagula gure gogo ta asmakizunen almen ta eskuartei dagokionez bizi al izateko.

### Lurra bizi-toki ala ogibide?

Mundu zabalagoari begira edonork ikusi al dagikeena auxe da. Izakiok lo egiteko kaiola txikiak bear ditugula ta baita aterpetzat be, baña beste aldetik ezin ekandu al izango gaituela kaiola barrietan bizi izatera ta orixegaitik jai egunetan iges eta ibilli bearrak jotzen gaitu geienok. Itxas edo baso bearra danok daukagu ta baita beste-egunetan be zenbat eta denpora geiago libre izan oi dogun orduan eta sail zabalagoen bearrean izan oi gara.

Euskadin gaur bizi geranok eta biar edo etzi izango geranok bizi-toki egokiagoak izan al dagiguzan gure basseri ta nekazaritzaren guarako arlo ta ogibierik asko beste era batera gozatu bearra izango dogula dirudi. Kayoletan ezin ekandurik inguruan geure edo gura ume ta tartekoentzat bizikera gizaberatsuagoa izan dagikoen jokabide barriak bear izango ditugu umeak giza-eziketa ohea izan dakien ez bakarrik liburuetan dagona ikasis batez be beste arloetan euren eskuz, asmoz ta ekiñez elduarazo ditezen.

Aldaketak geruago ta ugariagoak eta sakonagoak izan bear daben mundurako umeak ta gazteak ezi ta gertatu al izateko ume ta gazte orrei euren almen, esku, besto ta buruak ekiñaldien bidez ta gogoz obeto erabagi al izaten erakutsi bearra izango dogu.

Orain arteko gure arteko eztabaida ta zalantzak ez dirudi bear-añako gaurkotasunik dabenik naiz ta gaurkotzat geure buruak aintzat izan.

Batez be Gipuzkoan ta Bizkaian kaiolatuta gogozan bakoitzari lurralde sail txiki bana izateko eskubidea emotea iñork nai baluke ikusiko genduke ez gendukela orresbe sail edo arlo. Beste aldetik bakoitzak berez geiatxoago egin al bagendu lurrari onuratsu ta emakoi biurtzen, ez al genduke izango danontzako onura geiago?.

## Lan-Kide II. Ekaina 1973

## Kooperatiba-erakundea

Kooperatiba-erakundearen mamian askatasun eta bardintasun gogoak bata besteari loporik idoroko doguz geieneten. Izan be askatasuna ta bardintasuna biak eskuz-eskuz jaso ta sustartu bearrekoak dira.

Askatasun-alde diardugunok gure artean bardintasun egiago eratu ta zabaldu bearra izango dogu.

Kooperatiba-erakundearen aria ta ardatza alkartasuna danez bardintasun geiago izateko askatasuna ta askatasuna geienentzat ondo bustartzeko bardintasuna bizibarritu bear ditu.

Jauntxokeria, indarkeria, bakartikeria ta abar alkartasun eta girtoan ez dira jaioten edo jaiorren indartzen. Orizegaitik diñogu kooperatiba-erakundea gure erriaren kutzu ta gogo biziari jagokonezkoa dala ta demokrazi jokabideak sorarasi ta sustartu al izatego giza-eziketa bide egokia.

## Lanbide aldaketak

Euskadin bertakoentzako ta ingurukoentzako be lanbideak ugari izan doguz urte oneitan. Ogibide billa iñork kanpora joan bearrik ez dau izan banaka batzuek izan ezik eta eurak euren gogoz ogibide billa joan bearrak baño geiago eraginda.

Industri barri asko sortu izan dira urteotan gure erri barneetan eta naiz ta industri oneik berenez berekoi industri ernekoi baño geiago izanarren, industrietan aurrera egin dogu. ¿Gure industriketa aurrerapidetsua al da ala otseinpeduna, beste toki batzuetako industrietari lotua?.

Aztertu dagigun norako ta norentzat lan egiten daben gure arteko industri askotan. Gure tartekoen erabagi ta jokabideak aintzat artzen dabezenentzat ala beste errialdeetako gogoz eta burubidez zuzenarazitakoentzat.

Lanaren indarrez, langilleen trebetasunez ekonomi-malla engarri ta aurrerapidetsuak lortu doguzanok, ez dagigun aaztu lanaren eta langilleen erakunde ta etorkizuna beste ezer baño obeto zaindu bearrekoak dirala gure artean. Lanbide erakundeak ezer baño sakonago aztertu ta eratu bearrekoak diraka Euskadin ito ezindako beste aldaketa batzuek ongarri izan al dagikeguzan.

## Aldaketa Bearrekoak

Lanbide erakundeetan aldaketarik asko bear ditugu. Aldaketa batzuek langillen eskubideei erantzuteko ta oraingo langilleen eziketa ta jakiteari dagokioezanak. Baña beste batzuek onartu bearrekoak izango dira teknika edo teknologi barriei jagokoezenak. ¿Zenbat eta zenbat industri ditugu gure artean aldaketa sakonei erantzun ezindakoak, batzuek lan-erakundeetan eta beste batzuek teknika barrietara jarri ezindakoak?. Aldaketa orreik jaso al izateko gobernuak lagunduko ete dausku ala orretan be geuk geure jakitez, egitez, alkartasunez ta aldaketa miñez sasoiz jokatzea ¿zein bide izango litzakigu onuragarriagoa?.

Bakoitzak bakarti ezer gitxi al dagike arlo oneitan. Baña orretan be edor izan legike almensua alkartasunez jokatzera. Burubide ta ames ederrak baño ez dira egingine ta egite ekiñaren-ekiñez biurtzen ez ditugun arte. ¿Ez al da obe izango beti gero ta obeto egiteko zain egoteke al doguna oraintxetik egitea orretarako denporarik gaktzeke?.

Lanbideak gure ta gure ondorengoan ogibideak dira ta gure erriak oraingoz daukan askatasun izpien eskuarte soilla, eten garria, galgarria.

## Au be egia da

Usa edonok dakianez errialde indartsua ta mardula da. Zabala ta Iturralde emakoja zanez gain bere agintari ta biztaleak indartsuago ta mardulago biurtu dabe. Munduko 6% bizlante daukaz eta munduko 30% energiaren gozamina eurek daukie.

Au bizi diranak asto ta idi indarrak gitxi egin oi dabe. Beste lurralde batzueten dituen baño indar emoilte egokiagoak daukezelako. Orixegaitik obeto bizi legikez.

Prantzian bertan, auzoan, lan astunak kampotik joan jakoezan langillentzako dira. Eskulanetan ditue euneko 20 kanpotarrak dira, 750.000 argeltar, 700.000 portugaltar, 600.000 españiar ta abar. Argelia, Portugal ta abar danok dira euren jaube egindako errialdeak baño euren erritar guztientzako ogibiderik ez dabenak. ¿Errialde bakoitza bere buruaren jaube izatea ez da naiko bere seme guztiai ogibideal soraraziteko. ¿Orretarako zer geiago palta egiten dau erri-askatasunez gain?.

Españian bertan diñoenez 1970, hiru milloi ta berreun milla kanpoan bizi ziran kanpoan ogibidea eukelako. Euren artean bertan, esateko etxean lan egiten ebenetariko euneko 8 ziran.

## Lanbide-Zuzendaritza

Oraintsu irakurri dogunez Españan 300 enpresa ta industri aundien artean Europa ta USA jatorriko kapitalistak 31 ta 25 enpresetan mayoria dabenez zuzendaritza eurak daroe: orrez gain irureun enpresa orreitariko askotan parte dira ta ez dira izango bertakoeri morroi izateko.

Era askotako morroitza ta otseinpenak dira munduan uxantzea erretza ez diranak. Naiz ta burrukalarri izan erriak gizonan gizenakin bezala alkartasun bearrean dira aurrerapidetsu tinko ta azkar jokatu nai dabenean.

URSSA ta USA ¿ez al dabiltz alkarrenbilla?. Errialde zabak eta gizatakde aundidunak izanarren ¿ez al dabe alkarren bearra orain erri ta errialdeak joka al daben erara jokatu al izateko?. Dirudian baizen erretza ez da bakoitzak bere burua bakarti jasotea.

## Lotsagarria

Diñoenez munduko negoziorik aundiena, irabazpide aundienak damozana iztillu ta armagintza ta salerosketa ei da. Orrez gain bake zale dirana diñoenak danak dira, biztanle ta agintariak eta ez ei dago gobernu bat bera be iztillu ta armagintza gabe jokatu nai dabunik.

1971.an armamento salerosketan 10.000 milloi dolar barrena gastau el ziran, ta gañera diñoenez 1980, gn olako bi baño geiago izango ei dira salerosketa orreitan. Gobernurik geienak armamentuetan eziketa ta erakusketan baño euneko 40% geiago gastau oi dabe.

¿Nortzuk dira orreitarako giroari eusten dautsenak?. ¿Indarkeri zale danok ez al gara?.

Indarkeri zaleok danok diardugu gitxi edo asko giro orren alde. Baña oraindik barregarriagoa ta negargarriagoa da jostalluakin indarkeri batzuek ito al izango dituguna uste izatea ta ikaste ta lan arloetan zeregin gitxi daukogulakoan lilluraturik bizi izatea.

Ez dogu esan nai indar ta burruka bearrik ez danik izango askatasun alde, oñarririk gabeko ekiñaldiak izango dirala baño ikaste ta lan gabe dagikeguzan jardunak. Erririk ez dogula jasoko iztilluz eta iztilluz diardukenak eurak be ikaste ta lana beti ta edonun bear izango dituela, erriak aurrerapidetsu izan dagikezan.

## Ogibide ta askatasuna. Uztailla-Abostua 1973

Iñork emotekoari edo egindakoari begira dagona iñoren mende dago, naiz erri edo gizon soil.

Lenago egunean eguneroko ogia izateko diruadianez naiko zan egunean eguneko egitekoari lotu ta jokatzea, baña orain gizonak eta mundua asko aldaturik eta aldatzen dagoz eta eguneroko ogia danok izan al dagikegun aurrez ardurak artu ta aurrerapidetsu jokatu bearra dago.

Gizakiok adimendun egin ginduanak eta geure adimena dala daukagunik eskuarterik onena jakin dogunok goaz munduari aurrera bultzaka ta mundua aldatu egiten da.

Txoritxoak oraindik izan lezakez kantari egunean egunekoari ta inguruan dakussenari begira, baña ez gizonok sasoiz ogibieak eraltzeke, jakite ta ikasteari erreparutik artzeke goraka ta oiuka. Txoritxuek daben askatasunaren lilluraz erriak ezin bizi dakikez. Gizonok jakituri ta trebetasun gitxi bear dogu kontuan jausi al izateko Euskadin euskotarrentzako ogibideak geuk eratzen ez baditugu ta orretarako zorrotz ta argi jokutzen ez bagenduke gure ondorengoak urte asko baño len lenagoko matxiñadetan ibilli siñeri buruz guk orain esan eta iritxi oi doguna guretz esango dabe. Lege zarrak maitatzea ez bedi izan atzera begira edo aurrerapideei kokotez bizi izatea.

## Alkartasuna ta sozialismoa

Askatasun gabeko sozialismoa alkartasun gabe izan dagikele dirudi baña askatasunean eta askatasunerako bear dogun zosialismoak alkartasuna, alkartasun giro ta elkarteak bearrekoak ditu.

Alkartasunean ardazturiko kooperatibismoa ez da sozialismorako bidea bakarrik baita sozialismoan bear dan jokabidea bere baiño. Askatasuna pitzi tentagarria da iñoren eskuetan izteko naiz ta geroago norbereganzteko izan be.

Alkartasunea ezi gabeko gizon eta erriak askatasuna zelan eratu dagiken aurrerapidetsu jokatu al izateko gisan ez da erretza iruditu al izatea.

Alkartasun arauak edo legeak bete ta eroan al izateko larri ta nekez gabiltzanok ¿zertarako sozialismoan bizi izateko izango giñake?. ¿Indarkeri gabekoan?. Gure kooperatibismoak daukanik ondorenik estimagarrienetarikoa giza ta erri-eziketa da. Eziketa au ez da berez sortuarazo oi dana "entrenamentu aundia" bear dabena baño.

Nork eta zelan erabagitako jokabideak diran ez dakigun lorriñetan gure erririk ezin genezake naastu lenago be gure erriak izan dituan galbiderik aundienak jokaera orretzek ekarri dauskuz ta.

## Egunotan entzundakoa

Eusko abizenak dituan eta bere odolaren barruko lurruna ito ezin daben bateri entzundakoa da. Urteotan aurrerakadarik aundiena egin dabenak ez Barcelona, Madrid eta Euskadi, Baleares, Malaga ta Kanarias baño. Bejondakioela atzeregi ziranez baña itzar begiz iñorengandik gitxi itxaron dagikegunok.

Dana danez gure artean geienok daukagu ogibidea kanpora joan bearrik gabe. Españiarrak euneko amar omen dira kanpoan ogibide ta lana egiten dabenak oraingoz. Iru milloi ta erdi ez da talde txikia. Eunetik amarrek kanpoan ei dabe ogibidea ta orreitatik zortzik European ta bik Amerika ta Aprikan. Iñork azaltzeke jakin dagikeguna auxe da. Orrein ogibideak beste batzuek egin nai ez dituen lanbideak dirala geienetan, eta merkeagoak.

## Lan-Kide V. Urrilla 1973

Euskotarrok burrukalri, bulartsu ta indartsuenal izanda be burrukak irabazi baño galdu seguruago egingo ditugu. Gaurko munduan mobitu izan oi diran talde ta eskuarteak kontuan arturik ezin ukatu genike burruka ta maxinadetan erabilli izan oi diran jokabide ta tresnakin baño geiago al izan genezaken gizatasunari jagokozan indar ta jokabideen bidez. Baketan burrukan baño geiago al izan genezake gure arriaren alde ta batez be gure erriatten onerako, aurrerapiderako.

Burruka oiua ta turutak entzun eta jardun oi dabenean ez da pentsakera txalagarria baketan gizatasun-indarrez, au da, zuzentasun eta aurrerapide jokabidez obeto oñartu gengikela gure erri ta gure erriaren eskubideak bayeztu ta zabaltzea.

Indarkeri-girotan askatasun gitxi onerazi ta ongarritu izan oi da. Indarkeriz erein oi dana indarrez jaso bearra izan oi da. Indarkeri girotan bizi izan diran gizaseme ta errialdeak nekez be nekez tinkotu oi dira begirapenean ta alkartasunean izateko. Burrukarako ta indarkeriako jokabidea edonoiz sortuarazoten da ta edoseñen kaltegarri ta ondamendi biurtu. Gizatasuna gizatasunean gozatu ta guritu bearrekoa da.

## Askatasuna obeto izan al izateko

Larriago ta neketsuago baril geroago ta obeto danok edo geienol izan al gadizan bear dogu askatasuna. Banaka batzuentzako edo talde batzuentzako ongarrri dagiken askatasuna ez da guk gizatasunez ta alegin guztien bidez geureganatu bear dogun askatasuna.

Egia da askatasuna ori lortu al izateko lokarri batzuek eten bearra izango dogula ta baita erakunde batzuek aldatu bearra be bai. Lorarriak etetekoan eta erakundeak aldatzekoan ikus ta neurtu dagigun ez bakarrik geuk geure taldeetan onerazi gengikenari baita gure erri neurri ta ongarrribidez onartu bearrekoa be naiz ta bakoitzaren edo batzuon eritxiz onerazigarria izan ez.

Askatasuna zuzentasunakin josi bearrekoa da. Zuzentasuna ingurukoan eskubide ta eritxiak be onartu bearra daroan jokabidea da.

Eginda baño egiteko daukaguna gure errialdean zabalagoa ta sakonagoa danez gure giza-erakundeak aurrerapidetsu ta indartsuan izateko moduan antolatu dagiguzan danon artean. Orretarako kontzientziak indarbarritu dagiguzan jakitez, artuemonbideak zabaldurik, alkarri bakoitzaren eritziak entzun aragoaz eta batez be alkar aintzakoagotzat artuaz.

Euskadi aotan artzen dogunok bakoizkeritik iges eta alkartasunean eta batasunean indargarritu bearra daukagu ta iñork be uka ezindako eskubideei eldurik iñork uka ezindako indarra gerekotzakotu. Gizatasun-miñez jaiotzen dan eginbearra, gizatasuna bizien ezakerazotzen daben askatasun eta zuzentasuna sail guztietan ta bakoitzat eta danon artean sorarazo dagikeguzan erakundeetan oñarritu sustartu, laneko ta urietako arazoetan, ikasketa ta auzoetako jardunetan, ekonomi ta giz-gintza arlo guztietan. Geuk geurez aldatu genezaken gauza guztiak giza-girotan la gizatasun aurrerapiderako dagikegunez ezango gaitu iñork ixilerazi ta baztertu.

Egingo au ez da egun batzuetan egiñalekoa. Egingo au eginarazo ta oñarritzeko ekin ta ekin, jardun eta jardunari eutsi bearra dogu. Orretarako gudari burubide aldizgarrietan baño aldakeri egingo korapillotsu ta sokonetan ezin bear aundiagoa dogu.



## Urte zarraren agurra. Abendua 1973

1973 jua yaku: Gure lurraldean buruauste ta izkanbillarik asko izan dituan urtea: ames gozo ta larritasunez ornidua; asmo aintzagarriz eta egikera badaezpadakoz be bai. Dana dala jana jua da ta obe da kontuan artzea aurrerakoan zer eta zelan egin, zelakoak izan eta bestei be izaten lagundu.

Egunotan lagun baten agurra artu-dogunean auxe irakurri doguz ta danoi opa dautsuguna da:

"Anai arteko deia da Gabon.

Gizonak gizonik zapaldu ezin leikela

esaten dator.

Obeago izan gaitezen

eta mundua obetuteko,

alkar maitatu daigun:"

## Kidetasun miñez

"Bakarti basoti" esan oi da baña oraingoz basatikeri kutsua zabal dabillega esango genduke moltsoka gabiltzanon artean be.

Alkartasun-miña ez da izaten taldekideratzen gaituana: taldekeria da izakera ta jokera bat eta kidetasun min eta alkartasun jokabidea beste bat.

Alkartasunaren oñarria besteenganako begirapena ta besteekiko laguntzakera da: kidetasun miñez bakoitzak bere buruari opa dauksana opa izan oi dautsee ingurukoei ta orrela nortasunik galtzeke alkargoa onerazten da.

Lankide Elkarreei azi ta indartu dagizala opa dautzague etorkizunik arlo ta sail orreitan ezin izan dagike bizibarritzen ez danek eta.

Aurtengo urtean Lankide Elkarreek naiz ta eragozpen asko izan dituanearren onarturik zituen malletara eldu dira. Baña datorren urteari begiratuta edo munduan agiri diran izakera ta jokera barriei kasurik egin ezkeru bear bearrezkoa izango da alkartasun eta batasuna indartzea; orain arte iru ondo ebiltzazenetan seiren indar bearrean izatea edo orain arte amar eginda ondo juan diranak ogei egin bearra atzeraka jon ez ditezen.

Erretzezen ta neketsuen be beste ezer baño egokiago eskuarteratu dakikegun INDARRA alkartasun-bidez jatorkiguna da: sakondu ta korapillotu dagigun alik azkarren ta sustartsuen alkartasunezko erakundeak.

## Txepelkeria

Kooperatibetan gabiltzanok alkartasun eta batasun bideetan beste batzuen atzetik joateak danok lotsatu bear gindukez.

Gure Erriak guretzako esku zabala izan dau guregan eta gure jokabide ta burubideetan siñestu dabelako. Izan al legike gure auzo ta errien kolkoetan gu baño lotsagarririorik baoizkerietan sakabanatuta edo aurrerapiderako bear ditugun erakunde ta jokabideetan zalantzaka gabiltzakenik?.

Guri jagokuna ez da beste batzuek gure begietan lotsagarri egin dituana egitea; "obras sociales" aotan ta elkarte arazoetan atzerapena egingoetan; kooperatibak lanbide barriak eta obeak sorrerazi bear dituez, ogibide eratsuak egokitu, orain arteko ekonomi elkarte edo erakundeen orde z gizekoi ta aurrerekoi izan dagikezan suspertu ta jaso.

Ikasle ta irakasle, gizon eta emakume, gaixo ta gaixo-zain, zar eta gazte danok daukagu beste era bateko bizikeraren Egarría ez aundikeri ta zabarkeriarena. Zenbat darabilgu zabarkeri ta aundikerietan eta zeñen gitxi gizeketa onerazten?.

## Danok danetan ezin bardin izan

Gizarte-ezbartinsanunak etorri askotakoak dira.

Bardintasuna aotan artzeko asmo ta jokabide gizekoi dala dixudi, baña edonork eta edozenbat modutan danok alde batera itxi oi joguna bizibidean.

Illaren lenenguan bardin asiarren azkenean bakoitzak bere eskuarte bereziki erabili oi dau; batzuei jatea, bestebatzuei jantzitea, ta abar gusto diperentiak egitea gustatzen jaku. Ona emen ikaspide bat.

### Sendiko gastuak

Erriak	Jankietan	Jantzietan	Etxekoetan	Ondasun iraunkor	Beste ondasun eta egingoetan	Guztira
Gran Bretaña	23,6	9,8	12,6	8,0	46,0	100
Francia	26,1	10,4	9,8	9,9	43,8	100
Austria	27,7	13,1	6,1	11,1	42,0	100
ESPAÑA	37,6	12,7	7,8	8,8	33,1	100
Grecia	37,8	13,3	13,0	4,1	31,8	100
Italia	41,0	9,1	10,2	10,7	29,0	100

### Sendiko gastuak-jakietan lan-sarien eta irabazien euneko

	URTEAK	
Erriak	1960	1969
Gran Bretaña	28,8	23,6
Francia	32,3	26,1
Austria	34,1	27,7
ESPAÑA	50,0	37,6
Grecia	42,1	37,8
Italia	39,6	41,0

Bardin irabazi bear gendukela esaten dogunetatik zenbat izango giñake konporme bardin gastatzeko obligaziñuakin?.

## Aundikeri kutsutan. Ekaina 1974

Aundikeriz kutsututa, geure ta ingurukuen etorkizuna galbideratseko jokabideak ongarritzen diardugula esan lezake gure erritan, langille edo gizaseme askoren izakerari begiratuta.

Egia da gure errietan tinko lan egiten dabela geienak baña ez da guzurra lan-sariak bizimodua gozatzeko baño geure buruak ingurokoenen gañetik erakutsi al izateko darabilgula.

Auxe da beste aldi batzuetan gure errietan beste gizaseme talde batzuek egin oi izan dabena ta geuk be lenago txarto eristen gautzona. Auxe da ito bearreko aundikeri ta panparroikeria.

Aberatsa izan bearrik ez dago andikeri-miñez oneretsi ezindako jokabideak onartzeko ta arropuztuta lana bedekatu ta lan saria oinperatzeko edo utsalakerietan izuriteko.

Lanaren eskubideetaz jardun izan dogunean ez al zan ondo izango lan-sari arazoataz lortzerakoan ta eskuratuta bakoitzak bere eritxiz ta gogoz epleatzekoan lanaren berezitasun ta bikaintasuna kontuan izan bear genduala?. Lantokietako zuzendarieri jaso jagokoez egiñen batzuek lan-sarietaz ta lan-sari ori irabazten dugunai beste batzuek. Ez bata ez besteak egin dagikeen deritxoena lana atzipetzeke, lana zapustuteke.

Gure kooperatibetan lan-sarietaz sakon ta ziatz jardun oi dogui guztiok eta ezin jaso dagikegu ez bardintasunik txikienik be. Lan-saria patrikaratuta etxean edo kalean goazeneko ezbardintasun gabe ezin bizi gara. Besteak daukoena geuk be bear dogu ta geienetan geien daukoenena jagoku oparoen. Zer zentzunez al gengiken bañoa iñor baño geiago izan al izateko zer bear dogun geiago arduratzen gara. Au al da gizatasun ta alkartasun biderik onena?.

Auxe da lenagoko ta oraingo aundikeri ustel ta gizatasun aurrerapidetsuaren galbidea.

Alperrik esango dogu askatasun izpitan uka eziñekoa danik ezer. Gizatasun-bideetan aurrera egin al izateko bakoitzak beretzako bear daben askatasunain ingurukoak bear daikeena be oneratsi bearrekoa da. Gizantekeria ez da gizatasun amesgarria.

## Giza-Eziketa ta aldaketa bearra

Ezerk be es dausku palta aundiagorik eiten bakoitzak sentzun geiako izan al izateko apurtxo bat geiago arduratzea adimen-argitan biotz-izpi ta iñoren izakera ariñetan baiño norbere jokabideak onerastea. Eguzkia nora, zapia ara. Esan oi da ta gure arteko giza-izakeraren agerpen askotaz esan geneikena. Beste au izan legike. Moda-soñua zelakoa, gure izakera alakua. batean oin ta dantza ta bestean illeta ta negar. Negar eta barre umeen jolas ta jokabidea. Gizaki eldukatizen izakera nagusi ta gizakume trebetzakotzat geure buruak daukagunok.

Bizi-toki edo etxe egokiak erboteko baño modako tresna barriz ornitzeko prestago izaten gara. Automobilla ekarteko berentzako tokirik izan al izateko baño eskuzabalagoak gara. Umeen ikasbideetaz titulo aundiak izan dagiezan ondoen eta egokien jagokuezan ikasketak onartzeko baño geruago izan oi gara. Jolastokietarako eskuberatsuaigo ikastetxeetako baño. Giza-eziketa ta aldaketa aurrerapidetsuak baño gizartekeri ta barritsukerietako arduratsuaigoak geranik ezin uka leike.

Onakoxea da gure izakera eta aldaketa miña da geienetan. Aldaketa orreikin gure erriak ezin egin al izango dabe aurrerakada audirik.

Geuk aldatu gengikezan aldaketal alde batera utzi ta beste aldaketa sakon eta zabaleetan amesetan diardugu ta askotan orretan ibiltzen gera, dan-danon artean ein bearreko aldaketa aotan arturik moda utsal ta izakera bakartienei indarra emonaz.

Aintzat artu ta jarrai dagigun gure erriaren etorkizuna ta bakoitzaren ogibide izateko eratutako saillok ongarritzen. Eskuarteau daukaguna obeto eiten, amesgarri dagikenetan korapillatu barik.

## Beti pentsakizun barrietan. Uztailla-Abostua 1974

Ez da barrizale geralako obeto bizi al izateko bizimin bizia daukagulako baño pentsakizun barriz jokabide barri billa ibiltea. Indarbarrituten ez dana berez indargetu ta zaartu egiten da.

Gizakirik geienok eta inguruan ditugun gauzarik geienak be etengabeko aldaketan dagoz naiz ta guk ondo eritxi ezarren. Aldaketok gizakion unurako egokien ardaztu dagikeguzan sasoz nola zuzenerazi aztertu ta erabagi bearra daukagu. Orretarako bakoitzak bere pentsakizunak norbere lagun urkoei agereraszea beste ezer baño jokabide unuragarriagoa da. Bakarti gitxi be gitxi al genezake ta alkartasunpean asko be asko danon onerako. Egunean eguneko arazoei begira eguna egunakin eta urtea urteekin ardaztuta dagozala kontuan artu gabe egunean egunekoari baño zabalago begiratzen ez dakienak eguneko zama ta garratzasun gitxi uxatu edo arindu al izango ditue ikusmira luzeagoa izan dakien antzera. Giza-gozatzeko bakarti ta egunkor barik alkarti ta aurrezti jokatu bearra dago.

## Edertu bearrez zatartu

Bai. Gure erriak edergarritzen alegintzen gara baña geuago ta zatarragoak dirudie inguruetara begiratzten badogu. Ibaiak eta burdi-bideak zirala ta gure erririk geienok baztarrik ito ta sakonenetan jaio ta azi ziran lenago ta orain be zokorik estuenetan azi ta azi oi dira. Zoko guztiok naste borraste ethez ta lantokiz beteak ditugu erreka ta ibaiak zikindu ta oso loitu ditugu. Erri inguruetan galdu dira lenago gendukezan zugasti ta zelai garbi ta argiak piñudi baltzen illundurik inguru geienok. Gure baserriak geruado ta gitxiago dira ta oraindik norbaitzuen bizitoki diranak ikusi be ez ditugu egiten piñadi tarteetan galdurik.

Euskadi'n urrien daukaguna lurra da, sail eztuak ditugu ainbat bistanientzat. Gure lurraldeak gozatu ongarritu ta edergarritzea baño zer izan, gengike eginbear aundiagorik gure lurralde au maite dogunontzat?, Onekin ez dogu esan nai zelan edo alan gure baserriei eutsi egin bear jakoenik baizik danok edo geienok dogun bisimin eta obeto izateko gogoz jokabide barriak eratu eten ezindako aldaketan arian izakera egokiagoa moldatu al dagikegun danontzako.

Zalapartaka eta denpora gabe gauza gitxi be gitxi ondo aldatu dagikeguz baña bai sasoi eta langille, arrantzale ta nekazari, danon artean aurrerapitdetsu ta ito ezindako aldaketan arira beste jokabide batzuek onarturik danon onerako.

Azkenengo urteetan ainbat eta ainbat etxe barri, kale ta auzo egin ditugu ta danak edo geienak datorren gizaldi edo ueteetan lengo gizaldiko moduan bizi bearra bagenduke bezela bestelako buruausterik ontzat artutzeke.

## Uka ta ito ezindako aldaketak

Baita gure artean be nekezaritza arloetan gente gitxiago bearco dogu ta bardintsu arrantzu ta itxaslanbideetan be. Industri-arloan geiago artu bearco ditugu oraindik baña laster egunean eta astean ordu gitxiago lan egingo dabe arlo orreitan. Tresna egokiagoak, organizaziño obea, lantoki zabalagoak eta automatizaziño geiagokoak lan-saririk gitxitzeke ordu gitxiago bear izango ditugu edonork jakin dakianez.

Urte gitxiren buruan eldu gara bos egun astean izatera, beste asko baña len izango ditugu geienez ogeitaamabost ordu astean lanerakoak gitxiago ezbadira be, industrial daramoskiguzan produtoak sobra izango ditugu alde guztietan laster baño lasterrago.

Geiagon artean bakoitzak gitxiago egiñarren bear izan gengiken baño produkto geiago izango ditugu. ¿Orduan lan gabe edo oso lan gitxikin zoriontsuagoak izango ete gara?.

## Lanari igeska gabe lan-barrizketa billa

Gizakiok izan oi ditugun lanbideen kondizio batzuek garraztu ta gogaaitzen gaitue lan-eginbearrak baño geiago.

Orixegaitik beti lan berbera eginbearra batzuentzat eta beste batzuentzat baita lan-neketsuegia izatea ta askorentzat lan-sari eskasa izan oi dira lanaren jaso ezindako zamarik aztunenak.

Nekazariak aztun deritxoen lan batzuek kaletar edo beste industri lanetan ari danak gogotsu egin oi ditu nekezka baño jolaska obeto esateko. Ogibide ongariak izateko ordu gitxi. Egin bearrak ez dau esan nai besterik asko ta askok gogozko ta jolaska lan geiago egiteko aztia edo denpora izango dituguna baño. Ez da izerdia ta ezta nekea be eragozpena lanari gogotsu eldu al izatelo bakoitzat orretarako almenak dituanen eta ezer egiteko izateari ondo eristen ez

dautzonean. Ertilanetan ari diranak lanaren bidez elduago egin oi dira ta lanerako sasoi ona beti izan oi dabe ta gogoia be bai.

Lan gabe pentsakizun utsetan bizi izateko egiñak ez gara gizakiok edo lanean eta lanaren bizigarritu egin oi gara indargetu ta moteldu baño geiago. Lan gabe irotu egiten garala dirudi gizakiok sustar gabeko zugaitzen antzera.

### Jubilaziñorik ez

Arrasate'ko lantokirik aundienean orain urte batzuek ezagutu genduan urte asko lanean eroazan langille bizarzuri tinko ta guri bat ugazabal jubilatzea nai ebenean ezetz erantzuten eutsena ta irurogeitaz urteekin goizean goizik bere lantokira jua oi zana naiz ta ugazabal lan-saririk gitxitzeke etzean egon zedilla esaten eutsoena lantoki orretan urtetik geien egiten zituenerikoa zanez.

Langille oneik esan oi eban bera ondo erreparatuta egoala, beti adi egin zala eta ondo ikusi ta ikasia eukala "jubilatzen ziranak laster il egiten zirala geienak" ezer egin bearrik ez izatekoan auldu, moteldu ta irutu egiten zirala geienak eta berak ez ebala nai jubilatzerik orixegaitik.

Beste amar edo amabost urteren buruan gure lantokietan jubilatua bearren asko ta asko izango dira. Orain mediku ta jakintsuak eurak be gizakok lanen baten irautea osansugarriago izan oi dogula diñuzkunean ez al da ondo izango pentsatsea zateriko lanbideak sorarazi genginezan okupaziñoren bat al danik egokiena izan al dagigun nai dogunok?.

### Azuo barriak

Industri arloetan baño beste sail batzuetan lanbieetarako egokitasun geiago izan gengine. Orrez gañera industri-lanetan gitxi edo asko aspertuak izango gara ta aldaketa bearra sentituko dogu askok.

Gure bizitzan izan ditugun irabazpide ta lan-sarien bidez bizi izateko bear dogun eskuarte jubilañio ta pentsino bidez izango dugunez lana ta lan egin al izateko egokitasuna bizimodua sostenitzeko baño bizikera gozatzeko ta tinkotzeko egokiagoa danez onerazitakoa bear dogu.

Gure lurralde zokoetatik urtenta mendi-barrenak gora bizileku ta auzo barriak bakarti ta basamortuan barik alkarren inguruan eta alkartasun ta gizatasun girotan bizi izateko moduan egiñik bakoitzak baratz edo zelaitxu bat landu ta ornidu gengine neurrikoa izan al bagendu ¿ez litzake oba izango gure lurralde edargarritu ta onuxatsuago egiñez danok nekazaritza piska bana tenika jokabidez indargarritzeko?,

Orain urte batzuek asi izan bagiña jokabide onegaz etxegintzan eta baita oraindixetik kioletan baño kanpoan bizi izatea geiago gura dogunok orretarako gertatzen onezkero auzorik eta lurralde emakoiagorrik ugari ikusi al izango genduzan gura artean oraingoxe.

### Buruak arin poltsak astun

Poltsak astunak diranian ez da erretz izaten buruak zirin-zirin ez sentitzea. Dirua saltari ta kantari gizona laster egiten da zoriontsu garratzesunik eta eragozperik geiago bizimoduak izango ez dabelakuan.

Lana ta irabaspina nun-nai ditugu. Esateko lan egibearra izan legikegu penagarriak bakarrena lanar irabazpena berez ekarri oi dau ta. Orixegaitik jubilatua bearrik ez gaitu oraindik iñor penagarritzen. ¿Zar izango eta litzake lanbide eskasidadepean jubilatua bearra izango



bagendu edo jubilatzean gure irabazpide edo jubilaziñorako lansariak bizimoduko beartasunei erantzun ezindakoak balitzakiguz?.

## Jokabide barriak

Gure inguruko lurak bizibarritzeko ta uri inguruak edargarritzeko ez litzake txarto izango bizi-leku barriz ta bizi-lekuok baratz edo alik emoikorren landu al legikezan saillez orniduko bagenduz.

Gure uritxoetako bizilekuak kaiola-bizikunde zaleentzako egokiak dira. Kaioletako bizikundez ta baita lantokietako lanez aspertu diranak eta beste bizikunde bateri eltzeko gogotsu ta indartsu dagozanentzako ¿zergaitik ez ditugu egiten bizileku barriak bizileku inguruan lur-sail edo baratzak izan dagilezanak?.

Jakiña olako bizi-lekuak bizikunde orretarako zaletasuna daukenentzako izan bear leuke ta sekula be ez bastar edo lur-sail orreik unuragarritsu lantzeko konpromiso ta almenik ez daukenentzako.

Ondo ez litzakigu etorriko gure bizi-aro ta lagunaroak orretan euren onasanetariko zati bat inbertitzea erretan esan dogun antzako konpromisuakin emon al izateko euren kontura kanpo edo nekazari edo ortulari lana egin nai debenentzako?,

Gure kooperatiba jokabide barritzea eginkizub eta erakunde orretan saiatzea ez litzake txarto etorriko gure lurralde osoa, Euskadi, guztia industri, barazki ta nekazaritza ta abelgintza sail guztietan gorengo mallara jaso al izateko. Saillez-sail txikia izanarren onuragarritz ta lanbide egokiz ondo ornidua egin begigu danon artean orretarako jokabide barriai sustartsu ta gogoz eldurik.

Ez dogu pentsatu bear bakarrik industri-arloak obeto landuta jaso gengikerinik gure erria gorengo mallara gure lurrak beste era batera landu ta erabilli gabe. Zelai, solo ta baratz emoikogarrago egiñaz orretarako izan dagikuzan abono, ur, lan eta abar beste erakunde batez zuzenaraziz baño. Erriak oso-sosorik uri biurtu gengikez errion arteko saillak bizi-lekuz ta nekazaritza edo barazkiketa barriz ornidurik. Industria egin ari geranez nekazaritza edo lurra be emonkoiago egiñaz iñorentzako lan astunik edo gogoko ez danik opa izateke.

## Lurralde onetan

Izan dogun izakera ta edestiari jagokonez eta sail oneitan eta daukaguzan baidintzetan egin genezaken aldaketa, giza aldaketa edo iraultzari jagokonez. Jokabide barriak asi ta akaboraño izan dagikezan ekonomi ta giza aldaketa daroakigun aurrera al dogun neurrian gure laguntasunik ukatzeke iraultza sakon eta gogogarriagoa egin dagiken iñori be.

## Onetan orretan: ekin egiten. Urria 1974

Sermolariak baztertu ditugula dirudi. Sermolariei entzutera egunean baño egunean gitxiago jua oi gara.

Beti gero obeto izatekotan eta beti gerokoari begira ei ebiltzan. Bitartean aren esanak aintzat artzen zituenak baño norberari ondo eritxona kezka gabe egin oi ebana obeto izan omen zan.

Bertsolariok be eskasak izan dina edo ei dira dirudienez.

Baña baditugu gure erri barnetan ta gure tartean amaika barritsu barriketarako grazia dabenak. Oraingo ta geroagoko arazo ta gauzen barri be ondo baño obeto dakiela dirudienak. Ez al ditugu jasoten eta aintzat artzen ainbat eta ainbat irakasketa ta jokabide egi utsa, edonontzat argi ta garbi dirudinenzakotzat?.

Zein sasi-maixu dan edo nor zirikalari arroputs izan legiken iñoren bearrrik izateka bakoitzat egin bearko genduke alegin geiago arazoak aztertu ta argibidetzen.

Lerro onen bidez ez genduke nai iñor atxipetzerik eta ezta iñor zalatzerik be. Erakutsi-arazo nai duguna auxe baño ez da. Auzi ta arazo asko dirala bakoitzak bere baitan, bere adimenez, begiz ta belarriz aztertu-arazi ta ondo neurtu al legikezanak.

Barritsuak nagusi izan oi dira ingurukoak leloak diran tokietan edo dagiguna eta jakiñerazi al gengikena ixilik jaso oi dabenak dabilzan alderdi ta basterretan.

Iskanbiletaz ta nastetaz urduritu baño obe izango genduke tinkoago jardun dakigunetan eta aurrera jarraitu diarduguna egunen baño egunean obeto egiñaz.

## Ongarritzen

Entzun edo irakurri dogunez Ipar-Amerika'n industri ta Kapitalismo guztiaren be sustar eta oñarririk sendoena inbestigaziñoa ei da. Ango antzera Alemania'n be, zapaldu ondoren, erriak geien burua jasoten lagundu dautsoena jakintza, batez be teknika itzularazi oi daben jakitea edo ikastea izan da.

Inbestigaziño arazo ta jardunetan Ipar-Amerika'n etxegintza ta bidegintzetan baño eskuarte aundiagoak, dirutza geiago empleatzen dabe diñoenez. Industria-textil danean edo burnibideetan baño persona geiago el darabiltz. Zazpireun edo zortzireun milla persona, jakintsu ta jakintsuon laguntzetan.

Euren patenteen pagamentuetan zeinbat diru edo dolar munduko errialde guztietatik eurenganutzen dituen esan be ezin legike esan. Irabazpide orreik ez dira errez eta edonork kontatu al lezakezanak eta.

## Aldaketa pentsagarriak

Denpora gitxitan txiro ta atzeratuen izan diran Errialde batzuek Petroleedunak esateko, aberats biurtu dira ta mundoko makiña ta erraminta onenak erosten ekin dautse. Ur gitxiten barruan makiñak erosteaz batera irakasketa arloak lantzen ekiten badiote, aurreneratiko malletan ikusi al izango ditugu. Ez denpora gabe baña uste gengiken baño lasterrago bai.

Guk zer erosi ta zer zaldu al izan da aurrerapidetsu joka al gengike?. Mingañez baño biotzez gure Erria maiteago dogunok ba daukagu zer pentsatu ta zeri ekin denporarik pasatzen egoteko.

## Ezin dana baten eta batera. Azaroa 1974

## Buruauste zurrumillotan

Kooperatiba erakunde-ta elkarteak zelako etorkizuna izan al legiken oraingo politika erakundeon aldaketa ondoren jakin- miña uka ezindakoa da; geienok sentitzen doguna. Jakin-min oneri buruz lenen-lenengo adierasoko duguna auxe da: orretarako ta edozetarako bear dogun baño sakonago aztertu ta ezagutu bear gendukela kooperatiba-erakunde ta jokabideen sustar ta oñarriak.

Batzuen eritxiz kooperatiba-erakunde ta egingook eragozpen eta atzerapenez mamintsuagoak dirudie elkarte-iraultze ta aldaketa alde egin ta jarrai izateko indar ta jokabidez baño. Ola ete da izan be?. Estabaidak edozetaz sortuarazo dagikez ta izan be gizakion artean. Garrantzitzua ez da eztabaidak izatea eztabaidetan zer dan oñarritsua ta argibidetsuagoa erabagitea baño.

Kooperativa erakundeak eurenez daben egokitasunez gain erakundemalleetan ardaztuta dabiltzanak zenbaterañoako askatasun, zuzentasun, egi ta aurrerapide zaletasun zintzoa jakinbearrezkoagoa da. Elkarte erakundeak bizi-arazo ta zuzenarazoten dabezanak gizakiok gara ta.

Gure arteko kooperatiba erakundeetan dabiltzanik, asko ta asko ondo be ondo ezagutzen ditau ta ezin uko gengikena da gizon edo gazte ta sasoiko gizonen orrein izakera, bizibide, trebetasun edo gauzaesa ezagunak ditugu geienetan: zintzoak ala iruzueleak, norberekoia ala elkarkideak, atserapentsu ala aurrerakoiak, giza-aldaketa ta iraultze aldekor jokabideen alde diarduen, ikus eta neurtu dagigun. Kooperatiba-erakundeak giza ta elkarte aldaketa zabal eta sakonenetan eragozpen gabe ardaztu al legikezanak dira.

Geroago ta aurrerago erakundeak erri-jaurpidean erretz iruli ta irungo ditugu, batez be erri-elkarkera jagokonez erriek ber-berak eratzen dakianean.

## Edozetarako

Kooperatiba-sail eta arazok sail eta arazoetan zerikusirik dogunok geuk geurenez jokatu al izateko trebetasuna ta gañerako jokabideak geuregandu dagiguzan; iñoren otsein eta morroi izateke ta ezetariko jauntxokeririk gabe jokatu ta bizi al izateko norbera gogoz eta alkartasun zuzenbidez egin al dagiguna dagigun beti.

Kooperatiba erakundeen kutsu ta indarra ez da besterik askatasun eta zuzentasun miñez norberak ingurukoen ongari ta alkartasunpean jokatuarazotera bultzatzen gaituan gogo-bizia baño.

Norbaitzuek esango dauskue askatasun eta aurrerapide miñetan irakiten dagon erriarentzat iraultze jokabide ori luzeegia edo astitzotsuegia dala; baita beste batzuek esan al izango dauskue etenbearreko lokarriak eta gainberatu bearreko indarkeriak presaka larriagoa ta indarketa biziagoa bear dituenek dirala be.

Lasterka elduarazo eziñeko egingorik asko ez al dira giza-aldaketan onartu bearrekoak edo eten ondoren barrituarazo bearreko lege ta erakunderik ez al da bear giza-aldaketa ta elkarte iraultzeak gizagarritsuak, ongariak izan al dagikeguzan?.

Zer deusestu, apurtu edo birrindu bear dogun pentsatzerakoan zer jarri, egin edo jaso bearreko dogun eta zerekin eta zelan egin eta jaso al gengikegun be kontuan euki dagigun. Orain eta gero be geuk geuronez egin dagiguna egitea ongari ta bearreko izango da geuri jagokun erakunde ta politika jokabideetan ibilli al izateko.

## Lan Elkarte edo enpresa barritzea

Edonork dakigunez giza ta elkarte aldaketetan asi ta akabo egin bearreko guztia egiñarazoteko ori ez da naiko.

Ez al dakuskugu kooperatiba sail eta arazoetan diarduenak aldaketa ari ta egingoak beste arlo ta ekonomi edo gizarte egintzetan be jokatzen ari dirala?

Nork ez daki indar gabe gitxi egin al lezakeena ta indarra izan al izateko era askotariko eskuarte ta oñarrien bearrean gerala?. Indarra indarkeri itzuli ez dedin eta aurrerapidetzu bekigun zuzen, aske ta zintzo joka bearra uka eziñekoa da; baita askatasunik bastartzeko jarrai al izateko alkarrenganako begirapena etzipetu iziñekoa be; argi ta garbi jokatzean baditu oraingo ta beti be bere eragozpen ta nekeak.

Lan Kide Elkarteetan askatasun eta begirapen geiago izan al izateko zer egin bear izango genduken astertu ta erabagi dagigun eta eratu. Auxe da egunean egunean gaurkotu bearrekoa.

## Bizikera barri-billa. Abendua 1974

Edonork dakianez txoriak karioletan jaio ta karioletan biziteko egiñak diranik ez dirudie ta ezta gizakiok be gizaketako geranik bizikera egokiagoak egin al izateko erarik ez dugun artean.

Lurralderik eta bizitoki bizigarririk sobre dagonik ez dirudi gure artean kaiolak erri zulueta-moltsoka egiten diardugunez. Baña egokiago bizi al ixateko beste sail ez al dago gure lurralde oneitan orretarako egin bear gendukezan alegiñak egiten bagengeki?.

Bilbao'n Metroa egin bear dabela irakurri dogu kalek eta bideak estuegiak diralako ainbat arutz-eta-onuntz ibilli bear dabenean. Bizkai ta Gipuzkoan naiz ta inguruak, lurraldeak edo saillak obeto aprobetxatu be sobra aundirik ez genduke izango danontzako, bakoitzarentzako etxalde nsasaiagoan billa jokatu bagenduke, eguzki-izpi ta euri lanbroen egarri ta zaletasun komeni jagokun añakoa balitzakigu.

Gure izateri jagokonez bizi edo izateari zaletasun geiago bagengokio gure inguruko ibai, zelai, ibar eta mendiei aundiagoagaz begiratuko gengoizki ta berez-berez ain polit eta lirain diran gure lurralde ta basterrak obeto eratu, landu, garbitu ta jantziko gendukez.

Etxe ta erri politik egiten diardulakoan etxe ta erri inguruak eder-arazoten, apaintzen, garbitzen, lantzen eta jantziten iñork gitxi be gitxi egiten dogu. Nun da edo zertarako da gure erri-min eta abertzaletasuna?.

Abere ta aberekoi gerala geiago dirudi abertzale baño ikusirik geienok daukagun ardurarik-eza, etsitasuna zaindu ta edertu gengikena bertan-bera utsirik satorkeri-miñez ainbat eta ainbat diru erdi alperrik edo aurrez aintzat artu bearreko arazoak onerazi ez ditugulako etxe ta urietan lurpeak apaindu bearren geranean. Orain lurpeetan bideak egin eta lurpeak aprobetxatu bearrean lurraldeak, berez genduzan ondasunak obeto eragozten jakin ez dogulako. Zertarako ete ditugu gure ikusmen, adimen eta abar?.

## Beti prisaka ta beti berandu

Egia da lan egin bearra dogula, lana dala gure ogibidea. Ogibiderako bear ez bagenduke be lana egoki ta gogogarra genduke giza-bizitza gizaketu ta gozatu al izateko. Auxe da orain aintzat artu bearreko egi mardula. Zenbat eta lasterrago ta geiagok aintzat artzen dogun orduan eta obeto eratu al izango dogu gure gizartea ta giza-arazo larri ta korapillotsuenak obeto erabagi al izango ditugu.

Ogibidea izan al dagigun egin bearreko lana egunen ordutxo batzuek, eta urtean baño urtean ordu gitxiagotan egin al izatekoa da. Oraintsu arazo oneitan trebea dan gizon batek diñoskun auxe. Gure artean lanerako sasoi en gagozanok urte-buruan 1.500 ordu bakoitzak egitea naiko ta sobre izango litzake guk bear doguzan tresna, jaki ta bearrizanak ornidu al izateko. Or ez gañera gitxi gora-bera beste iru bat milla ordu bakoitzak lotarako bear ditugu. Ba al dakigu zenbat ordu orrez gañera libre geratzen jakuzan zelan edo alan pasatu bearrekoak?.

Ainbat ordu, urtean esaterako bakoitzak lautik bos milla ordu edo geiago pentsa al dogu zertan okupatu gengikezan?. Batez be pentsa al dogu zertan okupatu gengikezan gizagarritzen?.

Gizaldi ta gizaldietako gizonaren burukomin eta buruausterik aundiena lan egin bearra izan da. Argitan eta illunetan be lan eta lan egin bearra eukala eristen eban bizi al izateko, batez be nasaiago bein edo bein bizi al egikean.

Gizakiok eskuratu ditugun tresna ta daukaguzan lanbidei begira orain dakusguna auxe da. Lana baño libre daukagun edo izan gengiken asti edo denpora zelan obeto, ego ako izan gengiken.

Lenago lan egin bearra geunkan atsedena izan al izateko ta orain izan gengiken atsedena eta astia gizegarritau izateko, zer edo zelan jokatu?.



## Jauntxokeri-kutsuak. Abuztua 1975

## Agur Jaunak

Bai; agur lankideok, egizko jaunak morroi edo otsiein ez izatearren erantzupen eta egingo astunetan alkar lotu dozuenoi alkartasun bidez indartuta kateak eten gura ditugu guztiok.

Egitapen latz eta bearrekoa da guk geure gain arto doguna askatasun eta aurrerapide izan dedin gure erri osoa langille bezela genduaren gain; lanaren bidez guritu dogu gure lurraldea, lanez-lanez eldu al izan da gure-erria eldu dan mallaraño bertakoek eta kanpoko askok be berton ogibide bizigarrisudun izateraño.

Beste batzuen lantokietan ogibidea dogunok ezin ukatu daikegu euretako zuzendari edo jaubeei zuzenduriko eskabideen bitartez gure ogibideak ongarritu gengikezala batzuetan edo askotan be bai eta batzuetan asko ezarren bai beste batzuen edozenbait be. Orretarako ezin uka dagike lan-opor edo uelgak bearrekoak ez diranik.

Baña ondo pentsatu bearrekoa da lankideok noiz eta zenbateraño jaso al gengikezan geure lan-sariak gure lantegietan geure buruen kontra egiteke. Ondo astertu bearrekoa da lantegi bakoitzeko eskuarte eta sal-erosketa irtepeak nola dijoazen eta beste ezertan geure buruak konprometidu orduko auxe da jakin eta aurrez erabagi bearrekoa.

Obeto esateko Lankideok geure lagunak saltzeke eta geure etxeen kontra egiteke ezin genezakez beste langilleekin be eratu ezelako egiune edo konpromisorik; lankideok langille batzuek salduta beste batzueri omen egiterik ezin onerazi genezake. Etxekalte dabilenik nekez iñoren alde ibilli oi da batez be norbere burua eder egitearren lagunak saltzen oi dabenik.

Langilleok ezer baño geiago bear doguna alkartzea da, batasuna da. Baña alkarrekin topeka edo ukubilka diardugunok ez da erretz izango ingurukoekin jokabide ongarrisurik oneraztea. Langille ta jaun izan gadizan jaun eta morroi batera ezin izan gengikez ta; ezta batasun iraunkor eta sustartsuaren aldeko be taldekoen artean burrukalaria izan oi geranok. Batzuek saldu ta beste batzuei edar egitea ez da jaun izatea jautxokeri baño.

## Jakingarriak

U.S.A'n diñoenez ekonomi arloetan zirkin egin dute goraka.

Europa'ko itxas-ontzidun jaube ta itxas-bidez sal-erosketa juan-etorrietan dabiltzanak diotenez, orain urte batzuek Europatik U.S.A.'rako edo Ameriketarako al zuten baño karga geiago izan oi eben eruateko naiz eta andik onuntz ekarteko larri ibilli itxasontziok betetzeko. Orain oster aldrebek ei dabiltz; aspalditxo andik onuntz ekarteko nai beste karga eta emendik ara eruateko eskas. Zer dala ta?.

Europa aldeko laterrietan lañ-sariak gora ta gora joan diranez emengo produziñoa asko garestitu danez nekez saldu al daroe Amerikan eta angoa barriz dolarra merketzearen bidez erosgarri omenda ainbat dolar European dabenentzako. Ezertariko zaparradarik gabe aldi laburrean euneko 25 merkatu da dolarra beste diru batzuek baliorik gutxi galdu daben artean.

Ez da naiko dolarrak kontatzea dolarraren preziaua beste diru batzuek erosteko edo zenbat dan jakiten ez danean. Eta geuk zer esango dogu pesetak dirala ta?. Edozeñek oar al dabena da pesete geiago eukitea ez dala naiko peseta bakoitzean zerbait geiago erosi ezin dabenentzat. Emen pesetak ugariarren peseten balioa beraka doanean ezer gutxi ongarritu al gengike gure izatea edo bizibidea.

Batenaz beste egin dagikegun produzioaren zati bat, euneko onen beste saldu bearra daukagu kanpoan, beste errialde batzuetan beste errialde batzuetako produziñoaren bearren gara geure lanerako ta bizikerarako bear ditugun gauzak izan dagiguzan ta. Esate baterako

gure erritan euneko ogeikoren bat bai da kanpoan saldu bearrekoa eta ori saldu al izteko bearrekoena preziua da ta prezio onak gure produziñoak izan dagizan egiterakoan trebe ta merkeago joka al izatea da.

Aurrerapidetsu izateak baditu bai bere buru-auste ta burukomiñak.

## Argi-kutsu bearrekoak

Lenagoko sorgiñak dirudienez galdu ziran. Siñeskaitz zan batek, eibartar batek esan oi ebanez tximist argia zabaltzen asi zanean eta inguru zabalagoa argitzen ekin zaionen argi indartsuagaz eskenengoak be uxatu ziran edo ezin bizirik geratu ziran.

Zer edo zein ziran sorgintzat onartu oi zituen izaki-bildurgarri edo indartsuak bazterrik-bazter gizonak kukildu oi zituenak?. Nork jakin?. Edozeñek jakin edo ontzat artu oi daikeguna da sorgintzua sorgiñik izateka izan eikean izatekoa zala eta sorgiñak aotan artuta edo sorgiñen bildur edo itzalpean edonork egun argitan eta jokabide garbitan egin ezin legikezanak egin oi zituela edo legikezala. Ez al deritsozu orixe izan legiketa egi sakon eta soillagoa gauzarik asko ulertu al izateko sorgiñak zebiltzala baño?.

Errazoia eukan dirudienez eibartar siñeskaitzak argiak eta argitan sorgintzu ta misterio asko berez-berez iñork explikatatu bearreik gabe itoten zirala.

## Indartsu eta errazoltsu

Illunpean eta eskutuan jardun bearrean geran-arteana beste arlo eta sail batzuetan be gure aldi onetan eta gure tartean errazoia eta indarra daukela dirudian asko izan legikez argitan eta argiz jokatu bearrekoan indarge ta nork langundu gabe geratu dagikezanak.

Ez da erretz izango illunpe gabe egin bear litzakezan gauzarik asko egitea beti eta ezta argitan eta argiz jardun al izateko eskuartedun izatea be burruka gabe lorturiko eskubideen bidez. Egia da giza eskubiderik asko gizatasunez uka ezindakoak ukatuta bizi gerana eta eskubide orrean jaube egin eziñik lorretan gabiltzana be bai.

Baña beste aldetik egia da baita argiz eta argitan bakoitzaren eta guztion onerako egin al gengikezan gauzarik asko egiten ez dituguna be norberakoikozko aikikulurik asko aintzat artuta be.

Egia ezer danik bearrekoena dala gizartean gizartekook alkarrekin ulertu al izateko ta alkaturik joka al izateko esan oi dogu, baño bakoitzat egia esateak eta azpikeri gabe jokatzean arantzat izan oidituanean egia soik baño koipekeriz eta maltzurkeriz orniduta esateari geiago ekin oi dio.

Gure batzar, elkarte eta jardunetako alkar-izketa ta arazoetan argiago ta garbiago jokatzen ekin eta jarrai dagiogun illunperako zeregin eta jardunkizun gutxiago izan dagian. Errazoitsuak geranez izan gadizan begirapentsuak be alkarrekin. Indardun eta eskubidedun geranez ikasi dagigun eta joka dagigun urkoen eskubideekin be begirapentsuagoak izaten eta batez be izen bekigu gure artean egiaren eta argiaren bildur gutxiago ta zaletasun geiago.

## Azurrak norentzako

Neska koskor bat joan omen zan okela edo aragi-eske arakin edo karnizeroagana eta esan zion oneri:

- amak esan dit libra bat okela emoteko baño azurrik gabekoa dan-dana.

Arakiñan erantzun zion:

- Amari esango diozu, azur gabeko okela edo aragia nai baldin badu bartzeko baretxeak batzeko ta jateko.

Bakoitzak norberarentzako onenaren billa dabillanean bete iñor kontuan artzeke erakin orrean aolkua gogoan artu bear luke. Orretarako bakoitzak beretzak bere baraztxoan edo bere erantzupen eta egigoaren bidez bakarrik egin dakienakin bakarrik olakorik izaterik ames egin legike. Azurrak, nekeak, buruasuteak eta erantzupenak norentzako izan bear dute gizartean gizatsu bizi izaterik danok edo geienok ames dagigunean?.

Ameslari asko ditugu inguruan eta obeto aztertu bearreko eginkizun asko be bai gizartean danon artean egin bearrekoak bakoitzat obeto izaterik lortzea bidegarri izan dagian.

Zenbat zekenkeri ditugu artuarazi bearrekoak eta zenbat bakoizkeri agertu al ezindakoak?.

## Sasi-kume ala sasi-maixu-tarte

Ezerk miñik emon badaikigu euskaldunoi sasi-kumeak gerala norbaitek esatea izan oi da. Orretan iñor be ez giñake ixilduko. Olakorik ingurukoek esango balekigu laster astintu ta uxatuko genduke gure ingurutik.

Geienok onartu izan oi dogu jaiokera utsez naste moldatu oi gaituala eziketak, Gure eziketa eratu oi dabenak guregan eta gurekin irakasketa ta artuemanetan zerikusia daben geienak dira. Ez al da au egia?. Ori ola danez sasikume izateko arriskua ez da bakarrik jaiotza soil eta utsaren bidez jatorkeguna baita gure giza-eziketa ikasketa ta irakasteta ariz eta kutsutan jetorkiguna be bai.

Jaiotza utsez baño sasi-kume izateko arriskua aundiaguak ditugunez ¿ez al deriskiogu sasi-maixu-tartean alamaixu zuzen eta garbien eskuetan eta bidez moldatzen eta garan arduratan artu bearrekoa?.

Zeintzuk sasi-maixu izan dagikeguzan eta zeintzuk eta nola maixu garbi erabagi al-izatea ez da korapillo erratza, soltakorra. Bai alaxe da. Baña ala eta guzti be aztertu bearrekoa ta beti aintzakotzat artu bearrekoa edo garbiz gain jokabide ta egikeraz, trebe ta aurrerapidetsu ta gizartetsu joka al dagigun.

Geienok edo danok alegiñak egiñaz alkarrekin argi ta zintzoago izaten aztertu al izango dogu ta batez be sorrerazi gure tartean giro ta kutsu barri bat gizatasunean eta gizatasunerako zuzentasun. lan eta algin geiago egin al dagigun eta geuk geurenez beintzat gure aberria munduko jua etorri ta izakera barrietan beti prest eta tinko izan al dagian. Naiz txikiak iduri iñork ito ezindako indarrez aske ta lagun arteko izan gadizan. Etenbearrekoak etengo ditugu baño orretarako guk bear dogun eskuarte eta iñork uka ezindakoa ¿zein da, indarkeria, gogorkeria guk baño beti erosuago beste batzuek izan dakien indarra?.

Bai, jaike bearra daukagu euskotarrok eta baita kateak eten bearra be bai baño ¿nola trebeen eta iñork uka ezindako jokabidez ta edonork gizazazunez edo zintzotasunez lagundu al izateko jokabidez al gengike ori?.

Auxe bai dala alkarganatzeko ta indarbarritzeko erabagi bearreko auzia gure tartean.

## Ezer eten eta apurtzea baño zaillagoa da iraunkor eginarazotea

Tarteren baten aske izatera eldu al izan diranak asko.izan oi dira naiz ta aske iraun oi dabenak oso gutzi. Lenago eta orain emen eta kanpoan. Burrukarako alkartzea erretzagua izan oi dabizikera kutsu barritan egosi ta iraunkor egin al izateko baño.

Gure lurralde onetan berton ikusi izan gogu bein baño geiagotan ekinaldi baterako alkartu ta batu izan diranak ekiñaldiok iraunkor izan bear dabenean laster nekatu, aspertu ta banandu

izan oi dirala gizonak. Naiz gerratean naiz baketan. Ni ezer gutxi dutelako naiz ezer asko dutelako. Naiz jakintzu dirudi naiz ezjakintzu. Oso kaskarrak gera orretan gizakiok. Ameslari aundiak baña egile erkiñak.

Batigu gure lurralde onetan lanerako, irakasketa ta giza-eziketarako edozenbait egitarau aldaketa aundiak dakarkezanak ondoren. ¿Baña zenbat eta zenbat ditugu tartean beti eskuartean daramaguna baño iñork ames egin edo zirikatua al dagiguna ohea izango ete litzakensitsetan indargetzen ixillik baña penagarriz?,

Kultura-arlo la lankidegoetan ditugu gure erria indarbarritzeko olarririk egokiebak, sakonenak. Opor aldi ondoren dagogiogun iñoz baño trebe ta tinkoago gure egingoari marmar eta utsalke ruak uxatuz eta iñois baño sakonago iraunez ekindako sailletan. Bakoitzak berenez eta askatasunean sortuarazotako jokabidez jarrituz gogotsu iñorentzako be sasi-kide izateke, argi ta egi zale baño.

Geuk moldatu bearrekoa izan bear dau gure Erriak eta ez zeintzuk eta zelako gurasoak moldati gagikeen jakin ezindako sasi-kumea.

## Erri-minez. Iraila 1975

Ez da gure Errialde au bertan bi bear genduanok lurrari berez jario dagion onsasunez oparo bizi al izateko egiña. Baditugu bai mundu zabalean ainbat baster gure lurralde au baño oparagoak eta emen gure errialde onetan baño gutxiago bizi diranak, batez be emen egin oi dogun baño lan eta neke gutxiagoaz nasaiago bizi al liteken alderdiak.

Askatasunen "Gora" oiu dagikuneko ez bekigu gure errialde au sapustu ta beartsupetu gure errialde onen eta bertan bizi garanon etorkizunaren jatorri ta oñarria zer izan dan ixilpetu ta jokabide barriak oneraziz gure errialde onein etorkizuna eratutzen nork eta nola lagundu al izango digun aztertzeke.

Leenago iruditu be ezindako aldakuntzak ditugu orain beste errialde batzuetan. Errialde ortakoak iñoiz be ikasi ta ererazi ezindako aldaketen bidez aldi laburrean errialdeok buruak jaso ta oraintsu ezjakin eta txiro edo arloteak ziranok aberats eta jauntxo agertzen ari zaiguz. Batzuek "petróleo" dala ta beste batzuek "miñeralak eta miñak" dituztelako aldi laburrean "pauntxoki" te etxekotar lagun bezela onartzen dituzte errialderik aurreratuenak be.

Ez degu pentsatu bear errialdeak buruak-jaso edo makurtu bearrean idoro legikezala beran-bereiz onartu ta egindako iraultza bidez ta indarrez. Gu geure errialde onen alde iraultza-miñez ta indarkeriz gabiltzanetan, ez bekigu aaztu izan legikela beste arrialdeetakoen jokabidez eta aldakuntzaz larri bizi izan bearrean idorotea geure buruak.

Adi izan gadizan zeren bidez eta nortzuen laguntzaz naiz gora ta bera egin genezaken errialde onetan bizi geranok. Erri-miñez eta askatasun egarriz dabilzakezanak ez dute uste izan bear iñoiz baño oraingoz obeto azertu bearrekoak diraka ta ondo baño obeto neurrerazi bearrekoak gure jokabideak, gure gizarte-matxinada ta arazoak.

## Lan eta salerosketa bidez

etorkizun gozatsua beste errialdeekin artumonetan bizi bearra guretzako iñorentzako baño bearrekoago da.

Jaki utsetarako bear doguna ezin ornidu al gengike gure lurretako onuraz ta produtoagaz euneko ogei edo ogeitamar baño geiago. Beste aldetik gure lantegietako produziñoa saldu bearra daukagu ezer erosi ta izateko ta euneko ogei edo ogeitaamar gutxienez beste errialde batzuetan saldu bearra, ta ez gutxi industri arloetan gu baizen aurretatuak diran eta produziñorik asko iñori saldu bearrean diran errialdetan.

Langille ta saleroskari, bietara jokatu bearren gara ta salerosketari jokatu al izateko produziño ona, batez be geruago ta ohea eskeñi bearrean eta orrez gañera geruago ta merkeago. Auxe da gure istillua. Arroskoegi ezin izan genezake ta orain aberats dirudigunok laster txiro be izan genezakez.

Eusko-lurraldeetan orain aberatsen dirudienak. Bizkai ta Guipuzko Araba ta Naparru baño txiroagoak izanak dira ta eusko lurralde gutzian be bai Ego-aldeko ta Mendebal aldean erri aberatsak ziranean. Beruzka ez gadizan asi beraka ekin ezkeror laster eta aldiz baño aldiz lasterrago jausi oi da ta. Badirudi goiak artu ditugula ta gora baño beraka egiteko arrisku aundiagoa daukagula.

Aberats gutziak porrot egin gutenik ez dogu uste baño bai aberatsik askok larriago ta estuago bizi izan bearra izango dabela belarri ta adindun geienak edozein erri ta lurraldetan be "arabear eta petroleodunak" ikasi dabena ikusi ta oneraziko diguetena uste dogu.

## Arrokeri gabe ta trebe

Ezin ukatu dagikegu gure lurralde onetan geure buruak aberastzat lasterregi onerazi ditugunik. Lanik ezaigu palta ta ogibiderik be ez, baño lanik neletsuenak kanpotarrak egiten dizkigute. Au be egia da. Leenago nekazari ta baserritarrak eta oraintsuago nekazari ta baserritarrak eurak be baso ta piñadi lanetarako ez dira naiko portuges eta argeldarrak taldeka dabillaguz vure mendietan. Gure uri ta kaleetako ta baita lantegietako lanik astun, zikin eta neketsueneratako askotan ari dira langille billa bertatukoan artean orretarako gutxi gertu diranez.

Ez diñogu ori ondo ez danik edo bakoitzat bere buruaren alde al dagikeria egin bear ez duanik, baizik giro ta kutsu barritan bizi izaten ari gerala baño.

## Iraultza ta aldaketak

Giza aldaketa batzuetarako iraultza gogotan ari geran artean eta giza-aldaketa orreik aurrerapidetzeko ta indartzeko arduratan diardugun aldiotan kontuan artu bearreko ta gure etorkizunerako garrantzi aundia daukaten beste aldaketarik asko bidean ditugu ta baita gure izakera ta giza-egokera arroskoaren azpi-janean ditugu iñor uka eta ito ezindako aldaketok.

Aintzakotzat artu ez dogun iraultza-bidez jatorkuzan aldaketok zeintzuk diran aztertzeak on egingo digu zalapartaka "erremedio-billa ekin ez dagoigun "erremediorik" ez duten aldaketa orreitan. Izan lezaketan "erremedio" bakarra ez da besterik gure egoera ta izakeraren oñarri ta sustarrak zeintzuk izan diran aztertu ta gure lurralde au zeren-bidez ornidu ta jaso dogun eta zaindu ta aurrerapidetsuago egin kontuan artu.

Uxatu bearra daukaguz kutsu batzuek eta giro barria sorrerazi bearra errialdeak gaurkoz eta aurreruntz tinko jarrai al izateko zein jokabide izan bear duten erabagi ta ekintzaz jaubetuz. Iñork ez digu duan ezer opa izango eta edozein beste errialdek aurea artu dagikegu. Gure industri ta nekezaritza ta sebitzuak danak bear dute indar barri baten bultzakadaz trebeagotu.

Ondo dago giza-aldaketa batzuek sorrerazteko alkartzea baña mundu zabalean eta gure artean be zirikusi aundia daukaten ikasketa, teknika eta erriakdeen artuemonetan zur izanaz eta orretarako sasoiz erabagiak onartuaz. Gur bear dogun gaurkotze ta barriketatzea jolasetan ez dogu lortuko ekintza barrietan oñarrituz baño. Orretarako gazte ta zaarrok, nekazari ta langille, ikasle ta irakaste, eskuartetsuago edo zerbaiten trebeago geran guztiok egin bearreko iraultza bear dogu eta ekindakoari aspertzeke jarrai. Edozetarako batu ta ez sakabanatu. Zitalkeriak ito ta anaitasuna zabal, eskuz-esku ta ez topeka alkarri bata besteakin argi ta garbi jokatur. Auxe da gure arteko egiunerik beartsuena.



## Askatasuna ta alkartasuna. Azaroa 1975

Aldaketak poztu egin bear gaituzte izatez aldakorrak geranez eta orrez gañera obeto bizi al izateko aldaketari izan bear aundiagoa dogunez ikusmirezale izatea baño.

Iñoren eta iñungo otseinpean bizi izatea zer dan ondo dakugunez ikasi bearrekoa auxe da. Alkartasunean indartsu ta aurrerapidetsu nola jokatu amesgarri dan neurrian geure izakera ta bizimoduaren eskabideai ondo erantzun al izateko. Alkartasunak txalo asko izan oi ditu ezer eziñean eta askatasun gabe gizakiok izan oi geranean, baño ezinuka dazaguna da askatasun-miñetan alkartasun girorik asko ito izan oi dirala.

Askatasuna bear-bearrekoa dugu gizakiok gizatasunez bizi al izateko baño baita alkartasuna be gure artean indartsuak indargeak menperatu ezin dezakezan.

Euzkadi'n agerrerazi bear doguna ezer izan dagikenik sendoen eta eri bezela gure ezagungarri izan bearrezkoa askatasuna ta alkartasuna buztarri bat egitea da. Buztarri orren bidez izan genezake indartsu eta edonun eta edoseiñen artean ongarritsu ta onartuak.

Buztarri ori beste ezertan baño egokiago gure izakerari ta etorkizunari jagokonezko egiñeraziko dogu lanean eta lanerako zar eta gazte, ogirik bear dogun guztiok ekanduaz. Aurrera egin al izateko ta geure buruak tente ta tinko edonun agerrarazitseko lana da gure eskuarte. Guk ez daukagu erri bezela iñori ezer kendu bearrik, iñungo ezeren egarriz bizi bearrik lanerako egiñak eta lanaren bidez gizakipi jagokun erri ta aberria egiten dakigunez.

## Ekin eta jarrai

Beste gizatasun giro bat zorrerazi bear dogunez, leendik egindako arlo ta sailak aurrera eron bear ditugu, batez be erakunde orrein bidez mundo guztian ager genezakenez egunean baño egunean artu-emon aipagarriagoak izanez ogibiderik iñori be palta ez dagigun eta gure Erria naiz ta lurrez zabala ez izan gure erritarral edonun onartuak izan dagikezan.

Politikakeriz banandu ta sakabanatzeko arriskurik izan ez dagigun gure artean lanbidez eta aurrerapidetan tinko iraun dagigun bearrekoa da alderdikeriz gain lankide ta aberkide sutsuago ta indartsuago izan gaitezana.

Iñoiz izan dogun permiñarik aundiagoa daukagu alkartasun-buztarri pean jokatuz aldaketarik sakon eta onuragarrienak aurrera eramateko Euzkadi'ren onerako. Ez dogu esan nai beste egitekorik ez danik eta bestelako saio gustiak gutxi inporta dabenik be erriaren onerako, alderdikeriz tinkotu baño auldu geiago egiteko arriskua izango dogula baño gure artean munduko errialde geienak euren buruak jasotzen eta euren buruen jaube egiñaz sustartzen ari diranean.

Aurrera beti ta gora naiz ta aberatsak izan ez edo naiz ta beste batzuek baño ugariagoak be ez. Edozein baño alkartsuago jokatueko izanez gutxik geiagorik egin al izango digute.

Urteotan giro larritan bizi bearra izan dogu baña geure artean giro barririk bes iñork ez digu sortuaraziko geuk alkarrenganako begirapenez izan ezik. Indarkeri ta odolik ez dogu bear eta geure askatasuna sustartu bear dogu geure erriaren izateari munari jagokonez.

Iñoren promesa ta ingu edo auzokoen esanetara baño geure eusko-gogoaren eta izatearen eskabideetarako trebeagoak izan bear dogu. Demokrazi miñez ta jokabidez geure artean arazo guztietarako eraturik munduan iñork ez digu aterik utsiko ta gure erriko gisaki ta lanak be onartuko dizkigute.

## Aurrera tinko eta trebe, alkartasunean. Abendua 1975

Eusko-lurraldea, Euzkadi, ez da zabala eta berez oparoa. Berton jaio edo lan egiten dogun guztion artean narokitzen eta edertzen diardugu danontzako bizileku baketsu eta amesgarri izan dakigun.

Askatasun-izpien zain gagozan arte giro barririk berez edo batez be izakera gizatsuagoak ernarazi ta landu dagiguzan zer komeni zaigun argi ta garbi adierazo bearra daukagu. Epelkeri, koipekeri eta ederkeri edo azalkeri gabe diñogu diñoguna.

Aldaketarik asko bear dogu sail guztietan eta aldaketa orreik oñarritzeko eta onuratsu biurrarazteko taldekeri gabe alkartasunean erosotu bearco ditugu.

Jokabide barrien alde eta aldaketa-izpitan korapillo batzuek desegiteko eta gizabide zabalak erasoteko laguntzarik asko bearco dugunez onerazten ditugu elburu orretara garoakeguzan dei eta kide guztiak.

Goiz-Argi aldizkariaren Deia, 75-XI-29 eginkakoa Lan Kide onetaz onerazi eta albizte ontzat artzen dogu geure biotz-barnetan be orixe sentitzen dogu ta.

Bein baño geiagotan esan izan dugunez Lana da odol-utsa baizen gizaki bertakotzen gaituana danok Euzkadi onetan eta bezte aldetik beste errialdeetan bertagotu izan oi gaituana. Era askotatako lana, kultura arloetan jatorrizkoz gain iñorenak geurekotezko be bear izan doguna, buruz eta eskuz egin oi dan lana, lurraldeak eta biotzak be sakonki biziberritu izan oi dituana.

Gure alkartasunaren eta kutsuaren mamin mamiñeko dan lana eta lanak sortu izan oi duan kidetasuna izan bediz beti gure artean errikoitasunaren sustarrrik bizigarrien.

Egilleak berak ez ginduzan egin, sortu, iñor ez eban munduan ipiñi "paradisuko" edermaitale izateko baizik paradisu edo munduko edergille, langille, ereintzale ta jorrazaille izateko baño.

Onetan lanean diardugunon deiak jokabide eta izakera askori dogikionezkoak diranez Lan Kide onetan berton Korkostegi jaunaren izenpidez, Oñatiko Alkartearen eskuz agerrerezitako beste agiri bat be onartzen dogu gure eskuetara eldu dan moduan. Eskabide au be geurekutzen dogu eta danon jakingarri Lan Kide onetan damotsegu gure irakurletan lan kide guztiak.

Eleiz gizon eta agintariok be oneraziko al dute langille ta lanari jagokon omenez. Gure Gotzain eta Gotzaindi guztiari bialdu zaio dei au.

Baditugu bezte esan bearreko eta dei egin bearreko arazo batzuek be epelkerigirotan ito ez gadizan aurrera egin bearreko aldiotan edo iñork bere gogo ta kolkotik gure auzi eta gora berak erabagi eta gure izate eta etorkizunari jagokonez guk orretarako larri ta urduritasunik ez dogula "erregalatuko" deuskaguzala uste ez dagigun.

Ernai eta tinko geurea beste iñork baño len geuk eratu dagigun iñoren laguntzarik gutxi-esteke baña geure almen eta eskuarterik sekula motel izateke.

## Barriketan barriketarik asko

Ixiltzeak jarduteak baño indar aundiagoa izan dakikeala norbaitzuek uste dabe. Geuk be bai jardun eta jardun eta interesgarririk esan ez oi danean ixilik ixiltasunez obeto nabarmendu dagikez egoera batzuek.

Bai. Olaxe da izan be. Gaizki zerbait egitea ala ezer ez egitea zer izan legikegu onuragarriago?. Jakin bearrekoa da izan be au.

Zalapartaka eta oiuka utsean ezer gutxi oneraziko dogu. Lo-zorroan daudenak itzartu baña baita burrukalari ez zirnak zirikatu ta bulartsu be. Zein jokabide da egokiagoa nora zertara joan eta zelan ibilli ta joaten dagianerantzat?.

Korapikkorik ez duan auzirik ez dago. Egiteko erretzak diran egitekoak geienetan egiñak izan oi dira, baña baita egin barik daudenak zaillak eta larriak be askotan egin gabe daudelako eta ez beste ezer gaitik. Iñork egiten ekin ez diolako sarritan.

## Larri ala nagi

Industri tresnaten gure lurraldea ornidurik izango ez dogunik ez du iñork uste baña bai janariz, batez be geure lurraldeak narokitsu izan gengikezan janaritzan.

Baserriak usten edo gutxitzen ari dirala ta idoro oi ditugu batzuek larri ta arduratsu. Ez al litzake onuragarriagoa izango gure nekazariak atzeratu dabilzazala ta zirikatzen edo urduritzen geiago aleginduko bagiña guztiok?.

Ditugun baserriei lotuak nekazariak izateak baño ardura geiago eman bear izango luke nekazariok orrein atzeratuak ikusteak edo baita alkartasun kutsutan beste iñork baño geiago indartu bear lukeen nekazariok beti bakarti edo bakarregi gabiltzala ikusteak.

Bai edonork dagikuna da ibar eta lurralderik mamintsu eta onenak nekazaritzako industri-sail edo bizi-leku itzultzen ari gerala. Baña ez al da egia lurrak urez eta abonez ongarriru dagikezala eta baita gure erreka, ibai eta baster guztiak garbiagotu be bai?.

Barazkiak, esnea eta aragia be kanpotik ekarri bearra daukagu geuk geure arloetan landu eta lortu izanarren?. Iñoiz ez al gera jarri pentsatzen jolas-gizan, ginasi-bidez eta sendi edo fameli bakoitzeko ekonomi-larritasunik asko arinduz banaka edo taldeka lurraldeok landurik eta orretan lanean diardugunok egiten doguna zaintzeko zaintzale batzuek jarrita beste gabe. Ongarririk eta janaririk asko lortu gengikela?.

Aldaketa eta reboluziño aundietarako badirudi danok edo geienok gertu gaudela naiz iztilluak eskuratzeko eta geure buruai ukamenik asko opa izateko be, zergaitik ez dogu zerbait egitea pentsatu bear burgeskeri ustekoiaik alde batera utziaz gure lurralde au danon artean naiz bakoitzak gutxi al izan indarbarritzeko?.

## Eztabaidaka

Industri egokitasunik ez dutenak industri lanbide eta ogibideen egarriz eta beste batzuek industri-zikin eta atzeratuekin gogaituta lanbide ta ogibide eruangarri eta erasoagoen gogoz.

Gure erriak merezi duten antzeko industri arloak izango dituzte geroruntz. Gorengo mallako edo industri aurreratu ta garbiak nai badituzte ez dute aldorik galdu bear. Gertatu

bitez gazteak ikaskbidez, ekin dagioe nagusiak orretarako aurrerazketan iñondik dijoakiozenak orretarako bear luken beste eskuarte beti ez dute izango ta.

### Lantegiak murrizten

One emen zenbat bizilagun eta langille. Gipuzkoan gitxi-gorabera.

	Bizilagun	Langille
1970	606.000	270.000
1971	639.000	271.000
1972	650.000	265.000
1973	661.000	257.000

Langilleak gutxitu ta ken bearra dutenak geitu eta janaritza ugalmetetan dabiltzanak batez be indergetu eta urritu.

Iru edo lau urtez aurretik euneko 6 inguru ugaltzen ari giñan lan-eginbarretan eta ekonomi arazoetan eta geroztik euneko iru ta erdi eta aurtengo urte onetan jakin egin bearko genduke zer pasa dan.

### Piñadiak ala belar-zelaiak

Abono gabeko zelaik erdia baño ez omen du emoten. Aproba egin dutenak digutena auxe da.

Joan dan neguan egindako prueba da.

Berezko zelai bateri bear dan tamañan, bear dan sasoian eta bear dira, orduko abonoak bota izan zaioz neguan eta udabarrian. Lenengo bedar-ebai-aldean etareako 48.000 kilo emon zituan, Mayatz bigarreanean, Uztaillean, Julioan, 31.000 eta irugarreanean, Iraillean 16.000 kilo. Arrezkero ebagi danik ez da aintzat artzen, naiz eta aurtengo udaguen gozoaz ugari emonarren.

Zenbat balio izan dau zabaldutako abonoak?. Guztira izan dira klase batekoak 1.000 kilo eta bestekoak 250 kilo. Guztion balio 6.000 peseta. Eta bedar orrek zenbat balio izan dau?. Abonoari esker zelai orrek 50.000 kilo eman ditu abono gabekoak erdia emon izan oi dau. Egin dagigun bedar orrek kiloko bi errial balio dituala, naiz eta Otxandianon aurtan bedar-ondoak kiloko sei peseta egin dituanarren.

Eztabaida onean argigarri beste datorik asko be. Bizkai aldean orretan aspaldidanik ari dira arduratan, batez be piñadiak ala belar-zelaiak zein onuragarriago diran.

Nekazarien artean izakera eta egoera estu ta larririk ez danik ezin uka dagikegu baña bai danok geiago arduratu nola eratsozuago bizi izaten izan legikezan zer pentsa eta zer egin.

## Gazteok beti trebe. Urtarrilla 1976

Gaztedia eta gaztaroa oparoak dira, emankorrak, baña baita aldakor eta ondasun ondatzailleak be. Gaztedia urrelari eta itxuraz buruzagi dirudianarren arazorik asko burubiderik zikin eta lotzagarrienak dituztenak jokalaria eta iruzurtzale izan dagike. Lenago, orain eta geroago be gertatu al dageken jokabide onek okerrik asko damokekigu.

Gizadiaren eta gizatasunaren ongarrri gaztediaren zuzenbidez sorrerazi eta gure erri eta lantegietan izan oi ditugun gizarte-arazo baten baño geiagotan ez dakigun ahaztu aspaldi danetiko edesti ikaskizun au. Eta gazteok iñoren esanetara baño alkartasun laguntzaz ein genezakezan azterketeen erakutsietarako izan gadizan zintzoagoak.

Kooperatiba arlo eta jardunetan gazteak eta gaztaroak bestelako einkizunetan baño zerikusirik eta garrantzirik aundiago izan oi dabe. Iñork uka ezindakoa da diñoguna. Eta edonork dakiana da bakarti eta zalapartaka be iñoiz ezer ezin erabagi eta aurrera eroan izan dala egintza orreitan.

Gure jokabidea eta oiua auxe izan da beti: gazteok beti zur eta trebe eta ez gazteok beti zoro eta orretarako ikasarin eta aizetsu eta aldakor. Kooperatiba arloetan gazte eta sasoiko ez da izan alkarren arteko burrukarik, iñork iñon ez dau zapaldu eta baztertu be alkartasun giro gozotan gazteak elduarazi eta nagusi eta zaaragoak berbarriztu edo gaztearotu.

Eztabaida eta azterketak kooperatiba arazoetan beti bizi bizi izan oi dira baña batzuek besteak menderatzen barik danak alkar jakintsuago eta indartsuago egiteko. Erabakirik asko artu bearra izan oi da elkarteak aurrerapidetzeko baña orretarako serbitu al dakikegun erabagiak ezin izan oi dira zalapartaka eta eratzupen gabe onerazitakoak. Beti trebe baña iñoiz be ez zoroki.

## Mallaka-mallaka

Aspertzeke jokatuz menderatu bearrekoak izan oi dira gizarte-arazorik asko eta asko: aldatz-gora eta zama astunekin laisterka ekitea edo indarketaz lertzea bata eta beste biak dira jokabide kaltegarriak.

Ogibide barriak edo lanbide ugariagoak eratu al izatea beste ezer baño egitekorik larri, latz eta korapillotsuena da. Edonork orretan piska bat pentsatu eta azterketatxo bat egitea ez al da naiko argi ta garbi kontuan jausi sakiken zeñen egitekorik biurriena dan ori?.

Egunotan izparlariak zabalduetako izparra da: España'n bost milloi emakume bizi omen dira etxeko-lanetatik kanpora lan egin dezaketanak. Baña jakinarazo bearreko zerbait geiago be badago. Etxeko zeregiñetaz aparte irabazpide duten emakumeak euneko 13 omen dira gure artean eta 29 eta 31 Prantzi eta Alemania'n. Italia'n bertan be euneko ogeikoren bat. España'n 20'tk 65'tara artekoetan irutik batek bakarrik lan egin eta irabazpiderik omen du etxeko-andrakozatik aparte.

An eta emen gizonen kontura erosi bearreko soñeko edo jantzi edo pitxiak ez dira bardiñak, emakumeak edergarritzeko eta ezta gizonezkoek emakumeen lanaren kontura oparo gure txokoetan bizi al izateko be.

Ez da txantxetaua sail onetan be egin bearrekoa dagon eginkizuna.

Gure errialdeok aurrera joan dagikezan nork edo nortzuek eratu al izango dizkigute lanbide barriok?. Iñor aizetu orduko aizaketan gabiltzanok ba al dakiguz nola eratu jokabide eta irtepidetako barriok gure artean gizonezko eta emakumeak be izan dagiguzan irabazpide barriak bakoitza bere buruaren jabe izan al dagiken?.

Irakasbide eta ikaskizun oneik bearrekoak ditu gure erriak beste ezer baño lasterrago eta geiago baña onelako irakaskizunetarako irakasle edo maizurik gutxi ditugula dirudi.

## Argibide piska bat

Aspalditxo arduratu ziran Arrasate'ko emakumeak etxeko lanak eta beste irabazpideak nola buztartu zekizkian aztertu nairik. Arrasaten antxinati oituak izan dira emakumezkoak lantegietan lan egiten, naiz opiziña naiz makiñetan. Baña beste aldetik be Arrasatetarrak etxaldeak jasoak izaten oituak dira, etxeetan gozotasun eta kabi-berotasuna izaten be bai. Iñoren otsein izatea zeñen larria dan dakitenak ezin erabaki al zekien etxaldeetako egokitasuna eta kanpoko irabazpideen eraspeneak "servicio doméstico" dalakoaren bidez: orretarako batzuek "señora" izan bear zuten beste batzuek "criada" edo "chacha" ziralarik.

Zer asma ziguten eta zertan diardue Arrasateko emakumerik askok?.

Bada bai Arrasaten Elkarte bat oraindano zenbaterano garrantzia izan dagiken arrasatetar langille eta gañeko guztiz bear bestean aztertu eta oneretsi ezindakoa. Elkarte au Auzo-Lagun izenekoa da eta Auzo-Lagun onen eskuarte eta bidez 1975'gn 200 emakume, ezkonduak eta etxeetako zerein eta ardurapenak daroazanak egunean lau orduko lanagaz 30 milloi peseta irabazi omen dituzte otzein talderik mende izateke diru pillatxu baten kontura.

1976 gerako 250 lan egiteko asmotan ari dira 50 milloi irabazi al izatekotan.

Egiteko au ez da berez egitekoa buruauste eta erakunde ariz baño.

Iñork uste edo siñestu al dagike jokabide eta aurrerapide barri oneik iñundik orraztu eta eratuta ekarri al izango digutenik?

Ba ditugu bai Arrasaten bertan be aspaldidanik lanik gabe baño lanik edo lanbiderik erakundetzen ez dakitenak naiz eta emakumeen alde oi eta garraxi egin; baita badirudi uxatu eta zirikatatu izan oi dituzten launtzaleak be ezer gutxi dakitela.

## Sasikeria

Ixil-eskutuka bizi bearra izan dogunez edozertarako ixil-eskutukako bizikera edo jokabide orreik sasikeriari indar aundia emon diote. Sasi-maixu, sasi-zuzendari eta azpikeri eta narrastusenetan lotuak edo naaztuak gabiltzanok asko eta asko omen gara.

Langilleriak berenez eta beretik ba dau indarririk beste giza-taldeak baño sakonago eta trebeago jokatzeko gure Euzkadiren etorkizunaren alde. Gure erri maite onen arpegian eta izakeran Europa zabalean beste ezer baño edergarriago eta trebeago izango genduke askatasunean eratutako alkartasuna eta lanean eta lanaren bidez aritutako gure erri-tankera.

Sal-erosketaz eta merkatarien eskuz eta oñarriz baño langilleriaren trebetasunez eta egitez jasotako oparotasuna gizagarritsuagoa eta iraunkorragoa izango da erri aurrerapidetsuarentzako.

Sobietar langilleriaren jokabide eta irteperik ezin izan genduke gure Euskadi berezi eta txiki onetan, ezta Suizako merkatarien egokitasunik be baño bai gure artean iñon baño egokiago eta sakon eta bizikorako suspertu eta eratutako lankidegotzaren demokrazi eta piskortasuna.

Gure lanbidegotza gure lurralde oneitan bizi geran guztiok alkarbanatu eta dandantontzako izakera gizantsuagoaren oñarri izan bearrekoa da.

Gure artean giza-eziketa lan girotan eraturik langilletzaren bidez illarteraño gizatsu ta bardintsu bizi izateko izan bearrekoa da, alkartasun kutsu bizigarritan.

## Lan Kide Aurrezkiaren babesean

1976'garrenerako Egitaroa egin eta onerazi du Lan Kide Aurrezkiak.

Agiri argi eta irakurgarri eta ikasgarri onetan ikusi al izan dogunez 1976 be larria izango omen da baño gure alkartasuna zabalkor eta bizi-bizia izan dagikenez gure lurralde oneitan alkarturik diran kooperatibak aurrera egin dute.

1.126 lanbide barri sortuarazoteko inberziño aundiak ein bearra dago, baño inberziño orreik ornidu al izateko nola jokatu aztertu eta erabagita dago.

Arazo oneitaz laster izango dogu argibide zabal eta bereziagoa.

Gure partez zorionak Egitaro ori eratu dutenei eta betarazi bear dutenak ez dezatela nagikeri eta ezpainik be.



## Elkar bidean aurrera begira. Otsaila 1976

Alkartasun girotan eta alkartasun ariz beste ezer baño geiago oñarritu bearrezko eginkizuna lana izan da. Lana izan da eta ez izadia, ez beste ezer, gure erria mamitu duana eta gure lurralde oneitan bizi geran guztiontzat, bertako ta kanpotiko guztiontzat gozagarritu duana.

Baita lana eta lanpideak izan dira danok geien tartekotu eta gizarritsu al izan gaituana be; lan kutsutako giza-eziketak geintzuen buru ta biotzak biak batera gizamintzen diguz eta izadia bera be gozagarritzen digu.

Gure erriotan langilleria indartu, eskuartetsutu eta aurrerapidetsuteko leengo lanpideak bizi-berritu eta lanpide barriak sorrerazten urteotan ez da gutxi egin baña geiago egin bearra dago iñori ogibiderik palta ez dakion.

Lankidegotzak askatsun eta gizatasunari ez dagiokozan otsein eta morroitzak uxatuz askatasunerako giro sakon eta berria sortu digu.

Elkar-bideokin sorturiko askatasun eta nortasun miñez iza-aldaketa jokabide sakonaguen egarri biziz lantegi barrien bearra baizan barru-barruz, miñez, sentitzen degu gure Lurralde eta erri osoa beste jokabide batzuekin giza-erakunde aldaketa zabal eta mardulagoetarako mobitu bearra.

## Lanean gizagartitzeko

Edonork dakigunez lanean eta lanaren irtepeidez gizakiok geure buruak elduarazo bearra daukagu; auxe da lanak lenen eman bear digun frutua alkartasun kutsuz eta izakeraz gizadi osoan edo inguruan gizatasun eta giza-erakunde barriak sortuaz eta indartuz.

Kontuan artu dezagun gure langilleriari eta baita lankidegotzari zer gertatu dakion. Gizatasunean aurrera dijoanak bere inguruan egin eta aldatu bearreko arlorik asko ikusi eta aztertu oi ditu. Gizatasun alde piska bat egin oi danean geiago egin bearra uka eziñekoa izan oi da eta naiz eta asko egin gizatasun bide barrien alde asko be geiago egin bearra izaten da.

Urteotan gure erriotan gogo barri bat suspertu izan dan ezkerro zeñek baño zeñek geiago egin bearrean diardugu, bai umezaintza ikastola, jolastegi, osategi eta abar eta abar. Ume eta gazteen eziketa eta irakasketaz gain nagusien, lanen ari diranen edo lanean nekatu eta aspertutakoen alde be egin bear barriak agertzen zaiguz. Erraminta, makiña eta inbestigaziño arazoetan beste errialdetakoak atzera utzita eta zapaldu ez gindekezan naiko egin dogu ezin oneretsi dezakegu.

Eginkizun guzti oneitarako eskuarte beste iñork eta ezerk ez dagikegu sorrerazi lanak eta lanean ari diranen izan ezik. Zamaren-zamaz ez al ditugu itoko, auldu edo aspertuko guztiok. Zer egin bapo gagozala eta patxadaz bizi? Noiz arte izango genduke bizigarririk?.

## Erriaren izakera barriari erantzuteko

Gizatasun eta askatasun miñez sortzen ari diran eskabideak zabalak eta astunak dina. Gure erri osoak gertatu bearra sentitu bear du aurreruntz uka ezindako eskakizunei erantzun al izateko. Nola, lanean ari diranen gain zama aundiagoak toleztu edo pillatuta?. Lanean ez diranen lepotik ezer gutxi egin al izango dogu eta aspalditik dirutzak etxeratu al dagikezan amerikano ta kanpotarrik ez daukagu orretarako lagun egin al izango digutenik.

Ez daukagu beste irtepeiderik danok, naiz eta bakoitzak apurtxo bana, geiago eldu lanari, naiz eta bakoitzak bere burukeriak bere kostatase al izateko.

Baserri txukun eta jasorik asko genduzan oraintsu gure mendirik zabalenetan be lurrak ondo landu eta emonkor egiten zigutenak. Aspaldi nekazaririk asko lantegi barrietan oparago dagozanez eta naiko neke dutenez gure lurralderik asko sasi eta larrez beterik ikusten ditugu. Gure erriak bear ditun jakiak geien geienak iñundik erosi eta ekarri bear ditugu naiz eta gure inguruetako basterretan jaki orreik landu edo artu al izateko beste ezer palta ezarren egunean alditxo bat bederen ortulari edo nekazaritza piska bat egitea.

Nekazari taldeak baserrietan aspertu dirala eta beste gabe ez dogu uste izan bear gura lurralde oneik landu, erosutu eta narotutzeko jokabiderik ez degunik. Ez al diñogu era guztietako lana egokia dela gizakiok gizagarritzeko eta gizakiok alkarri laguntzeko eta askatasun eta gizatasuna giro barritan erri guztia eratu al izateko?.

Erreka garbiak, bide zabalak, uri politikak, ikastetxe barriak, osasuntegi jasoak, lurralde txukun eta emonkorra, izaerabarri guzti onein egarritan daudenok giza-jokabide barriak aurrera eruateko gertu bearra degu.

Orretarako erri osoa mobitu bearra dago eta erri-astinketa ori bultzatu bearren gara Lankidetzagoa ari geranok langille guztien izenean eta onerako.

## Gure iraultza

Euskotarrok geuk eta batez be langilleok aurrerapide miñez ekin eta aurrera eruan bearrezkoa da geure laguntzaz oñarritzen ditugun eziketa, ikasketa eta abar egin ditzala gure gaztediak giza-aldaketa barriotan sakonago eta trebeago parte arturik eginkera. Ikasleak orduren batzuetan lan dagiela lanpiderik baten. Lanpide barri orreik sortuarazoteko ezin palta izan dagike bestelako langintzarako palta izan ez dan laguntzarik alkartasun eskakizunez. Gure euskotasun eta abertzaletasunak ezaugarri barriak bear ditu eta jokabide barrieta bultzatu bear gaitue.

Aurrerapiderik agiri ez duten lurralde eta basterren jabe baster orreik landu eta jaso al izango dituenak egin dezaten gure Lan Kide Aurrezkiak be eskurik iñori ez dio ukatuko, naiz orretan ikasleak naiz langilleak ekiten dioten ikasketarik galdu gabe edo beste batzuek beste lanbide edo lan-saririk galtzeke. Pozberritu eta saritu bearrezkoa gure erri osoa edergarritzeko serbitu dagikegun lana izan bear du. Lurralde estuan bizi dan erriak lenen egin bearrezkoa lurralde ori alik ondoen lantzea da.

Lanean eta lanaren bidez zetorkigula gure nortasun eta askatasunaren oñarririk sendoenak onerizten dogunok jana erosotu bear dogu batzuek lorak jorratu eta azitzeko, beste batzuek ollandak zaintzeko eta baratzak barazki gozoz jantzi al izateko; sasiak eta larrak kentzeko edozeiñek daki jakin bearrezkoa eta oraingoz jantzi gabe deuenak nola landu eta ornitu be ikasgarri eta ikasbearrezkoa da.

Gure erriotako ume, gazte, emakume, zerbait egin al dagikeen guztiak Lan Kide izango gera gure langilleri guztiaren pozgarri eta giza-lagun gure erri maitearen askatasun eta nortasun izpi barriakin mundu zabalean ikusi eta ezagutu izan al gengikeguzan. Auxe da Lan Kide Aurrezkiaren egun-abar barri gizatsua.

## Beso eta biotz biak bat. Martxo 1976

Euskadi herri txiki, lurralde estu eta aberri ugaldekorra da. Izadiak eder egin ginduzan baña lanak egin gaitu bizigarri. Alkartasunak eta batasunak naiz eta txikiak izan indartsu eta aipagarri egiten gaitu, etxean eta erbestean, alkarrengana zintzo eta edonontzako errespetutsu geranez.

Herri haundi eta zabalagoen artean iñork ez ginduke gutxieretziko begirapen, askatasun eta lagunkide bezela ikusten bagaituzte. Guk gure Aberria jasoteko, liraintzeko eta bizigarritzeko ez daukagu iñor zapaldu edo otsenpetu beharrik eta naiko zeregin daukagu lurralde au garbitzen, jorratzen edo landutzen danontzako txukunagoa, probetxugarriagoa eta maitagarriagoa izan dakigun. Kale eta uri barriztuak, ibar, mendi eta ibai garbiak, lurralde zabala ez dogun arren badaukagu nun ekin eta jarrai landuten, azi eta abono zabaltzen, loraz edo zugatzez jantziten, sasiak eta larrak besterik agiri ez diran basterretan. Lotsatu egin behar genduke etxetxuetan, bakoitzak bere etxe-zulorako ainbat apaingarri eta inguruak abandono utsean, ezertarako-be zerbitzen ez dutela-ikusita.

Aberri egunak zalapartatsu ospatu, ainbat abertzeletasun oiu egin eta gero ainbat lurralde eta baster ikusten diran bai zen zatar ikusita lotsatu egin behar genduke. Ez lotsatu, baizik ekin eta jarrai. Geurea, danona, danon artean edergarritzen, noiz eta nork ezer ordainduko ete digun zain izateke.

Gure Aberri egunaren ospakizuna Iruña'n ez degu agerrerazi bakarrik, baster eta toki guztietan baño eta danonartean. Gure lurraldea estua dalako eta zabala ez dalako beste iñungo lurralderik baño jantziago, loratuago, garbiago eta probetxugarriago egiten agerrerazi behar dogu danok gure aberrimiña. Barriketak ez lanak baño jaso al izango dau gure aberria. Euzkadin lanean zintzo diardogun guztiok alkar onhartu behar dogu aberkide bezela eta alkarrekin jarrai beti aurrera eta goraka.

## XX'gn. Urteurrena

Aparillaren 14'n izan be Ulgor'n lenengo lantegia egiten hasi zala 20gn urteurrena arratsaldeko ordubietan Lasarte eritxon soloetan bertoko langilleak oporketa edo greba hasi zuten ordu-orduan. Ez al da egia?. Uzte degu Ormaetxea eta Umerez Elorza'ren etxegiñen arduradunari ez zaiotela aztuko. Ezta beste batzuei be.

Ospatzen jarraitzeko ospaketarik jatorrena "beti aurrera" egitea eta Ulgor'en Lankideak orixe egin dute gaurano. Zorionak!.

## Entzundakoak eta aintzat artu bearrekoak

Esan lezake odola bakarrik ez baita, pentsakera be bai, beriala bur-bur irakiten jartzen zaigula aspaldi askori itxu-mustuan aruntz eta onuntz ibilli bearrean jarriaz geienok, edo asko ta asko.

Aldi larrian bizi geralako beste ezer baño palta aundiagoa egiten diguna entzun edo ikusi oi ditugunak sakonako aztertzea da zalapartadan ezer egiteke.

Naiz jolastokietan naiz ikasteetxeetan eta edonun be egunean baño egunean musika edo zoñu eta jardunik aipagarriagoak izango ditugu. Ez dogu uste danok batera dantzan ekiteko edo danok iñoren esanetara jartzeko izan bear dutenik, Bakoitzak jakin bear du noiz eta norekin dantzan egin bear duan eta noiz eta nortzuekin burua bat egin legikean.

Sindikato eta Politika Alderdi bakoitzakin zer egin gengikean edo nola jokatu bear genduken aztertzen ikasi bear dogu. Eta orrez gain, baita alkarren artean alkarrekin aztertu eta erabakiak artu be bai, sasoiz alkar atzipetu ez dagigun eta beti alkarri alkarrekin ekindako sailletan lagundu al dagiokegun.

Badakigu bai orain eta lenago be dirua poltsikoan dutenak gutxi bear dutela buruan alkartasunari iges egiteko edo irri egiteko be. Gure arteko gazterik askok ez al omen dute elgorri hau, egonezin edo arduri dakikezan aize eta eskuarte geiegi bakoitzari izerdi geiegi kosta izateke?.

Beste aldetik baita izan legike bakoitzak leendik dituan eskuarte edo eskubideeri geiegi lotuak izatea eta egin bear liraken gizaaldaketak eragozteka be.

Norbaitek aspaldi esan omen zuan anarkia-bideratzen ginduzana batzuek ezindakoa iñori eskatzea eta beste batzuek aldatu bearrekoa aldakaitz egiñarazoten alegintzea besterik ezala.

Astirik gabe, alegiñik iñork egiteke aurrerapiderik ez dugu urratuko. Sindikatuak, Alderdiak eta Kooperatibak, danak bear ditugu eta ber-barrituak bejortiguz, baña bakoitzak ikasi dagigun aurrez edo alik ondoen zein zertarako edo nolakoa zertarako bear ditugun.

Soil-soik ekinko diogu giza-erakunde eta izakera barriotan kooperatibar edo bistanle guztiok nola egoki jokatu al geungiken aztertzen.

## Kooperatiba eta alderdiak

Kooperatiba eta Alderdien artean naitanaiezkoak dira artuemanak naiz eta bakoitzak bere gisara jokatu al izateko be. Iñork uka ezindakoa da kooperatibatar zintzoa izateko ez dagola politika arazoei iges egin bearrik eta politika-arazoei iges egin bearrik eta politika-arazoetan Alderdiak izan oi dira jokabide bereziak eratu eta aurrerapidetu al dagikezan elkarteak.

Kooperatiban alkartasunean bizi diranak alkartasuna jagokonik ukatzeke bakoitzak izan dakigez bere artuemanak Alderdiekin bakoitzaren kontzientziari ondo derizkioneekin. Aztertu

eta egin bearrekoa izango litzake bakoitzarentzat eta danontzako kooperatibetan kooperati elkarteari emondako itzak edo elkarte orretan oneritziko erabagirik norberak, bakoitzak bere buruz eta egitez bere kolkotik eta jokabidez eragozte edo konprometitu ezin legiken neurrian iñor konprometitzea. Kooperatibako arau eta erabagiei zor zaiotena onartuz eta errespetatuz arazoak erabakitzen ikasi bear degu guztiok.

Edonok dakiana da Alderdietan eztabaidarik asko eta alkar-ikusirik ugari sorrerazi oi dana. Alaz eta guzti be Alderkiak bear-bearrekoak dirake. Kooperatibetako arazoak eta egin bearrak aintzat izanez beti beste arazo eta aginbearretan parte artzen ikasi bearrean gaude geienok naiz eta lenago olako ardurarik izaten oituak izan ezarren.

Txoper izaten be ez al dogu geienok ikasten oñez ibilli bearra izanarren?. Kooperatiben izenean eta kooperatiben erantzupenikin zer ikusirik legikeneetan zur eta trebe jokatu bear dogu "etxekalte" alderdiok izan ez dagikeguzan "Etxealde" izan al dagikeguzan be aztertu bearrekoak izan dagikez artuemon batzuek.

## Kooperatiba eta Sindikatuak

Kooperatiben eta Sindikatoen egin bear eta arloetan artuemon aundi eta zabalakoak izan legikez Ekonomi aldetik, gure erri eta erriok aurrerapidetseko ditugun oñarri bikoitza, lurralde izadiak daramazkuna, eta lana eta lanaren eskuz indarbarritu bearreko ekonomi ditugunez eskuarte eta jokabiderik ongarrienak danontzako.

Baña Sindikatu eta Kooperatiben artean baditugu iñor uka ezindako bereizkeriak, Lenengo Sindikatuak ugazaba indartsuagoekin langilleak trebeago eta indartsuago jokatu al izateko sortuak dira eta eginbear orreri erantzun bear dizkiote; langillen lan-sari eta baldintzak kapitaldunekin erasutuaz.

Kooperatibetan ez dute ugazabarik ugazaba be langilleak eurak eurenez dirakenez; orretarako kooperatibetan lan-saria iñoren erroetik ezin norbaratu legike, baizik norbere lan eta kapitaletik baño; kooperatibatarrak lan-utsaren bidez bizi bearra dutenarren lanaren onurak kapital biurtu dituzten ezkerro aldiko eta aurretiko lanaren onuraz bizi al izateko iñoren morroitzarik edo otsentzarik gabe langillea euren buruz eta erabagiz eratu bear dituzte lantegietako baldintza eta arau guztiak. Alkartasuna da kooperatibarren artean beste ezer baño aurrez eta lenago oneritzi bearrekoa; lenegotik lanean ari diranen arteko alkartasuna eta batasuna naiz eta batasun eta alkartasun orren eskabidez eta ariz beste lantegi eta langillen artekoa be aintzat artu bearroka izan.

Kooperatiba eta Sindikatuak artueman sakon eta onuratsuenak izan bear dituzte giza eta ekonomi egitura aldaketak egiñarazoteko.

Giza eta ekonomi aldatetei erantzuteko kooperatibak dituzten egiturak aurrerakoi eta aurreratuak diranez egitura, indartzen alegiñak egitea eta langilleak euren buruz iñoren bitartekotasun gabe giza eta ekonomi erakunde barriak eruan al ditezkeena oneritzi eta agerrerazi bear dute.

Ekonomi arazo eta egin bearretan sustarrak ez dituan demokrazia lur legoz eta ariñeal erein eta landutako landara edo zugatzaren antzekoa dirudi: itxuraz indartsuago izatez baño.

## Konturik asko eta ikasi bear batzuek. Maietza 1976

Gure kooperatiba alkartuen artean iru urtean lan-sari-ordezko irabazpideak bikundu egin dira eta lanbide barriak eusdekaz, millatik gora geitu. Ez da erritzekoa eta ezta gure erriotan bear genduken añakoa be baña lankideok geure gogoz eta jokabide eta arabagiz egin al izan doguna beti geiago egiteko gogoz eta asmoz. Orixe da gure bidea.

"Erabarritu ala eten", zer da lenen egitekoa galdezkaeta eztabaidaka dabiltz batzuek. Bardintsu beste batzuek antzera kapitala eta lana aotan dituztela. Guk bitartean eldu diogu lanari eta geure mende izan gengiken kapitalari be bai. Bien bitartez "eten eta araberritu biak batera egiten ari gera naiz eta gure gogoan dan bezain zabal eta indartzu oraindik ez diñardugun. Zabalago eta indartsuago egiteari ez diogu etsi baizik egunean baño egunean arabagitsuago eta indartsuago erantzun eta jarrai. Ez bat bitan bananduta baizik bananduak baturik eta alkarturik askatasun eta zuzentasunaren aurrerapiderako lankideon agindupean.

Esan eta argitaratu danez USA'n 0,13, euneko o 13 sendiren artean edo eskuetan ei dago euneko 35'ren jaubetza USA'n dituzten "acciones, bonos eta aurrezki tituloena". Estadu guztiko aberastasunak olaxe bananduta omen dagoz. Eta España'n ¿zelan?

Ona emen 1975'ri buruz argitaratu dana. Renta nacional española deritzanaren euneko 3, bai iru, euneko 13 biztanleen artean omen dago bananduta, baña beste euneko 1,22'ek euren jaubetzapean ei daukate errenta deritxon orren euneko 22,39.

Badegu bai bardintsuagoa eta zuzenagoak izan bearrik giza-erakunde barriak tajutu al izateko. ¿Onez eta bare-bare bake utsetan indar gabe iñork eratu al legikez desbardintasun orreik?. ¿Nola?. Era askotako edo materail askotako "bunkerrak." ditugu zabaldu edo apurtu bearrekoak.

## Badiduri bai

Norbaitek esan duanez "bonba atomikorik" bildugarrien errion artan edo laterren artean ostera be sortuko diran guda barrietarako auxe omen da: jana, jakiak. Gizadiak eta gizadian erri askok duten arriskurik aundieneko ostopo eta eragozpena luzaroko janik eza. Janak jan egin bear eta danontzako jakirik sortu eziña. Gure Euzkadi'n bizi geranontzako ¿zenbat denporarako edo zenbaterantzeko izan genezakez jakiak gure lur alde onetan?.

Makiñarik eta iñorentzako tresna edarrik asko egiten badiardogu baña geuretzako janariak ugaritzeko lurral onuratzen eta lantzen, zenbat alegin egiten ditugu?. Ba al dakigu gure lantegietan egiten ditugun tresna orreitatik zenbat iñora, kanpora eta kanpoki saldu bearra daukagun gose gorritan bizi ez gaitezen?.

Energia nuclear edo atomico dala eta ez dala edozenbait eztabaida eta zalapartada izan ditugu gure erriok kutsutu ez ditezan. Baña beste aldetik, zer egiten dogu gure lurralde oneik obetu landu eta emankorrako egiñarazo dagiguzan?.

Beste edonungo lurralde edo erritan baño gura artean argi eta trebe dabilzan laterriak kontuan arturik duten "bonba atomika" ori, gosearena, gurerako iñorentzako baño bildugarri eta kaltegarriena izango litzake. Nolakoa izan bear du gure aberrimiña eta zalatasuna, zertan eta nola eratu bearrekoa?. Nork erakutsi bearreko edo norengandik ikasi berrekoa da gure abertzaletasuna?.

## Agur

Gure Arrasaterko Politenikastegia'n Quevedo abizena aspaldidanik ezaguna da eta baita Quevedo sendi osoa be. Sendo onetako irakasle, ikasle eta baita Aministraziño lanean be ezagutu ditugu guraso eta semeak. Baña eldu zaio lanari opor egiteko ordua berton urterik gutxien naiz eta beintzat amar pasau zeramakian gurasoari, Quevedo zarrari. Egun ori eldu zaionen 65 urte beteratzeokan omenaldia egin zaio etxalte onetan zintzo, trebe eta arduratsu lan egin duan Quevedo Jaunari. 65 urte orreitatik 55 egin ditu lanean Valencia'n asi, Donostia'n eta azkenez 10 Arraste'n eta jubilatatu al izateko eskubiderik asko zuanez, erabagi orixe onartu zuanez, ondo merezia zuan gure omenaldi au be. Seme bi ditu ikasteki onetan irakasle.

Zabalegi irakasleak eskeñi zion omenaldia bertsoetan kantatuz. Ona emen gure Zabalegi bertsolari eta ingeniero gaztearen bertsoak.

*"Manolo maite, egun honetan*

*"bertsotan nahi dut kantatu*

*"agertutzeko danon biotzak*

*"zer dun sakonki sentitu.*

*"Zuere bizitzan filosofiak*

*"biziro arduratu gaitu.*

*"Horregatikan pakea eta*

*"atxegiña dizugu."*